



HAL
open science

Gizartea Jean Etxepareren idazlanetan: adabakiak

Aitor Ortiz de Pinedo

► **To cite this version:**

Aitor Ortiz de Pinedo. Gizartea Jean Etxepareren idazlanetan: adabakiak. Egan, 2019, 3/4, pp.123-148. artxibo-01986603

HAL Id: artxibo-01986603

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-01986603>

Submitted on 18 Jan 2019

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.


L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

EGAN



2018 - 3/4

EGAN



LITERATURA ALDIZKARIA
EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA



Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kultura Sailak
lagundutako aldizkaria

Idazkaritza eta harpidetzak:
Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak. Gipuzkoako Saila.
Peña y Goñi 5, 2. ezk. – 3.263 posta-kutxa – 20002 Donostia

Posta elektronikoak: egan.bascongada@gmail.com
comisiongipuzkoa@bascongada.e.telefonica.net

Webgunea: www.bascongada.eus

ISSN: 0422 - 7328. EGAN
Legezko Gordailua: S.S. 289/1958
Inprimategia: FASPRINT-IGARA -Donostia

EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA

EGAN Literatura aldizkaria



Erredakzio Kontseilua

Zuzendaria:

Koro Segurola Azkonobieta (EAE, Euskaltzaindia)

Erredakzio arduraduna:

Ana Gandara Sorarrain (UPV/EHU)

Iñaki Aldekoa Beitia (UPV/EHU)

Izaro Arroita Azkarate (UPV/EHU)

Beñat Sarasola Santamaria (UPV/EHU)

Joseba Sarrionandia Uribelarrea (Idazlea)

Juan Luis Zabala Artetxe (Idazlea, Itzultzailea)

Egan literatura aldizkaria da, eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak 1948. urtetik argitaratzen du. 1953. urtean hasi zen euskara hutsez argitaratzen, Antonio Arruek, Aingeru Irigaraik eta Koldo Mitxelenak aldizkariaren zuzendaritza hartu zutenean. Ordutik *Egan* euskara hutsezko aldizkaria da.

Posta elektronikoa: egan.bascongada@gmail.com

AURKEZPENA

Esku artean duzuna da, irakurle, *EGAN* aldizkariko aro berriko lehen-dabiziko ale akademikoa. Aldizkariaren historiari jarraituz, bi ardatzez osatua da. Batetik, literaturari buruzko ikerketen lerroa dugu, aro berrian soslai akademiko-zientifikoagoa eman nahi izan dioguna. Bigarrenik, genero ugariko sortze lanak ageri dira, puntako idazleen eskutik datozenak.

Literatur azterketei dagokienez, binakako ebaluazio sistema (*peer review* izenez ezaguna) ezarri dugu, eta honenbestez, nazioarteko ikerketa sistemaren egungo estandarretara moldatu gara. Haren barruan, baina, egungo panorama akademikoan ohikoak ez diren saiakera eiteko lanak ere argitaratzeko borondatea dugu. Testu mota horiek ibilbide luzeko ikerlarien emaitzak dira sarritan, erreferentziak gutxiago esplizitatzen dituztenak, eta beraz, aipu sistema era libreagoan darabiltenak. Egungo aldizkari akademikoen testuinguruan testu mota horiek bazterrerara geratzen ari direla jabeturik, haiei ere lekua egin nahi lieke *EGAN*ek, zehaztasun akademikoa mantenduz (binakako ebaluazio sistema). Molde horretako testuak ditugu, bada, ikerketa-artikuluen saileko lehenengo biak: Patxi Salaberriren “Iragana etorkizunerako abiapuntu (hiru oharño euskal klasikoen baliagarritasun soziolinguistikoaz)” eta Iñaki Aldekoaren “Ramon Saizarbitoria eta Joxe Azurmendirekin solasean”. Hortik aurrerako beste lau artikulua egungo estilo akademiko estandarrekoak ditugu, XX. mendeko eta XXI. mende hasierako euskal literaturari buruzkoak (Jean Etxepare, Ramon Saizarbitoria, Bernardo Atxaga eta Uxue Alberdiren obretan oinarriturik). Lehen atala erreseina batek ixten du, Gorka Merceroren *Mundu-ikuskerak euskal narratiba garaikidean: modernitatearen krisitik postidentitatearen promesera* liburuari buruzko iruzkinak, hain zuzen ere.

Bestetik, sortze lanak hiru ataletan banatu ditugu: poesia, narratiba eta itzulpenak. Poesiaren barnean ditugu Iñigo Astizen eta Angel Erroren “Akatsik egin ez dugula ziurtatzeko badaezpada bitan kontatu behar izan ditugun hemezortzi epigrama”, Itxaro Bordaren “Egoera Piroteknikoak” eta Jon Gerediagaren zortzi poemak. Narratiban, Miren Agur Meaberen bi narrazio ditugu: “Santuen Ugazaba” eta “Teselak”. Azkenik, bi itzulpen lanek osatzen dute estreinako ale hau: Ideia Vilariño eta Juana Fernandez Morales de Ibarbourou uruguaitar poeten itzulpenak, Ainara Maia Urroren eskutik, eta Francis Scott Fitzgerald-en “Nerbio krisia” testuaren itzulpena, Javi Cillero Goiriastuenak ondua.

AURKIBIDEA

2018 3/4

Patxi SALABERRI MUÑOA. Iragana etorkizunerako abiapuntu. (Hiru oharño euskal klasikoen baliagarritasun soziolinguistikoaz).....	9
Iñaki ALDEKOA. Ramon Saizarbitoria eta Joxe Azurmendirekin solasean	29
Iker LEGARRETA. Euskal nazionalismoa Ramon Saizarbitoriaren <i>Martutenen</i> . Iñaki Abaituaren eta Juliaren gogo-bihotzetan haztakatzen	49
Jon ITURREGI IKARAN. Metafikzioa eta memoria historikoaren elkarlana Bernardo Atxagaren <i>Soinujolearen semea</i>	77
Ainhoa URZELAI VICENTE. <i>Jenisjoplin</i> : identitatearen berrasmatzea	97
Aitor ORTIZ DE PINEDO. Gizartea Jean Etxepareren idazlanetan: adabakiak	123

LIBURU AIPAMENAK

Beñat SARASOLA. <i>Mundu-ikuskerak euskal narratiba garaikidean: modernitatearen krisitik postidentitatearen promesera</i> (Gorka Mercero)	149
--	-----

SORTZE LANAK

Poesia

Iñigo ASTIZ eta Angel ERRO. Akatsik egin ez dugula ziurtatzeko badaezpada bitan kontatu behar izan ditugun hemezortzi epigrama	155
Itxaro BORDA. Egoera Piroteknikoak	163
Jon GEREDIAGA. 8 poema	169

Narratiba

Miren Agur MEABE. Santuen Ugazaba	173
Miren Agur MEABE. Teselak	179

Itzulpenak

Ainara MAIA URROZ. Idea Vilariño eta Juana Fernandez Morales de Ibarbourou: Uruguako bi poeta	185
Javi CILLERO GOIRIASTUENA. Nerbio krisia (F. Scott Fitzgerald)	191
Idazlanak aurkezteko jarraibideak	211

**Iragana etorkizunerako abiapuntu
(Hiru oharño euskal klasikoen
baliagarritasun soziolinguistikoaz)**

*The past as a starting point for the future
(Three notes of the sociolinguistic utility
of the classic Basque authors)*

Patxi SALABERRI MUÑOA
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

*Gillermo Etxeberria lagunari,
esker onez*

Jasotze data: 2018.10.22. Onartze data: 2018.12.10

LABURPENA

Artikulu honek euskal literaturak eman dituen egile nagusien parametro soziolinguistikoen egungo baliagarritasunaz hausnartzea du xede.

Gako-hitzak: Euskal literatura, XVI-XVII. mendeak, egileak, irizpide soziolinguistikoak.

ABSTRACT

This paper aims to reflect on the current validity of the sociolinguistic parameters of the main classical authors of Basque literature.

Keywords: Basque literature, XVI-XVII centuries, writers, sociolinguistic criteria.

*Galdetu zitzaionean zein zen munduko gizakien ezau-
garri hedatuena, lurralde eta herri asko ikusiak eta
kontinente asko bisitatuak zituen bidaiari hark honela
erantzun zuen: alferkeriarako joera.*

0.- Goiko hitzok Axularrenak lirudiketen arren, ez dira harenak, Nietzsche filosofoak ehunduak baizik (1874: 1999, 35). Eta harrigarria bada ere, bat datoz gure apaiz katolikoa eta gure ateo unibertsala gizakien joerei dagokien diagnosi horretan. Gogoratu beharrik ez da urdazubiarrak gai hori bera hartu zuela *Gero* liburuaren ardatz eta bertako orrialde guztiak garatu zituela giza jokabidearen muinean hedatuen omen dagoen gaitz horren aurka. Alferkeria eta nagikeriaren kontra, alegia.

Idea hori izango dute lematzat ondoko lerrook ere, baina ez Axularrek eta ez Nietzschek kontsideratu zuten miratik begiratuta, hizkuntzaren esparruan alferkeriak ohi duen eraginarenetik baizik. Edo beste modu batez esanda, eta Axularren hitzak parafraseatuz: zenbat kalte egingen duen hizkuntzarekin “egin” behar dena orain eta hemen ez egiteak.

Horretarako, gure klasiko zaharrenek hizkuntzaren egoera nola ikusten zuten eta noraino diren baliagarri gaur egun haien ikuspuntuak landu nahi genituzke jarraian, ordukoak baitira egungo katramilen lehen hazi ezagunak: euskararen bazterketa, hura lantzen hasteko alferkeria, atomizazioa vs batzeko premia, etab. Izan ere, urte amaiera honetako mendeurren eta ekitaldiek marko ezin egokiagoa eskaintzen dute horretarako, pil-pilean aurkituko ditugun gaiak izango baitira, berdin Europako Hizkuntzen Egunaren kariatara, zein besterenetara, hala Eusko Ikaskuntzaren eta Euskaltzaindiaren mendeurrenean nola Euskara Batuen mende erdia, Euskaraldia, Euskararen Eguna Jatsuko Frantziskoren eguna ospatzean. Parada egokia, bada, gure autore zaharrenekin solasean aritzeko eta, hain preseski, mende oso baten erakusleihoa agerian uzten duten lauzpabost izen esanguratsuk idatzitako pasarteak hautatzeko eta haien mezu soziolinguistikoaz hausnartzeko.

Idazlanen interpretazioaren karietara, erantsi dezagun, azkenik, ez dela lan honen xedea aspaldi Hirsch-ek (1967) berezitatekoa (obren jatorrizko *zentzua* eta irakurketaren ondoriozko *esanahiak*) ezberdintzea eta kontrastatzea. Ondoko lerrootan bateratsu eramango dira, bada, batetik autoreek erdietsi eta gauzatu nahi izan bide zutena eta irakurleok gutxienez hautematera iritsi beharko ginatkeena, eta, bestetik, irakurle gisa aurki ditzakegun *esangurak*, autoreak proposatzen dituenetatik gutxiasko alden daitezkeenak. Bateratsu eramango, beraz, lur zelaia ez den arren.

1.- Etxepare dugu euskarazko lehen liburu inprimatuaren egilea eta euskararen erabilerari buruzko lehen konstatazio sakona utzi ziguna euskaraz¹:

Ceren bascoac baitira abil, animos eta gentil, eta hetan içan baita eta baita sciencia gucietan letratu handiric, *miraz nago*, iauna, *nola batere ezten assayatu bere lengoage propriaren favoretan heuscaraz cerbait obra equitara eta scributan imeitera*, ceren ladin publica mundu gucietara berce lengoagiac beçala hayn scribatzeco hon dela (1545, A2). [Gurea da letra etzana].

Euskaldunak gure hizkuntzarekin alferrak, nagiak izan garela esaten digu Etxeparek: orduan ere, eta idazteko batik bat, errazagoa ohi genuen frantsesa, latina edota gaztelera euskara baino, euskaldunak ere erdaraz alfabetatuak ziren, hizkuntza kodetuak ziren hegemoniko horiek eta “unibertsalak” omen, gurean tradizioz eza zegoen... Ohi bezala, mila motibo eta aitzakia euskaraz ez idazteko, eta ez bide ginen ohartzen –edo berdin zitzaigun?– horren ondorioez:

Eta causa honegatic guelditzen da *abataturik*, *eceyn reputacione vague*; eta berce *nacione oroc uste dute ecin deusere scriba dayteyela lengoage hartan* nola berce oroc baitute scribatzen beryan (*idem*).

Etxepare, bada, oso da kontzientea liburua idaztean egiten ari denaz: dagokien hizkuntzan idazteko gaitasuna azaldu duten beste “nazione oro”ren parera eraman nahi du euskal “nazionea” bera ere, euskal hizkuntza beste herri horietako guztiak bezain ona eta egokia dela erakutsiz. Homologazio-xede horren lekuko eta zitu zori dira, batik bat, B.

[1] Veneziaako enbaxadore A. Navagerok 1528an Euskal Herrian barrena egindako bidaiaz jasotako oharretan ere konstatazio bertsua agertzen da: Hegoaldeko euskaldunek (besteez ez du ezer eransten) euskara “non la scrivono; ma chi vuole scrivere, imparo *Castigliano*, ed in quella lingua scrivo” (1563: 1718, 395).

Leheteri zuzendutako gutuna, eta amaierako *Kontrapasa* eta *Sautrela* “ko-plak”.

Nabarmendu behar da, halere, euskararen aldeko ekimena baino gehiago –edo bezainbeste, bederen–, euskaldun gizataldearen aldekoa dela Etxeparek dagiena, gure idazleak, *avant la lettre* izan arren, gurean proposatutako lehen planteamendu soziolinguistiko eta plangintza-lerro xume bezain aratzak formulatzen baititu, diagnosia eta terapia barne. Hein batean, eta era apalean bada ere, Kloss-ek 1969an aurkeztu zuen eskema klasikoa (*corpus planning* eta *status planning*) gogorarazten du Etxeparerenak. Izan ere, ia erabat elebakarra zen gizarte hartan (alegia, galbidean zeuden hizkuntzen berreskurapenerako beranduago formula-tuko zen *acquisition planning*en premiarik ez zuen euskal gizatalde hartan), *corpus*aren egokitzapena automatikoki buru zitekeen, nolabait esateko, “zientzia guztietan” euskaraz idaztean eta idaztearekin, edo, bestelako hitzez adierazia nahiago bada, funtzio-esparru gorenak lantzean eta lantzearekin; eta ildo hartan, *statusari* zegokionez, era automatiko bertuan geratuko zitzaizkiola euskarari ziurtaturik funtzio sozial guztiak.

Esan bezala, ikusmira soziolinguistiko argia Etxeparerena, eta hizkuntz nagikeriaren aurkako lehen ekimen praktikoa, halaber.

Ekimen praktikoa, besteak beste, ahantzezinak diren beste hainbat gauza gehiago ere burutu zituelako sarasketarrak. Izatez, eta orain arte dakigunaren arabera bederen, letra idatzien aroa ireki zion euskarari, mintzatzeko baino erabiltzen ez zen hizkuntza hari idatzizko molde primitiboa –nola ez!– baina egokia eskainiz. Horrezaz gainera, paper inprimatua eta haren ingurune potentzialki indartsua ere ezagutarazi zizkion gure mintzairari eta, hizkuntza propioan alfabetatzen hasteko aukera erantsirik zihoakiola, baita euskaldunari berari ere.

Labur-zurrean, eta egungo terminologia erabiliz, esan genezake orduko teknologia berriena euskaldun gizataldearen hizkuntz eta kultur beharretara egokitzeko bidea erakutsi zuela Etxeparek saio hartan. Liburuaren “demokratizazioak” –prezioagatik, zabalkunde-erraztasunagatik, hizkuntza-aukeragatik, etab.– zekarren ahalmenaz ohartarazi zion sarasketarrak euskaldunari. Eta alaitasun eta baikortasun gaindiezinez ohartarazi, gainera.

Eta tonu berean estreinarazi zizkion euskarari hegatsa, tintontzia eta papera. Eta horretan ari zela, ezin eskertuzko opari eskerga eskaini zigun aldi berean gerokooi ere, berrogeita hamar bat orrialde oparitu baitzizki-

gun, guztiak elizgizon izateko bokaziorik gabeko edozein poetak ere berak sortuak nahi lituzkeen hamaika *kopla* zizelkaturik zituztenak, guztiguztiak, Etxeparek adierazi bezala, hizkuntzarekin jolas gintezen eta, bidenabar, hizkuntzarekin jolasten ere ikas genezan. Eta behingoz, mintzaira –gurea, geurea– gaitu, egokitu eta zeregin modernoetan eta modernoetarako ere balia genezan.

Horrela, Garaziko eskualdetik abiatuz, kalera, eta plazara, eta mendura, eta, areago, mundu guztira bideratu zuen betidaniko zokoratzetik atera gabe zegoen hizkuntza madarikatu hau-hura. Eta bide hartan abes-teko gonbita ere egin zion aberkideari, eta hausnartzeko eta solas egiteko gaiak papereratu. Eta bizitza den bezala hartzeko plater konbinatua –mikatz bezain goxoa eta alai– jarri zion/zigun begien aurrean. Eta hartara, batetik, bere burua adibidetzat jarritz, bidegabekeriaren ondorioak erakutsi zizkigun gogo lasaiarekin, eta, bestetik, bat bera ere anatemizatu gabe, maitasun eta amodioen basarteazaldu zigun gardenki.

Nolanahi ere, literalki idatzita egon ez arren, nabarmentzekoa da Etxeparek luzatu zigun mezurik gogoangarriena: geurea –hots, euskaldunona– baino ez da geure burua eta geure hizkuntza lantzearen, zaintzearen eta irauraztearen ardura eta, nola ez, baita haren etorkizunarena ere, eta alaitasunez jokatzarena, eta itxaropena ez galtzarena...

2.- Handik hamabost bat urtera, sinesmen kalbindarrean sartu berria zen **Leizarragak** ere ez bide zuen denbora alferkeriatan galtzeko. Albreteko Joana erreginak agindu bezain azkar heldu zion erlijio berria zabaldu ahal izateko funtsezko ziren liburuak euskaratzeko zeregin erraldoiari. Burutu ere, denbora gutxian burutu omen zuen euskaldun kalbinista guztien irakurgai bilakatu behar zen *Testamentu Berria* (1571).

Gogoan hartzen bada beren sinesmenaren hedapena dutela berezko xede nagusi erlijio monoteistek eta, hala edo hola bada ere, guztion salbazioa dutela eginkizun², uste izatekoa da nafar monarkiaren ikusmiran

[2] Islamismoa da, ildo horretan, komunikabideetan agerikoen dabilen erlijioa, baina antzeko joera dute espansionista gainerakoek ere. Gaur egun, esaterako, astrobiologiaren oinarrituta, multibertsoen hipotesiak sortuko lituzkeen arazoez hausnartzen ari dira teologo kristauak, ezin bide dira-eta Jesukristoren salbazio-mezua jaso gabe utzi bizitza inteligentea duten gainontzeko unibertsoetako zibilizazioak. Izan ere, “todos los universos tendrían una unidad de origen ontológico (en su meta-universo de referencia) como burbujas de un meta-universo común” (https://www.tendencias21.net/Puede-el-cristianismo-ser-universal_a13721.html). Eta, antza denez, “no

bezala Leizarragarenean ere berebiziko zabaltze-ametsek zirakitela. Eta hari horretatik tiratuz, lehenago edo beranduago, Nafarroako erresumaz kanpoko euskaldunen irakurgai ere bilaka zitekeela euskarazko bertsiio hura.

Euskaldunen (zenbaiten? askoren? gehienen?) irakurgai diogunean, kontua harago zihoakeela esan nahi dugu, alegia, gaur egun batzen eta batzen eta batzen ari omen garen euskara hau XVI. mendetik izango genukeela batua, modernitatera bikain egokitzen hasia, jasoa eta zernahitarako gaitua. Horren arrazoiak? Batetik, Leizarragaren idatzizko kodea landua eta, garairako behintzat, ezin hobea zelako, eta bestetik hau hizkuntza-gaietan oso da garrantzizkoa boterearen/monarkiaren zalantzarik gabeko laguntza zuelako. Hitza eta agintea, biak lankide, hizkuntza-politika batek legeen eta gainerako botereen beharra baitu, arrakastatsu izango bada; ezinbestean gainera. Hizkuntza-politika eraginkor baten oinarriak, bada.

Ez zen jolas hura uste bezala atera. Eta ez dakigu azken buruan euskaldunon kalterako ere ez ote zen izan, zeren eta, faktualetan eta kontra-faktualetan pentsatzen jarrita, jainko berdintsuak baitziratekeen kalbindar haiena eta Trentok ekarri ziguna.

Baina adierazi bezala, printzipioz Nafarroako erreginarean jopu/mira-beentzako bazen ere, *corpus*-planteamendu osoa eta orohartzailea izan zuen gure beskoiztarrak lan anitz hartan hizkuntzari zegokionez. Eta ezaguna da: batetik, Biblia gisako liburu ezin garrantzizkoago bat itzuli ahal izateko kode linguistiko betegina eratu zuen, orduko lapurteran oinarritua; eta bestetik, aintzat hartu nahi izan zituen irakurle batzuk uxa zitzaketen hizkuntz bereizketa zenbait, zubereraren esparrukoak, hain zuzen.

Agerikoa, hortaz, hizkuntzarekiko alferkeriarik behintzat ez zuela erakutsi gure Leizarragak, ez eta koldarkeriarik ere, geroago ere kalbindar eta euskaldun peto-pettoa izaten segitu baitzuen. Nagikeria eta koldarkeria besteri egotzi beharko, bada.

hay dificultad teológica en extender la condición salvadora y mediadora única de Jesús, el Hijo de Dios, al conjunto de las otras posibles civilizaciones inteligentes del cosmos” (https://www.tendencias21.net/El-hallazgo-de-vida-extraterrestre-puede-poner-en-entredicho-las-convicciones-humanas_a12453.html).

3.- Irudikatzen ari garen euskal idazle-ontzian ofizialki aurrekatolikoa izan bazen Etxepare –jatorrizko *katholikós* hartaz Erromak burutu zuen pribatizazioaren aurrekoa, esan nahi baita– eta kalbindar protestante zintzoa Leizarraga, arras Trentoko mutil dei genitzake jarraian etorritakoak.

Gorago aurreratu bezala, 1545ean hasitako mendeari amaiera matematiko zorrotza eman ahal izateko, lehen fasekoak –lehen mende erdi-koak– baino ez ditugu hona ekarriko; hain zuzen ere, fede-arazoak, disidentziak eta dibergentziak errepresio-sistema leundu gabe konpontzen zituzten haietako interesgarrienak. Samalda hartakoak ditugu, agidanez, gure XVII. mendean idazle agertu zitzaizkigun idazle gehienak.

Lehena, paradoxikoki eta harrigarriro –Etxeparek arrazoi!–, **Materra/Materre** frantses euskaldun berria dugu. Euskal Herrira misiolari gisara edo bidalia, aurki asko ikasi omen zuen euskaraz (10-12 hilabete-tan, Baionako bikarioaren³ arabera⁴) eta berehala ekin zion “Euscal-Herrian ikhassia Euscal-Herrico probetchutan” enplegatzeari (Materre, 1617: 12), hots, *Doctrina Christiana* liburua gure Axularren alboan ikasitako euskaraz –Sarakoan– idazteari, hain zuzen.

Hizkuntzari zegokionez, oso jokamolde pragmatikoa eta lerro pare batean laburbil litekeena erakutsi zuen: baldin euskaldun hutsak badira hemen egokitu zaizkigun eliztarrak, beren hizkuntza horretan luza die-

[3] Migel Oiharard izeneko bikarioa Etxeberri Ziburukoaren *Manual devotionezcoa* [1627] eta *Noelac* [1630] liburuetan ere azalduko zen argitaratze-onespena sinatzeko orduan.

[4] Anekdotikoki, eta espero zitekeenaren aurka, ez da umore faltarik kontrarreformismoaren lehen liburu serio hartan. Baionako bikario Migel Oiharard-en eskutik etorri zen txantxatxoa, baimena emateko atalean euskaraz irakurri behar ziren latinezko moldeak erabili zituenean: “Oiharard Baiona quo qua longe Theologal, Vicari General ‘à Officia lac, hæc hic vssi vehar quo dij thus tener oro ori: [...] Est à mira ‘ si vehar vt sic æs quo aram vallim vada, verri qui da fit æs ‘amar edo amaui hi lauet æs i cassia: non dic adit cera hem manda edo æs quo ara icas te quo e re is da tela, edo oro rem crea sale ac spiritu eder e tona hem manda colla icas sale verari. Vi ac ære sines te quo dira, as quæ na sines te quo ago” (1617: 22-23). Honatx, transkribatua, idazki-atala: “Oiharard Baionako kalonje teologal, bikari jeneral eta ofizialak, hek ikusi beharko dituztener orori: [...] Ezta mira-etsi behar [h]utsik eskoaran balin bada; berriki da fitez et[a] [h]amar edo [h]amabi hilabetez ikasia, nondik aditzera eman da edo eskoara ikasteko e[r]reix datela, edo ororen krezaleak [e]spiritu eder et[a] ona eman dakola ikaszale berari. Biak ere sinesteko dira, azkena sinestekoago” (Transkripzioa: Aziti Bihia Proiektua 2012-, 47; ikus <https://sites.google.com/site/materraedizioa/testuak/1617>).

zaiegun ezinbesteko duten bazka, ezin baitira oihan honetan Jainkoaren mezua jaso gabe abandonatuta utzi. Besterik gabe.

Hizkuntza bat ikasteko esfortzua nolakoa den dakiten euskaldun berri –ez zahar eta ez zabar– gehienen antzera, estilista samarra genuen Materre eta, agian Axularrek berak orraztua, hizkuntzaren aldetik euskaraz dugun libururik zuzenen, garbizaleen eta eredugarrietakoa utzi zigun, besteak beste, gainerako *dotrinetan* maiz ikusten eta ikusiko ziren mailegu eta arrozkeria ulertezinei muzin eginez, sistematikoki liburutatu baitzuen euskaldun elebarkarrei ulergarri(ago) gerta zekiekeen lexikoa.

Baina lexiko-zuzentasunak zuzentasun, eta Trentok tokian tokiko hizkuntzetan predikatzeko xedaturiko agindu irmoak tartean izan arren, kontua da, hizkuntzaren ikuspuntutik bederen, erruz gainditu zuela alferkeria Materrek, izen bereko liburu bi argitaratu baitzituen⁵. Eta, areago, lehena izan zen, kontrarreformatetan, hegatsari heltzen eta argitaratzen.

Etxeparek mende erdi bat lehenago azaldutako kexak eta arrangurak ikusita, eskertzeko ahalegina eta lana Materrerena. Nahiz eta, dena esateko, txanpon hark bazekarren ifrentzu ilunik gure hizkuntzarentzat. Alegia, Leizarragak taxutu zuen kode bateratzailearen xedeekin hautsiz, kontrarreformatismoko mutilak -Materre lehena- tokian tokiko hizkeretan idaztera mugatu ziren, euskalkien mugak gaintzeko inolako kezkarik gabe eta horretarako beharrik ere usnatzeke. Handik aurrerako panorama monokromo hartan nork bere aldetik jo zuen idazteari ekiterakoan, eta, gerora, ezinbestez errespetatu beharreko arau gisako bilakatu zen hizkera partikularren erabilera idatzizko testuetan. Poliki-poliki, ugaltze itsuaren aldarean ahaztuko ziren hizkuntz kode bateratuaren premiari buruzko kontsiderazio guztiak. Ereinda geratu ziren, beraz, hizkuntzaren atomizazioa areagotuko zuen joeraren haziak. Eguntaraino iritsi zaigun eta baturatzen saiatzen ari garen hizkuntz errealtate sakabanatua –mintzaira hegemonikoetan pentsaezina den jatorkeriaren apologiak barneharen kume baino ez da.

[5] Inertziek bulkatuta liburu bakartzat hartu ohi ditugun arren, bi liburu dira, zeharo desberdinak, 1617koa eta 1623koa. Ikus, adibiderako, orri-kopurua (batak 142 orrialde, bigarrenak ia 400), egituraketa eta gai-trataera, liburuen eskaintzak (bata B. Etxauzi zuzendua, bigarrena C. Reuil-i), etab.

4.- Ezin jakin logikoa litzatekeen segidan Axular izatea hizpide, Materre-ekin batera aritu bide baitzen urte zenbaitez Saran. Alabaina, 1643ra arte ez zuen ezer idatzita utzi urdazubiarrak, eta tarte hartan beste (adis?)kide bat plazaratu zen euskal letren errepublika katolikoan. Azken honi heldu beharko, beraz, jarraian.

Ziburuko Etxeberriz ari gara. Ohiko eskuliburuetan “Etxeberri Ziburukoa” legez ezagunagoa, ez da agian idazlerik ospetsuena gertatu gure literatur historian, baina bai zafratuenetakoa, poeta kaxkartzat hartu baitzuen orduko kritikak. Alegia, lerro doilor eta aldi berean interesatuak –bere poesia propioa zuritzen ari baitzen ziburutarrarena kritikatu bitartean– eskaini zizkion Oihenartek zioenez, bazituen Etxeberririk argitaratu gabeko hamaika gauza gehiago ospetsuago bilaka zitzaketenak⁶. Ondo jakina den bezala, mauletarrak ez zituen batere gogoko Etxepareren eta Etxeberriren molde lirikoak –“populistegiak eta oiesak”, esango bide luke orain, biziko balitz–, eta, antza denez, bestelako generoen laudorioekin xahutu nahi izan zuen apaiz katolikoarekiko aiherra⁷.

Baina hiru liburu besterik argitaratu ez badu ere (*Manual deboziozkoa*, *Noelak*, *Elizara erabiltzeko liburua*), gure lehen idazlea izan da “arrakasta” ezagutzen. Etxeberriren liburuak, izan ere, oso praktikoak ziren egunero-ko bizimodua zeharo arautzen zuen sinesmenaren barnean zihardutela erakutsi nahi eta behar zutenentzat, eta, ondorioz –nahiz eta ez horregatik bakarrik, ziurrenik–, gaur egun ere harrigarria litzatekeen edizio-kopurua lortu zuten mendean zehar.

Guztiarekin ere, ez da hori hemen azpimarratzea interesatzen zaiguna, bertako hizkuntza baliatzearen inguruko kezka eta proposamena baizik, ez baita inolaz ere gutxiestekoa harenean euskararen erabilerarekiko atzeman daitekeen irmotasuna eta, erantsi dezagun jarraian, normaltasuna, alegia, defentsa apologetikotan hasten ez den planteamendu erraza, xumea eta, aldi berean, sendoa.

[6] Hona, frantsesezko bertsiotik ekarriak, Oihenarten hitzak: “tamalgarria da espiritu honek hobetsi izana poesia eta ez prosa, non, zalantzarik gabe, arrakasta handia izan baitzezakeen” (1665: 1967, azken lerroaldea).

[7] Geroago, halere, idatzitako gordinak leuntze aldera-edo, espiritu onbera atera zitzaion gure kritikariari: “Epai dezakegu, hortaz, benetako eliz-gizon baten gisara bere lagun hurkoaren probetxurako garrak bultzaturiko idazle bezala, ez handigurak eta bai batez ere karitateak eraginikoa” (*idem*).

Ziburutarrak ez zeukan zalantzarik: “Berce natione Catholicac mintçatu direnaz gueroztic bere hitzcuntçaz, mintça gaiten gu ere gueureaz” (1627: 1669, 188).

Aiseki formulatua, konplikaziorik gabeko planteamendua, logikoa, aratza, orekatua, “demokratikoa”, ezin inork kritika zezakeena, eta guztiek, etxeko zein kanpokoek, onesteko modukoa eta, koherenteak izanik, onetsi beharrekoa.

Ez zuen besterik behar izan idazlanei ekiteko eta bestek hasitako euskal letren sozializazio-eginkizunarekin jarraitzeko.

Haren liburuetan ez dago soziolinguistikoki interesgarri eta garrantzizko den guztia Etxeberrik berak sinatua, ordea, biziki ausarkiago eta gordinkiago mintzatu baitziren adiskide laudorio-egileak hasierako orrialdeetan. Alabaina, begi bistakoa da irizkide zutela Etxeberri “moderatu” bera ere.

5.- Gogorra eta oldarkorra ageri, hortaz, haren liburuen aterpean idazten duten adiskideak, hain zuzen ere obraren atariko orrialdeetan egindako gorespen-kopletan⁸.

Esanguratsuenetakoak, ez bairik gabe, **Estepan Hirigoiti** adiskideak –hark ere nonbait koplak artistikoki gaitzesgarritan– ondu zizkion ahapaldiak (in Etxeberri, *Noelac*, 1630: 1645, 9-10):

Nic behintçat aithortcen dut
Çure çordun gabela,
Gure illhumbetic khentceco
Çucia çu çarela.

Çaharturic cihoana
Escara erortcera,
Etche berrian sarthuric
Berriz doa sortcera.⁹

[8] Tartean, Tristand Apehete adiskide “bigun”arenak, zeinak euskal “nazio”aren hedapen geografikoa ere gogorarazten baitu: “Çuri çordun çaitçu Escaldun/ Copla maitaçaillea”. Eta lerro batzuk beherago: “Laudorio bada handi/ Duçula Escaldunez,/ Laphurtarrez, bizcaitarrez/ baita Nafar Iruñez” (in Etxeberri, 1636: 1665, z.g.).

[9] Honatx lerroaldea irudi erretorikorik gabe: “Zaharturic erortzera zihoan euskara *Etxe berrian sarturik berriz doa sortzera*”.

Erdaldunac ahal doazque,
Cein bere herritara,
Gogat eguinic, galduco
Eztutela Escara.

Aspaldion cegoena
Guztientçat azpico
Etcheberric altchaturic
Gorena da iarrico.

Escaldunac hel bequizquit
Haren ohoratcera,
Ceren Escara eman duen
Erdararen gañera.

Agerikoa da Etxepareren kopleatik eratorriak diruditela azken aha-paldiek¹⁰.

Eta bai, gustatzen bide zitzaizkion Etxeberriri adiskidearen hitzak eta umorea¹¹. Eta bertan isuritako ideiak ere, bai!

Ideiez den bezainbatean hain preseski, honako bi ezaugarri hauek nabarmendu nahi genituzke. Lehena, euskararen galera gure mintzoa garaitik at eta zahartuxe geratzeagatik sortu dela azpimarratzen duena litzateke. Baieztapen hartatik ondoriozta daitekeenez, mundu garaikide eta teknologia berrietara egokitzeko premia diagnostikatzen dio Hirigoitik euskarari; eta horrexegatik, euskaldunon mintzaira modernizatu, landu eta gaitu bezala segituko badu, hizkuntzaren aurreneko egokitapentzat jotzen du Etxeberriren “etxe berri”an sartzen hastea, horretan

[10] Ideia hori bera jasotzen dute honako bertso-lerro hauek: “Berceac oroc içan dira/ Bere goihen gradora/ Oray hura iganen da/ Berce ororen gaynera”, “Eceyn ere lengoageric/ Ez francesa ez berceeric/ Oray ezta erideyten/ Heuscararen pareric” (“Contrapas”). Ildo berekoa da honako ha ere: “O heuscara [...] / Oray aldiz içanen iz orotaco lehena” (“Sautrela”).

[11] Hona horren froga. Irakurle garen heinean gaizkipentsatuak ere bagarenok betidanik uste izan dugu -eta ez gara bakarrak- laudorioa itzuli nahi izan ziola Etxeberrri bihurriak Estepan Hirigoiti adiskideari, liburua kaleratzeko unean haren identifikazioa ezin modu umoretsuagoan eta, aldi berean, harrigarrian ezarri zuenean: “Doctor Medicus” erantsi aurretik, “Stephanus de *Heriogiti*” inprimatu baitzuen koplean azpiko sinaduran hizki handitan (Etxeberrri, 1630: 1645, 10; gurea da letra etzana). Akatsa izan balitz, hori behintzat zuzendua zegokeen edizioan; baina itxura guztia du berariaz eginak zirela bokal-aldaketa eta metatesia, eta ez zitziola burutik pasa zuzentzea, ezta testua kalera aurretik aukera izan zuenean ere.

baino –bere konkretzio-faltaren zama guztia barne– ez baitu euskararen “birsortzea” ikusten. Berriz ere, eta atal nagusian, gorago mahairatu den *corpus planning* delakoarekin loturiko premia.

Baina bada lerroaldean bigarren ezaugarri funtsezkorik ere, lehena bezain garrantzitsua eta arestiko *status planning* delakotik hurbilago legokeena, eta arreta euskaldun bilakatu nahi ez duten erdaldunen erantzukizunean jarrarazten duena. Horiak ez bide dira inondik inora Materreren ildokoak. Areago: behin euskara “etxe berria”n berpiztua, erdaldun horiek, euskal gizataldearen hizkuntza hala edo hola desagerrarazten saiatzen diren heinean, hobe lukete “zein bere herritara” itzuliko balira, arras konbentziturik ez dutela Euskara suntsituko. Hortaz, maila sozialean ere, gizataldea trinkoturik eta euskara eguneraturik, gaiturik eta hedaturik izatea da hizkuntza hegemonikoek eta haietako hiztunek bideratzen duten presio glotozidari aurre egiteko modurik eraginkorra.

6.- Hori horrela, ezin jakin **Joan Klaberiaren** eskuak Etxeberriren hirugarren liburuaren aterpean idatzitako lerroaldeak Hirigoitirenen osagarri ez ote diren, erdaldunak beharrea, oraingoan euskaldunak berak –edo haietako jakintsuenetakoak, bederen– baitira ikusmiran jarrita daudenak. Etxepareren ildoan betiere. Hauetan, halere, literatur jolasa tarteko, iseka eta seriotasuna dira ardatz, salaketa eta proposamena, kritika eta egitasmoa. Dena batera, eta artez irabiatua, alegia.

Laukotan taxutuak, honela salatu zituen Klaberiak letratu erdaltzaileen ordezkartzat zituen euskaldun unibertsalak (in Etxeberri, *Elizara erabiltzeko liburua*, 1636: 1665, z.g.):

Burlatcen naiz Garibaiez
 Bai halaber Etchabez,
 Cenac mintçatu baitire
 Erdaraz Escaldunez.

Ecen cirenaz guerostic,
 Escaldunac hec biac,
 Escaraz behar cituzten
 Eguin bere historiac.

Ez da gogoratu behar Esteban Garibai (1533-1599), arrasatearra, historialaria eta Felipe II.aren kronikaria eta historialari ospetsua izan zela¹², eta Baltasar Etxabe Orio (1548-c.1620), zumaiarra, margolaria¹³. Uste izatekoa da, isekarekin jarraituz, historia-lana beranduago plazaratuagatik ez zitzaiola poema hartan lerrorik egokitu Oihenarti ere.

Ikus daitekeenez, zehatzagoak agian bai (deiturak erakusten dituelako), baina, gainerakoaz den bezainbatean, Etxeparek plazaratutako kritikan esparruko irizpideak dira Klaberiak darabiltzanak.

Baina trufaz eta isekaz gainera, Klaberiaren pasarte haietan bada proposamen orokor inpliziturik. Hartara, nabarmentzekoa da kultur eta hizkuntz morrontzatik ateratzeko erakutsi nahi duen norabide programatikoa: euskaldunak euskaldunei –orduko EH ia elebakarrean, bereziki-euskaraz.

Jakina, beste batean baloratzeko gera liteke noraino ziren lerro xume haiek baliagarri hizkuntzaren erabilera eta normalizazioa ziurtatzeko eta zenbateraino ziren akuilu jakintza-arloen jorraketa bideratzen hasteko, batez ere hain kultur merkatu eskasa zeukan gizarte hartan. Garden dagoena da, horratik, salaketa eta isekatik haragokoa izan zuela Klaberiak planteamendua eta, batik bat, hizkuntz leialtasuna izan zuela xede.

Damurik, orduan ere letratu handiak gertatu bide ziren itsuen eta sentsibilitate kamutsenekoak. Edo, hobeki pentsatuta, kultur unibertso unibertsalaren aurrean ospetsu edo, gutxienez, ezagun agertzeko interesatuak. Kultura zer zenik ere sumatzen ez zuten nekazari eta itsasgizon herrikide euskaldunen kaltetan bazen ere.

7.- Eta oraingoan gehiegi interesatzen ez zaigun beste idazleren bat alboan utzita bada ere, gatozen **Axularrengana**.

Artikuluaren haritik jarraikiz, ez da hemen urdazubiarraren obrari eta mirakuluei buruz hitz egingo, dagoeneko gehiegi mintzatu eta idatzi baita huntaz, hortaz eta hartaz. Honako honetan, bada, Axularrek hiz-

[12] Errefrau bilduma bat (*Memorias liburuan*) utzi zuen, Espainiako lehen “historia unibertsal” (“*mapa mundi de Bilbao*”), *Ilustraciones Genealógicas de los Catholicos Reyes de las Españas, y de los Christianissimos de Francia, y de los Emperadores de Constantinopla, hasta el Catholico Rey nuestro señor don Philipe el II, y sus serenísimos hijos* (1586), *Los XL libros del Compendio historial de las chronicas y universal historia de todos los reynos de España* (Anberes, 1571), etab.

[13] *Discursos de la Antigüedad de la lengua cántabra Bascongada* izeneko apologia kaleratu zuen 1607an.

kuntzaren aurrean edo, nahiago bada, euskararen aurrean agertu zituen ikuspegiari eta jarrerari erreparatuko zaie une batez.

Ez da ukatzerik bat datorrela, teorian eta praktikan, gorago aipatutako espiritu kontrarreformistarekin, eta baita harekin eta hartan murgildurik zebiltzan kideekin ere. Ageriko froga da haietako batzuk idatzita-koen onespena eman izana¹⁴.

Hizkuntzaren ikuspuntutik garrantzizkoena, bistan da, burutu zuen “ariketa” dugu, gorago ikusi ditugun kideek adierazitako irizpideen araberak gauzatua. Hots, “euskaraz esan liteke” edota “euskarak eman lezake” apologetikoei muzin eginez, ordura arte landu gabeko jakintza-alor garai bat –asetiko-teologikoa– euskara landu eta, aldi berean, ulergarri batean utzi zigun ondare¹⁵.

Alegia, hizkuntza bati eta hizkuntza horretako hiztunei egin zekiekeen/dakiekeen faborerik handiena egin zigun Axularrek euskaldunoi: nork bere (jakintza-)arloan garatzen duena eta gara dezakeena haien hizkuntzan eskaini herrikideei.

Horrek, jakina, bi gauza garrantzizko islatzen ditu bederen. Lehena: bete-betean izan zuela bere jendea¹⁶ gogoan (lanbide eklesiastikoak behartuta, batik bat); eta bigarrena: ez zuela alferkeria gehiegirik erakutsi ahaleginean saiakera berri hartan bere onena emateko (hizkuntza –*corpus*– garatua). Eta honetara iritsita, komeni da gogoratzea Axularrek –ere– erdara hutsa izan zuela ikasketetan barrena landu eta garatutako hizkuntza, latina eta gaztelera nagusiki.

Oso-osoa bat, beraz, Lizardik handik hirurehun urtera bere “Oromintzo” delakoan aldarrikatuko zuenarekin: “Baña nik, izkuntza larreakoa,/ nai aunat ere noranaikoa:/ yakite-egoek igoa;/ soña zâr, berri gogoa;/ azal orizta, muin betirakoa” (1932: 136).

Eta Axular arras kontzientea zen egiten ari zen hartaz.

[14] Artikulu honetara ekarritako egileen obretara mugatuz, Materrek (1617), Etxeberrik (1636) eta edizio bereko Klaberiak berak idatzitakoak irakurri eta onetsi zituen urdazubiarrak.

[15] Horrelakoetan, patuak lagundu artean behintzat, gogo soilean izan beharko dugu beti ezin erkaketarako balia daitekeen Argainaratzen liburu galdua: *Abisu eta exortazione probetxosak* (1641).

[16] Axularrek honela adierazi zuen irakurle arrunta, hain zuzen: “eztut liburutto haur letratu handientzat eguiten. Eta ez choil deus eztaquitenentzat ere” (1643: 19).

Jakina, beti galde liteke ea Axularrek bestela joka ote zezakeen hizkuntz egoera hartan, eliztar guztiak euskaldun hutsak izanik. “Bai –erantzun liteke jarraian–, derrigorrezko predikazioen ondoren, alferkeriaren deiari segitu eta, besaulkian eserita, bizitza igarotzen ikusten pasatu eguna”.

Axularrek, ordea, aurre egin zion erronkari¹⁷, besteak beste, argi bezain garbi zuelako bere ahaleginaren ondotik –eta ondorioz– biderkatuz joan zitezkeela euskara aberasteko saioak:

[...] *haur da nic nahi nuqueyen gaucetaric bat: ene enseiu appur hunec quilica cinitçan eta guticia bertce enseiu hobeago baten eguitera eta ene hemengo falten erremediatcera. Ceren, halatan, ezliçateque euscara hain labor, escas eta ez hertsic, nola munduac uste baitu –eta baitaduca– dela* (1643: 19). [Gurea da letra etzana].

Axularrek, izan ere, euskararen txirotzearen kezka zeharo barnera-tua zuen eta taxuz egina zuen egoeraren diagnostikoa:

Orain badirudi euscarac ahalque dela, arrotz dela, eztela jendartean ausart, entregu, bithore eta ez trebe. Ceren are bere herricoen artean ere ez paitaquite batçuec nola esquiriba eta ez nola iracur (*idem*).

Konstatazio nabarmena, hortaz: euskararen gero eta balio eskasagoa gizarite modernoaren hizkuntza gisa erabilia izateko, eta garaiko premien eta mekanismoen kudeaketarako. Euskara egoera horretara eraman duten faktoreak? Euskaldunon analfabetismoa eta euskararen koipeztatzetik eza, batetik, eta guztiaren oinarrian dagoen “bekatu buruzagia”, bestetik: euskaldunon axolagabekeria, zabarkeria, alferkeria.

Erraz samarra zeritzon, bada, Urdazubikoak erremedioari:

Baldin equin baliz euscaraz hanbat liburu, nola equin baita latinez, francesez edo bertce erdaraz eta hitzcuntçaz, hec beçain aberats eta complitu içanen zen euscara ere, eta baldin hala ez pada, euscaldunec berec dute falta eta ez euscarac (*idem*). [Gurea da letra etzana].

Nolanahi ere, kontrarreformista guztiak bezalatsu, Axularrek ere tokian tokiko mintzairaren erabilera zeukan irizpide eta iparrorratz. Eta Leizarragarenean ez bezala, “mezu unibertsala” zabaltzeko tresnari ez zitzaion parrokiaren irradiazio-esparrutik harago iristeko hegalki eskaini.

[17] Erdi behartuta egin zuela dioen arren, “*deliberatu nuen* [...] liburutto baten [...] eguitera” (1643: 15-16; gurea da letra etzana) esan zuen segidan; libreki erabaki zuen, beraz.

Eta egia da orduko gizataldeak eta herriak hertsiagoak eta egonkorragoak zirela oro har, eta komunikazio eta premia eskasagoekin bizi zirela, eta sortzen zen tokian irauten zuela gizakiak azken orenera arte, eta..., baina inguruko “nazio”etan beste bat zen hartutako hizkuntz norabidea, arras desberdina eta etorkizunerako potentzialitatez betea. Haieran batasun linguistikoarena ez zen inolaz ere zalantzatan jarri.

Baina honatx, urdazubiarrak erraz laburtua, euskaldunoi gainean ezarritako ahaltasunak eta indarrek finkatu hizkuntz irizpidea: “*Egüçu çuc ceure moldera eta çure herrian usatcen eta seguitcen den beçala*” (*idem*). [Gurea da letra etzana].

Nolanahi ere den –eta bihoa hau garai hartatik hona sufritu behar izan dugun gainerako *euskal intelligentsiaren* “buru-eragotz carri beçala” ere–, kode garbia (ezaugarri lokalista gutxikoa, esan nahi baita) eta denboren joanarekin eredugarri ere gertatu dena (horrexegatik, besteren artean, egungo bateratuaren oinarri) burutu zuen Axularrek.

8.- Batasun-ametsak eta asmoak jadanik ongi lurperaturik, beste hiru-rehun urteko itxaronaldirako txartela opatu zitzaion hizkuntza gero eta atomizatuagoa eta ankilosatuagoa zeukan euskal gizarteari.

Harrezkero, inguruko hizkuntza hegemonikoek ez ezagutu ez onetsi ez zuten “tokian tokiko” hizkeren “aberastasuna” ziurtatu zitzaion bateraturik ere nekez biziraun zezakeen hiztun gutxiko hizkuntza hari. Gaur arte, alegia, ezagun baita zenbat arazo eta zer-nolako zailtasunak dituen oraindik gizatalde euskaldunak –etxean zein kanpoan– bere izaera erakitzeke eta, tartean, sena eta nortasuna ematen dizkion hizkuntza bera putzu etnokultural hutsetik idokiz (ikus Odriozola 2017), “berce nacione oroc” (Etxepare) / “berce natione” (Etxeberri) normaldu guztiek lortua duten maila bateratura eta hedatura iritsarazteko. “Berce ororen gaynera” gabe, “bere goihen gradora” (*corpusa*) eta “nacione”aren hizkuntza bilakatuz (*statusa*), bederen.

Labur-zurrean, bada, ondoko hiru multzoen bitartez proiektu liteke 1545-1643 urteen artean euskal autoreek euskararen erabileraren inguruan zuten pertzepzioaren eta mahaigainean utzi zituzten proposamenen irudia:

a) Etxepare (1545), gure mintzairaren egoera larriaz ohartarazten eta gainerako hizkuntzekiko homologazioa aldarrikatzen azaltzen zaigu ar-

gazkian; eta liburutxoa argitaratzearekin batera, euskara idatziz ere erabiltzeko gonbita luzatzen.

b) Leizarraga (1571), euskara idatzirako kodifikazio betegina, eguneratua eta –nafar erresuman erabiltzekoa zen heinean– bateratua burutzen agertzen zaigu irudian, antonomasiar Liburua zena euskarara ekarritz. Damurik, inoiz ez da behar beste nabarmenduko haren proposamenak esparru etnolinguistiko mugatuak gainditzeko zeukan potentzialitatea.

d) Materre (1617) – Ziburuko Etxeberri (1627/1630/1636) – Axular (1643) erabileraren pragmatikarekin lotu litezke: interes erlijiosoarekin izan bazen ere, euskara erabiltzean eta ekoizpena areagotzean bildu baitzuten haien lana, betiere –honatx Kontrarreformaren benedikazioa– gainerako lurraldeetara nekez heda zitekeen eredu partzelatuen haziak jarritz eta tokian tokiko hizkerak bultzatuz eta baliatuz.

Agerikoa da planteamendu ideologiko-erlijioso desberdinetatik –eta, batzuetan, kontrajarrietatik– burutuak direla haien idatzizko ekimenak oro. Guztiek dute zer erakutsirik: Leizarragak du, oraindik ere, ekarpenik interesgarriena ikuspegi orokorraren aldetik, euskalki eta azpieuskalkien gainetik hegan egin nahi izatean, euskal gizarteak behar zuen hizkuntz kodifikazio komunaren premiaren filosofia eskaini baitzigun. Gainerakoei, hizkuntz egoeraren inguruko ohartarazpenak, euskararen koipeztatzea eta hura alor mugatuetako maila landuetara jasotzea zor zaizkie.

Ez omen da gutxi burututakoa, baina, letrak letra direlarik, ez bide da aski izan euskara *nacione*-hizkuntza bilakatzeko bidean jartzeko. Ataka gaitza, bada, oraingoa, eta denbora laburrean gainditu beharrekoa, Euskal Herri gisara ezer lortuko bada.

Nolanahi dela, kontinente, lurralde eta herri asko ikusiak zituen Nietzscheren bidaiari hark besterik bazioen ere, ez lirudike gure klasi-koen hizkuntz proposamenak egunotara ekartzeko eta egokitzeko unean alferkeria eta axolagabekeria inondik inora ezaugarri edo aitzakia izan litezkeenik garapen ekonomiko, turistiko, gastronomiko eta industrialetan hainbeste antsiaz eta suhartasunez ahalegintzen den Herri honetan. Bestelakoa litzateke, patu gaiztoko gertatzekotan, gure hizkuntzaren gaineko harlauza hotzean jarri beharreko arrazoia.

Aramaion, 2018ko urriaren 20an

Bibliografia

- Axular (Agerre, Pedro), 1643, *Gero*, Bordele, G. Milanges.
 <<http://klasikoak.armiarma.com/faksimileak/17/AxularGero.pdf>>
- Aziti Bihia Proiektua, 2016, *Materra. Edizioa eta azterketa*, Gasteiz.
 <<https://sites.google.com/site/materraedizioa>> Ik. Krajewska eta beste.
- Ettxeberri, Joanes, 1627: 1669, *Manual devotioenezcoa*, Bordele: Mongiron Millanges.
 <<http://klasikoak.armiarma.com/faksimileak/17/EtxebZibuManual.pdf>>
- Ettxeberri, Joanes, 1630: 1645, *Noelac eta berce canta espiritual berriac*, Baiona: Maffre.
 <<http://klasikoak.armiarma.com/faksimileak/17/EtxebZibuNoelak.pdf>>
- Ettxeberri, Joanes, 1636: 1665, *Eliçara erabiltceco liburua*, Bordele: Mongiron Millanges.
 <<http://klasikoak.armiarma.com/faksimileak/17/EtxebZibuElizara.pdf>>
- Ettxepare, Bernart, 1545, *Linguae Vasconum Primitiae*, Bordele: F. Morpain.
 <<http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/btv1b8609513p.r=Linguae+Vasconum.langEN>>
- Haranburu, Joanes, 1635, *Debocino escuarra, miraila eta oracinotegua*, Bordele: P. de la Court.
 <<http://klasikoak.armiarma.com/faksimileak/17/HaranburuDebozino.pdf>>
- Harizmendi, Kristobal, 1660, *Ama Viginaren hirur Officioac*, Bordele: G. de La Court.
- Hirsch, Eric Donald, 1967, *Validity in Interpretation*, New Heaven & London: Yale University Press.
- Kloss, Heinz, 1969, *Research possibilities on group bilingualism: a report*, Quebec: International Center for Research on Bilingualism.
- Krajewska, Dorota eta beste, 2017, *Estebe Materraren Do(c)trina Christiana (1617 & 1623). Edizioa eta azterketa*, Bilbo: EHU-Euskaltzaindia (ik. Aziti Bihia Proiektua).
- Leizarraga, Joanes 1571, *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*, Arroxela: P. Hautin.

<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mono/leizarraga/leizarraga_biblia.pdf>

Lizardi, Xabier (Agirre, Jose Mari), 1932, *Biotz-begietan*, Bilbo: Verdes Atxirika.

Materre, Estebe, 1623, *Dotrina Christiana*, Bordele: J. Millanges.

<<http://klasikoak.armiarma.com/faksimileak/17/MaterreDotrina.pdf>>

Navagero, Andrea, 1563: 1718, *Il Viaggio fatto in Ispagna, ed in Francia*, in *Opera omnia*, Padua: J. Cominus, 337-419.

Nietzsche, Friedrich, 1874: 1999, *Schopenhauer como educador. Tercera consideración intempestiva*, Madril: Valdemar.

Odriozola, Joxe Manuel, 2017, *Nora goaz euskalduntasun honekin?*, Donostia: Elkar.

Oihenart, Arnaut, 1665: 1967, *L'Art Poétique Basque d'Arnaud d'Oyhenart*, Baiona: Gure Herria.

Ramon Saizarbitoria eta Joxe Azurmendirekin solasean

*A dialogue between Ramon Saizarbitoria
and Joxe Azurmendi*

Iñaki ALDEKOA BEITIA
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Jasotze data: 2018.09.21. Onartze data: 2018.10.22

LABURPENA

Eleberrigilea politeista da bokazioz, hau da, jainko bat baino gehiagorekin lehian eraikiko du nobela; filosofoek, berriz, ideia, kontzeptu eta historiarekin egingo dute lan, hau da, pentsamenduarekin. Baina, gaurko munduan, bata zein bestea, ideia eta bulkada kontrajarrien artean asmatu nahian aurkituko dituzu. Idazlearen eta filosofoaren arteko solasa.

Gako-hitzak: Ilustrazioa, erromantizismoa, abertzaletasuna, demokrazia.

ABSTRACT

The novelist is polytheist by vocation, that is, s/he is going to create the novel with agonizing rivalry among more than one god. Philosophers, though, will work with ideas, concepts, history and specially with the mind. But in this age, you will find both, the novelist and the philosopher, dealing with opposing ideas and impulses in order to succeed. The talk between the the writer and the philosopher.

Keywords: Enlightenment, romanticism, nationalism, democracy.

Galdera honexekin hasten zuen Joxe Azurmendik *Demokratak eta biolentoak* (1997) liburua: “Zer zarete lehenago, abertzaleak ala demokratik?” Badirudi, galdera eginda dagoen bezala, ez duela biak aukeratzeko alternatibarik eskaini nahi. Eta bati datorkio gogora Pascalek idatzi zuen hura, alegia, gaitz guztiak eskusiotik datozela. Edo, beste modu batean esanda, gauzak muturreraino polarizatzeak bere onetik erauztea dakarrela. Joxe Azurmendiren galderari begirik galdu gabe (helduko zaio gaia-ri aurrerago), *Martutene* (2012) nobelako pertsonaiengan jarriko dugu arreta, eta ikusi nola daramaten haiek auzia, auzirik balego.

1. Lehenik eta behin, esan dezadan, Martin idazlea, Iñaki Abaitua medikua edo Julia itzultzailea pertsonaia sendoak direla, E. M. Fosterrek (1983: 74-84) erabiltzen zuen adieran, beteak. Horrekin esan nahi dut ez direla estereotipoak edo ezeren sinbolo edo abstrakzio huts. Hau da, nobela handietan gertatu ohi den bezala, honetan ere, bizitzaren horizonte edo dimentsio gizatiarretik begiratuta, pertsonaion mundua aberatsa eta konplexua da. Martin idazleak ilustratuen Entziklopediaren ale bat du etxean, argi utziaz arrazoimenaren aldeko Martinen hautua; ilustrazioaren oinordeko dauka bere burua. Eta gainera, euskaraz idazten du. Eta Parisko ilustrazioaren oinordeko hori ez da Baudelaire bezalako poeta batekin itsutuko. Alderantziz, frantsesez idazten ez duen modu berean, Lizardi (edo Bilintx) bat nahiago izango du bere literaturaren inspiraziorako. Jakin, badaki Baudelaire poeta handiagoa dela (eta unibertsalagoa), baina Lizardi bereagoa sentitzen du. Martin idazlea, zerbait ez baldin bada, probintzianoa da.

Iñaki Abaituaren efemeride politikoan data bazterrezinak daude: 1789, 1813, 1931, 1936, 1975. Data horien atzean, norbere (pertsonaiaren) biografiaren historia politiko eta soziala daude. Begiratu batean, badakigu, Iñaki Abaituak ere bere egiten duela Ilustrazioaren ondare intelektuala; gogoan gordetzen duela askatzaileek beraiek Donostia erre zuten eguna; gogoan du Errepublika aldarrikatu zuen eguna; beste hainbeste 1936ko gerraz; eta 1975eko fusilamenduen eguna (bereziki Angel Otaegi eta Txikirenak). Beraz, balio errepublikano eta liberalak ez ditu saltzeko Abaituak; eta bere jardun publiko eta sozialean demokrata bat da. Martin

idazlea eta Julia itzultzailea adinakoa. Eta aldi berean, hirurak dira abertzaleak. Hala ere, ez batak ez besteek jarriko lukete lur eremua pertsonen gainetik; hiruretatik inork ez luke esango “gu besteak baino hobegoak gara” hori, ez dira horren patetikoak; eta ez daude gorrotoaren pedagogiarik ereitearen alde.

Martinek badaki –ez gutxiago besteek– zein garrantzi handia duen sentimenduak abertzaletasunaren altzoan. Badaki bihotzaren agindupean ernaltzen dela sentimendu hori. Martini hozkia eragiten diote beren buruak arrazionalistatzat dauzkaten harroputzek, arrazionalismoaren lau “tropa” (edo klixek) jarraian erabiltzeko gauza direnerako, pentagrama horretatik aldentzen den guztia irrazionaltzat edo aurrejuztzat kondenatuko luketeneke. Ilustrazioaren ekarpen makurrenaren jarraitzaile dogmatikoak dira, ausazko giza izaera baten izenean, munduaren berezitasun eta diferentziak erdeinu harroputzez tratatuz. Eta are gutxiago jasango ditu, gainera, norbere sentimenduak zauritu beste helbururik ez dituztenean. Badaki bere kautan, badela arrazoimenaren langa gainditzen ez duen sentimendurik, baina zer egingo zaio bada; bere buruari esango dio ez dela gizakia ogiz bakarrik bizi.

Medikuaren senaz baliatuz, sendagarria irizten dio Abaituak abertzaletasunari, baita geureari ere, aplikatu zaion botika desmitifikatzailea. Izan ere, beti dago non leundu abertzaletasun suharraren eldarnio historiko eta patrioterotan; nahiz eta beldur den erabilitako dosia gehiegizkoa ez ote den gertatu: “Euskal Herriak ziur asko beharrezkoa zuen desmitifikatze tratamendupean jartzea, baina sobera gogorra omen da, ordea, gogorregia, aplikatu diotena, eta hesteetako flora arrastorik gabe ari omen dira uzten... Mitoen gezurra agerian jarri, euskal nortasuna ukatzeko. Mitoak gezurra dira, nork uka lezake hori, baina egiantzekotasuna emateko ahalak egiten ditu euskaldunak bereziak... Berdintasunarena mitoa izango da, baina euskaldunek sinetsi egiten zuten duintasunak ez dakiela klase sozialez, eta nobleak zirela jakinarazi zioten munduari. Horregatik ez zuten euskaldunik zafratzen ahal Gaztelan, eta Humboldt eta Weber bezalako begirale zuhurrei mira egiten zieten...” (2012: 248).

Beraz, ez da nahikoa arrazoimen desmitifikatzaile eta bateragarriarenekin; herri bakoitzak bere flora partikularra usaindu eta babestu nahiko luke arrazoimen dominatzailearen gainetik. Bizitzeko estilo bat, izateko modu bat, ñabardurak. Juliak ere modu atsegin eta pedagogiko batean eman nahiko lioke buelta mitoen aferari. Martin, Julia eta Abaitua sentibera jartzen dira euskal kantu zaharrak entzutean: “Hunkibera ze-

goen Julia krabaren eta txakolinaren ostean, eta aspaldian entzun gabeko kanta zaharrek malkotan jarri zuten ia. Begi-bistakoa da gaztetan lagun artean kantatzen ziren kantu eder horiek bihotzean uzten joan diren sedimentu horretan ernatzen dela abertzaletasuna. Bihotz kolektiboaren taupadak sentitzen zituen Abaituak agur esatera gerturatu zitzaientean” (2012: 180). Bai, hala da, bihotz kolektiboaren edo tribuaren baitatik iritsitako ahots seduzitzaile eta kitzikagarri horien eragina gozoagoa zen taldean, kuadrillan kantatzen zirenean. Baita arriskutsuagoa ere. Izan ere, letrak zioenaz haratago, musikaren melodiak orain premiatsua gainditu eta konpartitutako halako sentimendu urrun eta zehaztugabe batera garraiatzeko gai dira. Iragan urrun eta lauso hark, ordea, gure bihotzak interpelatu egiten zituen, melodia kitzikagarri haien babesean geuri ere hitz egiten ziguten ahotsak entzuteraino. Arbasoen ahotsak, asaba-zaharrenak. Honela mintzo zaigu Saizarbitoria:

“Kepak, ordea, ez dakizki “Ene aberri lastana”ren hitzak, beharbada horregatik maite ditu mitoak. Abaituak, berriz, amarengandik ikasi zuen, ez du uste beste modurik dagoenik. Musika ederra da, oso ederra ere esango luke, letra higuingarria den beste, eta batzuetan, zergatik ez dakiela, malenkonia-egoera batean murgildu denean, hondo-hondotik ateratzen zaio bertso hori. “Ene aberri lastana”, erauzi egiten du arimatik eta arindu egiten zaio pena. Ez da bakarrik kantatzeko kantua, baina beldurra emango lioke taldean kantatzeak” (2012: 250). Jon Juaristik hauxe idatzi zuen *El bucle melancólico* liburuan (1997: 268): “Eta bularrean sentitzen dut orduan malenkonia mingarri eta ezagun baten zitzada, nire arbasoen ahotsekin batera heltzen zaidana. Eta urte trumoitsuetan barrera galdu ez dudan zuhurtziazko masta hauskorrari heldu beharrean izaten naiz, ezen ahots horiek inoiz ahaztu gabeko maitasun bati buruz mintzatzen zaizkit, euriz bustitako garoen distiraz, askatasunaren egunsentirantz urre gorri sutsu diren basoez: bizitzaren edertasun eta xamurtasun oroz mintzo zaizkit, baina entzuten dut beren artean ahots larde-riatsua, negarrez igaro zen atsoarena, kitaezina den odol sariaren ordaina eskatuz”.

Nola deszifratu ahotsen esanahia? Iraganaz eta edertasunaz, gaur gaurko mundu adimentsu eta errealistaz bestaldera dagoen xamurtasunaz eta maitasunaz ari zaizkio ahotsak hitz egiten. Unamunoren “Orhoit gutaz” poemako bertsoen oihartzunak datozkio: “... ez dute entzungo euri/ amatiarraren kanta garoak/isurtzen duena gure aberriaren altzoan / zeru kantaren...”; Lauaxetaren “Mendigoxalearena” hurrengo: “askatasun-goxalderuntz/ sugarra dira basoak”; eta armak hartzera deitzen gaituen agindua. *Martutenen* eta *Bukle melankonikoan*, bietan aipatzen zaigu

Unamunoren “Orhoit gutaz” poemaren alboan Gorka Knörren “*Morts pour la patrie*”, aurrenekoaren oihartzun eguneratua bigarrena. Baina guk Gorka Knörrekin kantatzen genuenean, ez genituen buruan “Orhoit gutaz” poemako Lehen Mundu Gerran hil ziren Biriaturko soldadu haiek, gertuagoko hildakoez kantatzen genuen guk. Baina axola al dio zer zioen kantuarren letrak zehazki? Zehaztasuna ez da sentimenduak eragiteko hauspoa; aitzitik, zentzuak ukatu egingo luke kantaren xarma. *Martutene* (2012: 181) nobelako irlandarren pasadizoak erakusten digun bezala, bakoitzak bere iragan, nostalgia (herrimin) eta galdutako gerrengatik –nahiz imajinarioak izan– egiten du negar. “Gau batean tabernan omen zeuden edanean eta sentimendu handiz kantuan, gainerako bezeroek entzuten zieten bitartean, ongi kantatzen zutenei errespetu handiz entzuten baitzitaien. Ondoko mahian andre-gizon bikotea omen zegoen, adinduak eta atzerritar itxurakoak, ardo botila baten aurrean, entzuten haiek ere. Mokoroak harmonizatutako Egunsentia ari ziren kantatzen, “ixilik dago tantai gañean / lengo txori berritsuba / lumatxo bigun arro artean / gorderik bere buruba”, eta herabe hasieran baina gero eta gogotsuago ondoren, bikote atzerritarraren ahotsak batzen zitzaizkiela konturatu ziren. Kantu bera hizkuntza desberdinetan kantatu zuten beraz, zirrara berdinka lotuta, baina harrituta hain berea zen zerbait orobat izan zitekeelako atzerritar batzuen. Amaitu zutenean gizon-emakume zaharrek malkotan zeuzkaten begiak, eta topa egin omen zuten beren aberri urrunagatik...”.

Abertzaletasunaren ernamuinak iraganean daude, eta oraina du kontraispilu. “Garai haiek... politikaz hitz egin beharrean bizkarretik helduta kantatzen genuen haiek”. Lehendabizi sentimendu suharra; gero dator politika. Abertzaletasunaren muinean seguru asko emozioaren zirrara dago, nahiz eta ideologiaren mozorropean agertu. Iraganean daude gaztetasuna eta zinezko maitasunaren edertasuna; orainean, berriz, maitasunaren porrotak, bizitzaren desenkatu eta dezepzioak. Oroimina. Erromantizismorik gabe ez dago historikoki abertzaletasun sentimendurik; beraz, erromantizismoa errealismoari eta positibismoari kontrajarren zaizkio hemen. Subjektiboa eta ideala, batean; eta objektibotasuna eta erreala, bestean. (Schopenhauerrek ere, filosoforik artistenak, Wagner, Nietzsche eta Baudelaire xarmatu zituenak, artean eta, bereziki musikan, ikusi zuen bizitzaren lehia eta borroka eternalaren baitan atsedene sendagarri bakana).

Otzetako “Mendixa” jatetxetik sentibera atera zen Julia, eta Martutenera bidean: “Deban sartzen ari zirela, bertako hondartzan bizi izandako

eszena bat etorri zitzaion burura. Ez zekien ezer mutil hartaz. Gerran zebilela bai, eta beste aldera pasatzekoa zela... Biak etzanda, ahoz gora hondarretan etzanda... Ez da oroitzen ondoren, egun osoan zer egin zuen triste eta amultsua zen mutil harekin, agian ez zutela berriro elkar ikusiko errepikatzen ziola besterik. Errudun sentitu zen, dudarik gabe, borrokara zihoan gudaria agurtu ondoren bera etxera joango zelako, eta gaututakoan hondartzara bueltatzea eskatu zionean baietz esan zion. Maitasuna egitea ordea, berak proposatu zion... Gaez, ilargia zeruan uhinen murmurioa entzungo dudanean, zutaz oroituko naiz” esan zuen. Lehen aldia zen, halaber, brageta itxi ondoren zerbait polita esaten ziotela, eta nahitasun handia sentitu nuen harenganako” (2012: 182). Martini esan zion kantu baten pasarte etorri zitzaioa gogora: “Gaez ilargia zeruan uhinen murmurioa entzungo dudanean, zutaz oroituko naiz”. Musika eta hondartzako uhinen murmurioa dira mutilaren maitasunaren oihartzuna dakarzkionak. Martinen pixagurak erreskatatu zuen Julia bere amets giro ezitik, “eta Juliari arrunkeria iruditu zitzaion gernu gaietara pasatzea”.

2. James Joycek idatzi zuen “Hilak” ipuina, *Dublindarrak* (1999) ipuin-libururako idatzi zuen azkena. Festa baten ondoren, Gabriel eta Gretta bikotea hotelera itzuli ziren eta inpentsan andrea malkotan jarri zen. Festa amaitu eta abiatzeko zirela, gonbidatu batek kantu irlandar bat kantatu zuen, Grettari gaztetako maitearen oroitzapena ekarri ziona. Izan ere, Michael Fureyk kantu huraxe kantatzen zion Grettari. Baina Michael Furey hilda zegoen. Eta senarrak galdetu zionean ea zergatik hil zen mutila, berarengatik hil zela erantzun zion emazteak negar batean, bereganako maitasunak hil zuela. Hunkidurak eta penak abailduta loak hartu zuen Gretta, eta une horretantxe hasi zen konturatzen Gabriel bere emaztearen bizitzan jokatu zuen paper kaskarraz. Eta pentsatu zuen halako zerbait izan behar zuela maitasunak. Eta bera (eta baita Gretta ere) urrun zeudela jada gaztetasun eta edertasun distiratsu hartatik. Gabriel gizon prestua zen, eskuzabala eta errespetatua; haren ondoan, gas fabrika bateko enplegatua zen Michael Furey; ezer gutxi zen sozialki. Baina Michael Fureyrenak izango dira iragana, pasioa eta maitasunaren edertasuna. Eta Gabrielen orainaren bizitza zuhur eta arduratsua. Dramaren atze-oihalean, Irlandako nazionalismoa eta hizkuntza gaelikoaren aldeko aldarrikapena dabilta bueltaka; Irlandako eskualde abertzaleeneko zen Michael Furey, Galway-koa, eta handik zetorren baita ere Gretta. Eta azken hau hainbeste hunkitu zuen kantua kantu gaeliko bat zen. Gabriel, berriz, anglofonia zen, eta aldarrikapen abertzaletatik urrun bizi zen. Prentsa

ingelesean idazten zuen. “Lotan nola zegoen begiratzen zion, inoiz elkarrekin senar-emazte gisa bizi izan ez balira bezala. Gabrielen begi aztertzailleak luzaro egon ziren haren aurpegian eta haren ilean pausaturik, eta neskatilatako lehen edertasunaren garai haietan Gretta nolakoa izango zen pentsatu zuenean, adiskidetasunezko gupida bitxi bat sentitu zuen bere baitan harenganako. Ez zuen esan nahi, ezta bere arterako ere, Grettaren aurpegia jada ederra ez zenik, baina bazekien ez zela jada hura Michael Fureyk heriotzari desafio egitearen arrazoia (...). Pentsatu zuen nola ondoan zeukan emakume hark hainbeste urtetan gorde zuen bihotzean maitale haren begien irudia, ez zuela bizi nahi esan zionekoa.

Malko oparoz bete zitzaizkion Gabrieli begiak. Berak ez zuen inoiz horrelakorik sentitu emakume batenganako, baina bazekien sentimendu horrek maitasuna izan behar zuela” (1999: 330-331). Baina Irlanda osoan mara-mara erortzen ari den elurrak iragana eta oraina, hilak eta bizidunak, bilduko ditu zurtasun geruza batean estaliz. “Elurra ari zuen Michael Furey hilobiraturik zegoen muinoan, hilerri bakartiko bazter guztietan (...) eta elurra entzuten zuen Unibertsoan ilaunki erortzen, eta erortzen, ilaunki, beren azken buruko jaitsiera bezala, bizi eta hil guztien gainera” (1999: 332). Irlandako nazionalismo eta katolizismo hertsitzailerari bizkar emanez soilik irudikatu zuen Joycek bere burua artista gisa: *Artistaren gaztetako portreta*-n (1992) Irlandatik kanpo ikusten zuen bere burua. Erbestea zen artistaren patua. Baina emaztea, Nora Bernacle, “Hilak” ipuineko Gretta bezala, Galway-koa zuen, Irlanda mendebaldekoa. Artean gaelikoa hizkuntza bizia zen eskualdekoa. Eta harengandik ezagutu zuen “Aughrim-eko neska”ren kantua, gero “Hilak” ipuinean Michael Fureyk Grettari kantatzen ziona. Gainera, ipuinaren istorioa Nora emaztearen iraganeko maitasun batean oinarritu zen. Ipuin hori idatzi zuenean bikotekidea Erroman bizi zen. Baina “Hilak” ipuinean inoiz baino txeratsuago eta abegikorrago agertzen zen Irlanda zaharreko ohiturekin eta idiosinkrasiarekin. Ez dago inongo mespretxurik; alderantziz, J. Joycek ere arbasoen ahotsak entzuten zituen. Ohartua zen Irlandaren erakarmen sakonaz eta bere burua mastari lotu eta Ulises bihurtu zuen XX. mendeko heroi arruntaren eredu. Ez zuen nahi Irlanda sakonetik zetozkion sirena-kantuak irents zezaten.

Ramon Saizarbitoriaren (2000: 401-464) “Asaba-zaharren baratza” narrazioko Polikarpok ere atzean utzi nahiko lituzke gurasoengandik jasotako aginduak: nazionalismoa eta katolizismoa. Edo gutxienez horien pisua arindu. Ordura arte kristautasunaren bedeinkapenean gurtzen zen arbasoen baratze hori, odolarekin egin zen 68tik aurrera. 60ko hamarral-

ditik aurrera odolak bustitako baratze bilakatu zen. Yeatsen *Cathleen ni Houlihan* (Negarrez igaro zen atsoa, 1902), Errepublikako urteetan behin baino gehiagotan taularatutako antzerki horretako atsoak Irlanda sinbolizatzen du, eta Donough baten heriotzari kantatzen dio hitz hauexekin: “Nireganako maitasunez hil zen; asko dira nire amodioagatik hil direnak”. Lauaxetak “Mendigoxaliarena” poeman zioen moduan: “Dena eman biar yako / matte dan askatasunari”. “Askatasuna” esaten denean “Aberria” esan nahi da. Poesia, emozioa, sedukzioa. Poema elegiakoak (“Orhoit gutz”) edo narrazio elegiakoak (“Hilak”). Nostalgia eta malenkoniak orain konkretutik urrun gelditzen zaigun iragan ahaztezin baina zehaztugabe batera eraman nahi gaitu. Baina metafora eta ahots zehaztugabez ez da nobela errealistarak egiten; gauza bat da haien musika gozoak limurtzen uztea, eta beste bat haien esanetara errenditzea. Artista batek homeopatikoki erakarriko ditu emozio irrazionalak bere lanera, eta itxura konbentzional batera ekarriz, haien garapen eta kudeaketa gobernatuko ditu. Eta hemen bai, detaile eta zehaztasunik ez da faltako, “Otzeta”ko Eszilaren eta “Martutene”ko Karibdisen artean nabigatu beharko du, iraganaren eta orainaren artean, emozio eta desira sutuen eta arrazionaltasun zibilizatuaren artean.

3. Joxe Azurmendiren azkeneko liburuaren izenburuaren osagaiak hiru dira: hizkuntza, nazioa eta estatua. Esango nuke izenburu horretako hiru kontzeptu horien inguruan bildu dela egilearen azken urteetako ekarpen zabal eta oparoena: *Humboldt: hizkuntza eta pentsamendua* (2007), *Voksgeist-Herri gogoia: Ilustraziotik Nazismora* (2008), *Historia, arraza, nazioa* (2014) eta *Hizkuntza, nazioa, estatua* (2017). Liburu oparoak, jakingarriak eta erudizioz beteak dira guztiak. Asmorik banu ere, ez dut neure burua gai ikusten liburuek mereziko luketen sakontasun mailan aztertzeke. Nire asmoa askoz ere xumeagoa da, baina ez horregatik axola gutxiagokoa, ezen ez da desafio makala (ala bai?) artikuluen hasieran planteatu den galderari erantzutea: “Zer zarete zuek lehenago: abertzale ala demokratik?” *Demokratik eta biolentoak* (1997), baina berdin *Oraingo gazte eroak* (1998), biak ala biak egoera historiko konkretu eta bertsu batean idatziak. Handik aurrera ez dira asko Joxe Azurmendiren liburuetan bueltaka dabiltzan gogoeta gaiak: nazioa eta estatua (politika eta boterea), ilustrazioa eta erromantizismoa, hizkuntza eta demokrazia. Fitxa horiek bi sailetan banatu beharko bagenu, halaxe geratuko litzaiguke tableroa: erromantizismoa, nazioa eta hizkuntza, batetik; eta ilustrazioa, estatua eta demokrazia, bestetik. Herder eta Humboldt, batetik; eta ilustratu frantsesak,

bestetik. Baina azken horien artean ere badira diferentziak: lehenengo taldekoengandik gertuago eta are eragileago, Rousseau eta Montesquieu; eta beste muturrean, bigarren taldearen buru, Voltaire. Kant-ek lanak emango dizkio: ezin uka zenbat duen komunean, ikuspegi historiko, kultural eta antropologikoan, Ilustrazio alemanarekin, baina Herderren eta Humboldtten nazio pre-politikoaren aurrean, Kant errepublikanoa zen eta politikak eta estatuak buruhausteak ematen zizkion; eta gainera, haren etika kategoriko, baldintza gabeko eta unibertsalaren altzoan ez da eroso sentituko. Bai, badakigu bereak direla, azken finean, Ilustrazio betearen azken aldarriak: “Aude sapere!” (ezagutzak askeago egiten gaitu) eta “gizakiak adingabetasunetik atera behar du”.

Jon Sudupek bere *Muniberen ametsa: euskaltasuna eta modernitatea* (1997) liburuan Ilustrazioaren alde idatzitako lau ideia nagusiri erantzunez abiaraziko du Azurmendik Ilustrazioaren kritika *Historia, arraza, nazioa* liburuan (2014). Hauxe zioen Sudupek Ilustrazioaren haritik: “... Ilustrazioak idealik badu, ez da inola ere nazioa, gizateria baizik; ez da nazionalismoa, kosmopolitismoa baino; esentzia historikoen bilaketa ez, baizik aurrerapena. Voltaire, Hume, Kant, Ilustrazioaren ordezkariarik onenatariko guztiak, arrazarik eta mugarik ezagutzen ez duen gizarte eta giza kontzepzioaren aldekoak ziren esplizituki” (in Azurmendi 2014: 178). J. Azurmendiren erantzunean, aipatutako filosofo guztiak eraitsi nahiko litzukeela ematen du, halakoxea baitzen emandako erantzun haserrea: “Voltaireren kosmopolitismoa oraintxe ikusiko dugu; are, Ilustrazio frantsesaren prototipo hori esklaberiaren aldezea zen (...) Humerentzat, orobat, beltzak apenas dira gizaki arrazionalak (...) Kantentzat ere beltzak ezgauza dira pentsatzeko eta sentitzeko (...) Emakumeei eta juduei buruzko haren iritzi negargarriak hobe ez aipatzea. Hainbaten iritzian Kantek zabaldua da arrazaren kontzeptua giza zientzietan”. Ezin du eraman Azurmendik Ilustrazioaren ondarea tamaina horretara mehetzea, lau “tropo” abstraktura errenditzea; gainera, abstrakzio horiek boterearen lanabes nagusi bihurtu direnean. Azken batean, Ilustrazio frantsesaren morroi esaneko asko aurkitu du Espainia aldean, beti Frantziako intelektualen jarraitzaile sutsu. Eta beste hainbeste bertako zenbait intelektualen kasuan; horrexegatik Renani eskainitako liburua: horko “Demokrazia eguneroko plebiszitua da” eta halako topikoen atzean dagoen substantzia bistartzeko. Eta inpaktuzko esaldiaren atzean dagoena da, hain zuzen ere, adierazi nahi den demokraziaren izpirituen kontrakoa: nazionalismo amorratua; gerra eta lurraldea (Alsazia eta Lorrena) galdu dituen Estatuaren nazionalismo erresumindua.

Laburbilduz: Erromantiko alemanen ikuspegian ez du Estatuak nazioa eraikiko; alderantziz baizik, nazioak, herriak sortuko du Estatuak. “Naturala –idazten du Azurmendik (2014: 245) Maziniri jarraituz– nazioa da¹; Estatuak... beti da artifiziala, gerraren (“*creazione brutale della forza*”) edo diplomaziaren ekarpen mudakorra...”. Baiki, Hobbes-ek (1993: 143) itzulingururik gabe adierazi zuen bezala, ezpatarik gabeko itunak hitz antzuak dira, *flatus vocis*. Estatuak boterea da; bere legalitatea indarrean oinarritzen da. Trotskik disimulurik gabe esan zuen hori Brest-Litowsk-en, Lehen Mundu Gerrako armistizioko negoziazioan, eta Max Weberrek gogorarazten digu bere formulazio klasikoan: “Estatuarena da indarraren monopolioa” (2001: 255-256). J. Sudupe eta enparauak buruan, guztiak ere Estatuak zirkulazioan jarritako *doxa* moderno berriaren jarraitzaile akritikoak, esango du: “Ilustrazio-A (sic) goratzeko joera dago gaur gure artean (ezer ez horren kontra, geu ilustratuak izaten saiatzeko baldin bada). Egiaz, ederra da Ilustrazioa. Baina ez Ilustrazio guztiak eta ez kapitulu guztietan” (2014: 186)². Badakigu Herderren eta Kanten artean, Herder herrizalea, naziozale apolitikoa, aukeratuko digula Azurmendik, eta ez Estatuaren arrazionaltasunaren aldeko Kant ilustratua. Baiki, Herderren, Goethen, Schillerren, Humboldt-en nazioa kulturala eta apolitikoa zen. Herderrentzat kultura guztiak zelai bakarreko kolore desberdinetako loreak dira. Harentzat (eta Humboldtentzat), gizakiak direna ez ditu egiten beren artean komun dutenak, diferentziak baizik. Kolore-aniztasuna eta bizitzaren testura ugaria aldeztuko dute. Arrazoimen mende-

-
- [1] Ez gara luzatuko gai horren inguruan dagoen teorizazio eta polarizazioarekin: batek *primordialistak* (nazioa da lehena), besteak *modernistak* (E. Gellner) edo *instrumentalistak* (E. Hobsbawm-en) “tradizio asmatuak” edo “Asmatutako artefaktu kulturalak” (Estatuak sortu ditu nazioak); Benedict Anderson-en “Imajinatutako komunitateak” edo Anthony Smith-en etno-sinbolismoa (azken hauena moderatua goa, baina “nazioa”ren egitatetik abiatuz.
- [2] Herderrek (eta Erromantizismoak oro har, baina bereziki alemanak: Goethe, Schiller), Frantziako Ilustrazio dogmatiko eta harroari, arrazionalismo eta zientifismo hotz eta uniformatzaileari emandako erantzuna bortitza izan zen. J. Azurmendik bere gain hartu duen zeregina da Estatuak eta haren zerbitzari intelektual organikoengandik, ez Madrilekoak soilik, amorrutatik hartuko dituzten etxeak –Parisetik Madrilera eta handik hona–, hirugarren eskutik xurgatutako edabearen debotoei topikoaren mozorroa kentzea. Halaxe egiten du Renan-en figura intelektual eta haren esaldi artxiezagunaren jarraitzaile akritikoekin (*Zer da nazioa?*: “Eguneroko plebiszitua”). Halakoa da haien ahotan entzundakoek eragiten dioten hozkia, aipatzearekin bakarrik, beste testuinguru batean estimuan lukeen filosofoa, borroka intelektuale-rako aitzakia bihurtzen zaiola. Azken batean, Azurmendi bere onetik atertzen duena da gorago aipatu dudana huraxe, hau da, arrazoimenaren lau tropo merkeren izenean bizitzaren dimentsio on eta estimagarri asko, mespretxu eta harropuzkeria intelektualez gainezka, ukatzea.

ratzaile eta harroari mingaina atereaz oldartu zitzaion Hamann aitzindaria Ilustrazioari; Herderrek, geroxeago, esan zuen ez zegoela bera hemen pentsatzeko, izateko baizik, sentitzeko eta bizitzeko. Bizitzak pentsatzen du, eta pentsamendua bizi da. Zergatik bereizi behar dugu arrazoia emozioaren altzotik. Herderrek bazekien –gero Nietzschek bezala– fikzioen hausle agertzen zen arrazoimena bera ere beste fikzio bat zela. Fikzio berri bat jainkotzea. Ideologia bat. Arrazoimen logikoa antzua eta lehorra da; hotza da poesiaren aurrean. Poesia, berriz, bizi-emaile. Ez zuen besterik esan Goethek Mefistofelesen ahotik *Fausto* bikainean: “Teoria oro da grisa... eta berdea bizitzaren urrezko arbola” (2014: 107).

4. Zer egiten dugu orduan Ilustrazioaren eta Iraultzaren tradizioarekin, bizi ditugun Ilustrazioaren ondorengo garai hauetan? Ez Argien mendeko filosofo ilustratu haien baikortasunik, ez Kanten ziurtasun kategorikorik gelditzen ez zaigunear? Zer egiten dugu –kontraesanak gorabehera– lau kontzeptu nagusiren inguruan biltzen den Ilustrazioaren ondarearekin? Arrazoimena, zientzia, humanismoa eta aurrerapenarekin? Humanismoarekin Frantziako iraultzarekin batera aldarrikatu zen “Giza eskubideen aldarrikapen unibertsala” (1789) dago, giza duintasuna babesteko helburuarekin egina, eta demokraziaren muina elikatzen duen aitormena.

Isaiah Berlinen (1983, 1992) ahaleginean dago alea eta lastoa bereiztea, hau da, Ilustrazioaren ondarearen balio positiboak erreskatatzea, negatiboetatik bereiziz. Zeintzuk ziren balio positibo horiek garbi zegoen: Erregimen Zaharreko autoritate aristokratikoaren eta dogma erlijiosoaren aurka matxinatu izana; giza eskubideak eta askatasun pertsonalak Estatuaren tiraniaren aurrean; arrazoimenaren estimua arazoak konpontzeko baliabide gisa. Negatiboak: balizko giza izaeraren izenean, gizakiaren dimentsio historikoa alboratu eta giza balio berdintzaile eta unibertsalak inposatu izana. Izan ere, giza izaera abstraktu horren gainetik dago gizaki historiko konkretua (familia, komunitatea, nazioa). Herderri jarraituz, Berlinek –eta biei jarraituz J. Azurmendik ere bere egingo du– nazio bakoitzak bere ibilbidetxoa egin beharko lukeela zioen, berebera lukeen modu eta jomuga helburu. Zinez konplikatu da balioen arteko konfliktuen artean nabigatzea, bateraezinak direlarik maiz balio horiek beren artean (askatasuna, berdintasuna, anaitasuna). Gainera, mundu koxkor honetako beste izaki bizidunen antzera, gizakiok ere badi-tugu, han eta hemen, geure-geureak ditugun behar konstanteak. Non ez

da oinazea oinaze eta umiliazioa umiliazio? Zein da, baina, laburtuz, Ilustrazioaren azken ondarea? Richard Rorty (1996: 55) pragmatistari jarraituz, esango nuke ideario edo ideia-sorta horien ondorioz sortu diren zenbait erakunderen balioa eta geure egin ditugun zenbait praktika sozial edo prozedura politiko daudela.

Martuteneko hiru protagonista nagusien abertzaletasuna defentsiboa zen, nork bereari eusteko eta mantentzeko ahalegina. Batentzat, 1789ko giza eskubideen aldarrikapen unibertsalak bere ADN politikoan daude; bestearentzat, jakintza modernoaren sinbolo bihurtu zen “Entziklopediako” alea errespetuz gordetzekoa da. Hirurak sentitzen dira nolerebait –nahi diren ñabardurak erantsi– Ilustrazioaren oinordeko. ETArek historiako sasoirik gogorrenetan idatzitako *Demokratak eta biolentoak* liburua ez dago, ordea, ñabarduretarako; tazituki eta erabakitasunez hobesten ditu, Ilustrazioaren eta Frantziako Iraultzaren aurka, ideario aristokratiko eta antiburgesa. Libururako aukeratu dituen “*Les maîtres penseurs*” (Mirande, Spengler eta Nietzsche) ez ziren, inondik inora, maisurik egokiek hala moduzko demokrazia batean ezin asmatuz zebilen gizarte baterako. Hirurak ere egile aski interesgarriak izanda, horretan ez dago dudarik, haien pentsamendua irrelebantea zen (eta da) politikaren praktikorako. Aipatutako egile horiek (beste filosofo eta idazle askok bezalaxe) pazientzia gutxitxo erakutsi ohi dute jende arruntaren zorientasun nahi (txatxuen) aurrean. Eta politikari horixe dagokio: pertsona desberdinen amets eta zorientasun xedeen artean gerta daitezkeen talkak saihesteko dago politika. Erromantizismoa ez da egokia politika egiteko orduan. Gauza bat da zer egiten dugun geure bizitza pribatuarekin, edo zer egiten dugun geure bakardadearekin –edo desira eta gurari pertsonalekin–, eta beste bat da espazio publikoa, non politikak agintzen baitu. Esparru batean, beraz, norbere bizitza sortzailea edo garapen pertsonalarena; eta bestean, esparru publikoa, politikarena. Ez baldin baditugu bi esfera horiek bereizten, politika abentura bat bilaka daiteke: borroka heroiko bat. Sakrifizio heroikoa eta autoimmolazioa. Porrota bera bihurtu zaigu arrazoizko arrakasta baino nobleagoa.

Aukeran, nahiago nukeen, Miranderen ordeztan, Koldo Mitxelena bat aukeratu izan balu, esan zuena: “Ni demokrata naiz lehendabizi, eta gero abertzale”; edo Spenglerren metafisikaren ordeztan, John Dewey filosofo sozialdemokrata; edo Miranderen tamainatxora ekarritako Nietzscheren ordeztan, Vattimoren eta Rortyren Nietzsche metaforazalea, metafisika birrindu zuen filosofo metafora berritzailea. Izan ere, belaunaldi bakoitzak bere erara interpretatu du Nietzsche: 1900eko hamarkadak, naziak, 60-

70eko hamarraldiak, hogei urte geroagoko postmodernoak. Baina halakoxea (eta halakoxe testuingurukoa) idatzi zuen liburua. Edo momentuan momentuko lana izan zela, historia konkretu bati erantzuteko premian idatzia. Borroka baten dilema intelektual eta moralak leuntzeko (edo argi egiteko) laguntzen zuena, beharbada. Ez da besterik *Barkamena*, *kondena*, *tortura* (2012) liburua. Gatozen, azkenik, Azurmendiren *Hizkuntza*, *nazioa*, *estatua* liburuko hirugarren atalera, “Euskal nazioaren etorkizunaz” diharduenera (2017: 96-100). “Politikan, politikan bezala” azpiataltxoan hauxe idatzi zuen: “ETAren zikloa amaiturik, orain politika demokratikoaren arauetara bigundu gura bada, ordezkartza eta bozketa sistemara batik bat, horren mekanismora makurtu beharra dago. Urrutiko helmuga izan liteke burujabetasuna, baina hartarako estreina tresnak behar dira; tresnak lortzeko (demokratikoak), bozak irabazi behar dituzu... Politika demokratikoak bere inperatibo kategorikoak ditu”.

Borroka (armatu eta intelektual) luze baten ondoren, iritsi gara –ezinbestean bezala: “gura bada”, “makurtu behar”, “baina hartarako”, “inperatibo kategorikoa”– daukaguntxo errealitate demokratikoaren oholtza onartzera. Hurrengo paragrafoan, hau: “Ezker abertzale iraultzaileak bere aldetik ezin izan zuen Urrezko Ahari-Larruaren Kolkidaraino arribatu (ispilukeri bat zen itsas mortuan), bigarren nabigazioari ekin bide dio, ezkerrean Iraultzaren abangoardia monolitikoaren tokian subjektuen pluralismoa eta bakoitzaren autonomia bedeinkatzen da... Asmoa ez da txarra apika. (Gizartea kolpe batetik irauli ezin denean, mihi-tru-moiak apaldu eta kolpetxoka-kolpetxoka ahalegindu daiteke)” (2017: 97).

Nabigatzea eta naufragatzea. Bidaiatzea eta sufritzea. Jason eta argonautak. Ulises eta Odisea. Bizitzaren eta patuaren irudi klasikoak dira guztiak. Bai, iraultzarik ezin denean egin, erreformaren bidea geratzen zaigu. Ernesto Laclauk (Rorty, 1998: 60) sententziatu zuen Iraultza sobietarrarekin zabaldu zen zikloa amaitu zela Berlingo harresiaren erortzearekin batera. Eta horrekin batera, bortxaz konkistatutako boterearen ideia, alegia, ekintza prometeiko eta erromantikoaren irudi horrek gure imaginario kolektiboan izan zuen eragin kitzikagarria. Lehen nabigazioan ez zen helburua lortu; helbideek huts egin zuten, alegia, ez ziren nahiko efikazak suertatu helburua eskuratzeko. Saiatu bai, baina... helburu eta bitartekoen kalkuluan huts egin zen. Eta kito!

Balorazio moralak bakoitzarentzat geratzen dira (damua, barkamena eta hori guztia); balorazio politikoak bai eskatzen du arduratsu izatea hartutako erabakiek gizarteari ekarri dizkieten ondorioekin. Max Webe-

rrren ildoan, emaitzen edo arduraren etika da politikarena. Eta hor bai ez zaigula besterik gelditzen asmatu ez genuela onartzea baino. Ea bigarren nabigazio horretan asmatzen den! Eta hurrengo paragrafoan: “Beste korapilo bat: politika iraultzailea azken helburuak bero-bero premiaraztetik bizitzen da (eguneroko eginkizun hurbilak gutxiesteko arriskuarekin). Politika demokratikoa hotz-hotzean hurrengo lauzpabost urteak programatzera mugatzen da (urruneko helburuk ahazteko arriskuarekin)” (2017: 98). Eta jarraian Iraultzaren kulturaren kritika sakona egiten da: “Errealitatea, ez administratu soilik eta ez hankaz gora jarri (egunero Iraultza egiten: eta ehun urte horrela..., Iraultzaren ideia Iraultzaren ideologia bihurtzen da eta beti arrazoidunen opioa –diskurtso total ezlekuko, total antzu edo, okerrago, hoberenaren aitzakian hobeagoaren etsaia), ezpada egoera sozialak aldaraziz joan gura baldin bada, eta hori demokratikoki egin...”. Mendebaldekoa gizarte sekularizatu (metafisikatik sekularizatu) eta demokratikoetan ezerk ez luke izan behar sakratu, ezen maneiatzen ditugun “egiak” geure esku daude, geuk sortuak direlako. Zaila du ezkerak? Sakrifizio epikoak amaitu dira. Jendeak ondo bizi nahi du, ez erredimitua izan. Rorty (2005: 190; 1999: 94) pragmatistak ere badarabil *Cuidar la libertad* (baita *Forjar nuestro país*-en ere) liburuan Azurmendiren esaldia: “hoberenaren aitzakian hobeagoaren etsai”. Hark honela dio zehazki: “Hoberena ez da beti hobeagoa”. Peter Sloterdijk-ek (2018: 72), berriz, honela formulatu zuen ideia bera *¿Qué sucedió en el siglo XX?* liburuan: “Beti da hobereña onaren etsaia”. XVIII. mende erdi aldera zirkulazioan jarri zen “Le mieux est l’ennemi du bien” *dictum*-a da, gaur eta hemen, erreformismo politikoaren aldeko aldarri garbiena; ez, ordea, guztizko utopiaren lilurapean bizi den ezkertiarrena, jomuga utopikoa desagertu arren, atzo arte iparrorratz izan zen horizonteari begirik kendu gabe jarraitzen baitu (Sloterdijk, 2018: 109). Horiek ez dute nahikoa legeak aldatu edo hobetzearekin, sistema iraultzea dute xede. Perfekzioa ez da mundu honetakoa, ez politikan, ez bizitzan. Kanten esaldi ezagun hura hona ekarriz: “gizadiaren egur okertutik ez da ezer zuzenik egin”. Kontuz ba idealista zintzo, bihotz zabal, eder eta handiekin! Mira eta madarikazioa batera. Demokrazia bera da ideal handi bat. Eta nola ez ba, Freudez geroztik demokraziaren oinarrian postulatu ohi den gizabanako arrazional bera ere helburu (ideal) baino ez denean. Honela jarraitzen zuen Azurmendiren kritikak:

“... Beharbada aurreko urteotan, kulturatik eta euskaltasunetik gatozenok batik bat, ideien diskurtsoan gehiegi pentsatu dugu eta gutxiegi jendearen sakelako interes politikoan... Euskalzalea txantxangorri norba-

nako samarra da eta ez dago gaizki haren egitasmo teorikoa amore ematerik gabe idealista izatea (adiera positiboan)...” (2017: 98). Baiki, ez da baina soilik hemengo gaitza. Ez da besterik gertatzen unibertsitate askotako “Teoria” departamenduetan. Politika kulturala hobesten dute politika errearen gainera, beren jarduna kaleko erakunde demokratiko arruntetik gora begitanduz. Zenbat eta abstraktuagoa eta urrunagoa errealitatetik, orduan eta iraultzaileagoak, irudizko haize-errota iraultzaileetan borroka erretorikoan. Halako exhibizionismo intelektualak irrelebanteak dira politika errealista baterako. Azurmendiren hurrengo esaldiak ere osorik egiten ditut neure, eta gustura parafraseatuko nitzuke, baina ez nuke luzamendutan galdu nahi. Soil-soilik azken gogoeta ekarri nahi dut hona: “Zenbait kasutan –jarraitzen du Azurmendik– konfliktua egon liteke. Baina konfliktua “gainditu” ala konfliktorekin eta diferentziekin bizitzen ikasi, zer bilatu behar dugu?” (2014: 100).

Gogoeta honekin oso atzean utzi ditugu aurreko lanetako planteamendu batzuk, edo beste maila filosofiko eta politiko batera erakarri ditugu. Jakin badakigu, muturrera eramanda, edozein ideariotako azken balioen artean (askatasunaren eta berdintasunaren artean) dagoen bateraezintasuna. Freudez gero badakigu adimenaren eta instintuen arteko borroka nekagarriaz: “ni” arrazionalaren eta inkontziente irrazionalaren artean, instintuen eta sentimendu moralen artean. Arrazoi eta sentimenduen artean, edo norbanakoaren baitan lanean ari diren “ni” diferentiek planteatzen dituzten alternatiba bateraezinen artean. Nola nabigatu Eszila arrazoizkoaren eta Karibdis desiratsuen artean? Badakigu horixe dela norbanako mendebaldar eta modernoan eguneroko bizitza, eta desir sorta ugariaren artean oreka moduko bat irudikatuz xahutzen ditugula gure indarrak. Ideia diferente eta bateraezinak maniatu beharko ditugula aldiro, ez bataren eta ez bestearen ziurtasun osorik izan gabe. Bizitzarako “jakinduria” hitza erabiltzen dugunean halako zerbaiterako erabiltzen da, hau da, geure barneko desira kontrajarrien artean oreka bat bilatzen asmatzen dugula. Eta politika eta moralaz ari garenean norbanako desberdinen desiren artean oreka bat asmatu beharraz, inoren amets pribatuak kaltetu gabe, eta, ahal dela, besterena inork zapaldu gabe. Rortyk (1993: 53) dioen bezala, ohartzeko garenean “koherentzia” eskatzen zuen egia-eraren teoria bat, bateratze edo egokitzearena (edo adiskidetzearena) izan beharko lukeela, ez soilik sinesteei edo usteei buruz, baita sineste eta desiren artekoa ere, Kantengandik pragmatismora pasatzen gara. Ez da gelditzen hor “metafisikaren” izpirik ere.

Eta konfliktoaren ataltxoarekin amaitu aurretik, onestidadearen etikan maisu –eta baita Azurmendiren pentsamenduaren bilakaeran gogoe-tagai– izan diren lekuko gutxi batzuk bildu nahiko nituzke hona: Max Weber, S. Freud, I. Berlin eta –*Martutene* eleberria ere gure etengabeko erreferentzia izanik– Montaigne. “Gizaki moderno gisa bizi nahi duenak, etsi egin behar du ezein aldaketa erradikalen ideala galtzera” esan zuen M. Weber (1974: 125) berak esango du, hurrengo, beste hau: “Egia da politika efikaza beti “posible denaren artea” dela . Baina ez da egia koxkorragoa ezen maiz posible den hori soilik ezinaren alde borrokatuz lor daitekeela”. Etsipena predikatzen zuen beste maisua Freud izan zen; tainamainako errepresio sozial eta kulturalera etsia, nahiz terapian errepresio hori leuntzen ahalegindu. “Ni”aren eta inkontzientearen arteko borroka ezin etsian, gizakiari buruz duen ikuspegia iluna da. Sendatzea baino areago leuntzea, eta “ni”aren arrazionaltasunaren eta inkontzientearen arteko hala moduzko adiskidetzeta. Freudek poeta miresten zuen, baina infantila zeritzon. Gizaki moral arruntak aspertu egiten zuen, baina heldua zeritzon. Moises (edo Anibal) bezalako lege-emaile, kultur sortzaile edo heroiak miresten zituen aldi berean zituen begiko legeari eta kulturari mingaina atera eta bere instintuak libre uzten zituzten errebeldeak (Rieff, 1966: 227). I. Berlin, berriz, hain zuhur eta egonarritsu ideiak aletzeko orduan, eta ideien eta bizitzaren inguruan gogoetatzeko orduan eta, aldi berean, ezin ezkutatu halako sinpatia ironiko bat Sorel edo 60ko hamarraldiko iraultzaileenganako. Balio moralik gabeko kontsumismo hutsalaren gizarteari bizkar emanez, arrunkeari eta asperdurari ihes eginez, bizitza sortzaileago eta sublimateago baten egarri agertzearen (Ignatieff, 1998: 339). Ilustrazioaren optimismotik (eta dogmatikotik) urrun guztiak. Konfliktoak, kontraesanak? Bizitza bezalakoxe. Montaigneren onestidade muturrekoari egindako omenaldia da *Martutenek* behin baino gehiagotan dakarren esaldia: “*C’est ici un livre de bonne foi, lecteur*”. Montaignek (2007: 1440) esaten zuen onestidadearen lepotik estutzen zion soka, obligazio zibikoarena baino askoz ere itogarriagoa zela. Nobelak ere horixe izan nahi luke.

5. Artikuluari (gehiegi luzatu zaigu) hasiera ematen zion galderak ez du honezkero axolarik. Honaino ekarri gaituen solasaren une honetan ez dakit Azurmendik nola egingo lukeen galdera, baina kosta egiten zait sinestea *Demokratak eta biolentoak* liburuan egiten zen bateraezintasun erradikalean formulatuko zukeenik gaur egun. Gure historia aldatu egin da, eta baita geu ere. *Martutene* nobelan interesatzen zaizkigun hiru

pertsonaiak (Abaitua, Martin eta Julia) Otzetatik datoz. Handik datoz, baita ere, Goytisolotarrak, nazionalekin gerra egin zutenak. Otzeta da abertzaletasunaren “etxea”. Handik datoz eta hara bueltatzen dira. Baina alde ere egiten dute, Martutenera (Donostiara) etortzeko. Esan dugun bezala, ez daude hango arnasari uko egiteko; hura ere beren mundua da eta, nolerebait, sentimentalki eta bihotzez hangoak dira. Baina ezingo dute han bizi. José Miguel Ullanen bertso batzuk ere isuri dira nobelan: “*diles / que no hay más raza que el azar / que no hay más patria que el dolor*” (2012: 295). Jakina, ez da egia osoa; baina hortik ere badago. Sagastizabal baserria biziberrituko da bertako semeak eta Argi perutarrek izan duten Peru semearekin. Eta jarraian jaioberriaren alde ospatzen ari direla, semea “*un vasco de verdad*” izatea du desira aitak: “Baina Peru benetako euskalduna izango dela esaterakoan, hitzez hitz “*un vasco de verdad*” da esan duena, ez dago txantxetarako: egiaztapen serioa izan da. Hala ere, Abaitua galdetzen ausartu da zer esan nahi duen “*vasco de verdad*” horrek, ardo goiztiarrak lotsagabetu egin duelako eta arestian bere emazteari erditzen lagundu izanak salbuetsi egiten duelako asmo gaiztorik izan dezakeen usterik. Ez dakiela oso ondo erantzun dio. Euskalduna izatea, jakina, baldintza ezinbestekoa eta zerbait gehiago definitzen ez dakiena. Iza-teko modu bat, estilo bat beharbada, eta irauteko desira. Euskaldun bezala izaten jarraitzeko irrika, hori nahi du Peruk hereda dezan.

Azken topa bat egitea Perurengatik proposatu du Abaituak. [...] Abaituak Peruz “*por Peru*” esaterakoan hark “*para que sea un hombre libre, gizon libre*” erantsi du”³ (2012: 555). Edozein identitate zamatik aske izatea; librea bere bizitzarekin nahi duena egin dezan.

Bibliografia

- Aldekoa, Iñaki, 2015, *68ko belaunaldia*, Donostia: Utruiusque Vasconiae.
- Azurmendi, Joxe, 1997, *Demokratak eta biolentoak*, Donostia: Elkar.
- Azurmendi, Joxe, 1998, *Oraingo gazte eroak*, Donostia: Elkar.
- Azurmendi, Joxe, 2007, *Humboldt: hizkuntza eta pentsamendua*, Donostia: Elkar.

[3] Hauxe idatzi zuen Juan José Solozababal-ek, Zuzenbide konstituzionaleko katedradunak, *Martutene* nobelari buruz: “Pero el gran argumento del libro, de lo que va verdaderamente, es el nacionalismo, y el soporte cultural, histórico y antropológico que le sirve de base. Es la explicación nacionalista de un nacionalista, conviene tenerlo en cuenta, pero el testimonio es inapreciable” (*El Imparcial*).

- Azurmendi, Joxe, 2008, *Voksgeist-Herri gogoa: Ilustraziotik Nazismora*, Donostia: Elkar.
- Azurmendi, Joxe, 2014, *Historia, arraza, nazioa*, Donostia: Elkar.
- Azurmendi, Joxe, 2017, *Hizkuntza, nazioa, estatua*, Donostia: Elkar.
- Berlin, Isaiah, 1983, *Contra la corriente*, México: Fondo de Cultura Económica.
- Berlin, Isaiah, 1992, *El fuste torcido de la humanidad*, Barcelona: Península.
- Berlin, Isaiah, 1999, *Las raíces del romanticismo*, Madrid: Taurus.
- Berlin, Isaiah, 2000, *Vico y Herder*, Madrid: Cátedra.
- Bobbio, Norberto, 1998, *Autobiografía*, Madrid: Taurus.
- Bobbio, Norberto, 2005, *Teoría general de la política*, Madrid: Editorial Trotta.
- Dewey, John, 1992, *La reconstrucción de la filosofía*, Barcelona: Planeta.
- Forster, E. M., 1983, *Aspectos de la novela*, Madrid: Debate.
- Freud, Sigmund, 1978, *Obras completas*, Buenos Aires: Amorrortu editores.
- Giddens Anthony, 2002, *Política y sociología en Max Weber*, Madrid: Alianza.
- Goethe, J. W., 2014, *Fausto*, Madrid: Alianza.
- Hobbes, Thomas, 1993, *Del ciudadano y Leviatán*, Madrid: Tecnos.
- Ignatieff, Michel, 1998, *Isaiah Berlin. Su vida*. Madrid: Taurus.
- Joyce, James, 1992, *Artistaren gaztetako portreta*, Bilbao: Ibaizabal.
- Joyce, James, 1999, *Dublindarrak*, Irun: Alberdania.
- Juaristi, Jon, 1997, *El bucle melancólico*, Madrid: Espasa Calpe.
- Montaigne, Michel, 2007, *Ensayos*, Barcelona: Acantilado.
- Rieff, Philip, 1966, *Freud. La mente de un moralista*, Buenos Aires: Paidòs.
- Rorty, Richard, 1993, *Ensayos sobre Heidegger*, Barcelona: Paidòs.
- Rorty, Richard, 1996, *Objetividad, relativismo y verdad*, Barcelona: Paidòs.
- Rorty, Richard, 1998, *Pragmatismo y política*, Barcelona: Paidòs.
- Rorty, Richard, 1999, *Forjar nuestro país*, Barcelona: Paidòs.
- Rorty, Richard, 2005, *Cuidar la libertad*, Madrid: Editorial Trotta.
- Saizarbitoria, Ramon, 2000, *Gorde nazazu lurpean*, Donostia: Erein.
- Saizarbitoria, Ramon, 2012, *Martutene*, Donostia: Erein.

- Sloterdijk, Peter, 2018, *¿Qué sucedió en el siglo XX?*, Madrid: Siruela.
- Sudupe, Jon, 1997, *Muniberen ametsa: euskaltasuna eta modernitatea*, Donostia: Gipuzkoako Kutxa.
- Vattimo, Gianni, 2000, *Diálogos con Nietzsche*, Barcelona: Paidòs.
- Weber, Max, 1974, *Sobre la teoría de las ciencias sociales*, Barcelona: Ediciones Península.
- Weber, Max, 2001, *Sociología del derecho*, Granada: Editorial Comares.

**Euskal nazionalismoa
Ramon Saizarbitoriaren *Martutenen*.
Iñaki Abaituaren eta Juliaren
gogo-bihotzetan haztakatzen**

*Basque nationalism in Ramon Saizarbitoria's
Martutene. Exploring Iñaki Abaitua's
and Julia's inner worlds*

Iker LEGARRETA
Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Unibertsitate Masterra.
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Jasotze data: 2018.09.21. Onartze data: 2018.12.10

LABURPENA

Ramon Saizarbitoriaren *Martutene* eleberria oinarri, euskal nazionalismoaren nondik norakoen azterketa izango da artikulu honen muina. *Martutenek*, euskal literaturaren historiako lan garrantzitsuenetakoa denak, badu euskal nazionalismoari buruzko berbaldi egituratu, aberats eta zabala. Eleberriko bi protagonista nagusiek, Iñaki Abaituak eta Juliak, hezuramitzen dute diskurtso hori, haien bizipenak, sentimenduak eta hausnarketak direla bide.

Bi pertsonaia nagusi horiek eskaintzen digute euskal nazionalismoaren gaiari –eta, bidenabar, nazio-identitateari– eta bi horiekin harremanetan dauden hamaika alderdiri heltzeko parada: euskal nazionalismoaren oinarriak eta haren transmisioa, nazio-identitateak klase eta genero aldagaiekin duen lotura eta harremana, nazio-identitatea bizitzeko eta sentitzeko era, nazio-identitate horrek uanean-uean sortzen dituen zailtasunak eta kontraesanak, nazio-identitatearekiko harrotasuna eta aldarrikapena, belaunaldiz belaunaldi jasotako nazio-identitatea eta horren zama, hurrengo belaunaldiei helarazi beharreko nazio-identitatea, horri loturiko irakaspenak etab.

Euskal nazionalismoaren, nazio-identitate euskaldunaren, iragana –oinarri historikoak–, oraina eta geroa batuko dituen ibilbidea egingo dugu Abaituaren eta Juliaren eskutik.

Gako-hitzak: euskal nazionalismoa, nazio-identitate euskalduna, gogo-bihotzak eta oroimena.

ABSTRACT

This article investigates the nature of Basque nationalism by means of an analysis based on Ramon Saizarbitorias *Martutene*. *Martutene* represents one of the most important work in the history of Basque literature and it presents a structured, rich and broad discourse about Basque nationalism. The two main characters of the novel, Iñaki Abaitua and Julia, express the discourse through their experiences, sentiments and thoughts.

These two main characters offer the opportunity to analyse Basque nationalism and countless aspects related to it: the transmission of Basque nationalism and its principles, the relationship between (Basque) national identity and class and genre variables, the way of feeling and experiencing national identity, difficulties and contradictions that arise from it, the pride produced by it and its proclamation, the heritage of national identity and burdens originated from this fact, the national identity in need of transmission to next generations, derived lessons and so on.

The study traverses a path along the past, present and future of Basque nationalism with Abaitua and Julia.

Keywords: Basque nationalism, Basque national identity, inner worlds and memory.

1. Sarrera. 2. Oinarri teoriko-metodologikoa: etnosinbolismoa. 3. Iñaki Abaitua-
ren barrunbeetan aztarrika. 4. Julia: iragana, oraina eta etorkizunaren arteko
bidegurutzean. 5. Ondorioak. 6. Bibliografia.

1. Sarrera

Atal honetan ez da nire asmoa euskal literaturaren alor akademikoa osatzen duen irakasle, aditu eta kritikari andanak *Martuteneri* buruz esan eta idatzitako gorai-pamen eta laudorioak biltzea, zerrenda aski luzea betetzen baitute¹. Nire aldetik, lan honetan garatutako ikergaiaren zer-nolakoen mami nagusia aurkeztuko dut atal honetan. Halarik ere, laburki bada ere, lehendabizi, *Martuteneri* buruz orain arte jorratutako uzta akademiko (urria) izango dut hizpide: *Martuteneren* gaineko *status quaestio-nisa*, hain zuzen.

Eleberriaren kariatara argitara emandako Iñaki Aldekoaren (2013) eta Jon Kortazarren (2012; 2013) ongi etorri artikulua² gorabehera, Joseba Gabilondoren (2013), Izaro Arroitarren (2015) eta Markos Zapiainen (2015) lan akademikoek osatzen dute *Martutenez* idatzitako corpus kriti-koa.

Joseba Gabilondoren *New York-Martutene. Euskal postnazionalismoaren utopiaz eta globalizazio neoliberalaren krisiaz (edo nola desiratuko dugu orain?)* (2013) *Martuteneri* buruzko lan monografikoa da, hura argitara eman eta urtebetera plazaratu zena. Orain arte argitaratutako *Martuteneri* buruzko azterketarik zabalena eta konplexuena biltzen duen lana da. Eleberriaren argitaraldia dela eta, beren-beregi apailatutako lana da. Bertan, Joseba

[1] Oraindaino argitara emandako kritika, erreseina, lan monografiko edo dena dela-koen gaintetik, uste dut Harkaitz Canoren (2012) idatzia dela *Martuteneren* funtsa eta haren izatasuna ondoen hezurramitu eta biltzen dituen. Horrenbestez, *Martutenez* jakin nahiko lukeen edonork du artikulua horretan zinezko harribitxia.

[2] Artikulu horiek, eleberriaren argitalpenaren kariatara, hura hizpide duten artiku-
luak dira. Eleberriari diosala egiten dioten lanak dira. Artikuluok *Martuteneren* bilbea osatzen duten ekintza nagusiak aipatzeaz landa, eleberriaren barrena mintzagai diren hainbat gai aurkezten dizkigute; baina, lan akademiko batek eskatuko lukeen ezau-
garririk gabe. Irakurleoi *Martuteneren* berri eta ongi etorri beroa ematea dute xede Aldekoak zein Kortazarrek.

Gabilondok Saizarbitoriaren eleberrari “oraindano idatzi den euskal eleberririk garrantzitsuena” deritzo (2013: 13). Adierazpen horren inguruan ardaztua dago lana, idazleak munta horretako iritzia bati eusteko funtsezkoak diren oinarriak aztergai baititu. Zio literarioak eta literaturaz haratagokoak –era berean, literaturarekin harremanetan daudenak– uztartzen ditu bere iritzia funtsetsatzeko.

Izaro Arroitaik (2015) bere doktorego-tesian, *Ramon Saizarbitoriaren nobelagintza memoria ikasketen ikuspegitik*, idazle donostiarraren eleberrigintza aztertzen du, aditu ugari garatu duen memoriari buruzko oinarri teoriko-metodologikoen argitan. Bere lanean honako hauek ditu arreta-gune: memoria, iragana edo identitatea, beste batzuen artean. Idazlearen ibilbide literarioan mugarri izan diren eleberriak –100 metro, *Hamaika pauso* edo *Martutene* bera, adibidez– aztertzen ditu kontzeptu horien guztien gidaritzapean. “Hirugarren belaunaldiari transmisioa *Martutenen*” du idazpuru *Martuteneri* buruz berariaz diharduen atalak. Horretaz gainera, badago *Martutenen* ageri diren Etxezar eta Sagastizabal baserriak solasgai dituen beste bat: “Euskal baserria”.

Markos Zapiainek (2015) bere *Saizarbitoria eta iragana* lanean, Saizarbitoriaren eleberrigintza eta hura osatzen duten pertsonaia-sorta aztertzen ditu iraganaren ikuspuntutik. Psikologia eta psikoanalisi darabiltza euskarri metodologiko; azken batean, pertsonaien barrua eta izaera baititu aztergai. *Martutenek* badu bere lekua Zapiainen lan horretan. Honako kapitulu hauetan eskaintzen dio tarte: “Euskaldun”, “Aita: Asaba zaharren baratza”, “Iragan biografikoa, pasio pertsonalak”, “Zer idatzi ETAz” edo “Transmisioa”.

Uzta horri errepassoa eman eta gero, ondoriozta dezakegu ez dela –oraindik– oso zabala *Martuteneren* gainean idatzitakoa. Ikerlari horiek zabaldutako bideari lotuko gatzazkio eta *Martutene*ko unibertsoan murgildu eta sakonduko dugu. Bertan barrendu ahala xehetasun berriak bilduko ditugu eta aurretiaz batutakoari txertatu. Haien lanaren gehigarri eta osagarri izango da hemen garatutakoa. Edozein literaturak beharrezko du bere lan gailen eta mugarrien azterketa, zeruertz berriak urratze eta zabaltze aldera. Ildo horretan dago kokatuta lan hau. Aipatu lanek garatu ez duten ikuspegi berri bat zabaldu eta eskaintzen du lan honek, *Martuteneri* buruzko bibliografia aberastuko duena.

Ertz, alderdi edo ikuspegi askotatik hel dakioko *Martuteneri*, obra zinez konplexua, joria eta zabala baita. Era berean, aberatsak eta sakonak

dira idazleak bertan jorratzen dituen gaiak. Gai horiek guztiak harilkatuta daude eleberri osoan zehar eta gorputz bakarra osatzen dute.

Martinek jendaurrean eman hitzaldi batean, Juliak hura ezagutu zuen egunean hain zuzen ere, honakoa nabarmentzen du: “edozein muturrek balio duela historia baten matazaren haritik tiratzeko” (Saizarbitoria, 2012: 10). Guk ere *Martuteneko* hariletik mutur bati tira egin eta honako hau da lan honetan garatuko dugun aztergaia: euskal nazionalismoaren irudikatzea Iñaki Abaitua eta Juliaren, *Martuteneko* pertsonaia nagusien, eskutik.

Euskal nazionalismoa –eta, bidenabar, nazio-identitate euskaldunajirabira zurrunbilotsuan dabil iragana, oraina eta etorkizunaren inguruan *Martutenen*. Berau Iñaki Abaitua eta Julia protagonistek irudikatzen dute, luze eta zabal mintzo baitira euskal nazionalismoari dagokion alderdi oroz, barne-gogoetak edo haien inguruan jazotakoak sorrarazten dizkien iritzi eta pentsamenduak direla medio.

Iñaki Abaitua eta Julia dira eleberriko bi ahots narratibo nagusiak. Eleberri osoan zehar garatzen diren ekintza eta bilbe konplexu ororen gaineko nondik norakoen multzoa, haien ikuspuntu eta barrenetik jasotzen dugu. Ekintzon garapenez beste, unean-uneko pentsamendu- eta gogoeta-meta bi pertsonaia horien galbahetik iragazten zaigu. Horrenbestez, zuzen-zuzenean haiengandik jasotzen dugu pentsakizun eta hausnarketa oro.

Termino narratologikoetan azaltze aldera, esan beharra dago narrazaile extradiegetikoarengandik jasotzen dugula horren guztiaren berri, Abaitua eta Juliarengan etengabe fokalizatzen baitu. Eleberri osoan zehar bi plano nagusi txandakatzen dira: lehenengo planoa Juliarengan fokalizatuta dago eta, bigarrena, aitzitik, Abaituarengan. Haien jardun propioa ez ezik, nor bere bikotearena ere fokalizatzen du³.

Beraz, eleberrian zehar garatutako euskal nazionalismoari buruzko berbaldia bi pertsonaia horiengan ardazturik dagoen heinean, Abaitua eta Julia izango ditugu gure azterketarako bazka.

[3] “Pilarren ahotsa Abaituak fokalizaturik entzuten dugu, Abaituaren ikuspuntutik. Juliak, haatik, bere ahotsa du, eta Martin fokalizatzen du. Izan ere, eleberria kronologikoki eraturik dago, eta kapitulu bakoitzean, txandaka, Abaituaren eta Juliaren ahotsak entzuten ditugu, gehienik hirugarren pertsonako zeharkako estiloan –batzuetan zeharkako estilo libre ere bihurtzen da. Beraz, Saizarbitoriaren eleberri hau bi aho-tsezkoa dugu: dialogikoa” (Gabilondo, 2013: 136).

Abaitua eta Julia eleberri guztian zehar jarduten dira euskal nazionalismoaren eta hari lotutako hamaika alderdiren inguruan gogoetaka⁴. Gaia problematizatzen dute, modu gatazkatsuan bizi dute –iraganaren eta orainaren arteko talkan– eta badute horren inguruko berbaldi landua, pertsonaia bakoitzak bere ñabardurak baditu ere. Bi berbaldi desberdin, baina, era berean osagarri gorpuzten dituztela esan dezakegu. Bi berbaldi horietan alderdi ugari daude harremanetan: euskalduntasuna bizitzeko modua, nazio-identitate euskaldunak unean-unean sortzen dituen zailtasunak eta kontraesanak, horrekiko guztiarekiko harrotasuna eta aldarrikapena, belaunaldiz belaunaldi jasotako identitatea eta horren zama, hurrengo belaunaldiei helarazi beharreko identitate eta irakaspenak etab.

Bi berbaldi nagusi horiek –Iñaki Abaituarena eta Juliarena– xehatzea eta aztertzea da gure xedea. Bi berbaldi desberdin, baina, aldi berean, osagarri direnez gero, bi diskurtso horien zer-nolakoak aletuko ditugu. Azken batean, Iñaki Abaitua eta Julia direla bide, nazionalismoak jende askoren gogo-bihotzetan eragiten duen indarra aztertu nahi dugu.

Azterketa horri ekiteko, ezinbestekoa dugu gure azterketa oinarri teoriko-metodologiko batez hornitzea. Horretarako, baitezpadako euskarri eta sostengu izango dugu Anthony Smith-en *Ethno-symbolism and nationalism. A cultural approach* lana (2009).

Smithen ikuspegi etnosinbolistak nazionalismoaren funts eta zimendu sinbolikoa du oinarri nagusi; izan ere, sinbolismo horren indar boteretsuari muzin eginez gero, ez dago nazionalismoaren esparrua aztertzetik:

Es en este contexto interpretativo donde el estudio de los símbolos del nacionalismo adquiere una especial importancia como portadores de mensajes comprimidos que permiten la simplificación del complejo y abstracto concepto de nación a un “real body” (cuerpo concreto) que puede ser palpado, sentido, celebrado y llorado.

Sin la comprensión de estos mecanismos de comunicación, sin tomar en serio lo que Smith llama el “inner world”⁵ (mundo interno) del colectivo nacionalista con toda su carga subjetiva y emotiva –ésta es la conclusión

[4] “A través de Julia, de Martín y de Iñaki Abaitua, la novela mantiene un largo y profundo diálogo sobre el nacionalismo y su interpretación cultural, histórica y antropológica” (Aldekoa, 2013: 22).

[5] Eremu horixe da, hain zuzen ere, guk Abaituarengan eta Juliarengan arakatu nahi duguna: haien *inner world* da.

del teórico británico-, los estudios del nacionalismo se quedan cojos (Casquete, J. & Mees, L., 2012: 28).

Anthony Smithekin batera, Ana Gandara (2015) ere aipatu beharra dago. Izan ere, haren eskutik txertatu da oraintsu etnosinbolismoaren ildo teoriko-kritikoa euskal literaturaren esparruan. Bien ekarpenek sostengatuko dute lan honen euskarri teoriko-metodologikoa.

Etnosinbolismoaren inguruabar teoriko-metodologiko nagusiak aletu ondoren, Abaituaren eta Juliaren berbaldien nondik norakoei lotuko gaitzaizkie. Euskal nazionalismoaren esparruaren barruan, bi borroka desberdin –baina, zeharo osagarriak– dituzte.

Abaituak “artzainaren fundamentalismoa” deritzonaren kontrako borroka bizi du, euskalduntasun eredu klasiko, zurrun eta estu baten erakusgarri dena. Juliak, aldiz, euskal nazionalismoaren historiaren baitako bi eredu ditu borroka eta talka bizian bere barruan: batetik, gerraurrekoa, EAJ/PNV historikoarena; eta bestetik, nazionalismo berria, ETAK hezurmamitzen duena hein handi batean.

Azken finean, euskal nazionalismoaren gaineko irudia osatuko dugu Iñaki Abaituaren eta Juliaren gogo-bihotzen argitan, komunitate baten partaide diren heinean, bertako ezaugarriek bizi baitituzte.

2. Oinarri teoriko-metodologikoa: etnosinbolismoa

Arestian aipatu dugu euskal nazionalismoaren irudikapena garatzeko, Abaituaren eta Juliaren gogo-bihotzak izango ditugula hazkurri nagusi. Horretarako, nazionalismoaren teoria eta diskurtso nabarmen guztien gaineratik, Anthony Smithenak eskaintzen digu oroz gaineratik gure azterketa garatzeko heldulekurik apropos eta egokiena. Honatx, Smithen hitzetan, etnosinbolismoaren xedea:

The overall aim of an ethno-symbolic approach is to provide a social and cultural understanding of nations and nationalism, and the emphasis on culture stems, in large part, from the perceived need to supplement modernist approaches that focus on political and economic factors⁶ (Smith, 2009: 129).

Hark apailatutako etnosinbolismoaren teoria da Juliaren eta Abaituaren barrenak aztarrikatzeko heldulekurik egokiena:

[6] “Bertzeak bertze, etnosinbolismoak gaineratu egin baitio teoria modernistari nazioan faktore erreal, objektibo eta materialez gain, baliabide etno-kulturalak badirela eta beren eragina handia dela” (Gandara, 2015: 77).

Ethno-symbolists hope to provide concepts and heuristic tools for research into the social and cultural history of nations and nationalism. Theirs, as I said, is at once an historical sociology and a comparative history of nations and nationalism, with particular emphasis on the cultural and symbolic dimensions, and on the history and contents of ethnic traditions so often neglected by others (Smith, 2009: 131).

Among the reasons that ethno-symbolists are wont to give, the role of symbols, traditions, memories, values and myths figure prominently in explaining the causes and shape of the formation of nations and the success or otherwise nationalist movements. This is not to deny the importance of elite political, economic and military factors, especially in the timing and success of nationalist movements, only to seek a more rounded and adequate explanation through attention to the historical social and cultural factors that form the matrix for both these movements and the responses of the non-elites –the people– to whom appeals are so often directed⁷ (Smith, 2009: 135).

Etnosinbolismoaren eta ildo modernistaren arteko desberdintasunik behinena, Ana Gandarak dioen moduan, muinean duten ikuspegiak datza: “foku mudantza da teoria modernistatik etnosinbolismora gertatua: historia estrukturalistaren gailentzetik, historia kulturalerakoa” (Gandara, 2015: 77).

Hutsune edo gabezia bat betetzera dator etnosinbolismoa⁸: ildo modernistak, Ernest Gellner, Ernest Renan, Benedict Anderson, Eric Hobsbawm eta enparauena, bazter batean utzitako alderdi sinbolikoarena, hain zuzen ere. Hura berreskuratu eta haren zer-nolakoak nazionalismoa eta nazioen aztergaiaren erdigunean kokatzen ditu, sinbolismo hori guztia haren diskurtsoaren oinarri funtsezko bihurtzeraino: “[...] ethno-symbolists consider the cultural elements of symbol, myth, memory, value and ritual and tradition to be crucial to an analysis of ethnicity, nations and nationalisms” (Smith, 2009: 38).

[7] “Modernistek indarra domeinu material eta politikoetan jartzen dute; etnosinbolistak, ordea, ideologia eta ekintza kolektiboan motibazioarako baliabide subjektibo eta sinbolikoetan ardaizten dira. Horrenbertzez, azken horien asmoa hautemate nahiz ikuspegi indibidualak parte-hartzaileen barne-munduan sartuz ulertzea litzateke” (Gandara, 2015: 82).

[8] “Ethno-symbolism arose out of dissatisfaction with the purely structural accounts of modernism and their failure to pay attention to the cultural and symbolic elements that play so important a part in the formation and shape of nations and nationalisms” (Smith, 2009: 135).

Azken finean, Gandarak (2015) dioen gisan, ildo modernistaren ikuspegia aberastea eta nabartzea du helburu etnosinbolismoak. Hala definitzen du hark: “Paradigma Modernoaren azalpena osatu nahian eskaintzen den ikuspegi (zientifikoki) teorizatu gabea” (2015: 77). Izan ere, aipatu ildo modernistaren eta etnosinbolismoaren arteko alderik funtsezkoena, bien arteko bereizketa argi eta garbi ezartzen duena, esparru sinbolikoari ematen zaion garrantzian datza:

For ethno-symbolists, that means analysing communities, ideologies and sense of identity in terms of their constituent symbolic resources, that is, the traditions, memories, values, myths and symbols that compose the accumulated heritage of cultural units of population. This is to privilege the domain of culture only insofar as we are dealing with the form, contents and appeal of particular ideologies and sense of shared identity. Against the modernist emphasis on material and political domains, ethno-symbolists highlight the role of subjective and symbolic resources in motivating ideologies and collective actions. In doing so, they aim to enter the “inner world” of the participants and understand their perceptions and visions (Smith, 2009: 16).⁹

Alderdi sinboliko hori baztertuz gero, nazionalismoaren eta nazioen nondik norakoak ikergai dituen edozein ikuspegi hankamotz geratuko litzateke, ez lukeelako sentimenduen amarauna aintzat hartuko:

Too often, analyses that start from large-scale economic or political factors fail to explain the symbolic and affective dimensions of nations and nationalism. To grasp these, we must explore the ways in which cultural and symbolic elements of myth, value, memory and symbol provide frameworks for understanding and aspiration, and these are often, although not exclusively, embodied in a sense of common ethnic identity and of belonging to a cultural community of imputed common ancestry (Smith, 2009: 18).

By focusing on the “symbolic realm”, it becomes possible to enter to some degree into the “inner world” of the members of ethnic communities and nations, and of the participants in nationalist movements,

[9] “For ethno-symbolists, it is the community of the *nation* that must occupy centre stage and, as a result, symbolic resources merit much greater attention. This is not to say that nations do not require material resources, notably educational and cultural institutions. But these are difficult to separate from their symbolic dimensions and purposes and, while I will begin by considering some aspects of these institutions, the discussion will lead imperceptibly into a consideration of the more profound symbolic and cultural resources of nations” (Smith, 2009: 82).

allowing us to give a fuller and more balanced account of these phenomena (Smith, 2009: 26).

3. Iñaki Abaituaren barrunbeetan aztarrika

Abaituaren seme Loiola AEBetara joango denez gero, aita-seekek elkar agurtzeko darabilten modu traketsaren harira, Abaituari aitarekin behiala Hendaiako tren-geltokiko nasan izandako despedida datorkio oroimenera.

Abaituaren gogo-bihotzak erabat kordokatzen dituen oroitzapena da hura. Manu apokaliptiko baten gisa, barruak astintzen dizkiote aitaren lagunaren agur hitzek: “y no te olvides de que eres vasco” (Saizarbitoria, 2012: 598). Dogma zurrun baten oinarri-oinarrizko agindua bailitzan bereganatzen du “y no te olvides de que eres vasco” hori Abaituak.

Oharra laburtezina zen, osotasun inplizitu bati lotzen zion hasierako kopulatiboarekin. Agindu hura bere “ez duzu hilko” bezalako mandamendu apodiktikoen zamaz ezarri zitzaion kontzientzian (Saizarbitoria, 2012: 605).

Itoiarria eragiten eta sendor astun baten pean bizitzera behartzen duten hitzak dira. Zama saihetsezina biltzen duten sei hitz: “Itoan jartzen duen zama identitario bat, zeinaz ez den inoiz guztiz libre sentituko, zeinaz ezin den libratu errudun sentitu gabe” (Saizarbitoria, 2012: 605).

Aitaren laguna har dezakegu James Joyce-n *Retrato del artista adolescente* (1982) laneko Stephen Dedalus-en Davin izeneko lagunaren ordezkartzat. “Y no te olvides de que eres vasco” hori Davinek Dedalusi esaten dion “Procura ser uno de los nuestros” (1982: 240) horri egokitzen zaio bete-betean. Lehenik eta behin, norberaren gainetik dagoen kolektibitatea: “Pero la tierra de uno es lo primero. Irlanda, primero, Stevie. Después bien puedes ser poeta o místico, si quieres” (1982: 241).

Abaituaren *inner world*ean aztarrikatzen hasiz gero, lehenik eta behin esan behar duguna da euskal nazionalista dela Iñaki Abaitua. Ez da nazionalista itsu-itsua edo ortodoxoa, “nazionalista *sui generis*” baizik, Aldekoak dioen bezala (2013: 23); hots, nazionalista moldagarri, zentzudun eta malgua, ez zurruna. Lerrootara ekarriko ditugu profil horren agergarri diren hainbat froga.

Nazionalista izanagatik, eleberrian zehar han-hemenka isuritako hainbat hausnarketak erakusten dute Abaituak baduela nazionalismoa-rekiko jarrera kritikoa, norberarena bahetzeko zintzotasuna:

Berak ere ikusten du Euskal Herriaren balioaren gainbeherarekin jende batek desertatu egin duela, eta min ematen dio. Bestalde beldur da indarkeriaren gaitzespenari ez ote dion jarraitzen nazionalismoarena, eta azkenean euskal doinua duen ororena, zortzikoarena barne. Baina zein da nazionalismoa bera baino errudunago? ETA ZERGATIK EMATEN DIO MIN?¹ (Saizarbitoria, 2012: 149).

Horrez gain, bere nazionalismo zentzudunaren erakusgarri, onartzen du euskal nazionalismoak beharrezko zuela desmitifikazio tratamendupean jartzea, emandakoari gogorregia deritzon arren: “Euskal Herriak ziur asko beharrezkoa zuen desmitifikatze tratamendupean jartzea, baina sobera gogorra omen da ordea, gogorregia aplikatu diotena, eta hes-teetako flora arrastorik gabe ari omen dira uzten”¹¹. (Saizarbitoria, 2012: 247-248).

Aitzitik, Abaituak ezin ditu jasan, nazionalistak ez direnez gero, euren burua kosmopolitatzat jotzen dutenak. Haserre da bere nazionalismoari “aldeano” iraingarri eta gutxiesgarri hori egozten diotenekin¹². Jarrera horren adierazgarri da Abaituaren kide den Urrutiren sozioa:

Urrutik nazionalistatzat azaldu du inongo konplexurik gabe bere burua sozioak berea liberaltzat aitortzen duen bitartean; adiera klasikoan, zehaztu du. Eskuinekoa da, arras eskuinekoa, eta behin baino gehiagotan erabili du “aldeano” hitza Urrutiren segiziokoak izendatzeko, bisitariak pentsa dezaketenez arduratu gabe, agidanez. Abaituari ez diote onik egiten euskal nazionalista ez direlako beren buruak, bestelako meritu barik, kosmopolita eta ilustratutzat dituztenak, eta hauxe ez zaio gogoko (Saizarbitoria, 2012: 730).

Abaituari barrua arrakalatzen dio, bere identitate-oinarririk sendoenak kolokan jartzeraino, aberkideak omen diren emakumeentzat euskal-

[10] Ez du ulertzen zergatik ematen dion min. Arrazoiak ezin ditu bihotz aferak azaldu. Juliari beste horrenbeste gertatzen zaio: “Onartzen du arrazoiaren kontra dauden zenbait sentimendu ez dituela erabat gainditu baina, aldi berean, bere onetik ateratzen dute halakoetatik libre ageri diren arrazionalista arrunten xinpletasunak eta harrokeriak” (Saizarbitoria, 2012: 292).

[11] Izan ere, Abaituak askatzailea deritza azken boladan aski erreprimitutako iruditeriaren tanta batzuk erabiltzeari (Saizarbitoria, 2012: 247-278).

[12] Abaituak, aurreiritzi hori gaitzesteaz haratago, aurreiritzi horren zentzugabekeria gorpuzten du, atal honetan zehar ikusiko dugun moduan.

dunon ikur edo sinbolo nagusi eta adierazkorrena den ikurrina iseka gai izateak¹³.

Harrotasunez bizi eta sentitzen ditu Gerra Zibilean parte hartu zuten gudarien jarrera eta kemena, eta berari transmititu eta kontatu zioten antzo helarazten dizkio Loiolari gudarion ausardi eta egitandiak: “Abaitua bera izan da hartara ahalegindu dena, galtzaile duinek Intxortan egin zituzten balentriak harrotasunez transmitituz” (Saizarbitoria, 2012: 597).

Gudariez landa, euskal kantutegiko abestiek loratzen dizkieten emozioak hunkigarriak zaizkio Abaituari, abertzaletasunaren bultzagarri. Taberna batean Mokoroak ondutako *Egun sentiyaren* hainbat bertso kartsuki kantatzen dihardute Abaituak eta bere lagunek osatutako abesbatzak, eta Abaitua zinez hunkitzen du ikusteak –harritu bezainbat– haien zirrara berberean bildurik dagoela haien kantaldi horri batzen zaion irlandarra omen den gizon-emakume bikote atzerritarra.

Min ematen dio Unamunok, haren hitzek Abaituaren nazio-identitate euskaldunaren oinarri nagusienetako baten kontra jotzen dutelako: euskararen kontra, hain zuzen ere. Euskara “ehortze”aren alde agertzen Unamuno. Baina, Abaituak ez du euskara hilaren aldeko gaubeilarik nahi. Euskara bizirik nahi du, euskaraz bizi eta pentsatzen duelako. Horregatik, min ematen diote –Unamunorenak adinbat ez bada ere– euskararen kontrako inozokeria eta bidegabekeriak.

Abaitua euskaraz bizi da eta egunerokotasuneko hainbat esparrutan gozatu egiten du euskaraz, jatorrietan adibidez. Era berean, aipatzen du nahiago lukeela ostalaritza bezalako espazio tradizionaletan –baita elizan ere– euskararen erabilera gotortu eta finkatuko balitz, hain bereak ez dituen beste esparru batzuen kaltetan.

Hala ere, Abaituak onartzen du gaur egun euskararen egoera ahula dela, eta hezkuntzan eta administrazioan euskara egonkortzeko abiarazitako ekinbide eta neurriek ez dutela behar beste aurreratu eta indartu. Hala ere, ez daki zein izango litzatekeen egoera iraultzeko bidea. Euskara hizkuntza minorizatua dela onartzearekin batera, hizkuntza gutxitu eta

[13] Ikuskari mingarri horren harira, hala barrundatzen du Abaituak: “Ulertzen zuen aber-tzaletasun erakuspena zigor gogorrenen motiboa izan zitekeela, baina ez zegoen prestatuta barregarriak gerta zitezkeela ikusteko, eta gutxiago aberkideak ziren batzuentzat, aitzak zioenez bestaldekoak ez baitziren frantsesak, euskaldunak baizik. [...] baina eszena hark eragin zion pitzadura ez zen itxiko sekula” (Saizarbitoria, 2012: 270-271).

hegemonikoen arteko talkaz jabetzen da eta horri aurre egiteko erabakit-
tasuna erakusten du:

Hizkuntzak tresna funtzionalak dira. Esan ohi da ez direla hiltzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik, baina hori garun jarduerak iraun bitartean bizia ez dela ahitzen esatea bezala da. Dena jaio eta ahitzen da. Bost mila hizkuntza omen daude munduan, eta urtero hogeita bost hiltzen, baina ez da gizaki bakar bat mututzen horregatik. Hizkuntza inperialak edoski dituztenei onartzea errazagoa zaien jazokuna. Ez ni bizi naizen artean. (Saizarbitoria, 2012: 414).

Bere abertzaletasuna zalantzan jartzen ez duten horien guztien des-
pit, Abaituak ez daki euskaldun (ona) izatea zer den zehatz-mehatz, libu-
ruan zehar isurtzen dituen oroitzapen eta hausnarketek agerian uzten
duten arren ezagun dituela euskaldun (ona) izateari atxikitzen zaizkion
baldintza eta betekizunak. Euskaldun (onari) egozten zaizkion ezaugarri
edo zantzu batzuk nabarmentzen ditu bere kautan:

Euskaldun ona esan nahi zuen, langilea, noblea, emandako hitza bete-
tzen duena, zintzoa norbere buruarekin eta norberaren gainetik dagoen
kolektibitatearekin. Ez ahanztearremediorik gabe garena (Saizarbitori-
a, 2012: 605).

Euskaldun ona ezaugarritzen duten bereizgarri solemne horiek zama
zaizkio eta, horregatik, euskaldun eredugarri izan behar horri ezin eran-
tzuteak erruduntasuna sortzen dio. Hala antzematen du Zapiainek:

Joxe Zuazalagoitiari [100 metroko protagonista nagusiari] eta Abaitua
biei [*Hamaika pausoko* hiztegiileari eta *Martuteneko* medikuari] txikitan
behar bezalako euskaldunak izateko agindu zieten, “hau izango da gu-
daria”, “y no te olvides de que eres vasco”, baina ezin dituzte iguriki-
men horiek bete, ez dute maila ematen, ez dute superniaren exijentzia
etikoa asetzen, eta ondorioz erru sentimendua pizten zaie (Zapiain,
2015: 53-54).

Abaituak “artzainaren fundamentalismoa” deitutako horretan antze-
maten du itotzen duen zama horren sorburua. Euskalduntasun eredu eta
bizibide zurrun eta hertsia gorpuzten duen izendapena da artzainaren
fundamentalismoa delakoa, euskalduntasun jakin bat aldarrikatu eta bes-
telakorik onesten ez duena. Horri arestian aipatutako “y no te olvides de
que eres vasco” gehi geniezaioke. Artzainaren fundamentalismoaren on-
daretik datozkio Abaituari pairatzen dituen erru, zama eta nekeak. Eredu

horri erantzun behar dio Abaituak; baina, hori ez da bere euskalduntasuna gorpuzten duena. Hobeto esanda, ez da hori bakarrik:

Lynnek ez du Unamuno ezagutzen. Baroja ezagutzen du Juliak *Zalacaín el aventurero* irakurtzeko eman ziolako. Esaldi bat dauka gogoan, atsegina egin zitzaiona. “Mi patria es la montaña”. Abaituari burura dator kio don Píoren pertsonaia batek nonbaiten esaten duela ilusioa egingo liokeela Pirinioetako artzain xume baten ondorengoa izateak. Ziurrenik hori da bere kasua. Ia dudarik gabe Pirinioen inguruetako artzain batetik dator glaziazioaren ondoren Otzetan geratu zena. Don Miguelek esan bezala kulturara berandu iritsi zen herri batetik. Bera izan da bere leinuan menditik jaitsi den lehena eta berrehun urte iraun du Iraultza Frantsesaren balio unibertsalak bereak egiten. Horregatik da, bere herri txiki eta kultura txikiarekiko atxikimenduari kontraesanean, konbertitu berantiar gisa, Argien fundamentalista. Artzainen oinordekoen izaeran dago orotan fundamentalista izatea (Saizarbitoria, 2012: 471-472).

Txatal horretatik ondoriozta dezakegu bi eredu daudela Abaituaren baitan talka bizian: batetik, “artzainaren fundamentalismoa” delakoa; eta bestetik, “argien fundamentalismoa”. Historian zehar kontrakarrean jarritako bi eredu dira. Bi ereduen arteko ustezko bateraezintasuna eta aurkakotasuna apurtzen ditu Abaituak. Osagarriak direla frogatzen du, Abaituak berak gorpuzten baitu guk defendatzen duguna: bi eredu horietako ezaugarriak batu eta uztartzen dituen euskalduntasuna. Hori azaltzeko, bi eredu horiek zertan dautzan argituko dugu.

Artzainaren fundamentalismoaz denaz bezainbatean, euskal literaturari –eta Euskal Herriko historiari– erreparatuz gero, ikus dezakegu artzainaren fundamentalismoak itzal luzea eta erro sakonak dituela gurean. Juan Antonio Mogel, Txomin Agirre edo Orixe dira –idazle garrantzitsuenetako hiru aipatzearen– fundamentalismo horren sortzaile eta ordezkari.

Euskaldun eta eredugarri izan nahi duen orok ditu betekizun euskalduntasuna hezur-mamitzen duten hiru ezaugarri bakarrak: euskara, baserria eta erlijioa. Batetik, euskara: Euskal Herriko hizkuntza izatearekin batera, denik eta hizkuntzarik zahar eta aratzena –aitak Abaituari transmititzen dion moduan–. Bestetik, baserria: euskalduntasunaren oinarriok babestu eta kanpoko eraginetatik gordetzeko habia. Azkenik, erlijioa: euskalduntasunaren bermatzaile. Kasurako, Mogelen Peru Abarka edo Txomin Agirreren Joanes artzaina dira euskaldun arketipoaren hezur-ha-

ragitze literarioa: euskalduntasunaren oinarri horien zaindari eta erakuskari diren baserritarrak.

Abaituak adierazi eta agertzen duenaren arabera, nekez ikusten du bere burua bete-betean eredu horri loturik, horren partaide sentitzen bada ere. Berak aldeztzen duen gisan, “Argien fundamentalista” da. Ur Apalategiren hitzok dira lerrootan garatuko dugunaren aurrerapena: “Abaitua medikua da, ziurrenik, euskal literaturaren irakurle ohiko gisa aurkezten zaigun lehen pertsonaia burges euskalduna, gure fikzio erromaneskoak eskaintzen digun lehen bertako burges eta euskal kulturari jantzia” (Apalategi, 2013: 75).

Martutenen han-hemenka azaltzen diren datu biografikoek eskaintzen dizkigute gizon jantzi eta aurrerakoi baten trazak. Bere ingurukoek mundura irekitzeko aukerarik ez zutenean, bera bizkitartean Parisen ibili zen eta *Teknika sexual modernoak* eta *Le nouvel observateur* irakurtzen zituen 68an (Saizarbitoria, 2012: 326). Erditzearen eta jaioberriaren lehen asteko zaintzaren egoera penagarria islatzen zuen mila folio baino gehiagoko doktorego-tesi gaitza burutu zuen 70eko hamarkadan: *Estudio descriptivo del espacio perinatal* (Saizarbitoria, 2012: 88-90).

Argien fundamentalista da, ilustrazioaren pentsamolde eta oinarriei bete-betean atxikitakoa. Euskaltzalea, euskal literaturazalea¹⁴ eta kulturaduna da –kultura frantsesaren miresle, batez ere–. Kristaia ez dela esatea arraroa egiten zaion arren, ez da elizkoia, erlijioak neurrigabeko oinazea eta sufrikarioa eragin baitzizkion txikitan.

Atxikitze politikoari dagokionez, Euskadiko Ezkerran militatu zuen eta, arestian aipatu dugun gisan, euskal nazionalista da. Bere espiritu errepublikazale eta liberala dela eta, aise identifikatuko litzateke Juliak aipatzen dituen Serafin Baroja, Toribio Altzaga, Bilintx eta Martzelino Soroa donostiar euskaltzale, kaletar eta liberalekin.

Izan ere, Abaituak Lynn-i aitortzen dio dudarik gabe zerikusi handi-agoa duela berak paristar edo madrildar ilustratu askorekin, Nevadako euskal eredu horrekin edo Otzetako bertako haurtzaroko udalagunekin baino:

Dudarik gabe zerikusi handi-agoa du berak paristar edo madrildar ilustratu askorekin Nevadako euskal eredu horrekin baino. Ez du inoiz hala-

[14] *Martutenen* kontatzen denaren arabera dakigu Abaitua euskal literaturazalea dela, Martin idazlearen irakurlea delako.

ko aitorpenik egin eta arbuiatze izugarria iruditzen zaio, baina arretaz entzuten duen neska amerikar horren aurrean edozer gauza bota deza-keenez, areago joateko gogoari men eginda esan dio berez gero eta zerikusi gutxiago duela Otzetako bertako haurtzaroko udalagunekin ere, ikusten duten bakoitzean odolkia bezain lodiko hatz arina erakutsiz ez al duen kontsultarako laguntzailerik behar galdetzen diote urtetik urtera zarpailagoa egiten zaion bertako euskaraz (Saizarbitoria, 2012: 478).

Horrenbestez, Abaitua da artzainaren fundamentalismoaren sustrai edo oinarriak barruan daramatzen argien fundamentalista. Hots, Abaitua da bi eredu horiek batzen dituen euskalduna, eta ereduok inolako arazo, haustura eta kontraesanik gabe batu daitezkeela erakusten duen adibide garbia¹⁵.

Artzainaren fundamentalismoaren zurruntasun, intrantsigentzia eta integrismoa gorabehera, Abaituak maite ditu artzainaren fundamentalismoaren ondare eta berezitasunak. Hala aitortzen dio Lynn-i:

Gertuko mendiak. Izenak esan dizkio Lynni: Adarra, Onddo eta Aballarrri, baina ez dago ziur bereizten dituen. Egin ohi dituen txangoez mintzo zaio, atsedena hartzera geratu ohi den Mulisko gaineko esparru megalitiko txikiaz, non oraindik ere harri haiek jarri zituztenen oinordeko sentitzen den eta ingurune horretako partaide izateko sentimenduak aski indartsu hartzen duen (Saizarbitoria, 2012: 462).

Inork ere ezin dio ukatu Abaituari artzainaren fundamentalismoak bereganatu/bahitutako ondarearekiko atxikipena. Hala ere, ondare horri eusteko lanak ditu Abaituak. Hark aitortzen duenez, noiz edo noiz bere barruko ahotsek –“las voces ancestrales”– barrena ausikitzen diote.

[15] *Lili eta biok* (2015) eleberriko Faustino Iturbek adierazten du zuzen eta zehatz Abaituaren tesia: “bera ere petxero gizajoen ondorengo izanik, Muniberen oinordeko ere sentitzen dela eta Eguiarena, eta Rousseauk gizon bertutetsua deitzen dion Altunarena, alegia zientzia, teknika eta artea zabaldu zituzten gainerako zalduntxo ilustratu guztiena” (2015: 138). Ideia hori transmititu die Saizarbitoriak Iñaki Abaitua eta Faustino Iturbe bere pertsonaiei. Ramon Etxezarretaren eta Saizarbitoriaren arteko jendaurreko solasaldi batean, ideia berbera aldarrikatzen du idazleak: “[...] Genetikoki ni beharbada Azkoitiko Peñaforida kondearen morroi izan zen zeraren batetik nator edo petxero zeraren batetik. Baina, Peñafloidaren oinordeko sentitzen naiz. Neurea dut Peñafloidako kondea. Xabier Munibe hori gizon handia zen eta bere testuinguruan aztertu behar da eta ikusi behar da, gizon handia izan zela ulertzeko. Beraz, biena naiz ni eta bietatik nator”. *Vimeo.com*-en jaso. <<https://vimeo.com/121233851>> (1:08:42 min).

Azken batean, norbanakoak ingurumariaren eta aukera pertsonalen arabera egituratzen eta sortzen du bere identitatea, euskalduntasuna kasu honetan. Gizabanakoak eskura du bere identitatea tankeratzeko balioko ezaugarri-sorta ikaragarri zabala. Horrenbestez, zenbat eta testuinguru eta baldintza desberdin gehiago, orduan eta euskalduntasun-modu ugariago.

Identitate bikoitz edo hibridoa garatzeko aukera izango duen ume baten jaiotzan parte hartuko du Abaituak. Bera izango da erditzearen arduradun. Ama perutarra –Argi– eta aita euskalduna duen Peru izeneko haurra jaioko da, neurri handi batean desagertua dagoen Sagastizabal baserrian. Peru munduratu ondoren, honako elkarrizketa hau dute Abaituak, Lynnek eta Sagastizabaleko bikoteak:

Pena eman dio [Abaituari] mutil horrek [Sagastizabaleko mutilak], bere Peruko amerikar txikia bizkarretik heldua zeukala bera ere, sagastizabalدارra, aborigen bat dela esan duenetik, babespeko espeziea izan behar lukeela. Landatu dituen sagarrondo autoktonoak bezala. Alde egin beharra du. Argi hurbildu egin zaio hainbatgarrenez eskerrak emateko, baina euskaraz orain. Eskerrik asko laguntzeagatik. Ezagun du esaldia prestatu egin duela. Euskara bitxia. Oso ondo esan duela dio eta neska kexatu egin da: kosta egin zaio aurreratzea baina uste du ikasiko duela Perurekin. Adi dagoen lagunak ohartarazi dio: “Por la cuenta que te trae”, txantxetako mehatxuan.

Baina Peru benetako euskalduna izango dela esaterakoan, hitzez hitz un vasco de verdad da esan duena, ez dago txantxetarako: egiaztapen serioa izan da. Hala ere, Abaitua galdetzen ausartu da zer esan nahi duen “vasco de verdad” horrek, ardo goiztiarrak lotsagabetu egin duelako eta arestian bere emazteari erditzen lagundu izanak salbuetsi egiten duelako asmo gaiztorik izan dezakeen usterik. Ez dakiela oso ondo erantzun dio. Euskalduna izatea, jakina, baldintza ezinbestekoa eta zerbait gehiago definitzen ez dakiena. Izateko modu bat, estilo bat beharbada, eta irauteko desira. Euskaldun bezala izaten jarraitzeko enpeinua, hori nahi du Peruk hereda dezan.

Azken topa bat egitea Perurengatik proposatu du Abaituak. [...] Abaituak Peruz “por Peru” esaterakoan hark [Lynnek] “para que sea un hombre libre, gizon librea” erantsi du (Saizarbitoria, 2012: 555).

Honatx atalaren hasieran jaso dugun esaldiaren –“y no te olvides de que eres vasco”– eta azken honen arteko lotura: “un vasco de verdad”. Abaituari behialako nekeak eta ezinak berpizten dizkio elkarrizketak. Agindu apodiktikoen mamua zerumugan. Behinolako zama eta erruaren

suspertzea, *déjà vu*. Euskalduntasuna edo euskaldun izatea ezin zehaztu: “Ez dakiela oso ondo”, “baldintza ezinbestekoa eta zerbait gehiago definitzen ez dakiena”, “izateko modu bat”, “estilo bat beharbada”, “eta irau-teko desira”. Aitaren lagunaren espiritua Sagastizabaleko gaztearen baitan: “Por la cuenta que te trae”.

Abaituak ezin izan du bere burua integrismotik –bere burua errudun sentitu gabe– libratu. Hori dela eta, berak bizi izan duenaz bestera, izateko, bizitzeko eta zer sentitu behar duen erabakitze askatasuna opa dio Peruri, Lynnen gisa berean: “Peruz, gizon libre izan dadin”. Zernahi ezaugarri edo balio aukeratu eta sentitzen duela ere, izan dezala askatasuna gidari, zama eta herentzia ororen kutsaduratik libre. Baldintzarik gabeko euskalduna.

4. Julia: iragana, oraina eta etorkizunaren arteko bidegurutzean

Atal honetan Juliak duen euskal nazionalismoari buruzko berbaldia aletuko dugu. Semeari harentzako irakaspena izango den etorkizunerako diskurtsoa helarazi nahi dio Juliak. Horretarako, bere bizikizun pertsonalek, bere pentsamoldearen bilakaerak eta Euskal Herriko orainaldi/iragan soziopolitiko hurbilak osatzen duten katramila askatu nahi du Juliak. Juliaren diskurtsoa eraikitze mugarri dugu eleberriko 13. kapitulua. Bertako diskurtsoaren oinarrian, bi eredu jartzen ditu Juliak aurrez aurre: EAJ/PNVko nazionalismo historikoa eta ETA.

Julia, eleberrian zehar, biziki kritiko eta amorratuta agertzen da ETAK euskal nazionalismoaren baitan izan duen eragin kaltegarri eta zorrigaiztokoarekin. Juliaren diskurtsoaren erdigunean Zigor dago, Juliaren semea. Euskal nazionalismoaren ondare hori, bizitzeko euskarri eta iparrorratz gisa diharduena, bere seme Zigorri nola eta zer transmititu dabil etengabe buruan. Horren gainean gogoetaka izango dugu Julia.

Euskal nazionalismoaren ibilbide historikoarekiko gatazka sutzuan bizi da Julia, zenbaitetan arbuio ikaragarria erakusteraino. Euskaldunon iragan hurbilarekin ahakar suminkor eta kontraesankorrean bizi da. Ezin du euskaldunongan eragin suntsitzaile eta traumatikoa izan duen ETAREN indarkeria gainditu, ezta hurbilekoek indarkeria horrekiko duten jarrera axolagabea –zurigarria, batzuetan– onartu ere. Iragan horren kide eta partaide da, eta indarkeriazko egoera horren hausnarketa etengabea maitzen du eleberrian zehar.

13. kapituluan –baita orobat 23.ean ere, sakontasun eta zehaztasun gutxiagorekin bada ere– egiten du Juliak Euskal Herrian bizi izan dugun gatazka soziopolitikoari eta indarkeriari buruzko gogoeta zintzoa, ahoan bilorik gabekoa. Gogoeta horrek, Juliaren indarkeriarekiko jarrera eta iritziaren bilakaera pertsonalaren agergarri izatearekin batera, ETaren ibilbidea eta gizarteak erakundearekiko duen ikuspegi-aldaketa erakusten ditu. Izan ere, bi alderdi horiek lotura dute Juliaren iritzi eta sentipen pertsonalaren bilakaeran. Barren-barrenetik eta zintzotasunez egindako hausnarketa da Juliarena. Lynnek “¿Cómo habéis llegado a eso?” galdezen dio eta hausnarketari ekiten dio Juliak “Pausoz pauso” (Saizarbitoria, 2012: 392).

Sentimendu kontraesankorrak batzen zaizkio Juliari. Batetik, ETaren indarkeria dela eta, euskalduntasunari uko egiteko eta arbuiatzeko gogoia pizten zaio. Euskalduntasuna hezurramitzen duten berezitasun eta ezaugarriak zeharo baztertzeko ideia buruan darabil Juliak. Sumindu eta amorratu egiten du pentsatzeak bere identitate eta pentsamoldearen euskarri den euskalduntasunak izugarrikeria eragabe hori babestu duela. Ez daki ez ote den hobe euskal nortasunari eta berezitasunari buruzko uste eta usterkeria oro estolda-zulotik joaten uztea (Saizarbitoria, 2012: 400). Euskaldun edo/eta abertzale usaina duenari nazka hartzen hasi zaio Julia (Saizarbitoria, 2012: 394).

Bestetik, ez dago prest indarkeriak zikintzen eta desitxuratzen dituen bere identitatearen bereizgarri eta ezaugarriei uko egiteko, dena ez delako zakarretara botatzeko hondakin. Izan ere, Julia beldur da ur zikinarekin batera umea ere ez ote duten botako:

Beldur da ordea ur zikinarekin batera umea ere ez ote duten botako. Ulertzen al du esaera? Throw out the baby with the bath water: Discard something valuable along with something not wanted. Mina ematen dio, batzuen zoramena elikatzen lagundu dutelako, bere izateko moduaren parte diren afektu eta atxikimenduei, edertzat zituen ilusio eta sinemenei uko egin beharrak. Okerrenean ere ez luketela zertan kaltegarriak izan sinetsi nahi luke, bere aita gizon zintzo eta langile bezala taxutu zutela (2012: 399-400).

Izateko modu, sentimendu eta balio horiek Juliaren nazio-identitatearen oinarri dira, eta zinez mintzen dute horien guztien kontra dihardutenek. Euskalduntasunaren ezaugarriak alde batera uzteko eta abandonatzeko Juliaren tentaldia handia den arren, min ematen diote euskalduntasunaren berezkotasunaren kontrako eginahalek, bai Martinenak,

zeinak Lynnek Iparraldean ikasi eta ikusitako guztiak maiseatzeari ekin baitzion (Saizarbitoria, 2012: 282-286), baita Unamunorenak ere (Saizarbitoria, 2012: 292).

Juliaren euskalduntasunaren iruditeria gorpuzten duten Euskal Herri noble, zintzo, langile, menderakaitz eta bakezalearen irudia –Gernikako bonbardaketaren hondarretatik berpiztu zen herria–, atzeguardian etsaien bizitza babestu zituzten Agirre, Iruxo, Beldarrain eta gainerako guda-riak eta Eustakio Mendizabal *Txikia* eta frankismoaren aurka borrokatzen ziren etakideak (Saizarbitoria, 2012: 399) ez dira zaborretara botatzekoak, inondik inora ere.

Zerrenda horretan aipatutakoak dira EAJ/PNV historikoaren ondarearen erakusgarri, Juliak iraurarazi eta Zigorri transmititu nahi diona, hari transmititu zioten antzo. Juliaren ustetan, ETA da ondare hori lohitu izanaren errudun nagusienetakoa, eta pena sorrarazten dio garai hartako abertzaleek utzitako ondarea maskaldu eta zikindu izanak. Gerra Zibileko gudariei buruz duten hizketaldiaren harira, horixe jakinarazi nahi dio semeari:

Semeari esan nahi liokeena: gerraurrean, gerran eta gerra ostean, bide bazterretan hildakoen gorpuak desobiratzeko eskubideaz hitz egiten den honetan, alderdi guztietakoek, gorri nahiz urdin, eskuineko zein ezkerreko, denek dauzkatela, zein bere neurrian, basakeriak ezkutatzekeo premia, baina, idealizazioak idealizazio, gudariak ez zutela lotsatzeko motiborik, eta harro sentitzen dela horregatik. Motiborik gabeko harrotasuna, seme-alabak ez baitira gurasoek egindakoaren errudun ez meritudun. Baina harrotasun hori bai, transmititu nahi dio semeari, eta lehenagoko abertzaleek utzitako ondare hori, hainbeste estimatzen duen izen ona galdu izanak, orain, gartzetan ez bezala, eragiten dion pena (2012: 634).

Juliak ETARI eta Euskal Herriak bizi izandako gatazkari buruz idatzi nahi luke. Bere baitako deabru propioen kontra borrokatzekeo aukera emango lioke idazteak (Saizarbitoria, 2012: 129). Gazteei zuzendutako Euskal Herriko historia bat idatzi nahiko luke eta bertan jaso Zigorri kontatutakoak eta indarkeriari buruzkoak.

Max Frisch-en *Fragebogen* eta Martinen *Bihotzean min dut* euskaratu ahala indarkeriari buruz hausnartutakoak oinarri lituzkeen lana litzateke Juliarena. Etorkizuneko belaunaldiari transmititu nahiko liokeen pedagogia bilduko luke lan horrek: “Euskal Herriaren historia bat idaztea dauka

pentsatuta Gombrichen *Munduaren Historia laburra*-ren tankeran, gauetan Zigorri kontatu izan dizkionak baliatuz” (Saizarbitoria, 2012: 715).

Juliaren lan horretan, ez luke Zigorren aitaren legatuak tarterik izango, ez bada berau kritikatu eta auzitan jartzeko. Juliak bere bizkar du Josean bikotekide ohi eta etakide izandakoaren mandatua betetzeko betebeharra. Elkarrekin izan zuten Zigor eta aitak erakundearen zuen ezizena du izen semeak.

Hilketa bide edo istripuz hil zen argitzeke dagoen gizonak bere iraganari eta hartutako erabakiaz –ETAn sartzeaz, alegia– diharduen lekukotza idatzi zuen. Asabaren ahotsa hezurmamitzen duen idatzia da Joseanena. Idazlana barruan daraman zorroa semearen hamabosgarren urtemugan emateko mandatua egin zion Joseanek Juliari. Julia ez da idatzi horren edukiaz fida. Aitaren esanek semearen erabakimena eta identitatea baldintzatuko dituzten beldur da. Aitak Zigorri transmititu nahi dio semearentzat kaltegarria izan daitekeelakoan dago Julia. Aieru hori da semeari zorroa emateko eragozgarri nagusia. Ama den aldetik, ez da baxterre samurra bizi duen ataka.

Eleberrian zehar Juliak mamitzen duen hausnarketa luze eta sakonaren ondoren, azkenean, Juliak zorroa zabaltzeko erabaki irmoa hartu eta hura zabaldu bezain fite baieztatzen ditu bere susmoak. Orain idatzirik dakuski imajinatzen zituen esaldi-tipoak: “Nire duintasuna gorde nahi izan dut, kontzientziak agintzen zidan bezala ekinez, nire biziaren sakrifizioa onartzuz”, “Beste aita batzuk bezalakoa ez izateaz”, “Mendeetan zehar gure Herria zapaldu nahi izan dute baina ezin dezakegu etsi. Nik ez dut egin eta zuk ere ez egitea espero dut” edo “gurea da lur hau” (Saizarbitoria, 2012: 722-724). “Desilusio, pena, amorrua, eta batez ere pena” (Saizarbitoria, 2012: 723) artean birrinduko du Juliak Zigorren ondare idatzia.

Zigorrek bere burua sakrifikatu zuen aberriaren izenean. Ez du semearentzat horrelakorik nahi Juliak. Ez du nahi aitaren patu bera jarrai dezan. Hildakoen artean asabaren ahotsa datorkio semeari aita zuzenean hilobira eramanean zuen bide berari atxikitzeke aginduarekin. 100 metroko Jose Zuazalagoitiari aitak luzatutako “hau izango da gudaria” mezu berbera, hogeita hamasei urtetan zehar bizirik dirauena.

Aitaren lekukotza da Juliak semeari transmititu nahi dionaren ifrentzua. Aitaren betebeharrak apokaliptikoa azpimundutik zemaika dute bai Juliak bai Zigorrek. Horregatik, semearen hobe beharrez, Juliak se-

mearen identitatea eta etorkizuna askatasunez garatzea oztopatuko luketen eragileetatik libre nahi du Zigor. Saizarbitoriak (1999) dioen gisan, asaben ahotsak eztiak izan daitezke, baina baita erogarriak ere, zoramenaren putzu beltzera hondora gaitzaketenak (1999: 83). Bigarren horietakoa da Zigorrena. Horrenbestez, Zigor aitaren gutuna triskatuko du Juliak eta aita eta semearen arteko hariari behin betiko etena eman.

Zigorrek sakrifizioa eskatzen dio semeari, aberriak bere semeei eskatzen dien ber gisan. Aberri hori *-Hamaika* pausoko J.J. Lasa psikiatrak aipatzen duen ama irentzailea, Jungen ama ikaragarria (Saizarbitoria, 2000: 33)- madarikatzen du Juliak: “Nekea arintzen dio “merde à dieu, à la patrie, et à tout le reste” esateak. Aberri madarikatua, beragatik hainbeste bizitza hondatu den, hainbeste sufrimendu exijitu duen ama umejalea, zeinaz ez den sekula libratuko” (Saizarbitoria, 2012: 400).

Ama aberriaren guztiz bestelako irudia eman nahi dio Juliak semeari. Aberri umejalearen irudia baztertu eta naturarekin lotutako aberria nabarmentzen du Juliak. Gustave Flaubert idazleak Louise Colet-i zuzendutako gutunetatik honako esaldi hau buruz ikasten ahalegintzen da Zigorri esateko: “La patrie, c’est la terre, c’est l’Univers, ce sont les étoiles, c’est l’air, c’est la pensée elle-même, c’est-à-dire l’infini dans notre poitrine” (Saizarbitoria, 2012: 635).

Semearen identitatea eta askatasuna baldintzatu eta zama astun bilaka daitekeen oroimen kaltegarri oren transmisioetik urruti nahi du Juliak Zigor.

5. Ondorioak

Bakoitzari eskainitako atalean ikusi dugun gisan, iraganak eta tradizioak baldintzatu dituzte Abaituaren eta Juliaren nazio-identitateak. Abaitua izan arren kultura eta tradizioari buruzko hausnarketa hau egiten duena, Juliak ere bat egingo luke harekin:

Gertatzen zaio besteengan begi bistakoa dena –besteren begiko izpia agerikoa baita–, hots, kulturak norbanakoa tiranizatu egiten duela, tradizioak sakratuarekiko menderakuntza dakarrela eta besterik gabe norberarenaz harro egotea patetikoa gerta litekeela, ez dela izaten aski motibo gurasoen kulturarekiko atxikimendua kuestionatzeko eta kontuan hartzeko sustraitzeari ez ote zaion demaseko balioa ematen, errotzea ez ote den, norbaitek esan duen bezala, lur azpiko adarretan ibiltzea. Kanpoko fanatismo ertzeko eta arrotzen aurrean, bere buruari galdetzera behartua dago ez bakarrik bere tradizio benetako nahiz as-

matuaren izenean, hori baita gutxienekoa, baita zerbait inposatzeko eskubiderik daukan ere, eta zilegi ote duen haietaz libre dagoen gehien-go gogaitzea. Alegia: gutxiengo berrien beharkizun exotikoei gogor egiteak halabeharrez dakar bere jatorri sentimenduari loturikoen arrazogarritasuna zalantza jartzea (Sazarbitoria, 2012: 471).

Lynnek dio kultura bizitza baino indartsuagoa dela eta heriotza baino indartsuagoa:

CULTURE IS STRONGER THAN LIFE, and stronger than death. Aipua, autorearen izenak ihes egiten dio baina, luzea da –esateko moduagatik izan liteke poema bat– eta kulturaren indar menderakaitzaz dihardu, kultura baita behartzen dituena gizon batzuk beren erraiak behetik gora ezpataz irekitzera, kastitate botoen bidez sexua bizitza guztirako ukatzera (Sazarbitoria, 2012: 472).

Gurasoek transmititutako oroimen eta identitate-eredu zehatza zama astun eta itogarri izan zaizkie bie. Nekeza izan zaie identitate jakin horien uztarpean bizitzea, Koldo Mitxelena dioen legez “oitura burnizko katea baño lokarri etengaitzagoa baita” (1951: 20). James Joycen *Retrato del artista adolescenteko* (1982) Stephen Dedalusen gisan, Abaituak eta Juliak nazionalismo, hizkuntza eta erlijioaren amaraunean ikusten dute harrapaturik euren burua eta, Davin zurrun guztien aurka¹⁶, armiarma-sare horretatik ihes egin nahi dute: “Cuando el alma de un hombre nace en este país¹⁷, se encuentra con unas redes arrojadas para retenerla, para impedirle la huida. Me estás hablando de nacionalidad, de lengua, de religión. Estas son las redes de las que yo he de procurar escaparme” (Joyce, 1982: 241).

Ernest Renanen esaldi bereizgarria gure erara moldatuz gero, esan dezakegu bai Abaituak baita Juliak ere “eguneroko plebiszitu” etengabea planteatu dietela euren buruei euskaldun izaten jarraitzeko.

Ezin izan diete erantzun –edo ez diete erantzun nahi izan– jasotako molde hertsiei atxikitzeko eskakizunei. Izan ere, bakoitza testuinguru jakin baten barruan bizi da eta pentsamolde eta iritzi baten magalean garatzen da. Horregatik, zentzugabea da ezaugarri, bereizgarri, ohitura eta abar zehatzez osatutako nazio-identitate eredu zurrnak denboran zehar transmititu eta iraunarazi nahi izatea. Stuart Hall-ek (2010) dio bizi

[16] Hala dio Davinek: “Yo soy un nacionalista irlandés primero y antes que nada” (Joyce, 1982: 239).

[17] Irlandaz ari da Dedalus, baina, Euskal Herriari ere bai berdin-berdin aplika dakioko.

gaituen iragan horrekin harremana dugula, baina jada ezin garela guztiz hori izan¹⁸.

Ezin dugu iragan hori bere horretan bizi, munduak etengabeko aldaketa baitu natura lege berezkotzat. Hala ere, iragana orainean txertatzeko eta finkatzeko baliabide ezinbestekoa da. Hori dela eta, Abaituak eta Juliak helarazi zaien iragan eta tradizio horren hainbat alderdiri kontra egin eta auzitan jarriagatik, ez dute iragan hori bere osotasunean zingira lokaztu eta kutsatuztat. Asaba zaharren baratzean badago norberaren identitatea hornitzeko aski bazka osasuntsu:

Euskaldunik geienok, guziok ezpada, badugu geure barrendegian txoko urri eta apaindura-gabeko bezain maite bat: gure euskal-baratzea. Ezta ori, ezin ere izan, gure lantegi eta atsedeen-toki bakarra, baiña nekez geldituko gera luzaroan txoko orri, sarri edo bakanka, ikustalditxo bat egin gabe. Aize askatuagoak bear izaten ditugu, txoko zaharrari –bizi-bearrak naiz aultasunak eraginda– uko eta iruzur egitea ere gerta ditekete, baiña eztugu eriotzeraiño etengo nai dugularik ere haurtzaroak eiozuen lilluraren sare argala (Mitxelena, 1960: 121).

Baratze ororen antzo, gureak ere baditu belar gaizto eta asun andana, uzta osasuntsuari garapena oztopatzen diotenak; baina, baita mantendu beharreko landaredi eta flora ere. Izan ere, tradizionaltasun kulturalak ere baditu alderdi positiboak, Lynnek dioenez:

Lynn ere ez dago erlatibismo kulturalaren alde. Uste du ez direla tradizioaren aginduak toleratu behar funtsezko balioei eraso egiten dienean, baina onartu behar dela tradizionaltasun kulturalak badituela alderdi positiboak ere (Saizarbitoria, 2012: 472).

Eskulangileari edo baratzearen arduradunari dagokio belar txar horiek eraztea, landatutakoa kalte eta kutsa ez dezan. Era berean, onuragarria izan daiteke kanpoko hazia txertatzea, bertakoa ongarritu dezan eta arnas berria eman diezaion. Horrela etorkizuneko eskulangile eta partaideek, baratzaren ardura hartu eta jorratzen jarraituko dutenek, sail naroa lantzen eta zabaltzen jarrai dezaten.

Hori da Abaituak eta Juliak hartu duten langaia: asaba zaharren baratzean murgildu, garbitu, atondu, aberastu, osatu, garai berrietara moldatu eta onuragarria dena ereiten jarraitu, etorriko diren Peru eta Zigor guztiek dastatu dezaten, pozoitzeko arriskurik gabe.

[18] “Tenemos una relación con ese pasado, pero ya no podemos ser totalmente eso” (Hall, 2010: 346).

Horrez gain, asaba zaharren baratze horri morroiloak askatu eta atek zabaldu dizkiote, bertan sartu daitekeelako hartaz gozatu nahi duen oro. Ildo horretatik jotzen du Markos Zapiainek:

Sasiarekin eta pozoiarekin batera, asaba zaharren baratzak baditu ere porru eta karrota osasungarriak. Arbasoen balio, ohitura, uste eta sinesmen batzuei eustea kaltegarri zaigu; ordea, ur zikinarekin batera ez da umea ere bota behar, hain gutxi bainera bera aizkorakadaka suntsitu. Egin beharrekoa da gurasoen izaera eta bizimoduekin batera erdi ohar-kabea jaso ditugunak aztertu eta baloratu, balorazio horren arabera bereizi, eta batzuk zokoratu eta beste batzuk geureganatu (Zapiain, 2015: 215).

Identitate-eredu zurrun eta hertsia transmititzeari irtenbidea ematen dio *Martutenek*. Aterabide hori gorpuzten dute, bai Abaituak, bai Juliak. Zeinahi identitate osatzen duten ezaugarri, bereizgarri, ohitura eta abarren multzoa ez da inoren jabetza eksklusibo. Hots, nazio-identitatea osatzeko ezaugarri-multzo amaigabetik orok du nahi duena jasotzeko eta hartzeko eskubidea. Zurrunkeria eta itxiturarik gabeko identitateen aldeko aldarri ozena egiten du *Martutenek*. Izan ere, Hall-ek (2010) adierazten duenez, aurrez finkatua edo fundamentalista den identitate-erakuntza ororen ondorengo gara¹⁹.

Abaituak, “Otzetako artzainaren oinordekoak”, euskalduntasunaren oinarri-oinarrizko hainbat bereizgarri eta ilustrazioaren ildo moderno eta berritzailez osa dezake bere nazio-identitatea. Era berean, Julia belau-naldiz belaualdi transmititutakoa bahetu, onuragarria eta baztergarria denetik abiatu eta bere nazio-identitatea zaharberritzeko gai da.

Horixe aldarrikatzen du *Martutenek*: asaba zaharren baratzearen eraberritze, zabaltze eta gehitzea. Xede horren isla dira Abaitua eta Julia. Abaituak bere egin ditzake Ilustrazioaren oinarriak, zeintzuek ez baitute zertan bere euskalduntasuna ezbaian jartzen. Hein berean, Juliak ere bazter edo argi ditzake ustez aldaezinak diren asaba zaharren baratzeko hainbat eta hainbat bereizgarri.

Baratzearen biziraupena, handitzea eta segida da bidea. Baratze bizia, Abaituak amarengandik ikasitako “Mendiko negarra” kantako letrak aldarrikatzen duenaz bestera (Saizarbitoria, 2012: 250).

Hala dio Joseba Sarrionandiak:

[19] “[...] también somos “post-”cualquier concepción prefijada o fundamentalista de la identidad.” (Hall, 2010: 364).

Identitate edo nortasun indibidual horrek forma kolektiboak hartzen ditu; baina alderantziz ere esan daiteke. Pertsonaren izaera ez da jarauntsia eta kolektiboa soilik, aukera pertsonalen ondorio ere bada. Nortasuna bizitzan zehar osatuz doan materia da. Oinordetzan hartzen dena baino gehiago, norberak egin nahi duena da (Sarrionandia, 2010: 377).

Jarauntsia eta kolektiboa gogoan, baina haren morrontzaren esturatik aske, norberak osatu eta eraikiko du norberaren identitateari dagozkion bereizgarriak. Oro oreoren eskura dagoelako.

6. Bibliografia

- Aldekoa, Iñaki, 2013, “Martutene: La escritura o la vida”, *Insula. Revista de Letras y Ciencias Humanas* 797, 21-23.
- Apalategi, Ur, 2013, “Euskal subjektuaren bilakaera erromaneskoa: Desberdintze estrategiaren eta homologazio nahiaren arteko negoziaketa literario-ideologikoak”, *452ºF. Literaturaren teoria eta literatura konparatua* 9, 56-77.
<http://www.452f.com/pdf/numero09/09_452f-mono-ur-apalategi-orgnl.pdf>
- Arroita, Izaro, 2015, *Ramon Saizarbitoriaren nobelagintza memoria ikasketen ikuspegitik*, (Doktorego-tesia). EHU. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Irakas-kuntza eta Ikerketarako Artxibo Digitaletik (ADDI) jasoa.
<<http://hdl.handle.net/10810/15964>>
- Cano, Harkaitz, 2012, “Martutene”, in *Harkaitz Cano. Bloga*. harkaitzcano.com/9/bloga-n-eskuragarri.
<<http://www.harkaitzcano.com/98/blog/martutene?lang=eu>>
- Casquete, Jesus & Mees, Ludger, 2012, “Movimientos sociales, nacionalismo y símbolos”, in de Pablo, Santiago; de la Granja, Jose Luis; Mees, Ludger & Casquete, Jesus (koord.) *et al., Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco*, Madril: Tecnos, 15-32.
- Gabilondo, Joseba, 2013, *New York-Martutene. Euskal postnazionalismoaren utopiaz eta globalizazio neoliberalaren krisiaz (edo nola desiratuko dugu orain?)*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Gandara, Ana, 2015, *Euskal ondare kulturalaren moldatzea (1960-1990), egungo kultur sistemaren oinarri. Baliabide eta forma sinbolikoak*, EHU. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. Euskal Herriko Unibertsitateko

- (UPV/EHU) Irakaskuntza eta Ikerketarako Artxibo Digitaletik (ADDI) jasoa.
<https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/15791/TESIS_ANA_GANDARA_SORARRAIN.pdf;jsessionid=34E001CA009248912667853737FE8EB0?sequence=1>
- Hall, Stuart, 2010, *Sin garantías: Trayectorias y problemáticas en estudios culturales*, Colombia: Enviñon editores.
- Joyce, James, 1982, *Retrato del artista adolescente*, Bartzelona: Ediciones Orbis eta Editorial Origen.
- Kortazar, Jon, 2012, “Bost pertsonaia, hiru liburu, sinbolo bi, egilea eta gizartea”, *El Correo*. (Sarean eskuragarri) armiarma.eus-en, *Kritiken Hermeroteka*.
<<https://kritikak.armiarma.eus/?p=5462>>
- Kortazar, Jon, 2013, “*Martutene*, nueva novela de Ramon Saizarbitoria”, *Insula. Revista de Letras y Ciencias Humanas* 795, 41-43.
- Mitxelena, Koldo, 1951, “Euskal-literaturaren etorkizuna”, *Egan* 3, 17-21.
<<http://andima.armiarma.eus/egan/egan15/iruegan150019.htm>>
- Mitxelena, Koldo, 1960, “Asaba zaharren baratza”, *Egan* 3/6, 121-134.
<<http://andima.armiarma.eus/egan/egan38/iruegan380001.htm>>
- Saizarbitoria, Ramon, 1999, *Aberriaren alde [eta kontra]*, Irun: Alberdania.
- Saizarbitoria, Ramon, 2000, *Hamaika pauso*, Donostia: Erein.
- Saizarbitoria, Ramon, 2012, *Martutene*, Donostia: Erein.
- Saizarbitoria, Ramon, 2015, *Lili eta biok*, Donostia: Erein.
- Sarrionandia, Joseba, 2010, *Moroak gara behelaino artean?*, Iruñea: Pamiela.
- Smith, Anthony, 2009, *Ethno-symbolism and nationalism: A cultural approach*, New York: Routledge.
- Zapiain, Markos, 2015, *Saizarbitoria eta iragana*, Zarautz: Susa.

**Metafikzioa eta memoria historikoaren
elkarlana Bernardo Atxagaren
*Soinujolearen semea***

*Metafiction and historical memory in
Bernardo Atxaga's The accordionist's son*

Jon ITURREGI IKARAN
Literatura konparatua eta Literatur Ikasketak
EHUko Masterreko ikaslea

Jasotze data: 2018.09.15. Onartze data: 2018.11.10

LABURPENA

Lan honen aztergaia *Soinujolearen semea* da, Bernardo Atxagak 2003an kale-ratutako eleberri arrakastatsua. Artikuluaren abiapuntua, gure ustez obraren ardatza osatzen duten bi ezaugarrien arteko erlazioa izango da. Alde batetik, metafikzioa (literatura bere buruari begira) eta, bestetik, memoria historikoa-rekiko kezka (literaturaz kanpoko errealitatea) nola nahasten diren aztertuko da. Idazleak zein helbururekin erabiltzen dituen ere hausnartuko da. Nahiz eta horrela aurkezten direnean aurkakoak iruditu, *Soinujolearen semea*n biek batera lan egin dezaketela proposatuko da, jadanik balio ziurtzat hartzen ez diren errealitatea eta iragana irudikatzeke. Are gehiago, *Soinujolearen semea*n defen-datu egingo da metafikzioa ez dela joko estilistiko soil gisa erabiltzen, baizik eta eleberriaren esanahiaren konfigurazioan rol garrantzitsua jokatzen duela.

Gako-hitzak: Metafikzioa, memoria, Atxaga.

ABSTRACT

The object of this paper is the analysis of Bernardo Atxaga's succesful novel *The accordionist's son*, published in 2003. The main focus of the paper is the relation between what we consider to be the two central elements of the novel. On the one side the use of metafiction, (literature looking to itself) and, on the other side, the concern for historical memory (a reality outside the literary world). When described in this terms they may seem to be opposites, but we will argue that in *The accordionist's son* they work together to talk about a reality and a past, which are no longer considered a concrete value. Furthermore, we will try to prove that metafiction is not just used as a stylistic game but plays an important role in the shaping of the novels' meaning.

Keywords: Metafiction, memory, Atxaga.

1. Sarrera. 2. Memoria eta metafikzioaren gatazka. 2.1. Errealismoa eta metafikzioa. 2.2. Gerra Zibila euskal literaturan. 3. *Soinujolearen semea*. 3.1. Eleberraren egitura: narrazio zatikatua. 3.2. Metafikzioa eta memoria *Soinujolearen semea*n. 4. Ondorioak. 5. Bibliografia.

1. Sarrera

Lan honen aztergaia *Soinujolearen semea* da, Bernardo Atxagak 2003an kaleratutako eleberrri arrakastatsua. Zalantzarik gabe, eleberrriak euskal gizartean inor hotz uzten ez duen gaia lantzen du: Gernikako bonbardaketak eta Gerra Zibilak euskal gizartearen hurrengo belaunaldietan izandako eragina. Gerra bizi izan ez zuen belaunaldia, hain zuzen ere, baina gurasoengandik gatazka heredatu zuena, gizarte banandu batean haziz, garaileen eta galtzaileen gizarte batean, alegia. Herentzia horrek ETA talde armatuaren sorreran izandako eragina erakustea da Atxagaren helburua. Memoria historikoa da, beraz, liburuaren ardatzetako bat, baina ez interes historiko soiletik bultzatua. Iragan horrek gure oraina moldatzeko duen indarraz jabetuta idazten du Atxagak.

Gaia lantzeko orduan, ordea, narrazio sinpleari uko egiten dio idazleak. Artikulu honetan ikusiko denez, nahiko egitura konplexuaz osatua dago *Soinujolearen semea*. Narrazioak ez du hurrenkera kronologiko lineala jarraitzen, eta bere barnean bigarren mailako istorioak txertatzen dira. Baina, gure ustez, eleberrriak aurkezten dituen zailtasun horiek beste ezaugarri baten ondorio gisa azaldu daitezke: metafikzioa. Izan ere, narrazioak istorioarekin zuzenean hasi ordez, bere idazketa prozesuari buruz eta autoreaz dihardu. Era berean, eleberrian zehar aurkezten diren beste istorioek aukera ematen dute literaturari buruzko gogoetak narrazioan txertatzeko.

Bi dira, beraz, *Soinujolearen semea*ren azterketa honek oinarritzat hartuko dituen ardatzak. Alde batetik, memoriarekiko interesa, eta, bestetik, joera metafikzionala. Lehenengo begiratu batean, eleberrri berean bi elementu horien nahasketa aurkitzea harrigarria suerta daiteke. Gero sa-

konduko den gisan, funtsean, postmodernitatean ugaritu egin den metafikzioaren erabilera obra literario batean literaturaren inguruko gogoe-tak txertatzean datza. Literaturak bere buruari begiratzen dio, bere bar-neak erakusten dizkio irakurleari. Memoriaren inguruko kezka, ordea, eleberria kontrako mugimendua egitera behartzen du, hau da, literatura-ren kanpoko errealtatea islatzera. Hala ere, nahiz eta hasiera batean bien arteko ezberdintasuna azpimarratu, helburua haien elkarlana nabarmen-tzea da *Soinujolearen semearen* esanahien konfigurazioan. Nobelan, meta-fikzioa ez dela soilik joko estilistiko gisa erabiltzen argudiatuko da. Guztiz kontrakoa, jadanik balio ziurtzat hartzen ez den errealtate konplexu bati buruz mintzatzeko erabiltzen dela defendatuko da.

Jadanik postmodernitatea eta metafikzioa aipatu direnez, komeni da jarraitu baino lehen bien arteko ezberdintasuna zehaztea. Linda Hut-cheon-ek ohartarazten du postmodernitate terminoak hartu duen esa-nahi zabalegiak (1980: 2-4). Metafikzioa, ordea, testuaren ezaugarri for-mal zehatz bati buruz ari denez, askoz aproposagoa suertatzen da analisi-rako eta horri erreparatuko zaio artikulu honetan. Horrela, nahiz eta plano teorikoan postmodernitateari lotutako ideia batzuk azaldu, gai na-gusia metafikzioaren analisisa izango da.

2. Memoria eta metafikzioaren gatazka

2.1. Errealismoa eta metafikzioa

Lehen azaldu bezala, posible da lehenengo begiratu batean bi joera horiek aurkakotzat jotzea. Hasteko, metafikzioa, funtsean, literatura lite-raturaz mintzo denean erabiltzen den terminoa (Krutz, 2008: 562). Nahiz eta garai eta leku ezberdinetako literaturetan aurki daitekeen fenomeno-a izan, modernitatean eta batez ere postmodernitatean ugaritu den joera da. Hutcheonek *narcissistic literature* terminoa sortu zuen (1980)¹, ez mes-pretxua adierazteko, baizik eta, hain zuzen ere, literaturak bere baitarako erakusten duen mirespen hori deskribatzeko. Jesus Gil-ek metafikzioaren ezaugarri nagusi hauek aipatzen ditu:

El desarrollo de los estudios acerca de la metaficción, realizado muy especialmente por la tradición crítica angloamericana, ha considerado el fenómeno como la manifestación extrema de esa *intransitividad* de la

[1] Hutcheonek metafikzioaren inguruan egiten duen azterketa batera doa lan xumea-go honekin, berak metafikzioa ez duelako nobelaren generoaren galeraren sinto-matzat hartzen; aitzitik, posibilitate berriak irekitzen dituela argudiatzen du bere lanaren ondorioetan (1980: 166-182).

obra de arte, absolutamente vuelta sobre si misma, en el acto de exhibir su estructura, su *significante*, su *maquinaria* que bien podría reducirse a los parámetros de la *opacidad* y sobre todo, el *desvelamiento de los recursos* de la poética formalista. En el dominio que nos ocupa, ello suponía evidenciar la ficcionalidad fingiendo ahora que la novela se escribe ante los ojos del lector (Gil, 2001: 16).

Azpinarratzekoa da nobelak bere izaera fikzionala ez duela gehiago ezkututzen, guztiz kontrakoa: gai nagusia idazteko prozesua da. Metafikzioa gehien erabiltzen duten idazleen artean Borges aipatu beharra dago, *La biblioteca de Babel* istorioan, unibertsoa liburutegi erraldoi baten modukoa imajinatu zuen idazlea. Postmodernitatean hedatu egin den erreallitatearen konstrukzio izaera edo izaera diskurtsiboaren kontzientzia-rekin (Nicol, 2002: 3) lotu daitekeen obra.

Kontua da, ikuspegi horiek erabat aldatzen dutela fikzioaren eta erreallitatearen arteko erlazioa. Literatura halabeharrez fikziozko mundu batean murgilduta badago eta bakarrik bere buruari erreferentzia egiten badio, posible al da erreallitateari buruz hitz egitea?

Argi dago *Soinujolearen semea* Atxaga bere belaunaldiak heredatu zuen gatazka politikoaz ari dela. Gai historikoak literaturan lantzen direnean, maiz XIX. mendeko literatura errealista datorkigu burura, baina modelo hori agortu egin da, ez du gehiago balio sortu diren kezka berriak islatzeko. Izan ere, postmodernitatean erreallitatea ez da gehiago balio ziur gisa antzematen (Nicol, 2002: 5) eta egia unibertsalak existitzen badira, ezin dira adierazi (Harvey, 1989: 45).

Ikuspegi orokor bat hartuta, normalean errealismoaren inguruko go-goetak testuaren eta munduaren arteko banaketan oinarritzen dira. Horren arabera, literaturak munduan kokatzen den zerbait irudikatzen du. Stendhalek eleberria ispilu bat bezalakoa definitu zuen: “un miroir qu’on promène le long d’un chemin” (*Le Rouge et le noir*, 1830). Besteak beste, Derridaren eta Foucaulten lanen ostean, ordea, dikotomia hori nahasi egin zen, eta munduaren eta testuaren arteko banaketa hark bere funtsa galdu zuen (Olaziregi, 2009a: 54).

Hala ere, horrek ez du halabeharrez esan nahi postmodernitatea errepresentazioaren kontrakoa denik, baina bai problematizatu egiten duela munduaren eta testuaren arteko erlazioa. Funtsean, erreallitatearen konstrukzio izaeraz eta errepresentazio mota guztietan dagoen ideologia inplizituaz kontzientzia izatea da. Testuek narratiba bat sortzen

dute, errealitatetzat hartzen dena. Beraz, fikzioak ez du errealitatea imitatzen, sortzen baizik. Interpretazio bat ematen zaio irakurleari, beti ideologia baten arabera (Olaziregi, 2009a: 57). Metafikzioa problematika hori islatzeko tresna aproposa suertatzen da, hain zuzen ere, idazteko prozesua obraren erdigunean jartzen duelako eta, beraz, errealitatearen eta literaturaren arteko erlazio hori buruz gogoeta egiteko aukera ematen duelako.

Horrek guztiak ez du esan nahi, noski, literaturak ezin duela kanpoko mundua islatu. XIX. mendeko errealismo tradizionalak bere oinarriak galdu ditu, bai, baina errealismoa modu zabalagoan ulertzen bada, posible da bi joerak elkartzea. Postmodernitateko errealismoak bere xalotasuna galdu du. Badaki errealitateak ideologiaren arabera aldatzen direla, eraikuntza linguistikoak direla. Hala ere, ezin dute eutsi “the temptation that the novel as a genre has always had: that of representing us as we are” (Olaziregi, 2009a: 60).

Memoria ikasketek ere errealitatearen eta, beraz, historiaren izaera diskurtsiboaz eta bere pluraltasunaz ohartarazi dute. Jan-Werner Müller-ek “Memory boom” gisa deskribatu du sail honek jasandako garapena azken hamarkadetan. Holokaustoaren inguruko ikerketetan dute bere jatorria memoria ikasketek, galtzaileen ezkutuko historiaren azterketan. Hain zuzen ere, Nietzsche filosofoak Historia Monumentala (edo irabazleen historia) kontatzen, Biktimen Historia kontatzeko ordua heldu zela defendatu zuen. Historiaren berrikuspen bat proposatzen dute, beraz, memoria ikasketek, baina oraingoan ikuspegi postmoderno batetik, historia ez da gehiago errealitate objektibo eta monolitiko gisa antzemango (Olaziregi, 2009b: 1030).

Ildo horretatik, Hayden White-n lanak aldaketa handia ekarri zuen historia antzemateko eran. Historialari eta filosofo horrek kontakizun historikoen eta fikziozko kontakizunen arteko banaketa ez zela hain argia argudiatu zuen. Lehenengoak benetako gertaerak kontatzea eta bigarrenak fikziozkoak ez da argudio erabakigarria biak banatzeko (Tozzi, 2003: 1). Whitek ez du inola ere esan nahi historialariek iragana asmatzen dutela. Historia datu objektiboetan oinarrituta dagoena ez du zalantzan jartzen (Holokaustoen biktimen kopurua, esaterako). Datu objektibo horietatik abiatuz historialariek eraikitzen dituzten narratibak, ordea, eztabaidagarriak dira. Testu historikoa ikuspegi formalista batetik aztertu zuen eta nabaritu zuen fikziozko idazlearen antzera narrazio baten forma hartzen zutela testuek (Tozzi, 2003: 15). Horrela azaltzen du Whitek: “I

will consider the historical work as what it most manifestly is –that is to say-, a verbal structure in the form of a narrative prose discourse that purports to be a model, or icon, of past structures and processes in the interest of *explaining what they were by representing them*” (White, 1973: 2). Analisi honetan, historialariak hurrengo azpimarratzen du: “[narrazio historikoak] contain a deep structural content which is generally poetic, and specifically linguistic, in nature, and which serves as the precritically accepted paradigm of what a distinctively «historical» explanation should be” (White, 1973: 1).

Azken finean, narrazio historiografikoari lehenetsua kentzen dio Whitek eta literatura gai agertzen da historia bat osatzeko; are gehiago, laguntza handikoa suertatu daiteke historiaren diskurtso monolitikoa eta ofiziala hausteko, ahaztuta geratu diren errealitateei ahotso emateko: “Se puede crear un discurso imaginario sobre acontecimientos reales que puede ser no menos «verdadero» por el hecho de ser imaginario. Todo depende de como uno concibe la función de la facultad de la imaginación en la naturaleza humana” (White, 1992: 74).

Memoria ikasketek argi erakusten dute, beraz, lanaren hasieran errealismoaren eta metafikzioaren artean azaldutako dikotomia ez dela hain bateraezina. Aitzitik, aurrerapen handiak ekar ditzake zenbait alorretan.

2.2. Gerra Zibila euskal literaturan

Literatura narrazio historikoen maila berean kokatu da, beraz, eta zenbait gertaera historikok leku nagusia hartu dute bere baitan, Espainiako Gerra Zibila, esaterako. Maiz, gaia landu duten obrek zauri politikoa sendatzeko helburua dute; izan ere, trantsizioan iragana isilarazteko eta ahazteko joerak ez du lagundu gatazkaren konponketan. (Olaziregi, 2009b: 1030). Noski, *Soinujolearen semea* gai historiko hori ukitzen duten eleberrien artean sailkatu beharra dago.

Lehen, munduaren eta testuaren arteko erlazioa problematizatu egin dela azaldu da: errealitatearen konplexutasunaz jabetuta, ezinezkoa bilakatu da diskurtso uniforme bat eraikitzea. Dударik gabe, *Soinujolearen semeak* errealitate bortitz baten lekukotasuna eman nahi du, euskal gatazkaren ingurukoa, hain zuzen ere. Gerrarekin eta errepresio frankistarekin batera, ETA taldearen istorioari aurre egin behar dio, beraz, Atxa-

gak, bere jaiotzatik 1959an, diktadura frankistaren markoan, bere jardunaldiaren etenera arte 2011n. Tartean, guztira 800 hilketa zenbatzen dira.

Garrantzitsua da gatazkaren inguruan eskaini diren narratibei erreparatzea. Izan ere, *(In)komunikazioa atarian: prentsa eta euskal gatazka* izeneko ikerlanean, hurrengo hau adierazi da:

Hedabideek euskal gatazkari ematen dioten tratamendua aztertzeak behin eta berriro azaltzen diren hiru elementu buruzki jotzea eskatzen du. Hona hemen: mugarik gabeko oldarra azalpenetan, ageri-ageriko alderdikeria protagonistak itxuratzerakoan eta arduragabeen ausarke-ria arazoa aztertzerakoan (Idoyaga, 2002: 82).

Ezaugarri horietako diskurtsoen aurrean, gatazkari buruzko perspektiba sakonago bat eskaini dezake literaturak, egoeraren konplexutasunaren lekukotasuna emanez. Euskal gizarterako narratiba propioak sortu ditzake, hedabideen diskurtso mingarri horietatik kanpo.

Hala ere, kontuan hartu behar da euskal literaturak ibilbide latza izan duela. Gerra Zibilak (1936-1939) oso ondorio kaltegarriak eragin zituen euskal literaturan: hildakoen eta erbesteratuen kopuru handia eta irabazleen errepresio bortitza. Bai kulturari, bai administrazioari eta bai kallean ere, frankismoak euskal hizkuntza eta kultura debekatu zituen. Egoera horretan, gerraosteko idazleentzat euskararen jarraitutasuna ziurtatzea zen helburu nagusia. Poesia izan zen generorik landuena 1940-1950. urteen inguruan, askoz errazagoa zelako poemak argitaratzea. Eleberriarren kasuan, bederatzi urtez ez zen ezer argitaratu, 1946an J. A. Irazustaren *Joanixio* Buenos Airesetik iritsi arte. Aipagarria da Irazustaren nobeletan aurkeztzen den erbestearen errepresentazio negatiboa, nahiko irudi errepikakorra aurreko idazleen eleberrietan ere. Orokorrean, erbeste eta bereziki Amerika, *bestea* bezala aurkeztua izan da euskal literaturan, bizioen lurralde gisa, non euskalduna fedea galtzeko arriskuan aurkitzen den (Olaziregi, 2009b: 1033-1034). *Soinujolearen semeak* aurkako egoera deskribatzen du. Amerika paradisu gisa agertzen da, berriro has-teko aukera eskaintzen baitio euskal iheslariari (Olaziregi, 2005: 6-7).

Erbestean argitaratu ziren PNVko Jose Eizagirre diputatuaren *Ekaitzpean* (1948) eta Martin Ugaldere *Iltzaileak* (1961) ere. Ordura arte, gatazka zeharka agertzen zen soilik, narrazioa baldintzatu gabe. Ugalderekin, ordea, gerrari buruzko euskal literatura pizten da (Olaziregi, 2009b: 1035).

Euskal Herrian, gerrak eta diktadurak ekarri zuten galeratik pixkana-ka suspertzen hasi zen euskal literatura. Bereziki aipagarria da Ramon Sazarbitoriaren *Ehun metro* (1976), ez bakarrik gatazkaren gaia lantzeagatik, baizik eta euskal eleberriaren modernizazioa ekartzeagatik (Lasa-gabaster, 1986: 20). Batez ere 90eko hamarkadatik aurrera euskal gatazka lantzen duten eleberrien argitalpenen kopurua handituz doa gaur egunera arte. Aipatzekoak dira, Jose Agustin Arrietaren *Abuztuaren 15eko bazkal-ondoa* (1979); Juan Mari Irigoien *Poliedroaren hostoak* (1983); Koldo Izagirreren *Euzkadi merezi zuten* (1984); Edorta Jimenez *Azken fusila* (1993) eta *Kilkerren hotsak* (2003); Luis Mari Mugikaren *Loitzu herrian uda partean* (1993); Patxi Zabaletaren *Badena dena da* (1995); Andolin Eguzkitzaren *Herioa itzalpeetan* (1998); Ramon Sazarbitoriaren *Bihotz bi. Gerrako kronikak* (1996) eta *Gorde nazazu lurpean* (2000); Joseba Sarrionandiaren *Kolosal izango da* (2003); Jokin Muñozen *Antzararen bidea* (2007); Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa* (2009) eta abar.

Hala ere, *Soinujolearen semea* testuinguru zehatzago batean sailkatzearen, bereziki interesgarriak suertatzen dira Izaro Arroितaren eta Mikel Ayerberen lanak (2014 eta 2015). Izan ere, metafikzioa eta memoria historikoa bateratzen dituzten eleberri ezberdinak alderatu dituzte, *Soinujolearen semea* barne. Arroitak eleberri horrekin batera, Sazarbitoriaren *Hamaika pauso* (1995) eta Harkaitz Canoren *Twist* (2013) aztertzen ditu. Ayerbek, bere aldetik, eleberriak mekanismo metafikzionalen arabera sailkatzen ditu. Horrela, *Soinujolearen semea* ‘eleberri binakatuen’ taldean sailkatzen du, hurrengo lanekin batera: Sazarbitoriaren *Hamaika pauso*, Sarrionandiaren *Lagun izoztua* (2001) eta Jon Alonsoren *Hodei berdeak* (2003). Ayerbek “novela duplicada” gisa izendatzen ditu: “para referirnos sólo a aquellas novelas en las que el protagonista, o algún otro personaje de ficción, escribe o ha escrito a su vez una novela intradiegetica cuyo título coincide a su vez con el título de la novela real” (2015: 98).

3. *Soinujolearen semea*

3.1. Eleberriaren egitura: narrazio zatikatua

Eleberria aztertu baino lehen, gainetik deskribatuko dugu, baita autorea ere. Bernardo Atxaga ezizenez ezaguna den Joseba Irazu, euskal idazleen artean sarituena da, baita nazioarteko proiektiorik handiena lortu duena ere. Gipuzkoako Asteasu herrian jaio zen 1951n. Bere obra goiztiarren artean, *Etiopia* (1978) poema eta narrazioen bildumarekin batera, soldadutzaren urte beltzek inspiratutako *Ziutateaz* (1976) nobela

aurkitzen da. *Pott Banda* izeneko taldearen kide izan zen, Joxemari Iturralde, Joseba Sarrionandia, Jon Juaristi eta Manu Erzilla idazleekin batera. Nahiz eta oso idazle desberdinak izan, literaturaren autonomiaren aldekoak ziren guztiak eta euskal kulturari buruzko ikuspegi etsikorra partekatzen zuten. Atxagak ospea *Bi anai* (1984) eta *Obabakoak* (1988) eleberriekin lortu zuen. Azken hori Espainiako Sari Nazionalaren irabazlea izan zen (Otaegi, 1999: 21-22). *Soinujolearen semeari* dagokionez, harrera kritiko oso positiboa jaso zuen. Gaztelaniaz 60.000 ale baino gehiago saldu dira eta hamar hizkuntzatarara itzuli da (Olaziregi, 2005: 1). Euskal gaztakari dagokionez, Atxagak gaia aurretik landu zuen, *Zeru horiek* (1995) eta *Gizona bere bakardadean* (1993) obretan. Bietan talde armatuaren kideen testigantzak eskaintzen dira. *Zeru horiek*, kartzelatik atera berri den Ireneren istorioa kontatzen du eta Yoyes ezizeneko María Dolores González Catarain ETako buruzagiaren kasuan oinarritzen da. Erakundearen goi mailako agintaritzara heldutako lehen emakumea izan zen eta saldukeriaz leporatuta eraila 1986an. Bestalde, *Gizona bere bakardadean* ETako kide diren lagun talde baten azkenengo operazioaz dihardu. Interesgarria litzateke bi lan horietan euskal gatazkaren gaia lantzeko estrategiak *Soinujolearen semearekin* alderatzea.

*Soinujolearen semea*n arreta jarritz, lehendabizi esan beharra dago oso esanguratsua suertatzen dela eleberriaren izenburua, aldeztu aurretik filiazio bat iragartzen baitu, aita-semearena, hain zuzen ere, eta seme hori definitzen duen herentzia bat (Pozuelo, 2011: 31).

Eleberria bost atal nagusitan antolatzen da: “Hasiera”, “Izenak”, “Ikatz koxkorra”, “Egur pusketa kiskalia” eta “Abuztuko egunak”. Lehenengo kapituluak 1957an kokatzen da narrazioa, Obabako eskolan, non David eta Joseba aurkezten diren, narrazioaren rola hartuko duten pertsonaiak. Hortik, salto luze bat egiten du narrazioak, bai espazioan, bai denboran ere. 1999ko irailera eramaten gaitu, Kaliforniako Tulate Countyko Stoneham arrantxora. David duela oso gutxi hil da, justu Joseba bisitatzen joan zaionean. Joseba Euskal Herrira bueltatu baino lehen, Mary-Annek, Daviden alargunak, senarrak idatzitako liburu bat eskaintzen dio, non bere Obabako gaztaroa kontatzen duen. Urtebete beranduago, eta Daviden lana irakurri ostean, Josebak Mary-Anneri baimena eskatzen dio Davidek idatzitako memoria-liburua berridazteko, informazioa gehitzeko eta hobeto antolatzeko. Josebaren berridazketa da, bada, irakurleari aurkezten zaion testua.

Hurrengo atalek zuzenean Josebak egokitutako Daviden istorioari ekiten diote. “Izenak” kapituluaren narrazioak berriro salto handi bat egingen du, oraingoan Davidek eta Mary-Annek San Frantziskon izandako enkontrua kontatzeko. Mary-Annek iraganeko mamuez salbatuko du David, eta bere musa bilakatuko da.

“Ikatz koxkorra” eta “Egur pusketa kiskalia” atalek hari narratibo berdinari jarraitzen diote, hau da, Daviden nerabezaroa Obaban. Aitaren zorrotasunari ihes egiten dion 13 urteko Davidek Iruaineko baserrian ahal duen denbora guztia pasatzen du, baserriarren mundu mitikotik eta haren euskara zaharretik hurbil baitago. Daviden lagun mina Lubis da, pixkanaka desagertzen ari den mundu horren ordezkari finena, eta guztien gaineratik miresten du. Tamalez, David ametsezko paradisu bukolikotik esnatzera behartuta dago eta horren baitan ezkututzen den infernuari aurre egin behar dio. Bere laguna Teresak Obabako fusilatuen zerrenda bat eskuratzen dio eta osabak gerrari buruzkoak kontatzen dizkio. Azkenean ohartzen da, bere aitak, herriko soinujolea eta gizon garrantzitsua herrian, gerran frankistekin kolaboratu zuela, erregimenaren aurkakoak salatuz, esaterako. Beste bi istorio aipagarri daude “Ikatz koxkorra” kapituluaren barnean: lehenengoak, “Obabako lehen amerikanoa”, Don Pedro Obabako hotelaren jabearen ihesaldia kontatzen du, eta, bigarrenak, “Pirpo eta Txanberlain, hiltzaileak”, Gerra Zibileko bi hiltzailearen abentura odoltsuak kontatzen ditu.

“Egur pusketa kiskalia” kapituluak Daviden Obabako urteei bukaera ematen die eta 70eko hamarkadan kokatzen da. Iruainen ezkututzen den ETAko komando batek Obabako hotelari (Berlino faxistaren jabetza) su ematen dio eta guardia zibilak Lubis erailtzen du, bera izan delakoan. Davidek ihes egiten du eta ETAko kide bihurtzen da.

Azkeneko atalak berriro ihes egiten dio narrazio linealari. Davidek bere azken egunetan, militantzia urteak gogorarazten ditu Josebarekin eta bere komandoko Agustin izeneko beste lagun batekin. Gertaera horiek oso era zatikatuan aurkezten zaizkio irakurleari, kapitulu soltetan. Alde batetik, “Euskadi askatzearen aldeko mugimendua eta Toshiro” narrazioa aurkezten da, eta, bestetik, Josebak idatzitako “Hiru aitopen” (David, Agustin eta berarena). Gainera, Davidek “Don Pedro Galarretak 1936ko abuztuaren 15ean gertatutakoa kontatzen du” narrazioa irakurtzen du. “Obabako lehen amerikanoa” idazteko erabili zuen oinarria da, benetako Don Pedrok idatzitakoa.

Agerikoa da egitura honen ezaugarri nagusietako bat bere zatiketa dela. Atxagak ez du kronologikoki narrazio lineal bat jarraitzen eta eleberriarren hari nagusitik aldentzen diren beste narrazio batzuk integratzen ditu. Irakurle aktiboak eskatzen dituen testua da zalantzarik gabe.

Jose Maria Pozuelo-k eleberriarren ardatza kontzientzia baten formazioa eta desengainua dela azaldu du, Davidena, alegia. Behin autokontzientzia hori lortuta, ardatz tematiko hori utzi egiten da. Azkenik, ETA taldearekiko desengainua aurkezten da eleberrian. Baina esanahia ez da bakarrik eremu pribatura mugatzen. Daviden kontzientziaren bilakaerari Obabako gertaera politikoak gehitzen zaizkio: “Esta novela, por tanto, se propone fundamentalmente como la historia de una generación que ha heredado ‘la guerra de los padres’ y ha tenido que administrar tal herencia” (Pozuelo, 2011: 31).

Behin eleberriarren egitura komentatu ostean eta bere gai nagusia azalduta, analisirako elementuetan zentratuko gara.

3.2. Metafikzioa eta memoria *Soinujolearen semea*

Lehenago, metafikzioa literaturak bere burua gai nagusitzat hartzen duen fenomeno gisa deskribatu da. Dударik gabe, *Soinujolearen semea* hainbat elementu metafikzional erabiltzen dira. Adibiderik argienak eleberriarren narratzailearen inguruko zalantza (David / Joseba) eta Don Pedro amerikanoaren istorioaren bi bertsoiek eragiten dituzten literaturaren inguruko gogoetak dira.

Bestalde, eleberriarren testuartekotasunari dagokionez, *Soinujolearen semea* unibertso literarioan murgiltzen gaitu, bai Atxagaren aurreko obretan, bai literatura unibertsean. Izan ere, idazleak Obabako zikloa ixteko asmoa izan zuen eleberrri honekin eta aurreko obren elementuak pilatu egiten ditu *Soinujolearen semea*. Horrela, *Bi anaiko* Daniel eta Paulo, Lubis eta Pantxo bilakatzen dira hemen, eta eleberrri hartan ere Teresa askoz zintzoago bat agertzen da. *Gizona bere bakardadean* eleberritik Carlos komandokidea ateratzen da eta are gehiago luza daiteke zerrenda (Olaziregi, 2005: 11).

Lan honetarako interesgarria da aipatzea “Pirpo eta Txanberlain hiltzaileak” narrazioaren lotura *Obabakoak* eleberriko “Pitzadura bat elur izoztuan” istorioarekin. Eleberrri horretan, idazle asteasuarrak “Ondo plajiatzeko metodoa” izeneko istorio alegoriko eta metafikzionala txertatu zuen. Bertan, Obabako idazle batek, Danteren antzera, amets alegoriko

bat izaten du. Aitzitik, Virgilioren ordez Axular agertzen zaio eta kalitatezko idazle euskaldunen premiaz ohartarazten dio. Bere tamainako idazleak falta direla ikusita, Axularrek, XVI. mendeko logikari jarraituz, originaltasunaren ideia erromantikoa alde batera uztea eta munduko beste idazleak plagiatzeko gomendatzen dio. Ostera, Obabako idazleak ohartarazten dio gaur egun zigor larria jasan dezaketela plagiataileak. Horregatik, ondo plagiatzeko metodo bat asmatzen du idazleak. Argi dago asmo probokatzailearekin idatzi zuela Atxagak testu hura, izan ere, testuartekotasunaz hitz egiten ari da eta ez plagioaz (Hernandez, 2009).

Edonola ere, eleberriaren hurrengo istorioak plagiatzeko metodo hori praktikan jartzen du. Horrela, Villiers de l'Isle-Adam idazlearen *Torture par l'espérance* "Pitzadura bat elur izoztuan" bilakatzen da *Obabakoak* nobelan. Gehiegi sakondu gabe, bi narrazioek tortura mota berezi bat dute gai nagusitzat: biktimari esperantza ematea, nahiz eta hasieratik galduta egon. Istorio originalaren inkisizioko kartzela mendia bilakatzen da Atxagaren narrazioan eta mendizale baten joko makabroa kontatzen da. *Soinujolearen seme*ko Pirpok eta Txanberlainek berriro metodo hori erabiltzen dute beren biktimak mendian akabatzeko. Modu honetan, Atxagak bere plagiatzeko metodoaren beste adibide bat ematen dio irakurleari *Soinujolearen seme*an. Nabaria da erreferentzia batek irakurlea beste erreferentzia batera eramaten duen modua, Atxagaren obratik beste idazle baten lanetara. Borgesen liburutegi unibertsalean murgiltzen ditu Atxagak bere irakurleak. Gainera, modu honetan, literaturaren inguruko hausnarketa gogora ekartzen du asteasuarrak eta istorio originalak asmatzea ia ezinezkoa dela gogorarazten digu. Originaltasuna ez da, ordea, literaturaren balio bakarra. Berridazketak oso aberasgarriak suertatzen direla erakusten du Atxagak, esanahi berriak sortzeko aukera eskaintzen baitute, kasu honetan Gerra Zibilarekin edo Daviden bizitzarekin harremanak sortuz.

Lehenago aipatutako adibideak berreskuratuz, *Soinujolearen seme*aren bi idazleak (David/Joseba) komentatuko dira orain. Gilen definizioan, metafikzioaren ezaugarrietako bat eleberriak bere mekanismoak agerian uzten dituela da. Berdin gertatzen da kasu honetan, zuzenean narrazioarekin hasi aurretik zehazten baita Daviden bertsio originaletik abiatuta Josebak berridatzi duela testua. Gatazkatsua da erlazio hori, irakurleak ezin duelako subjektu zehatz bat identifikatu. Narratzailearen "ni" aho-tsen nahasketa bilakatzen da, subjektua ezabatu egiten da (Olaziregi, 2005: 2-3).

Josebak Mary-Anni idazten dionean, Daviden testua “zanpatuta” dagoela esaten dio. Davidek dena kontatu nahi zuen, baina zenbait pasarte “itota” geratzen ziren (Atxaga, 2003: 21). Josebaren asmoa ez da inola ere Daviden testua bereganatzea, “artzain hilaren *carvinga* zuhaitz batean aurkitu, eta haren lerro batzuk areago markatzeko gogoia sentitu duen lagunaren ispiriturarekin” (Atxaga, 2003: 21) berridaztea baizik.

Josebak aitortzen du:

Hasieran igarriko zen marka berrien eta marka zaharren arteko aldea; baina denborak berehala batuko zituen denak. Egurrak kolore eta forma berberak hartuko zituen, eta aurrerantzean marrazkia bakarra izango zen. «Hemen izan ziren bi lagun, bi anaia», adierazi nahiko zuen (Atxaga, 2003: 21).

Deklarazio horrek azaltzen du Josebaren eta Daviden bizipenak elkartzen direla, nahastu egin direla. Oso esanguratsua da kapituluaren amaieran Josebak esaten duena: “Obabako Soinujolearen semeak idatzitako hitzak ageri dira liburu honetan; bereak eta adiskide izan gintuen askorenak” (Atxaga, 2003: 22). Narratzailearen ezabaketak eta nobelaren ahotsen pluraltasunak Atxagaren helburua iragartzen dute. *Soinujolearen semea* belaunaldi oso bati buruz ari da, Atxaga barne (Pozuelo, 2011: 34). Beraz, gogoeta metaliterarioak rol handia jokatzeko du eleberriaren esanahiaren konfigurazioan, pertsona multzo handi bati erreferentzia egiten diola adierazteko erabiltzen baita.

Orain, eleberrian Don Pedro amerikanoaren inguruan aurkezten diren bi bertsioak komentatuko dira. Esan beharra dago Don Pedro pertsonaiaren oinarrian Arabako Foru Aldundiko errepublikazale bat dagoela: Pedro Salinas Arregi (1887-1962). Eleberriko hiru maisuak ere (Bernardino, Miguel eta Mauricio) benetan existitu ziren. Izan ere, egiazko Pedro Salinasek bere memoriak idatzi zituen. Bertan, bere bizitza Amerikan, bere ihesaldi miragarria eta hiru maisuen hilketa kontatzen dira. Beraz, “Obabako lehen amerikanoa” eta “Don Pedro Galarretak 1936ko abuztuaren 15ean gertatutakoa kontatzen du” istorioei Pedro Salinasen memorieta kontatzen dena gehitu behar zaie. Azkeneko bi narrazioak ia berdinak dira, esan daiteke fideltasun handiz erreproduzitu dituela Atxagak Salinasen hitzak. Bi kasuetan erreketeeek mendira eramaten dituzte eta bertan hiltzen dituzte maisuak. Amerikanoak ihes egitea lortzen du. Fikziozko bertsioan Iruaingo baserrian ezkutatzeko da, eta memorieta, berriz, Bakaikun, senide batzuen etxean. Davidek idatzitako bertsioak, ordea, aldaketa gehiago jasan ditu eta Don Pedoren irudi heroikoagoa

deskribatzen du. Protagonistak hurrengo gogoeta metafikzionala egiten du horren inguruan: “Ba, errealitatea tristea dela, eta liburuek, baita gogorrenek ere, edertu egiten dutela” (Atxaga, 2003: 465).

Bestalde, bertsio horien pilatzea Whiten hitzekin harremanetan jar daiteke. Hau da, bai historia, bai literatura eraikuntza linguistikoak dira, biek interpretazioak eskaintzen dituzte, *Soinujolearen semea* amerikanoaren istorio ezberdinekin gertatzen den gisan. Hori bai, “boterea dutenek eskainitako interpretazioa noski” (Olaziregi, 2005: 10). Boteredunek memoria sortzeko eta ezabatzeko duten eragina argi erakusten da eleberrian, Obaban gerrako biktimen oroimenean eraiki nahi den monumentuaren ezaugarrietan. Bertan, garaileen taldeko biktimen izenak bakarrik idatziko dira, eta ez Obaban fusilatu ziren persona guztienak. “Gerran hildako guztien izenak jarriko balituzte, ondo legoke –esan zuen Susanak–. Baina alde batekoak bakarrik jarriko dituzte eta hori nazkagarria da” (Atxaga, 2003: 155).

Hain zuzen ere, *Soinujolearen semeak* ahaztutako biktima horiek berreskuratu nahi ditu, kontramemoria bat sortuz. Izan ere, Atxagaren helburu nagusietako bat Gernikako bonbardaketak eta Gerra Zibilak ETaren sortze prozesuan jokatu zuten rola erakustea da:

Ez dakit hemen Estatu Batuetan jakingo den, baina Euskal Herriko gerra ez zen Gernikako bonbardaketarekin bukatu. Era batera edo bestera jarraitu egin zuen. Edo hori pentsatzen zuten behintzat 60ko urteen bukaeran armak hartzea erabaki zuten gazte askok: gerran zeudela Estatu espainolarekin (Atxaga, 2003: 427).

Bukatzeko, metafikzioa eta memoriaren inguruan interesgarria da “Hiru aitopen” kapituluaren inguruko Josebaren gogoeta. Atal horretan, Daviden, Agustinen eta Josebaren hiru testigantzak aurkezten dira, beren militantziaren azken urteak, polizia atxilotu baino lehen. Kartzelan Joseba konturatzen da poliziak ez duela torturatuko, bera salataria dela agerian uzteko. Horregatik bere burua zauritu egiten du eta fikzioan bekokian ubeldu bat geratu zitzaiola esaten du. Benetako Josebak ez du kolperik bere bekokian, baina Davidek badaki garondoan dagoela orbana. Josebari horri buruz galdetzen dionean, hauxe erantzuten dio: “Nolanahi ere, beti behar duk transfigurazio bat –jarraitu du–. Garondoan dagoen orbaina kopetara pasatzen duk, esate baterako. Gauzak agerian jartzea beste erremediorik ez zegok” (Atxaga, 2003: 457). Kasu horretan ere, literaturaren eta historiaren arteko harremana azaltzen da eta berriro ere iraganeko datuak moldatu behar direla esaten da.

Bestalde, Atxagaren interesa gertaera berbera (militanteen atxilotzea eta esperientzia kartzelan) hiru aldiz kontatzea da, bakoitzaren ikuspuntutik. Horixe da, hain zuzen ere, literaturak memoria lantzean ekar dezakeen laguntza, historia ofizial eta orokorragoei bizipenak gehitzea. David, Agustin eta Joseba fikziozko pertsonaiak dira, bai, baina torturak, beldurra eta traizioak benetakoak dira. Gainera, fikziozko pertsonaia horiek ez dira errealitatek hainbeste urruntzen. Mari Jose Olaziregik seinalatu du fikziozko Ubanberen eta Urtain boxeolariaren arteko lotura, eta, are interesgarriago, fikziozko Lubisen erailketaren eta Mikel Zabalzaren hilketaren antzekotasuna (2009c: 57). Literaturak gertaera krudel horien lekukotza ematen du, baina zeharka, fikzioan geratzen da beti. Aipatu den bezala, errealitatea moldatu egiten du, bertsio bat eskaintzen digu, agian hura edertuz, Davidek dioen gisan. Irakurleak sentitzen duen haserrea edo tristezia, ordea, benetakoa da eta hor dago literaturaren balioa.

4. Ondorioak

Ondorioei bidea emateko, lehendabizi Ayerberen eta Arroितaren artikuluetara bueltatzea komeni da, horietan lagungarria izango den ondorio bat aipatzen baita. Izan ere, biek azpimarratu dute metafikzioaren erabilera lotuta dagoela testuinguru traumatiko eta oso konplexu bat idazteko beharrarekin. Arroितaren hitzetan: “las novelas reflejan mediante la utilización de diversos mecanismos literarios, la complejidad de representar las memorias de una sociedad que sigue marcada por el conflicto. Tematizan la propia escritura desde y sobre el conflicto; escritura que construye memoria, conscientemente, mostrando el artificio” (2014: 242). Bestalde, Ayerbek hurrengoa defendatzen du: “aunque las novelas metaficcionales derivan estructuras técnicas y formales complejas, creemos que también sirven para reflejar y entender aún mejor la intrincada y conflictiva realidad del escritor conflictivo que escribe sobre el conflicto” (2015: 110).

Bai Arroितaren, bai Ayerberen ondorioak artikulua honetan proposatutako ideia nagusietako batekin bat datoz, hau da, *Soinujolearen seme*an metafikzioa ez dela joko estilistiko soil bat, baizik eta eleberriaren zentzuaren eta funtzionamenduaren eraikitzaile handia. Metafikzioak idazkera bera erdigunean jartzen du. Idazlea ez da ezkututzen narratzaile orojakile eta objektibo baten atzean. Horren orde, narrazioaren erai-kuntza, historia beraren bertsio ezberdinak eta abar azaleratzen dira. Euskal gatazka bezalako egoera konplexua antzemateko era egokia dirudi, absolutismoak ekiditen direlako eta, aldi berean, iraganean desagertu

diren istorio eta ahots ezberdinak kontatzeko formatu aproposa delako. Orain erlazio hori *Soinujolearen semea*n nola burutzen den ikustea gertatzen da.

Zehaztu beharra dago, gogoeta metafikzionalak ez daudela testuan edonola sakabanatuta. Eleberriaren hasieran eta amaieran pilatzen dira batez ere. “Hasiera” izeneko kapituluak bere fikzio izaera agerian uzten du. Irakurleari jakinarazten zaio irakurriko duen eleberria Josebak berridatzitako dokumentua dela, eta modu horretan hasieratik narratzailearen ahotsaren inguruko zalantza sortzen da. Hurrengo kapituluetan, narrazioaren istorio nagusia garatzen da nahiko era uniformean, amerikanoaren istorioa eta Pirpo eta Txanberlain hiltzaileen etenaldi txikiak kontuan hartzen ez badira. Narrazioa Daviden ihesaldiarekin moztzen denean, ordea, testuak bere zatiketa gero eta gehiago azpimarratzen du. Militantzia urteetako gertaerak istorio solteen bitartez kontaktzen dira eta Davidek Don Pedro Galarretaren ihesaren bigarren bertsioa irakurtzen du. Gainera, Davidek zein Josebak literaturari buruzko gogoetak egiten dituzte, biek literaturaren eta errealitatearen arteko loturari buruzkoak. Daviden ustez literaturak errealitatea edertzen du eta Josebak gogorarazten digu “transfigurazio” bat beharrezkoa dela beti istorio bat kontatzean. Interesgarria suertatzen da ideia horiek Ayerbek aztertutako *Hodei berdeak* eleberriarekin alderatzea (2015: 105). Izan ere, idazlearen lanaren inguruko gogoetak aurkitzen dira han ere, historiagilearen lanari kontrajarrita. Azken horiek zorroztasunez erreparatzen diote datuen zehaztasunari, baina idazleek “historia liburuak irakurtzen harrapatzen ez den egia klase bat, egia sakonagoa, benazkoagoa, garrantzizkoagoa” (Alonso, 2003: 72) bilatzen dute. Zalantzarik gabe *Soinujolearen semeak* aurkezten duen bertsioen pilaketak aukera ematen du historialariaren eta idazlearen egien arteko konparazio horretaz jarduteko.

Eleberriaren antolakuntzari bueltan, lehendabizi, hasieran planteatutako zalantzak narratzaileen inguruan irakurleari gogorarazten dio irakurriko duen istorioa konstrukzio bat dela, ez dio uzten istorioan murgiltzen lasaitasunez. Hala ere, Daviden gaztaroan posible da lasaitasunez hasierako zalantza alde batera uztea, eta eleberri klasikoago batean bezala konfiantzaz narratioari jarraitzea. Konfiantza hori, ordea, erabat zapuztu egiten da eleberriaren bukaeran. Sineskortasun inozo batekin irakurri dugun Don Pedroren istorioa, bertsio bat baino ez zela konturatzen gara. Handik aurrera narrazioak ez du hari zuzen bat jarraitzen eta Josebak aitortzen du istorioak beti moldatu behar direla. Horrek berriro gogora ekartzen du Davidi buruz irakurri dena fikzioa dela, eta irakurlearen

eskuetan geratzen da erabakitzea zer den Josebak gehitutako fikzioa eta zer Davidek kontatutakoa. Lehen aipatu den Pozueloren artikuluan, ikerlariak eleberraren egitura Daviden kontzientziaren bilakaerarekin lotzen zuen. Alde horretatik, lotura bat ezar daiteke Daviden bilakaerarekin eta irakurleak eleberrian jarraitzen duen bidearekin. Eleberraren azkeneko parte desengainu baten istorioa dela dio Pozuelok, Davidek militantziarekin bizi duena, hain zuzen ere (2011: 29-30). Daviden desengainuarekin batera, irakurleak ere desengainu propio bat bizi du, narrazioaren izaeraren ingurukoa.

Nahaste interesgarria aurkezten du *Soinujolearen semeak*. Alde batetik, bere burua diskurtso historikoaren barnean kokatzen du eta, bestetik, bere fikzio izaeraz ohartarazten gaitu, oso nahaste emankorra literaturan gai historikoak lantzeko orduan. Formula hori izendatzeko, Hutcheonek sortutako termino bat iruditu zait aproposa eta horren barnean sailkatuko nuke *Soinujolearen semea*: “historiographic metafiction”. Izan ere, ikerlariak ematen duen definizioak nobela oso ondo deskribatzen duela uste dugu: “Historiographic metafiction works to situate itself within historical discourse without surrendering its autonomy as a fiction” (1989: 4).

Metafikzioa eta memoriaren inguruan ideia nagusi batzuk aurkeztu dira analisisan. Garrantzitsua da argi edukitzea kontramemoria bat sortu nahi duela Atxagak. Horregatik, ez du berriro diskurtso monolitiko eta aho bakarra eraiki nahi. Ikusi den gisan, gogoeta metafikzionalak literaturaren eta errealtatearen arteko harremanari buruzkoak dira. Iraganari buruzko istorioak beti egokitu behar dira, ez bakarrik literaturan, baita botereak sortzen dituen diskurtsoetan ere, eta hori agerian uzten du Atxagak. *Soinujolearen semeak* irakurleari istorio guztiak interpretazioak direla ohartarazten dio: beti “transfigurazio” bat behar da, eta narratzaileak erabakitzen du non jarri azentua. Euskal gatazkaren inguruan sortu diren hainbeste diskurtso pobre eta manikeoen aurka (hedabideen kasua, esaterako) altxatzen da, beraz, *Soinujolearen semea*. Halaber, ez da irakurle pasiboa bilatzen, aktiboago bat baizik, irakurle sortzaile bat.

5. Bibliografia

Alonso, Jon, 2003, *Hodei Berdeak*, Zarauz: Susa.

Arroita, Izaro, 2014, “Memorias del conflicto vasco en la metaliteratura de Saizarbitoria, Atxaga y Cano”, in Cecchini, Leonardo & Lauge Han-

- sen, Hans (arg.), *Conflictos de la Memoria/Memoria de los conflictos*, Université de Copenhague, 231-244.
- Atxaga, Bernardo, 2003, *Soinujolearen semea*, Iruña: Pamiela.
- Ayerbe, Miguel, 2015, "Work in Conflict: (meta)literatura y escritura en novelas que abordan el conflicto vasco", in Ezeizebarrena, Maria Jose & Gómez, Ricardo (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta*, Bilbo: EHU, 97-113.
- Gil, Antonio Jesus, 2001, *Teoría crítica de la metaficción en la novela española contemporánea. A proposito de Álvaro Cunqueiro y Gonzalo Torrente Ballester*, Salamanca: Ediciones Universidad de Salamanca.
- Harvey, David, 1989, *The condition of Postmodernity. An enquiry into the origins of cultural change*, Oxford: Basil Blackwell.
- Hernandez, Mikel, 2009, "Bernardo Atxaga eta plagioa", *Egan* 1/2, 89-98.
- Hutcheon, Linda, 1980, *Narcissistic Narrative: The Metafictional Paradox*, Waterloo, Ontario: Laurier University Press.
- Hutcheon, Linda, 1989, "Historiographic Metafiction. Parody and the Intertextuality of History", in O'Donnell, Patrick, & Con, Robert (arg.), *Intertextuality and Contemporary American Fiction*, Baltimore: Johns Hopkins University Press, 3-32.
- Idoyaga, Petxo & Ramirez de la Piscina, Txema; Alvite, 2002, *(In)komunikazioaren atarian: prentsa eta euskal gatazka*, Irun: Alberdania.
- Krutz, Joan, 2008, "Metaliteratura", in Otaegi, Lourdes (koord.), *Literatura terminoen hiztegia*, Bilbo: Euskaltzaindia, 562.
- Nicol, Bran (arg.), 2002, *Postmodernism and the contemporary novel: A reader*, Edinburgh: Univ. Press.
- Lasagabaster, Jesús María, 1985, *Antología de la narrativa vasca actual*, Barcelona: Edicions del Mall.
- Olaziregi, Mari Jose, 2005, "Paradisua hatz mamiekin ukituz", *Egan* 1/2, 63-76.
- Olaziregi, Mari Jose, 2009a, "is there a return of the real in postmodern fiction", in Rodríguez, Maria Pilar (arg.), *Cultural and Media Studies. Basque/European Perspectives*, Reno: Center for Basque studies-University of Nevada, 53-80.
- Olaziregi, Mari Jose, 2009b, "La recuperación de la memoria histórica en la novela contemporánea vasca", *Euskera* 54, 2-2, 1027-1047.

- Olaziregi, Mari Jose, 2009c, “Los lugares de la memoria en la narrativa de Bernardo Atxaga”, in Andrés-Suárez, Irene & Rivas, Antonio (arg.), *Bernardo Atxaga*, Madrid: Neuchâtel Unibertsitatea, 43-62.
- Otaegi, Lourdes, 1999, *Bernardo Atxaga. Egilearen hitza*, Bilbo: Labayru ikastegia.
- Pozuelo, Jose Maria, 2011, “Las formas autobiográficas como ejes narrativos de *El hijo del acordeonista* de Bernardo Atxaga”, in Andres-Suarez, Irene, & Rivas, Antonio (arg.), *Cuadernos de narrativa. Bernardo Atxaga*, Madrid: Universidad de Neuchâtel & Arco / Libros.
- Tozzi, Veronica, 2003, “[Hitzaurrea]”, in White, Hayden, *El texto histórico como artefacto literario*, Barcelona: Paidós, 9-42.
- White, Hayden, 1973, *Metahistory: The Historical Imagination in Nineteenth-Century Europe*, Baltimore: Johns Hopkins University Press.
- White, Hayden, 1992, *El contenido de la forma. Narrativa, discurso y representación histórica*, Barcelona: Paidós.

Jenisjoplin: identitatearen berrasmateza

Jenisjoplin: the reinvention of identity

Ainhoa URZELAI VICENTE
Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Unibertsitate Masterra.
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Jasotze data: 2018.09.15. Onartze data: 2018.11.23

LABURPENA

Euskal literaturan, oraindik ez dira asko protagonista femeninoa duten eta euskal gatazka ardatz hartzen duten obrak. Hori horrela, esku arteko artikulu honek arestian aipatutako ezaugarri horiek betetzen dituen Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* (Susa, 2017) liburuaren testu-analisia eskaintzea du xede nagusi. Har-tzailearen aldetik harrera ona izan duen obra honen gai nagusia identitatea eta identitatearen berrasmateza da, eta berau gorputzari eta sexualitateari lotuta gauzatzen da. Era berean, 80ko eta 90eko hamarkadetako Euskal Herrira jauzi egiten du eta besteak beste, militantzia, borroka armatua, disidentzia, klase-gatazka, bazterketa soziala, sexua, suizidioa eta droga ditu hizpide. Artikulu honetan liburuak jorratzen dituen gai horiek biltzeko saiakera egin da, baina horrez gain, testuinguru soziopolitikoari, paratestuari, espazioari edo pertso-naiei ere erreparatu zaie. Gorputzak (edo gorputz gaixotuak) kontakizunean duen zentraltasuna ere azpimarratu da lan honetan. Azkenik, Alberdiren eleberri honek euskal subjektu nazional berri bat eraikitze bidea irekitzen duela defen-datuta da, identitate nazional berri bat dakarrela alegia.

Gako-hitzak: Euskal gatazkaren errepresentazioa, protagonista femeninoa, gorputzaren zentraltasuna, identitatearen berrasmateza, testu-analisia.

ABSTRACT

In the Basque literature, there are few books that have a feminine protagonist and speak about the Basque conflict. It is for that reason that this article's main objective is to offer a literary analysis of Uxue Alberdis' book called *Jenisjoplin* (Susa, 2017), work that meets the characteristics mentioned above. The main topic of this book, that has had a very good reception from the critics, is the identity and its reinvention, and it is executed connected with the body and the sexuality. Likewise, it makes a jump to the Basque Country of the eighties and nineties, and among other things, speaks about militancy, armed struggle, dissent, class struggle, social exclusion, sex, suicide and drugs. This article makes an attempt to gather those topics that are addressed in the book, but besides, the sociopolitical context, the paratext, the space and characters are also analysed. The centrality that the body has in this novel has also been underlined in this article. Finally, it is defended that Alberdis' book opens the way to create a new Basque national subject, that is to say, it brings a new national identity.

Keywords: The representation of the Basque conflict, feminine protagonist, the centrality of body, recreation of the identity, literary analysis.

1. Sarrera. 2. Uxue Alberdiren ibilbide literarioa. 3. *Jenisjoplin* liburuaren testuanalasia. 3.1. Liburuaren laburpena. 3.2. Liburuaren harrera kritikoa. 3.3. Liburuaren paratestua. 3.4. Testuinguru soziopolitikoak. 3.5. Pertsonaiak. 3.6. Espazioa. 3.7. Gorputzaren zentraltasuna: gorputza gudu-zelai. 3.8. Lantzen diren beste gai batzuk. 4. Ondorioak. 5. Bibliografia.

1. Sarrera

Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da Hyden White eta bestek baieztatu bezala, historia diskurtso narratibo bat baino ez dela, irabazlearen ikuspuntutik egindakoa gehienetan (Olaziregi, 2008: 22). Horregatik, partziala eta osatugabea izan ohi da askotan. Beraz, kontakizun ahalik eta osatuena emateko, beharrezkoa da zokoan utzitako esperientzia horiek ere jaso eta papereratzea. Horrekin batera, azpimarratzekoa da gehienetan, gizonezkoak izan direla erdigunean jarri direnak, haien inguruan ardaztu baitira lan gehienak. Emakumea ez da Historiaren subjektu izan eta isilpean geratu da askotan. Garaileen historiatik biktimen historiara igaro behar gara, hau da, Carlo Ginzburg (1992) eta bestek mikro-historia deitzen duten horretara¹.

Bestalde, zenbait urtez puri-purian egon den eztabaidagaia izan da ea euskal literaturan gatazka politikoaz idatzi den ala ez. Itaun horri emandako erantzunak ez dira beti bat etorri, baina gaur egun (ia) eztabaida handirik gabe onartzen da gatazka politikoaz idatzi dela. Are gehiago, literatura kanonikoa gatazkaren literatura dela esan dezakegu. Kopuruari

[1] Miren Agur Meabe eta Itxaro Bordaren arteko elkarrizketan (2018) bi idazleek aipatzen zuten gure literaturan paraleloan landu izan direla epika handia eta bizimodu arrunteko epika txikia. Diotenez, askotan epika handiagoa dago pertsona arrunt baten bizimoduan salbatzaile handi baten egitandietan baino. Are gehiago, azpimarratzen duten idazleek sortu dituzten pertsonaiak ez direla heroiak, gehien bat antiheroiak direla, bazterrekoak maiz. Esaten dutenez, gauza berria izan da azken horien intimitatera sartzea eta azpimarratzen dute haien belaunaldiak euskal literaturari egindako ekarpena, hori dela oro har (Urretabizkaiaren *Zergatik Panpox* [1979, *Erein*] jartzen dute adibide gisa, zeinak euskal literaturako lehen emakume protagonista dakarren, beste berrikuntza batzuen artean).

begiraturaz gero, argi geratzen da baietz eta gainera, 1990. hamarkadaren azken urteetatik hona gorakada nabarmena² izan du literatura mota horrek (Sarasola, 2009). Baieztapen hori frogatzen dute, besteak beste, Ibon Egañak eta Edu Zelaietak zuzendutako *Maldetan sagarrak. Euskal gatazka euskal literaturan* (UEU, 2006) liburuak edo Amaia Serrano eta Jon Kortazarrek zuzendutako *Gatazken lorratzak. Euskal arazoan isla narratibian 1936tik gaurdaino* (Utriusque Vasconiae, 2012) liburuak.

Arestian aipatutakoaren ildotik, nahiz eta euskal literaturan gatazka politikoaz hitz egin den, ez da harritzekoa zailtasunak izatea euskal gatazka ardatz hartzen duen obra batean emakume protagonista bat aurkitzeko, nahiz eta egon badauden (Olaziregi & Ayerbe, 2016). Pertsonaia femeninoen urritasuna ez da euskal literaturari soilik eragiten dion fenomeno. Hala ere, aipatzekoa da sortzen ari diren genero diskurtso berriek posible egin dutela hala emakume idazleen nola pertsonaia femeninoen agerpena ugaritzea, baita ordura arte landu gabeko zenbait gai jorratzeko ere. Gainera, orain arte landutako gaiak beste ikuspuntu batetik aztertzeko parada ere eman dute. Gema Lasartek bere doktore tesian (2011) subjektu femenino berri baten presentzia iradokitzen du euskal literaturan. Dioenez, nortasun handiagoko pertsonaiak, aktiboagoak edo jendarteak ezarritako rol tradizionaleri uko egiten dietenak ageri dira. Horrez gain, subjektu horiek politikoagoak diren gaiak (nazioarena) ere lantzen dituztela aipatzen du eta baita gorputzaren presentzia³ azpimaragarria dela ere.

Goiko lerroetan aipatutako hori guztia frogatzeko asmoz, protagonista femeninoa duen eta euskal gatazka politikoaz mintzo den obra batera jo dugu, 2017an argitaratutako *Jenisjoplin* liburura alegia. Lan honen helburua obraren testu-analisisa eskaintzea da eta bertan ukitzen diren gai nagusienak bederen lantzea. Bide batez, ikusi nahi dugu ea nola adierazi duen Alberdik gatazka politikoa eta zein gizarte mota irudikatzen duen, hots, zeri ematen dion ikusgarritasuna. Horrekin batera, gure xedea protagonista femeninoaren ezaugarriak xehe-xehe aztertzea da, eta baita

[2] Jan Werner Müller-ek (2000 *apud* Olaziregi, 2009) memoriaren eztegi hitz egiten du.

[3] Miren Agur Meabe eta Itxaro Bordak (2018) aitortzen dutenez, gorputza oso gutxi sartzen zela literaturan eta haien belaunaldian sartu dela gorputza eta honen mina, baita hiztegi positibo bat gorputzaren isuri, min, zauri, sentsazio eta abarrez hitz egiteko eta oraingo belaunaldiak bolada horretaz baliatzen direla. Gorputzetik hitz egitea eta gorputzari buruz hitz egiteak oraindik ere transgresio modu bat izaten jarraitzen du, eta horregatik ildo hori ez abandonatzeaz poztzen dira.

idazleak obra honekin zein ekarpen egiten digun ikustea ere. Horretarako, liburuaren analisi narratologikoa egingo dugu, besteak beste, kontakizuna espazio eta denboran kokatzeko edo narratzaile zein pertsonaia nagusienak azaltzeko. Horrez gain, genero-ikasketetatik joko dugu liburu honetan gorputzak duen zentraltasuna agerian jartzeko eta memoria-ikasketetan ohikoak diren termino batzuk ere geure egingo ditugu, obra honek transmititzen duen memoria motari buruz mintzatzeko.

2. Uxue Alberdiren ibilbide literarioa

Idazleari dagokionez, 1984an jaio zen Elgoibarren eta bertsolari eta idazle gisa da ezaguna, baina aipatzekoa da itzulpengintzan ere jardun duela. Kazetaritzan lizentziaduna da eta zenbait bertsopaper lehiaketa irabazi ostean, 2005ean idazle gazteentzako Igartza bekari esker idatzi zuen bere lehen liburua, *Aulki bat elurretan* (Elkar, 2007). 2007an beste sorkuntza beka bati esker, Joseba Jaka Beka hain zuzen, *Aulki-jokoa* (Elkar, 2009) liburua idatzi zuen eta urte batzuk beranduago argitaratu zituen *Euli-giro* (Susa, 2013) eta *Jenisjoplin* (Susa, 2017) obrak. Azken honekin, 2017ko 111 Akademiaren saria jaso zuen.

Ezin aipatu gabe utzi haur eta gazte literaturan ere egin duela bere ekarpena, baita itzulpengintzan ere. Azken honi dagokionez, azpimarragarri deritzogu 2017an Alfonsina Estorniren poesia itzuli zuela ohartarazteari, izan ere, lan honetan aztergai izango dugun *Jenisjoplin* eleberrian bertan autore hau aipatzen da. Beraz, Alberdiren ibilbide literarioarekin amaitzeko, ezin dezakegu esan emakume polifazetiko hau genero bakarrera mugatzen denik.

3. *Jenisjoplin* liburuaren testu-analisia

3.1. Liburuaren laburpena

1980ko hamarkadaren hasieran jaiotako Nagore Vargas (aitak jarritako ezizenez *Jenisjoplin*) dugu liburu honetako protagonista eta narratzailea⁴, eta bere bizitza kontatzen zaigu bertan, lehenengo pertsonan azalduta. Liburuan bi plano nagusi bereizten dira, hau da, bi kronologia paralelo daude. Batetik, orainaldiko kontakizuna dago, 2010eko udan hasten dena, Nagore Artxandara bidean doanean autoz Libre irratiko hiru lagu-

[4] Barne fokalizazioa dugu, Nagorerengan jarritako foku finkoarekin eta lehenengo pertsona gramatikalean kontatzen duen narratzaile homodiegetikoa. Horrek aurrez aurre jartzen gaitu protagonistaren barnekoarekin, filtro edo bitartekorik gabe.

nekin (Irantzu, Karra eta Lukarekin). Hauek azken bilera bat egitea erabaki dute, jakinaren gainean baitaude polizia atzetik dutela eta terrorismoaren goraipamena leporatuta irratia itxi eta ziurrenik preso hartuko dituztela. Plano hori 2014an amaitzen da. Bestetik, irakurlea flash-backen bidez Nagoreren haurtzaro eta gaztarora eramaten duten kontakizunak daude (1982tik 2003 ingurura artekoak)⁵. Liburuaz azken hiru hamarkadetan dago girotua, euskal gatazka testuinguru gisa hartuta. 2010ean (28 urterekin) hiesa diagnostikatzen diote, ETAk armak utziko dituela adierazten duen urte berean. Gertakari horrek protagonistaren bizitzan inflexio puntu bat ekarriko du, norabide aldaketa bat, eta bere identitatea berrasmatu beharko du. Nagoreren bidaia horretan murgiltzera gonbidatzen gaitu Alberdik mintzagai dugun obran.

3.2. Liburuaren harrera kritikoa

Lehenengo eta behin, azpimarratzekoa da aztergai dugun obra hau Euskal Herriko literaturazaleen bilguneak ematen duen 111 Akademiaren sariaren onuraduna izan zela 2017an. Bigarrenik, aipatzekoa da *Jenisjoplin* liburu salduenen zerrendako goi postuetan egon dela. Beraz, argi dago irakurleriak bederen ondo erantzun diola Alberdiren azken nobelari.

Obraren gainean egin diren kritikei begiratu bat emango bagenie, eta soilik kritiken hemerrotekan daudenetara mugatuz (zazpi kritika guztira), oro har liburuak harrera ona izan duela esan dezakegu. Mikel Asurmendik (2017) dioen legez, nobelak zeresana eman du dagoeneko, eta onerako, gure uste apalean. Alde batetik, adituak bat datoz baieztatzean idazleak bikainki uztartu dituela hainbat belaunaldiren narrazioak. Javier Rojok (2017) dioen moduan, Euskal Herrian azken urte hauetan gertatutakoaren kronika azaltzen zaigu orriotan, Nagore Vargas gertakari horien guztien lekukoa ere bada-eta. Beraz, hurbilpena gertutik egindakoa da. Gainera, Usoa Alberdiri (2017) jarraituz, irakurlea 80ko eta 90eko hamarkadetakoa Euskal Herrira itzuliko da, baina kontakizun honetan (joandakoak beti edertzeko ohiko joeraren kontra), orduko zikinkeria guztia-ekin aurkituko da irakurlea. Beste alde batetik, Nagore protagonistaren figura azpimarratzen dute kritikariek, eta bat datoz indar ikaragarriko pertsonaia dela baieztatzean. Ibon Egañak (2017) adibidez, zalantzarik gabe baieztatzen du protagonistaren konplexutasuna eta bilakaera dela

[5] Bi planoetan erritmo diferentek darabiltza egileak. Lehenengo garaietan ekintza asko dago eta protagonisten elkarrizketak biziagoak dira. Iraganeko pasarteak, berriez, narratiboagoak eta deskribatzaileagoak dira.

nobelaren osagai indartsuena, irakurle askoren gogoan iltzatuko dena eta norabide ugarityarantzko gogoeta mamitsuei bidea zabaltzen diena.

Horrez gain, ez dira gutxi liburuak ukitzen dituen gaien aniztasuna goraiatu duten kritikariak. Amaia Alvarezek (2017) dioenez, batetik, euskal gatazkari (edo gatazkei) buruz hitz egiten du nobelak eta garai baten erradiografia egiten du mende aldaketari begira jarriz. Bestetik, euskal identitateari buruz mintzo da; egungo subjektu politikoa marrazten ahalegintzen da bertako pertsonaien, gertaeren eta hausnarkeen bidez. Gainera, sexua, droga eta rock and rolla izango ditugu harietako batzuk, hauen eragin eta ondorioak. Militantzia, disidentzia, klase-gatazka, bazterkeria sozialak dakarren krudeltasuna, ohiko ereditik kanpo dagoen familiaren gorabeherak, medikuntza, gaixotasuna eta haren inguruan dauden tabu moralak, ahultasuna, gizakion zaurgarritasun eta hauskortasuna, zaintza, plazera zein indarkeria ere presente daude kontaktetan. Iratxe Esparzak (2017) adierazten duen legez, Alberdik sakonki eta oreka mantenduz egituratu du testua eta hari nagusiari darizkion adarren ugaritzeak izugarri aberasten du eleberria.

Hizkuntzaren aldetik ere jaso ditu laudorioak *Jenisjoplinek*. Asurmendik (2017), nobelaren dohainez ari dela, hizkuntza bizia, hizkuntzaren doitasuna, solaskideen mintzoaren bizitasuna, protagonisten sen askotarikoaren adiera-bideak eta adierazpideak goraiatzen ditu. Peru Iparragirek (2017) orokorrean hizkera soil eta batere behartu gabeen idatzia dagoela gaineratzen du, hitanoz emandako elkarrizketekin topo egiteak agian irakurleen bat harritu dezakeela ohartaraziz, eta Egañak (2017) ere ildo beretik jotzen du, irakurleak estilo jostari eta arin baina landu batekin topo egingo duela esanez.

Liburuak izan lezakeen ahulguneren bat aipatzearen, Egañari (*ibidem*) nobelak planteatzen dituen hainbat gatazka eta pasarte (klase-gatazka edo borroka armatuarena, esaterako) diskurtso-mailan edo maila sinboliko-metaforikoan garatzen direla iruditu zaio, eta ez dela hainbeste sakontzen haiek dituzten ondorio material edo korporaletan. Era berean, elkarrizketa ugari eta bizi-biziek pertsonaia diferenteak aurrez aurre jartzeko bainoago auzien inguruko ikuspegi bat, Nagore Vargasena, garatzeko funtzioa dutela iruditu zaio aldika, bigarren mailako pertsonaien sakontasunaren kaltetan. Esparzak (2017) ohartarazten duenez, pasarteren batean Nagoreren ahotsak talka egiten du hirugarren pertsona dabilen narratzailearenarekin, eta elkartze mehe horretan zerbaitek huts egiten duelakoan dago.

Azkenik, eta baina guztiak gaindituz, Alberdik irakurlea axolagabe uzten ez duen liburua dakarkigula esatera ausartuko ginateke, azken orria irakurri ostean ere burua liburuari itsatsita geratzen den horieta-koa.

3.3. Liburuaren paratestua

Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da liburuaren izenburua dela irakurlearen arreta deitzen duen lehenengo elementua. Idazleak rock and roll eta blues abeslari izan zen Janis Joplin estatubatuarrarekin lotura egitera bultzatzen gaitu zuzenean. 27 urterekin heroina gaindosi bategatik hil zen musikari hau emakumearen eta 1960ko hamarkadako kontra-kulturaren sinboloetako bat da eta rockaren historian izartzat hartzen den lehenengo emakumea da. Baina, zergatik egin du Alberdik liburuari izen hori emateko hautua? Bada, Nagore Vargasen izengoitia da Jenisjoplin (Rafa Vargas aitaren kantari kuttuna izan zen Janis Joplini hartua). Aldeak alde, Nagoreren eta Janis Joplinen artean hainbat paralelismo aurki ditzakegu. Erreboltariak dira biak ala biak, destino berak parekatuak, hiesaren eramaileak dira eta.

Portadan Lander Garro argazkilariaren zuri-beltzeko potreta dator eta haren bidez Jenisjoplin protagonistarekin lehen kontakua lortzen du irakurleak. Gela ilun baten eta ohean etzanda dagoen emakumea ageri da, zigarro bat erretzen. Pertsona hori Nagore Vargas izan daiteke, Janis Joplinen itzala atzean duela. Bide batez, tabako kez betetako taberna ilunak dira protagonista gusturen sentiarazten duen giroa.

Elementu paratestualekin amaitzeko, liburua hiru kapitulutan antolatuta dago, baina horien barruan iraganeko zein orainaldiko kontakizunak biltzen dira. Egañari (2017) kapituluen banaketa horrek tesi-antitesisintesi eskemari hurbil xamarretik jarraitzen diolako inpresioa eragin dio eta uste dugu ez dabilela bide okerretik.

3.4. Testuinguru soziopolitiko

Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da 80ko hamarkada oso garai nahasia izan zela mundu mailan. Punk mugimenduaren garaia zen, kontrakulturaren, erresistentziaren, desengainuaren eta inkonformismoaren garaia. Mugimendu kontrakultural famatuena Madrilen zegoen, baina gogorrena ziurrenik gurean gertatu zen. Euskal Herriko gatazka politikoaren unerik gogorrenetakoak izan ziren. Olaziregiri (2017: 11) jarraiki,

hamarkada hartan eragin zuen ETAk biktima kopururik handiena. Are gehiago, 1980. urtea ETAk eragindako terrorismoaren urte gogor eta odoltsuena izan zen, zeinari taldearen ‘berun urtea’ deitu zitzaion. 200 atentatu, eraildako 98 pertsona eta 22 bahiketa izan ziren urte hartan (Burgo, 2014). Estatu terrorismoa eta GAL erakunde paramilitarraren ekintzak ere aipatu behar ditugu aurrekoarekin batera. Punkaren (RIP, Eskorbuto, Vulpes, Cicatriz, Parabellum), heroinaren eta kale borrokaren urteak izan ziren. Heroina gazte belaunaldi baten zainetan sartu zen eta aurretik eraman zituen gazte asko eta asko, sistemaren aurka borrokatzeko prest zegoen belaunaldi oso bat hain zuzen. Horrekin batera, ezin hiesa aipatu gabe utzi. Hiesaren pandemia ofizialki publiko egin zen lehenengo aldiz 1981eko ekainean, AEBetako Gaixotasunen Prebentziorako eta Kontrolerako Zentroak alarma piztu zuenean. Espainia trantsizio garaian zegoen. 1981ean Estatu kolpe saiakera bat egon zen eta gero sozialistak jarri ziren gobernuaren buru, Felipe González en gidaritzapean. Euskal Herriko egoera ekonomikoa ez zen batere ona, hainbat enpresek atek itxi behar izan baitzituzten.

Euskal Herrira droga nork sartu zuen azaltzerako orduan, ez dago erabateko adostasunik, baina askok diotenez, estatu espainiarra izan zen arduradun nagusia, hots, guardia zibila. Hori egia balitz, arrazoiak asmatzea ez litzateke batere zaila izango: gazteria otzan eta “entretentuta” mantentzea, politikan sartu ez zitezen. Beste era batera esanda, iraultza gosea drogaz itotzeko estrategia eraginkorra izan zela esaten da. Hau da liburuan Nagorek aipatzen duena, izan ere, Peruri azaltzen dio heroina helburu politikoetarako erabili zela eta guardia zibilak droga banatu zuela. Esanguratsua da ondorengo aipu hau: “ETAk zerbaitegatik akabatu izan ditik trafikanteak [...] belaunaldi oso bat garbitu zitean, hain justu, trantsizioaren ipuina irentsiko ez zuena” (Alberdi, 2017: 112⁶). Gainera, pertsonaia honek berak Peruri ohartarazten dio AEBetan antzekoa gertatu zela crack-arekin (112, 113).

Gorago aipatu bezala, liburuak bi plano ditu, 1982 eta 2003 urteen artekoa batetik eta 2010eko udatik 2014ra artekoa bestetik. Bada, 2010. urtea Nagoreren bizian inflexio puntua dela esan dezakegu, urte horretan bertan hiesa diagnostikatzen baitiote. Gainera, benetako gertaera his-

[6] Hemendik aurrera liburuaren orrialdeak bakarrik adieraziko ditugu parentesi artean.

[7] Hala ere, ezin aipatu gabe utzi zenbaitek iradoki dutela ETA egoeraz baliatu zela eta dirua lortzeko droga asko sartu zuela Euskal Herrian.

toriko batekin lotuta dago berri hori: sasoi horretan ETAk jardun armatua behin betiko uztea erabaki zuen. Nagoreri hiesa diagnostikatzen diotenerako Euskal Herriko giroa desberdina da. Militantzia beste era batera gauzatzen da eta oro har giro burgesagoa da nagusi.

Atal honetan aipatutako guztia garrantzitsua iruditzen zaigu, hau da, garaiko euskal gizartearen berri izatea ezinbestekoa iruditzen zaigu, izan ere, nobela honetan memoria drogarekin dago lotuta.

3.5. Pertsonaiak

Lehenengo eta behin Nagore Vargas protagonista aipatu behar da. Hau 1982an jaiotako guraso ezkertiarren alaba da, kazetaria ofizioz. Tabernarien alaba da eta txikitatik taberna izan du bizileku nagusi (beherago landuko da tabernak duen garrantzia). Gazte kementsu eta indartsua da: bizitzak zaildua, klase apalekoa, politikoki engaiatua, ezarritako araei su- harki aurre egiten diena; harik eta seropositiboa dela eta hiesa duela jakiten duen arte. Gertaera honek inflexio puntu bat markatzen du, norabide aldaketa bat Nagoreren bizitzan. Diagnostikoak bere identitatea guztiz eraldatzen duela ikusiko dugu hurrengo atal batean. Hasieran ageri zaigun neska gazteak ez du bikote-harremanetan sinesten (64) eta maitasuna praktikotasun kontua dela iruditzen zaio, neurtu eta negoziatu daitekeen zerbait (65). Beldurrik gabe bizi da, azkar, intentsitate handiz, ausardiaz. Txikitan eskolako mutilei aurre egiten die (86), labanaz mehatxatzen duen mutilari aurre egiten dio, tabernan iraindu duen mutilari eraso egiten dio (128) edo kaleko istiluetan sartzeak bizirik sentiarazten du (145).

Beraz, azpimarratzekoa da hemen ez dugula emakume pasibo batekin topo egiten, ez horixe. Nagorek ez du emakumeari tradizionalki egotzi zaion rola betetzen (ama edo emazte menpekoa, etxeakoandrea, zaindaria, otzana), izan ere, rol aktiboa dauka gatazkan. Horregatik, soldaduaaren edo gerlariaren rola betetzen duela esan genezake (ausarta, indartsua, militantea eta borrokalaria da, emakume falikoa nolabait esatearren⁸). Benetan azpimarragarria iruditzen zaigu orain esan duguna, izan ere, gure uste apalean (eta ezagutzen dugunera mugatuta), euskal literaturan ez dago horrelako protagonismoa duen emakumezko konta-

[8] Ezin aipatu gabe utzi Nagorek nolabait ama izateko aukera izan zuela baina ama izateari uko egin ziola, abortatu egin baitzuen (40).

kizunik gai historikoei buruz⁹, edo hori iruditzen zaigu behintzat. Hala ere, aitortu behar dugu momenturen batean zaintzailearen rola betetzen duela Nagorek, aitak etxetik alde egin eta ama depresioak jota dagoenean alegia (122). Gainera, gero ikusiko dugun legez, pertsonaia honek bilakae-ra bat izango du.

Marjinetatik borrokan ari den pertsonaia dugu, erresistentzia identitateen taldean kokatu behar dugu beraz¹⁰. Hasiatik bertatik kontraesan bezala betetako pertsonaia dela ikus dezakegu. Batetik, ezkertiarra eta errebeldea da, teorian eta praktikan, baina bestetik, “euskaldun peto abertzaleek” behin eta berriz gogorarazten diote ez dela osoki haien artekoa (165). “Erdi-maketoa” izatearen lotsa¹¹ eta ezkertiarra izatearen harrotasuna dauka aldi berean (178). Esanguratsua da ere honako aipu hau: “Ez nintzen bertsozale porrokatua, horretan ere ez nintzen sartzen abertzale inbentariatuaren soslaian” (243). Pertsonaia borobil bat dugu beraz, E. M. Forsterren sailkapenari jarraituz, pertsonaia dinamikoa eta konplexutasun handikoa. Pertsonaia polifonikoa dela iruditzen zaigu, lagun artean nahiz familiaren baitan eraikia. Ildo beretik, gainerako pertsonaiekin dituen elkarrizketa eta interakzioek protagonistaren zeharkako karakterizazioan eragina dute eta haiek Nagoreren karakterizaziorako eraikiak izan direla esan dezakegu.

Rafa Vargas aipatu behar da batetik, Nagoreren aita. Politikan inplikaturako gizona da, langile-komiteetan afiliaturakoa (30). Andaluziarra

[9] Horregatik har dezakegu Nagoreren istorio hau kontra-kontakizun bezala, zentzu horretan ulertuta bederen.

[10] Castells-ek (2001: 30) identitatearen inguruan hausnarketa bat egiten du eta hiru mota proposatzen ditu boterearen inguruan eraikiak edota botere harremanak ardatz nagusi dituztenak. Batetik, identitate legitimatzaileak izendatzen ditu. Hauek gizarteko erakundeek bere hegemonia zabaltzeko eta arrazionalizatzeko hedatutako identitateak lirakeke. Nazioari, arrazari, generoari lotua legoke kontzeptu hori. Bestetik, erresistentzia-identitateak izango genituzke, dominazioak estigmatizatu eta gutxietsitako identitate marjinalak. Azkenik, egitismo identitateak, gizarte-eragileak identitate berri bat aldarrikatzean sortzen direnak, gizarte-egitura osoaren eraldaketa bilatzen dutenak. Castells-ek egiten duen sailkapen horretan, euskal emakume idazleak emakumea nazioarekin lotzeko orduan, talde honetan kokatuko lukete pertsonaia femenino protagonista (Lasarte, 2011: 234). Baina Nagore Vargasen kasuan, erresistentzia identitateen barruan sartu behar dugula uste dugu.

[11] Nahiz eta euskalduna izan, ez da guztiz euskaldun sentitzen. Pasarte batean aitaren aldetiko abizen erdaldunak ezartzen dion marka aipatzen da. Kontuan hartu behar dugu Sabino Aranak nahiago zuela abizen euskalduneko eta erdaraz mintzo zen euskalduna, abizen erdalduneko eta euskaraz mintzo zen pertsona baino (Iztueta, 2003: 851). Garai hartan pisu handia zuen ideia horrek (gaur egun diasporan garrantzi handiko kontua da hau).

da jatorriz eta klase kontzientzia garbia adierazten du, baita “maketo” izatearen kontzientzia ere. Aipatutako hau ondorengo aipuan dakusagu: “Konbentzituta zegoen markaketa gastronomikoa propio egina zela euskaldunak eta maketoak ongi bereizteko” (266). Esanguratsua da ere honako hau: “Inteligenteen eta intelektualen artean [...] eskailera bakarra zagon: dirua [...] gu inteligenteak ginen”. Gainera, esplizituki esaten da berak piztu zuela detonagailua Nagorerengan (160), izan ere, aurkitzeko gauza asko dituela eta arriskatu egin behar dela aipatzen dio gaztetan (158, 160). Beraz, liburuan zehar argi azaltzen da zein herentzia transmititu dion aitak alabari (klase-kontzientzia, zapaldua izatearen kontzientzia eta borrokarako grina)¹². Aita eta alabaren arteko harremana deigarria da oso, izan ere, garbi ikusten da Nagorek aita gertu izan nahi duela eta ez duela hark alde egiterik nahi. Txikitan aitaren alboan pasatako momentu zoriontsuak deskribatzen zaizkigu (82) eta hiesari aurre egiteko medikuarenera joateari uko egin eta aitak alde egiteko keinua egitean, Nagorek amore ematen du¹³ (211).

Arantzazu Alkorta Nagoreren ama da eta euskaldun familia pobre batetik datorrela dakigu (29). Gizarteak emakumeei esleitutako rol tradizionala betetzen duela esan dezakegu. Esanguratsua da ondorengo pasarte hau: “Menpeko eta esaneko izaten ikasi zuen, barnekorik ezer ez adierazten” (29). Batek pentsa lezake ama ahul gisa ageri zaigula, gizonak etxetik alde egiten duenean depresioak jota igarotzen duelako epe luze bat. Beraz, ama abandonatuaren irudia presente dago pertsonaia honen¹⁴. Amarekin amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi harreman konplexu samarra duela berarekin ere eta modu inplizituan amaren ausentzia zein beharra izugarria dela.

Rosa Morenok, Nagoreren amonak, paper garrantzitsua jokatzeko duela uste dugu. Nagorek kontaktatu duen legez, amonak Hiesaren Aurkako Batzordean parte hartzen zuen aktiboki eta bileretara joaten zen (hiesaren aurkako militante aktiboa da beraz). Txikitan harekin joaten zen

[12] Hemen egoki deritzogu memoria filiatiboaz eta Jan eta Aleida Assmann-en memoria komunikatiboaz hitz egiteari. Hau eguneroko komunikazioan oinarritzen den memoria kolektiboa da (etxean jasotakoa). Eguneroko komunikazioa ez da espezializatu eta elkarrekiko harremanean moldatzen da. Ahozko historiari dagokio (ahoz transmititutako memoria da, ez dago liburu formatuan) eta denbora-tarte mugatua hartzen du, hiru edo lau belaunaldi (Arroita, 2015). Gainera, memoria komunikatiboaren edukia aldakorrak dira eta ez diote oinarri edo euskarri finkorik ematen taldeari bere iraganarentzat.

[13] Nagore eta aitaren bikotekide berria ere ez dira oso ongi moldatzen (159).

[14] Lasartek (2011) dioenez, hau ohikoa da emakume idazleen lanetan.

Bilbora eta heroinazaleei xiringak eta kondoiak banatzen zizkieten (92). Ondorioz, Nagorek ezin du erruduntasun sentimendua gaintetik kendu (149). Argi esaten du amona bizirik balego Nagorek ez liokeela bere buruari barkatuko, bi aldiz infernu bera pasarazteagatik (92). Argi ikusten da protagonistak duen erru sentimendua (aitak arreba eta lagunik onena hiesaren erruz galdu zituela aipatzen da eta horrek ere protagonista aztoratzen du, zalantzarik gabe).

Protagonistaren familiarekin amaitzeko, Karmen Vargas aipatu beharra dago ezinbestean, 20 urterekin hiesak jota hildako izeba. Behin baino gehiagotan esaten zaigu Nagorek atxikimendu handia sentitzen duela eta hori goren gradura eramaten da liburuaren bukaeran. Ospitalean dagoela, Nagorek Karmen entzun eta usain dezakeela kontatzen du eta haren besoetan ikusten du bere burua, biraka eta “ama!” dei eginez. Pasarte zinez samurra eta hunkigarria iruditu zaigu, nobelaren giltzarrietako bat zalantzarik gabe. Nagore bezala, emakume borrokalaria iruditu zaigu. Kartzelatu zutenean haurdun zegoela esaten zaigu eta bere egoeraren berri izan zuenean desintoxikatzea erabaki zuela, baita lortu ere. Hala ere, haurrak bi urte betetzean Karmeni hiesa diagnostikatu eta handik gutxira hiltzen da.

HB-ko politikari baten semea den Peru ikaskideak Nagoreren irakasle papera betetzen du, haren ahotik ezagutzen baitu Jarrai, militantzia, borroka armatua, iraultza, sozialismoa, gerra zikina, ekintzak, preso politikoak, gutarrak, vis a visak eta abar, eta abar (111). Pertsonaia honekin batera Karra aipatu behar dela uste dugu, izan ere, honek egiten dio leku Nagoreri ezkerreko Bilbon. Bertan integratzeaz gain Segiko neskek (tartean Irantzu) aurkezten dizkio. Irantzu aipatu dugula, azpimarratzekoa da bi nesken arteko elkarrizketak oso interesgarriak direla, galdera eta hausnarketa interesgarriak plazaratzen direlako. Nagoreren kontzientziaren ahots gisa jarduten duela esan genezake eta haren izaeraren gaineko informazio ugari ematen digu. Haritzek ere (LABeko liberatuak) Nagoreri askapen borroken zerumuga zabaldu ziola aipatzen da (170) eta haren eskutik ezkerreko Bilbo ezagutu zuela.

Laburki bada ere, Maritere Kortabarria Lasaldeko auzokidea aipatu beharreko pertsonaia dela uste dugu. Pertsonaia marjinala da ere: auzoan erotzat dute, eskizofrenia duen alaba bat eta bortxaketa batzuegatik kartzelatik irten berri den seme bat dauka. Sozialki estigmatizatuta dagoen familia ordezkatzeko du eta protagonistak arratsalde dezente igarotzen ditu Maritereren etxean (85).

3.6. Espazioa

Hernandezek (2011: 115-116) dioen legez, espazioa ekintzak gertatu eta pertsonaiak dauden edo mugitzen diren dimentsioa da. Espazioaren azterketa pertsonaiena baino okerrago ikertu izan da narratologiaren alorrean, baina hemen zertzelada batzuk ematen saiatuko gara, ezinbestekoa iruditzen baitzaigu espazioari begiratu bat ematea. Espazioa eta garaia kontuan hartzen saiatuko gara, biak oso erlazionatuta baitaude¹⁵. Ez hori bakarrik, espazioa oso erlazionatuta dago pertsonaiekin, eta horregatik, kronotopoaz gain biokronotopoaz hitz egin behar dugu.

Garridori (1996: 211) jarraiki, espazioa ez da inoiz axolagabea pertsonaiarentzat. Defendatzen duenez, gehienetan espazioa pertsonaiaren metafora edo metonimia da. Esandako hau agerikoa da aztergai dugun obran, izan ere, espazioak protagonistaren gogo-aldarteak islatzen, argitzen edo justifikatzen du.

Hernandezek (2011: 117) gogorarazten duen moduan, pertsonaien karakterizazioaren atal bat espazioaren bidez egin daitekeen bezala, pertsonaia bat bere ohiko espaziotik atera eta zeharo arrotza zaion beste batean kokatzean egon daiteke istorio batzuen funtsa. Gure ustez baiez-tapen hori bete-betean gauzatzen da *Jenisjoplin* eleberrian, izan ere, Nagore gatazka eszena batetik (dela borroka armatua, militantzia edo klase-gatazka) beste gatazka eszena batera mugitzen dela iruditu zaigu (hiesari aurre egin beharra), eta aldaketa horrek identitatea berrasmatzeko beharra dakarkio.

Azter ditzagun jarraian liburuan agertzen diren espazioak zeintzuk diren (esan gabe doa espazioen balio sinbolikoan jarri behar dugula arreta berezia).

Kontakizuna Euskal Herrian gertatzen da nagusiki. 80ko hamarkada-ko Lasalde ageri zaigu lehenik (Elgoibar gogoraraziko ligukena), yonkien mundua eta Euskal Herriko gatazka unerik gogorrenetarikoak bizi ditu bertan protagonistak. Izeba hiltzen denean Nagore amonarekin batera Andaluziara joaten da, Karmenen heriotzaren dolua pasatzera (57). Aitar-en aldeko familia bertakoa da, beraz, lotura emozional bat du toki horrekin. Gainera, La Esperanza deitzen da herria, inola ere ez modu ino-zoan hautatutako izena.

[15] Erlazio hortaz jabetzeko garrantzi handikoa da M. Bakhtinek asmatutako “kronotopo” kontzeptua, hau da, nongotasunak eta noizkotasunak harreman estua dutela onartzea (Hernandez, 2011: 116).

Bilbok garrantzi handia du. Bertan gertatzen da narrazioaren atalik nagusia eta hiri hori da Nagore subjektu politiko kontziente gisa erakitzen den espazioa. 1997an Guggenheim museoa laster zabalduko dutela esaten zaigu eta Aznar zein Espainiako errege-erreginen bisita egongo dela. Horregatik, atentatu saiakera bat prestatzen dute, naiz eta ezer ez den planeatutako moduan irteten (157). Ekintza hau errebelazio-une gisa bizi du protagonistak, bizitzaren lehen lerrora igarotzeko dei gisa (160). Nagore egoten den ospitalea ere aipatzekoa da, bertan pasatzen baititu bere bizitzako une gogorrenak. Hilzorian dagoela, aitari Portugalete eta Getxo lotzen duen zubi esekia ikustera joateko eskatzen dio. Zubi hau Nagoreren egoera fisikoaren metafora gisa ulertu beharra dagoela uste dugu, izan ere protagonista bizitzatik eskegita dago, orainari eusten, zuzia bezalaxe.

Tabernak izugarritzko garrantzia du. Hiru taberna agertzen zaizkigu Nagoreren bizitzan: *Zazpi*, heroinazaleak biltzen diren antroa (56), *Media Luna* eta *Ataka*. Protagonista txikitatik hezi da tabernan eta lanean ere ibili da bertan. Hain da handia tabernarekiko duen atxikimendua ezen *Ataka* saltzen dutenean Nagore gorputz atal bat ebaki izan balio bezala sentitzen den. Tabernarekin erabateko identifikazioa zuela ikusten da: “Bat-batean nobiorik, amoranterik eta tabernarik gabeko Nagore nindunan; deus gutxi” (117). Hori gutxi balitz, Nagore eta Irantzu desagertzeko arriskuan dauden tabernei buruz hitz egiten ari direnean (heroinari iriandako tabernariak dituztenak, speed arrastoak dituzten txokoak dituztenak...), zorioneko lekuak deitzen die Nagorek. Etxean sentitzen da haietan eta honako hau aitortzen dio lagunari: “Taberna gutarrak defendatzea nire burua defendatzea zen” (118). Ez dago zalantzarik zer nolako atxikimendua dien halako tabernei.

Azpmarragarria iruditu zaigun beste toki bat eskolatik irten eta pertsonaiak joaten diren industrialdea da. Izan ere, hura heroina kontsumitzaileen bilgune dela aipatzen zaigu. Karmenek ere hor zulatzen zituen zainak (112)¹⁶.

Bordelek ere garrantzia du. “Bigarren aukeren lurralde” gisa irudikatzen zaigula uste dut, baina gaixotasunarekin erabat lotuta. Izan ere, bertara joaten da Lukarekin beste diagnostiko baten bila. Azpimarratzekoa da giro alai dela nagusi bertan eta bikotea askatu egiten dela

[16] Hemen ikusten da memorian atzera egitean drogarekin lotutako lekuak agertzen direla.

nolabait. Dantza egiteaz gain Nagore subjektu sexual eta erakargarri sentitzen da, diagnostikoa jaso zuenetik lehenengoz (190).

Horrekin lotuko genuke ere protagonistak Irantzurekin batera Formenterara egiten duen bidaia. Nagoreren hitz hauek adierazten digute bertan sentitzen duen plazera: “Hementxe geldituko ninduken betiko [...] mundua atzean uztearen irudipen iragankorra” (200). Gainera, berriz ere Euskal Herrira itzultzen direnean Nagoreren egoerak txarrera egiten du nabarmenki (210)¹⁷. Madril ageri zaigu kontaktaren hasiera aldera, baina Auzitegi Nazionalarekin eta epaiketekin lotuta dago, beraz, ez zaigu inola ere leku idiliko edo atsegin hartzeko leku gisa irudikatzen. Horrez gain, Caracaseko Petare auzoa ageri zaigu (hau ere Lasaldeko giro marjinalarekin alderatu dezakegu) eta lotura politikoa dela esan dezakegu. Oso esanguratsuak iruditu zaizkigu protagonistak bertan egiten dituen go-goetak: “Errudun sentitu nintzen nire azalaren koloreaz, eta laguntza eskaini izanaz lotsa; biolentziari boterearen goiko eskaileratik begiratzeaz, zikin” (223). Lehenengo aldiz, boterearen jabe sentitzen da¹⁸.

Azkenik, istorioaren amaieran Getarian ageri zaizkigu Nagore eta Luka eta leku idiliko gisa deskribatzen zaigula iruditzen zaigu. Hemen aipatu gabe utzi ezin daitekeen eta metafora moduan funtzionatzen duen irudi bat dago, nobelaren esanahia nolabait laburtzen duela iruditu zaiguna. Otarrain baten muda-aldatzea agertzen da. Otarrainak azal zaharra utzi du baina berria egin gabe daukanez, oso bigun dago. Azala aldatzen dauden otarrainak beste putzu edo igerileku batera pasatzen dituzte arduradunek, oso zaurgarri eta edozeinek eraso egiteko moduan geratzen

[17] Aitzinera joan aurretik, aipatu gura genuke bidaiak transformatu egiten duela pertsona eta literaturan protagonistaren autoezagutza eta ihesaldiarekin lotu izan dela bidaia. Uste dugu liburu honetan ezin dugula transnacionalizazioaz hitz egin Amhed-ek darabilen zentzu hertsian, baina uste dugu Euskal Herriatik irteetak despersonalizazio puntu bat ematen diola protagonistari, itogarri zaion espaziotik ihes egiteko aukera bederen. Lasartek (2011: 233) dioenez, emakume idazleek euren diskurtsoak nonbait kokatzeko beharra dute eta espaziorik erabiliena nazioarena (Euskal Herriarena) da. Batzuek, gutxienez, lehen mailan, eta gehiengoak bigarren mailan. Gainera, egile horrek baieztatzen du badagoela joera bat pertsonaiak naziotik kanpora ateratzeko beharra bistararazten duena, pertsonaiak Euskal Herrian ito egiten direla edota kanpoa erakargarriago eta askeago sentitzen direla euren eginbidean.

[18] Oso interesgarria da hemen aurkeztu diren espazioen eta klase sozialen arteko lotura aztertzea. Azpimarratzekoa da Venezuelen Nagore zapaltzailearen bandotik gertuago sentitzen dela langile-klasetik baino. Antzekoa esango genuke opor lekuei buruz, horiek ez baitira oro har langile-klasearekin lotzen.

direlako. Nagore ere egoera berean dagoela iruditzen zaigu, azalberritzen, eta bitartean ahul eta zaurgarri dago¹⁹.

3.7. Gorputzaren zentraltasuna: gorputza gudu-zelai

Jenisjoplin liburuan gorputza ezinbestean aipatu beharreko elementu zentrala dela iruditzen zaigu. Protagonista zerbait baldin bada gorputza da, gorputz gaixotua, gorputz medikalizatua. Kontakizuna Nagorek sentitzen duen horretan ardaizen da eta sentimendu zein adierazpen guztiak gorputzaren bidez ematen dira. Protagonistak gorputzetik bizi du guztia eta edozein liskarri egiten dio aurre bere gorputzetik. Nagorentzat gorputzak berebiziko garrantzia dauka. Batetik, gorputzetik jartzten da harremanetan, bertatik egiten ditu sexua, maitasuna, biolentzia, gorrotoa eta militantzia. Jarraian daukagun honako aipu hau dugu horren adierazgarri: “Sexuari eskerrak iskin egin niola bakardadeari [...] berreskuratu nuela nerabezaro galdua; eta izarapekoak ireki zizkidala militantziaren, taldetasunaren, hiriaren eta autonomiaren ateak. Zerbait zor diot larruari” (171). Bestetik, bere bizia goitik behera (edo barrutik kanpora, esan nahi bada) aldatuko duen gaixotasuna gorputzean gorpuzten da. Hiesak gorputza fisikoki eta psikologikoki kaltetzen du. Diagnostikoak bere gorputzean arrotz sentiarazten du Nagore, kontrola ezin dezakeen zerbait gertatzen ari zaio eta ez da bere buruan jabe sentitzen. Diagnostiko horrek ikaragarritzko eragina du bere bizitza sozial eta sexualean, hurrengo aipuek adierazten duten legez:

Urrundu egin nintzen tabernetatik eta bilera jendetsuetatik. Edateari utzi nion. Lagun zalapartatsuak aldendu egin zitzaizkidan pixkanaka, izena galdu zuten ostegunek, ostiralek eta larunbatek. Irratia ixtearekin, militantzia-girotik ere urrundu eta Bilboko giro progreaan erreferente izateari utzi nion. Gero eta jende gutxiagori interesatzen zitzaion nire iritzia; niri ere apenas. “Gutarron” burtsan kotizatzeari utzi nion (138).

Jarraian dagoenak, arestian bizitza sozialari buruz esandakoa islatzen du eta bikain laburbiltzen du nola sentitzen den protagonista: “Diagnostikoarekin sexualitatea, erotika eta sedukzioa kastratu zizkidaten kolpe”

[19] Metafora hau gehiago orokortu genezake eta Alberdik euskal gizarteari erreferentzia egiten diola interpretatu. Izan ere, susmoa dugu euskaldunoi ere, gizarte bezala kostatzen ari zaigula iragana atzean utzi eta etorkizun berri baten bila joatea, alegia, oraindik ez dakigula nola eraiki herri baten identitatea.

(247). Protagonistaren identitatea gorputzetik eta harremanen polifonian eraikia dagoela esan genezake.

Gorputzaren²⁰ eta hiesaren gaiak egundoko garrantzia dute. Protagonistak diagnostikoari uko egiten dio eta horrek Herioren besoetara eramaten du ia-ia (kontaketak aurrera egin ahala ulertzen dugu zergatik jokatzeko duen horrela, zergatik borrokatzen duen modu horretan). Jada ikusi dugun legez, mintzagai dugun gaixotasuna euskal gatazkarekin batera doa. Hala hiesaren nola gatazkaren garapena era paraleloan doaz, eskutik emanda. Gure ustez ezin esan genezake gaixotasunak gatazka eta borroka armatuaren gaia eklipsatzen edo estaltzen duenik, izan ere, etengabe egiten zaio erreferentzia modu esplizituan gatazkari. Adibidez, jarraian dakarkigun aipuan argi ikusten da zein eragin izan zuen pertsonen bizitzan: “Gatazka politikoa bere pasio, min eta kontraesan guztiekin sartu zen gure intimitateen muinean” (176). Jarraian datorren pasarte berriz, gatazka txiki-txikitatik errotuta dagoela iradokitzen da: “Borroka armatuak ia haizeak bezain natural zeharkaturiko haurtzaroak eta nerabezaroak izan ziren gureak. Xalotasuna eta biolentzia ez ziren bereizten ahal: lehen letrak juntatzen ikasi orduko torturak salatzen zituzten pindadak ozenki irakurri genituen haurrak ginen” (177).

3.8. Lantzen diren beste gai batzuk

Aurreko atalean gaixotasuna izan dugu mintzagai, baina ez dugu hitzik esan hiesak sortzen duen estigma sozialari buruz. Gaur egun oraindik ere estigmatizatuta dagoen gaixotasuna da, nahiko ezezaguna belaualdi gazteen artean, eta aurreiritzi asko dituen gainditzeke. Historian zehar kolektiborik marjinalenekin lotu izan da. Estigma hori agerian jartzen duten zenbait pasarte aurki ditzakegu liburuan, besteak beste Nagore ospitalera joan eta hiesaz kutsatuta dauden gaixoen itxarongela (intimitatea babesteko) ezkutuan dagoela ikusten dueneko “zer ezkutatu bagenuela erakusten zuen arkitekturak berak” (50). Gainera, azpimarratzekoa da Nagorek ere aurreiritziak dituela bere azal propioan pairatzen duen gaixotasunari buruz. Itxarongelan honekin topo egingo duela pentsatzen du: “Jonkiz beteriko gela bat, jende eroria, ijito haurdunen

[20] Emakumearen gorputzari berari egindako erreferentzia zenbait daude liburuan zehar, azpimarragarriak direnak gure ustez. Eskolako mutilak nesken titiak neurtzen dituztela aipatzen digu narratzaileak eta nesken bularrak ikasle zein irakasleen burulen helburu bihurtzen direla. Horrek honako gogoeta hauek dakarzkio Nagoreri: “Gu neurtzen hasi zirenean hasi ginen geu ere geure burua neurtzen [...] mutilen txan txak eta erronkak areagotu egin ziren, baita geure buruarekiko erdeinua ere” (85).

bat... Marjinalitatearen lagin gutxi-asko bilbotar bat” (49). Horren ordez, hogeita hamarren bat urteko mutil bat aurkitzen du eserita, tabletarekin kontzentratuta lanean ari dena (49). Hori gutxi balitz, ageriko irainak ere ageri dira obran. Behin baino gehiagotan aipatzen da hiesaz kutsatutakoek merezitako zigorra dutela. Adibidez, esandako hori poliziek Karrari kalabozoan esaten dioten “ya tiene lo que se merece la muy zorra” (80) aipuan ikus dezakegu. Jarraian datorren pasartearen oso esanguratsua iruditzen zaigu, hiesaz gaixotutakoez gain bazterreko beste zenbait talderen aurkako jarrera ere islatzen baita:

Pertsona elbarriak, herrenak, begi-okerrak, mainguak... ergelagoak edo gaiztoagoak direla uste din jendeak, eta hiesaz diagnostikatuak alferrik galduak direla, giza hondakinak. Guk geuk ere bai. Merezitako zigorra pairatzen ari direla pentsatzen dinagu, drogazale izateagatik, behar ez zutenekin behar ez zuten moduan endredatzeagatik, zoriaren beste aldera erortzeagatik, gu baino pobregokoak, biziotsuagoak, txortara emangoak, gautarragoak izateagatik (253).

Suizidioa nahiko presente dago eleberrian. Urrutira joan gabe, igandeei “geure buruaz beste egiteko egunak” deitzen zieten eta “suizidioa ez zen kontu arrotza” aitortzen du (108) Nagorek. Horrez gain, suizidioarekin lotutako zenbait gertaera kontatzen ditu (108). Biolentzia ere oso presente dago liburuan eta ez dira gutxi indarkeriari eskainitako lerroak. Gu vs. besteak ideia ere nahiko azpimarragarria dela iruditu zaigu. Oso agerikoa da zein sartzen den gutarren taldean eta zein geratzen den hortik kanpo²¹. Eskola garaian adibidez, Nagorek berehala sailkatzen ditu ikasleak. Baina kontzeptu hau ondo islatzen duen adibidea Karraren kalabozoko kontakizuna da. Pasarte horretan gaztelaniaz ematen dira “txakurren” hitzak: “Parecía un esqueleto [...] claro, con la enfermedad de las putas y los yonquis [...] ya tiene lo que se merece la muy zorra” (80). Gure ustez baliabide hau distantzia markatzeko erabiltzen da²². Jarraian datorren pasartean adibidez, Nagoreren identitate indibidualak identitate kolektibo jakin batekin talka egiten duela ikus daiteke esplizituki: “Nire egiak zuenarekin talka egitean sortzen zaidan konfliktua latzagoa dun teatro honek sortzen didana baino” (226).

Erruduntasunak ere pisu handia du liburu honetan. Lehenago aipatu dugun moduan, Nagore bere gaixotasunaren errudun senti daiteke, eta

[21] Interesgarria litzateke literaturak ezartzen dituen subjektu-harremanak (gu/besteak) xeheki aztertzea.

[22] Polifoniaren baliabideaz baliatzen dira, besteak beste Joxe Austin Arrietaren *Manu militari* (Elkar, 1986) eta Ramon Saizarbitoriaren *100 metro* (Erein, 1997).

ingurukoei izebarekin bizi izandako sufrimendua errepikatzeagatik hobendun. Baina hortik at, erruduntasunari eta hiperkulpabilizazioari buruz hitz egiten digu Nagore protagonistak. Esanguratsua iruditzen zaigu ondorengo pasarte hau: “Hiperkulpabilizatutako jendea duk; erruduntasuna zagok arrandiaren atzean: burgeskumea izatearen kulpa, armak hartzeko koldarregia izatearen lotsa, lagunak preso eraman eta libre geratu izanaren ausikia” (187). Liburuaren hasieran Karra preso hartu dutela esaten zaigu. Berri horren ostean oso gogoeta azpimarragarria egiten du Nagorek: ume-garaitik jarraitzen zidan inpunitatearen lasta: nire ingurukoak zigortzen zituzten bitartean, nik ahal nuen bezala kudeatu behar nuen zigorgabetasunaren pribilegioa²³ (19). Gainera, ezin aipatu gabe utzi Joxe Azurmendiren *Barkamena, kondena, tortura* (Elkar, 2012) liburuaren oparitzen diola Irantzuk Nagoreri, ez kasualitatez²⁴. Horrekin batera, traizioaren gaia ere aipatu beharko genuke, erru sentimendua eta traizioarena estuki lotuta doazen bi sentimendu direla iruditzen baitzaigu.

Agian irakurleen batek Nagore traumatizaturik bizi dela iradokiko luke. Guk geuk ere ez dugu ideia hori baztertzen. Batetik, hiesak eta horrek dakarren guztiak protagonista aztoratuta daukala ikusten dugu. Bestetik, inguruan bizi (izan) duen egoeraren ondorioak era traumatikoan pairatzen dituela iruditzen zaigu. Liburuan Nagore eta gizartearen arteko haustura bat dagoela iruditzen zaigu. Indibiduoaren eta kolektiboaren arteko haustura horren ondorioz, Nagorek trauma sufrirituko luke kolektibo horretatik ateratzean. Laurie Vickroy-ren (2002) arabera, traumak zein horrek dakarren lotsak, beldurrak eta erruak norberaren gaineko sinesmenak suntsitzen ditu. Konfiantzarik eza ekartzen du, baita harremanetarako zailtasunak ere. Traumak subjektua bere buruaren jabe ez denaren sentsazioa dakar. Gainera, traumak lotura zuzena du kolekti-

[23] Pasarte honetan Uxue Apaolazaren *Mea Culpa* (Elkar, 2011) eleberria etorri zaigu gogora, oso pasarte antzekoak baitituzte biek. Erkaketa egiteko, hona hemen Apaolazaren liburuiko Lur protagonistaren hitzak: “Kulpa sentimendua ez du mugarik, besteen sufrimendua nirea behar zuen, besteek sufritzen bazuten eta nik ez, sufrimendu hori merezi izateko adina borrokatu ez nintzelako zen, besteei egiten uzten nielako nire helburuak defenda zitzaizkizuten. Beste gureak esan nahi dut, ez beste guztiak sufrimendua” (29). Bide batez, euskal literaturan erru sentimendua oso presente dagoen gai bat dela iruditzen zaigu. Irakurleak horri buruzko obra gehiago irakurri nahiko balitu, besteak beste, Harkaitz Canoren *Twist* (Susa, 2011) edo Anjel Lertxundiren *Etxeko hautsa* (Alberdania) liburuak gomendatuko genizkioko.

[24] Gure uste apalean, Azurmendiren saiakera liburu honek *Jenisjoplinen* ukitzen diren zenbait kontzeptu hobeto ulertzeko pista asko ematen ditu. Liburu zinez interesgarria iruditzen zaigu, patxadaz eta tentuz aztertu beharrekoa, egungo euskal gizarteari egiten zaizkion eskakizun moralen nondik norakoak ulertzeko.

boarekin, hau da, dimentsio kolektiboa du, izan ere, komunitatearekiko konfiantza falta dakar. Hori guztia ongi dator aurrez Nagoreren jarrera deskribatu dugunean azaldu dugunarekin.

Amatasunaren gaia ere presente dagoela iruditzen zaigu. Protagonista ez da ama. Abortatu egiten du (40) eta inoiz ez du ama izatea desiratu (244). Gainera, badirudi Nagorek bere haur biologikoa izatea nahiko balu ere, ezingo lukeela nahikari hori bete:

Datu haiek giza zaborraren kategorian sailkatzen ninduten. Ugaltzea galarazi behar litzaiekeen taldean. Diagnostikoaz geroztik inork ez lidake haurdunaldirik aholkatuko eta, posible izatera, oztopatu egingo lidakete ugalkortasuna. GIB positiboa nintzela esan zidatenetik genitaletan eta obulutegietan pairaturiko arazo amaigabeek izango zuten zerikusirik antzute sinbolikoarekin ere (244).

Nagore ezkor ageri da bere ugaltze gaitasunekiko: “Sexualitatearekin daukadan blokeoarekin ez nindukek harrituko umetokiko minbizia garatuko banu” (149)²⁵.

Arestian azaldutako ideiak Nira Yuval-Davis-ek (2003) azaltzen duen kontzeptu batekin lotu behar dugula iruditzen zaigu. Nagorek ez dio nazioari ematen berari emakume bezala ematea dagokiona: haur bat. Beraz, amatasuna nazioarekin eta emakumeari dagokion rola ez betetzearekin uztartu behar dugu. Abortu horrek nazioaren erreproduzio biologikoa etetea ekartzen du, transmisioari uko egitea.

Genero bakoitzari dagozkion rolak betetzeaz ari garela, esanguratsua da ondorengo aipu hau: “Irratiko albistegian ETAK jardun armatua behin betiko uztea erabaki zuela entzun nuen. Adierazpenak emakume-ahotsa zeukan. Harritu egin ninduen, eta ez: armak uztearen ideia feminitateari lotua” (176). Gauza jakina da gerra gizonekin lotu izan dela eta emakume berriz bakearekin (Rodriguez, Etxebarrieta & Goikoetxea, 2016). Nagore hortaz kontziente da, “damu emeak, herra arrak” (180) gogoeta egiten baitu. Idoiak betetzen duen rola pertsonaien karakterizazioaz hitz egiterakoan iruzkindu dugunez, ez dugu berriz errepikatuko, baina bai orain arte aipatu ez dugun ideia bat: hasieran emakume gerlari gisa ageri zaigu Nagore, sentimendurik eta beldurrik adierazten ez duena; baina

[25] Gatazka eta gaixotasuna (eta horren ondoriozko antzutasuna) lotzea ez da kontu berria eta besteak beste, Eider Rodriguezen *Eta handik gutxira gaur* (Susa, 2004) liburuko “Politika albisteak” ipuinean aurki dezakegu. Kontakizuneko irudi bortitzena Idoia protagonistari zilborrean irteten zaion lizuna da, zeina gatazkarekin eta ama ezin izatearekin baitago lotuta, gure interpretazioak zuzenak badira bederen.

gero, gaixotasunak aurrera egin ahala bilakaera bat antzematen da. Nagore afektiboago bat agertzen zaigu, maitasuna adierazi eta maitasun keinu fisikoak eskertzen dituena.

Lan honen amaierara gerturatzeko, liburuko pasarte garrantzitsu bat iruzkintzea gustatuko litzaiguke. Hau da pasartea:

–Nork irabazi du?

–Ametsek.

–Ondo egon da?

–Itzel. Erromak heroiak maite ditin (247).

Kasu honetan heroia gizonezkoa da (Amets Arzallus bertsolaria) eta Maialen Lujanbio berriz, antiheroia dugu. Alberdik (2017b) berak aitortzen duen moduan, bertsoan epika asko egin izan dira eta finaletan asko egon da epikatik. Entzuleok ere bertsolarietara epika eskatzen omen diegu nahi gabe. Dioenez, Ametsek final hartan guardia zibil baten roletik eta Joseba Sarrionandiarenetik kantatu zuen, besteak beste, eta altzoa hitza emanda, ama totalari kantatu zion; figura handiei. Maialenek berriz, antiheroiak marraztu zituen, gure heroiei eta mitoei iheska etengabe. Itzultzeko garaiaz jardun zuen, baina ez zen Euskal Herrira itzultzeaz aritu, Hego Amerikara baizik. Zaharrak zaintzen aritu den emakume etorkinaren azalean jarri zen. Antiheroi bat. Eta altzoa aditzean kontzienteki ihes egin zion ama totalaren magalari. Alberdik (*ibidem*) dioskunez, batzuei Maialenen jarduna lausoa egin zitzaion eta bertsoak ez zitzaizkien iritsi. Bada, Nagorek eta Irantzuk nobelan diotenez “hiltzeko denok nahi dugu epika” (Alberdi, 2017a).

4. Ondorioak

Aurrez aipatutako guztia kontuan hartuta, nobelaren gai nagusia identitatea eta horren berrasmatzea dela baieztatu dezakegu. Nagorek oso estrategia gogorak eraiki behar izan ditu aurrera egiteko eta bere burua babesteko. Hala ere, bere lagun Irantzuk ohartarazi bezala, jarrera bati luzaroegi eusteak ahuldu egiten gaitu. Azken finean, ez dago pieza bakarreko identitaterik. Denbora aldatzen den heinean eta norbere egoera zein ingurukoa aldatzen denean, identitate horren arrakaltetik beste momentu batzuetan bizirik irauteko ezkutuan egon diren zenbait alderdi irteten dira. Nagoreri halako zerbait gertatzen zaio. Bere bizitzako momentu batean inflexio-puntu batean aurkitzen da eta horren ondorioz,

identitate zaharrak eta bere buruaz daukan auto-irudiak jada ez dio balio, ezin dio bere buruari eta inguruari lehen bezala begiratu. Horregatik, ezagutzen ez dituen estrategiak bilatzen hasten da, bizitzen jarraitzeko. Bere identitatea berrasmatu behar du alderdi sexualetik, sozializatzeko moduak aldatu behar ditu, bere ideia asko zalantzan jarri edo batzuetan horiei amore eman bizirauteko. Kaleko garaietatik etxeko garaietara igaro behar da, jendez inguratuta egotetik bakartzearen garaira, kanpo iraultzatik barne iraultzara... (Alberdi, 2017b).

Gure aburuz, *Jenisjoplin* euskal gizarteak bizi izan duen gatazkaren erretratu bat da. Era berean, nobela honetan Alberdi errealitate aniztasuna ikusgarri egin eta berauek humanizatzen saiatzen dela iruditzen zaigu. Lehenago aipatu dugun moduan, liburuan sozialki estigmatizatutako pertsonaiak ageri dira, bazterrekoak, marjinalak (Nagore protagonistatik hasita). Ikusgarritasuna emanez, nolabait legitimatu egiten dira subjektu horiek, hau da, existentzia aitortzen zaie, gure ustez bederen. Esandako hori literaturak duen balio instrumentala aldarrikatzeko erabili dezakegu (literaturak zeregin kulturala du: legitimazioa). Izan ere, literaturak memoria kulturala eraikitzen du eta azken honek oroimen kolektiboa. Memoria kulturalak oroimen kolektiboa sortzen badu, identitate edo nortasun kolektibo hori eraikitzeko beharrezkoa da bazterrean utzitako kolektibo horiek ere kontuan hartzea. Esan dezagun elgoibartarraren azken liburuak euskal subjektu nazional berri bat eraikitzeko bidea irekitzen duela, identitate nazional berri bat alegia.

Aztergai dugun obra honek askorako ematen du eta hemen aurkeztu dugun lanak ez dio inola ere atera dakioken zuku guztia idoki. Hemen ez gara ur handitan sartu, liburuak eskaintzen dituen gai guztiak sakontasunez lantzeak luzeegi joko ligukeelako. Horren orde, azaleko ikuspegi bat eskaintzen saiatu gara, datu azpimarragarrienak bederen biltzeko asmoz. Hori horrela, azken lerro hauetan etorkizuneko ikerketaren batek landu ditzakeen zenbait ideia, galdera edo kontzeptu mahai-gaineratuko ditugu. Batetik, nobelan musikari, abeslari zein autore dezente ageri dira, zalantzarik gabe azterketa sakonago bat mereziko luketenak, egileak ez baititu ausaz aukeratu kantuok. Interesgarria iruditzen zaigu horiek Nagore protagonistarekin duten erlazioan sakontzea. Bestetik, ezinbestekoa iruditzen zaigu emakumezkoen literatura eta gatazka xehe-xehe aztertea: zer kontatzen den, non jartzen den fokua eta abar. Liburuak dakartzan metaforak oso ondo ulertu behar direlakoan gaude, Nagoreri propio gertatzen zaizkion gauza asko estrapolatu egin daitezkeelako eta irakurleari agian balio diolako, identifikatuta sentitzeko. Azkenik, uste dugu ez

legokeela soberan ondo ikertzea ama eta militantzia nola irudikatu dituen literaturak hala Euskal Herrian (Arantxa Urretabizkaiaren *Koaderno Gorria* [Erein, 1998] bezalako liburuak oinarri hartuz) nola literatura eraldunetan.

5. Bibliografia

- Alberdi, Usoa, 2017, “Jenisjoplin”, *Aizu!* 2017-11.
<<https://kritikak.armiarma.eus/?p=7295>>, [2018.09.14].
- Alberdi, Uxue, 2017a, *Jenisjoplin*, Zarautz: Susa.
- Alberdi, Uxue, 2017b, “Uxue Alberdi «Jenisjoplin» nobela aurkezten El-goibarren”, Barren.eus.
<https://www.youtube.com/watch?v=EHWKztW_YEU>, [2018.09.14].
- Alvarez, Amaia, 2017, “Try (just a little bit harder)”, *Argia* 2017-11-26.
<<https://kritikak.armiarma.eus/?p=7309>>, [2018.09.14].
- Apaolaza, Uxue, 2011, *Mea Culpa*, Donostia: Elkar.
- Arroita, Izaro, 2015, *Ramon Saizarbitoriaren nobelagintza memoria ikasketen ikuspegitik*. Doktorego tesia. UPV/EHU.
<<https://addi.ehu.es/handle/10810/15964>>, [2018.08.09].
- Asurmendi, Mikel, 2017, “Konplexua eta sotila, jendearen erraietatik erauzia”, *Argia*.eus.
<<https://kritikak.armiarma.eus/?p=7305>>, [2018.09.14].
- Borda, Itxaro & Meabe, Miren Agur, 2018, “Tokiz Kanpo 04: Itxaro Borda eta Miren Agur Meabe”, Tokiz kanpo.
<<https://www.argia.eus/multimedia/tokiz-kanpo/tokiz-kanpo-04-itxaro-borda-eta-miren-agur-meabe>>, [2018.09.14].
- Burgo, Patricia, 2014, “1980, el año que Euskadi sangró y calló”, *Eldiario*.es
<https://www.eldiario.es/norte/euskadi/Euskadi-sangro-callo_0_316368672.html>, [2018.11.10].
- Castells, Manuel, 2001, *La era de la información: economía, sociedad y cultura. El poder de la identidad*, Madril: Alianza.
<<https://es.scribd.com/doc/31561217/Castells-Manuel-2001-La-era-de-la-informacion-Vol-II-El-poder-de-la-identidad>>, [2018.08.14].
- Egaña, Ibon, 2017, “Eskerrak ahulak garen”, *Deia* 2017-10-28.
<<https://kritikak.armiarma.eus/?p=7285>>, [2018.09.14].

- Esparza, Iratxe, 2017, “Gorputz markak”, *Gara* 2017-10-21.
<<https://kritikak.armiarma.eus/?p=7278>>, [2018.09.14].
- Garrido, Antonio, 1996, *El texto narrativo*, Madril: Sintesis.
- Ginzburg, Carlo, 1992, “Just One Witness”, in Friedlander, Saul (arg.), *Probing the Limits of Representation. Nazism and the Final Solution*, Cambridge: Harvard University Press, 82-96.
- Hernandez, Mikel, 2011, *Narrazio tailerra*, Donostia: Erein.
- Iparragirre, Peru, 2017, “Soraiotasunerako tarterik ez”, *Berria* 2017-10-15.
<<https://kritikak.armiarma.eus/?p=7275>>, [2018.09.14].
- Iztueta, Paulo, 2003, “Sabino Arana eta bere eragina euskal pizkundean”, *Euskera* 48, 2. zatia, 849-930.
- Lasarte, Gema, 2011, *Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bila-kaera euskal narratiba garaikidean*. Doktore tesia. UPV/EHU.
<http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Gema_Lasarte_TESIA.pdf>, [2018.09.14].
- Olaziregi, Maria Jose, 2008, “La Guerra Civil y sus representaciones”, in Roig-Rechou, Blanca-Ana; Domínguez, Lucas, Pedro & Soto, Isabel (arg.), *A Guerra Civil española na narrativa infantile e xuvenil*, Vigo: Xerais, 13-27.
- Olaziregi, Maria Jose, 2009, “La recuperación de la memoria histórica en la novela contemporanea vasca”, *Euskera* 54, 2-2. zatia, 1027-1047.
- Olaziregi, Maria Jose, 2017, “Literatura vasca y conflicto político”, *Diablo-texto* 2, 6-29.
<<https://ojs.uv.es/index.php/diablotexto/article/view/10144/10632>>, [2018.08.14].
- Olaziregi, Maria Jose & Ayerbe, Mikel, 2016, “El conflicto de la escritura y la rescritura de la identidad: análisis de la narrativa de escritoras vascas que abordan el conflicto vasco”, in Moszczynska-Dürst, Katarzyna; Kumor, Karolina; Garrido, Ana & Calderón, Aránzazu (arg.), *Identidad, género y nuevas subjetividades en las literaturas hispánica*, Varsovia: Universidad de Varsovia, 45-66.
- Rodriguez, Zuriñe; Etxebarrieta, Oihana & Goikoetxea, Jule (arg.), 2016, *Borroka armatua eta kartzelak*, Zarautz: Susa.
- Rojo, Javier, 2017, “Disidentzia erromantikoa”, *El Diario Vasco* 2017-11-18.
<<https://kritikak.armiarma.eus/?p=7300>>, [2018.09.14].

- Sarasola, Beñat, 2009, "Oinazea letraz janzteko manerak", *Argia* 2009-02-15.
<<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2172/euskal-gatazka-literaturan>>, [2018.09.14].
- Vickroy, Laurie, 2002, "Representing trauma", in *Trauma and survival in contemporary fiction*, Charlottesville: Virginia University Press, 1-35.
- Yuval-Davis, Nira, 2003, "Nationalist projects and gender relations", *Narodna Umjetnost* 40/1, 9-36.

Gizartea Jean Etxepareren idazlanetan: adabakiak

Society in the literature of Jean Etxepare

Aitor ORTIZ DE PINEDO
IRALE

Jasotze data: 2018.10.14. Onartze data: 2018.11.27

LABURPENA

Jean Etxepareren (1877-1935) gizarte ikuspegia areago zehazteko urratsak dira. Haren aukera estetiko eta etikoek gizartearekin zuten lotura batzuk jasoko dira.

Gako-hitzak: Pinteroeskismoa, sineskeriak, erromantizismoa, egiatasuna, herri-gintza.

ABSTRACT

Approach to the social understanding reflected in the writings of Jean Etxepare (1877-1935), in relation to his aesthetics and ethics views.

Keywords: Picturesque, superstition, romanticism, parrhesia, love of the country.

1. Sarrera. 1.1. Gaia. 1.2. Helburuak. 1.3. Metodologia. 2. Pintoreskismoaren bueltan. 2.1. Gizarte-pedagogia positibista. 2.2. Euskal literaturan. 2.3. Eta egia adieraztea... 3. Lehen euskaltasun laiko bat. 4. Ondorioak. 5. Bibliografia.

1. Sarrera

1.1. Gaia

Gure arteko diskurtsoan, kritikak berantetsi egin du idazle laiko ikasi baten agerpena euskal historian (Kintana, 2009), alegia, erlijiotasun tradizionaletik haratagoko ibilbide bat egiteko gai izan den baten bat; eta, agian, interesgarria izan daiteke Jean Etxepareren gizarte-ikuspegia errepasatzea, maiz bakar antzean irudikatu ohi den figura eskura daukagun erreperitorioaren barnean, beharbada bere garaian aitortu ez zitzaion aitorten literario baten kariaz, seguru asko arrazoi ideologikoak medio.

Galdetu daiteke zer gaurkotasun izan dezakeen honek guztiak, eta horren harira lagungarria izan daiteke urte batzuetan zehar atzera egitea erantzunaren bila. Horretara jota eta jakina denez, Francoren diktadurari buru egiteko gizarte-mugimenduek ikuspegi kolektibista bat garatu zuten 1960ko hamarkadan, eta baita ikuspegi horrek zenbait kritika jaso ere geroago (Santamaria, 1984). Geroztik, badirudi penduluak beste aldera egin duela, eta globalizazioak atomismora garamatzala ikuspegi indibidualistaren ildotik, gizarte-lokarriak ahultzen doazela (Delanty, 2000; Apodaka, 2011). Testuinguru horretan, interesgarria izan daiteke behin-behineko hurbilketa xume bat egitea Etxepare idazle modernoaren gizarte-irudiari, pentsamolde landu propio bat izateraino iritsi zen heinean, euskal inguruarekin solasean.

1.2. Helburuak

Artikulu honetan Jean Etxepareren *Beribilez* (1931) azken liburuari buruzko tesian ukitu diren zenbait punturen oihartzuna jasotzen da, semiotikaren eta imagologiaren bidetik egindako ikerketari utsita (Ortiz de Pinedo, 2018). Tesi mementoz argitaragabea, hipotesi nagusia da Jean

Etxeparek helduaroko ikusmoldea zabal isuri duela bizitzako bigarren liburuan; era berean, bidaia forma duen kontakizunaren bitartez, idazleak elite euskaltzaleari (Euskaltzaleen Biltzarrari eta Hegoaldeko euskaltzaleei) azken nahia helarazi zien. *Beribilezen* bertan irakur daiteke nola medikua susmoaren gainean zegoen geratzen zitzaizkion urte gutxiez, areago, jadanik bihotzeko arazo larriak ohiko lantokia aldatzera behartua zuenez gero.

Baliatu ditugu Aurelia Arkotxa, Jon Casenave eta Rosa Miren Pagola irakasleek egindako iradokizunak tesiaren inguruan, Etxepareren gizarte-ikuspegiaren puntu zehatz honi buruzkoan. Lan hau adabakiz harilkatua da, eta hari jarraikiago baten premian egon litezke, agian, baina balio lezake egin den ikerketaren errainu gisa.

1.3. Metodologia

Lan honen abiapuntua da *Beribilez* bidaia-liburuaren azterketa nagusiki, non Philippe Hamon-en proposamen semiotikoak jarraitu diren testua eta ideologia lotzeari dagokionez (Hamon, 1984). Proposamenak testutik bertatik atera nahi ditu zantzuak, bertako ideologiari erreparatzeko. Bestalde, lau ideologia-foku zehazten ditu *a posteriori*, berak aztertzen dituen testuetan: estetika, etika, lana eta hitzak. Artikulu mugatu honetan, estetikaren fokua hautatu dugu, gizartearekin duen loturan.

Bestetik, ideologiaren osagarri, Daniel-Henri Pageaux-ren imagologiak ematen dituen aukeraren bat baliatuko da (Pageaux, 1989). Orrialde hauetan, iragaitzaz, estereotipoen azterketa aipatuko da, ahaztu gabe metodologia horren isuri diziplinartekoa.

2. Pintoreskismoaren bueltan

Adierazi nahi duguna da, laburki, Etxepare Antzinako Erregimena berraztertzeraz datorrela, hala *Beribilezen* nola aurreko idazkietan, horrek dakarrenarekin, alegia, gizarte-dinamismoa sustatzea, halako maneran non aurreko estatismo eta kolorismo literarioak (*couleur locale*) ez diren besterik gabe errepikatzen.

Saiatuko gara agerian uzten zenbait hari-mutur gidari Aldudeko medikuaren pentsamolde konplexuaren baitan, euskal literaturaren bi aldirien artean. Aurrendaria izanik, ezin zaio eskatu azken modernitateko ezaugarriak izatea, aldiz, bai zenbait ezaugarri garaikideengandik be-

reizten dutenak, eta modernitatearen norabidean doazenak. Beharbada, literatur lanak continuum batean kokatu beharko lirateke, bat-bateko etena irudikatu beharrean modernitatearen auzi honetan. Izan ere, bestalde, modernitatearen alorrean dena ez da urrea, eta Jean Etxeparek garai hartan eginiko zenbait kritika, iduriz atzerakoiak, gaur ere baliagarriak izan daitezke ikuspegi postmaterialista batetik, horrelako balorazioak egitea zilegi bada: gogoan dugu *Beribilez*eko Donostiako hazkunde turistikoaren ikuspegi kritikoa, XX. mendearen hasieran.

Jean Etxeparek gizarte-pedagogia bat burura eraman zuen, bereziki euskaldunei begira, berez heziketa akademiko larregizkorik gabeak gehienak, ordu hartan. Zertan datza pedagogia hori, eta zer arlotan zehazki? Zerrenda bat entseatuko dugu, behin-behinean, adibide esanguratsu batzuk emanaz: euskarazko alfabetatzea (Casenave, 2000), ekonomia-produkzioa arrazionalizatzea (“Tratuak ordu batez” atala in *Buruxkak*), ohiturak liberalizatzea (“Amodioa” in *Buruxkak*), erlijio molde baten kritika (Loiolako bisita *Beribilezen*), herri-sineskeriez trufatzea (Donostiako petrikiloren pasartea *Beribilezen*), ohituren kritika (pilota-jokalarien exhibizionismo erotikoa “Pilota-partida” in *Buruxkak*; Iruñeko Sanferminetako “alaitasun eroa”ren aipua; Donostiako eukitsuen endekatze moralala, biak *Beribilezen*); aurreiritzi eta estereotipo identitarioei erantzuki egitea (frantsesena euskaldunen iruditerian; euskaldunena, frantzesen iruditerian, biak *Beribilezen*); gaizki esateak nabarmenaraztea (jesuiten kontrakoak, *Beribilezen*), etab. Adibide solteak besterik ez dira. Kontua da: idazlea prest dago zabal dabiltzan herri-sineste bere ustez desbideratuak artezteko, onberatasun ondu ulertu bati men eginez. Erreformatzailea zen, sasoi hartan Errepublikak frantses laiko berrituak medikuei jarri zien gidoiari eutsita, apaizen ondorengo gisa.

Orain arte kritikak esandakotik zerbait jaso dezakegu, zehazki liburuaren alderdi sozialari begiratuta. Orain arteko kritikak kolokan jarri du Jean Etxepareren *Beribilez* idazlan esanguratsua denetz, areago haren aurreko apustu literarioekin konparatuta, lehen aditu batean “ambiziosoa-goak”. Amaia Iturbidek (1991: 130-141) Jean Etxepareren estiloa aztertu du, eta hona zer esan duen Jean Etxepareren modernotasunaren gorabeheran, labur: baserri-mundu tradizional eta “polita” baino ez duela identifikatzen, eta mundu industrial itsusia alde batera uzten duela. Iturbidek lotzen du *Beribilez*eko modernitate “faltsua”, idazlearen ustezko ideologia abertzalearekin; eta abertzaletasunarekin batera datozke pinto-reskismoa eta topikotasuna. Ez da bakarria aburu horretakoa (Kerejeta, 1987).

Beste hitzez, kritikariak dio Jean Etxeparek lurraldearen irudi idilikoa besterik ez duela eman nahi, areago, herri horren nekazari-munduarena bakarrik. Alabaina, kontuan izan behar da *Beribilez* abuztuan eginiko aisia-bidaia dela.

Kritika berak badio, eta horrela da: Jean Etxeparek badaki naturalismorik gordinena ere baliatzen, inork *Beribilez*en kariaz egotzi dion pintoreskismotik harago beste idazki batzuetan. Adibidez, “Behin Makean” kontakizun soltean, non nekazaritza giroa zeharo esperpentikoki irudikatzen den (Etxepare, 2006). Era berean, adibidez, *Buruxkakeko* pasarte hartan, idazleak misiolari baten martirio-gurari berezitxoak kritikatzeko ere badaki, nahiz eta martiri-nahiko misiolari gaztea etxalde euskaldun peto eta “on” batekoa izan (“Misionestaren ezteiak” artikulua), etab.

Hari beretik, industrializazioari buruz, berriz, irakur daiteke Resurreccion Maria Azkueri egin zion bisitaren parte, 1910ean Bilbon (Altonaga, 2006: 155-166). Besteak beste, Bilbon darwinismo sozialaren erakusgarria ikusten du kaleko haurrak ingurumen gogorrera moldatzeko moduan; agian, Ernst Haeckel-en (1834-1919) ildoko gogoeta, biologo alemanaren ezagutza bazuela dirudienez gero (Lafitte, 1974). Haeckel biologoak (Altonaga, 2006: 67-74) gizarte-eboluzio eredu bat ondu zuen Darwinen ideiak oinarrian, geroagoko estatu nazional-sozialistaren inspirazioa ere izango zena, nahiz eta Altonagak alor fisiologikoari eutsi bereziki. Klasegatazka irudikatzeke, lantegien giroa deskribatzean: “Beti daniko gudu betierekoa, gauzek eta gure izaiteak berak hala dakartelakotz; gizonik zuhurrenek apur bat eta noizetik noizerat ezti baizik ez dezaketen gudu” (Etxepare, 1920). Gudu, Friedrich Nietzscheren betiereko itzulera zehar-aipamena dela ere izan daiteke, alemana ere irakurria baitzuen (Lafitte, 1974): behinik behin, gizarte-aurrerakuntzarik ez du posible ikusten.

Hala ere, Bilboz eta aurrerapen teknikoaz oro har miretsita dago mediku positibista: “Nihun ez hainbertze lantegi, nihun halako esku-lanik; nihun ere ez, lurraren errailetan, daigun mendeari dagokion baitezpada-koagorik. Obren araberako argiak bazituzketela hango gizonek, nindagon atseginarekin. Adimenduz ala jakitatez, Euskal-Herriko hiri lehena behar zen izan Bilbo” (Altonaga, 2006: 160).

Jean Etxepareren figurak harrera eta ebaluazio kontraesanezkoak sortzen ditu: konbentzionala da eta zientista; frantses-zalea eta abertzalea; topiko-zalea eta metafisikaren kontrako positibismoaren lantzailea.

Jean Etxepareren kritikak saiatu dira idazlea “errekuperatzen” modu batera eta bestera. Lafitte ahalegindu zen, lehenik (Lafitte, 1980 [1941]), eta gaur egun ere egin da beste era batera, berriki ere antzeko saio interesgarririk izan baita (Gartzia Trujillo, 2014), katolikoaren eretzetik¹; medikuaren izaera agnostikoa ere nabarmendu da (Altonaga, 2006). Izan ere, idazlea interpreta daiteke alderdi hauek edo besteak azpimarratuz, eta hautatu diren irizpideetara haiek ekarriz: bizitzaren legea, eta ezinbesteko ariketa; izan ere, idazle honek badu kapital sinboliko bat euskal literaturaren barruan. Arazoa izan daiteke hainbat alderdi ezkutuan gera daitezkeela, ikuspegi bakarrera lerratuta; berez, egozentrismoari itzuri egiteko da interesgarria kaleidoskopioaren jokoa, gurea barne. Agian, Jean Etxeparek gaur egun ere baluke zer irakatsia, ikasi beharraz gain. Eta zer irakatsi hori Jean Etxepareren kasuan izan daiteke nork bere bilaketa (*quest*) autonomia egiteko guraria, men egin gabe gizartean nagusi diren bloke ideologikoei, batekoei zein bestekoei.

2.1. Gizarte-pedagogia positibista

Positibismoa lotua zen gizadiaren erlijio positibo batekin, Auguste Comte fundatzailearen gogoan (Nussbaum M. C., 2015 [2013]: 1-26). Positibismoak gizartea erreformatu nahi zuen paradigma jakin baten barnean, Jean Etxeparek ere bai; doktoreak medikuntza ikasia zuen Bordelen, eta Euskal Herrira bueltan haren jardun profesionala medikuntza izango zuen. Horrez gain, *Eskualduna* kazetan medikuntzari buruzko hainbat artikulu argitaratu zituen: kezka iraunkorra izan zuen aurrerakuntzen berria helaraztea irakurleari euskaraz.

Beribilez liburuan, etengabea da mediku positibistaren kezka, sineskeriak nabarmen uzteko. Sasimedikuez trufatzen da, eta herri-erlijio sineskeriak ere jasotzen ditu ironia puntu batez. Azken batean, egiaren aldekoa izan zuen bizitzako bilaketa nagusia, hala medikuntzaren arloan nola beste arlo ez hain experimental batzuetan. Alde horretatik, herria sustatzea izan zuen eginkizun, zoko ilunak argituz, esan badaiteke.

Medikuak ez zuen gaurko begiz ikusiko egiak edo dena direlakoak ez direla beti ikuspegi enpiriko batek justifikatuta onartzen, positibismoa-

[1] Sebastián Gartzia Trujilloren lan hori bera, baina aparatu kritiko sendoz hornitua aurki daiteke beste erreferentzia honetan: Gartzia Trujillo, Sebastian (2016), “Jean Etxepare”, in *Hamaika euskal literato eta Jainkoa*, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea. Beste talaia batetik, eta aldi berean medikuaren ikuspegi zientifikoa zabaltzeko asmoz.

ren goren puntu hartan ohi zenez, eta, aldi berean, erabateko egiak topatzea ez dagokiola medikua bezalako agnostikoari, Jainkoa hila zela (Apalategi, 2003: 30). Areago, Jean Etxepare azken urteetan egiaren ikuspegi estatistikoki lotua izan zitekeen heinean, Hans Reichenbach enpirista logikoaren aburuekin bat (Lafitte, 1974); egia atzemangaitza izanik, helduleku bakarra da gertakizunen agerpen estatistikoei heldzea.

Betiko egien gainbehera hori bera, esaterako, Bernardo Atxagak jaso zuen *Etiopia* (1978) liburuan (F. I.-ren elkarrizketa, 2010); Aurelia Arkotxa poetak ere jasotzen du datua (Dolhare, 2008), dirudienez, Stéphane Mallarmé-ren bidetik kasu honetan (“Un coup de dés n’abolira pas le hasard” (1914))².

2.2. Euskal literaturan

Gorago aipatu da *Beribilez*eko moldeari jarri zaion *pintoreskismo* etike-ta. Horren harira, pintoreskismoaren alde eskasak aipatzerakoan, kontuan izan behar da pintoreskismoak herritarrak umetu egiten dituela, gaur egun gizarteak adinekoak umetzen dituen moduan, etab. Pintoreskoak, gainera, dispertsiora garamatza, gizakiaren muin klasikoa ahaztuta (Souriau, 2010 [1990]: 1202).

Konparazio baterako, interesgarria izan daiteke hiru idazle garaikide ondoz ondo jartzea, eta haien lan batzuk ere bai: Resurreccion Maria Azkue (*Euskalerraren Yakintza* folklore-bilduma (1959)), Jean Barbier (*Pi-rrres* eleberria (1926)) eta Jean Etxepare.

Irakurleak Azkueren eskaintza irakurriko balu bilduma-atarian, ja-kingo luke nola amari mintzo zaion, apaiza desenkusutzen den horrelako kontu txikiak erabilia, areago semea seminariotik pasatua izanda; beraz, gauza berri handirik ez. Folkloreak, ezin uka, herri baten erroak berres-ten ditu, talde batek nortasuna mehatxatuta sentitzen duenean, eskuarki gutxiengoa Estatu nagusi baten barnean dagoenean, eta balio handiak ditu berarekin, baina... (Souriau, 2010 [1990]: 793). Bide batez esanda, folklore-adierazpenak ikuskizun-eitea har dezake horrelakoetan. Hala ere, folklore horrek inolako tragikotasunik ez du jasotzen maiz, giza iza-eraren unibertsalaren adierazpide gisa motz geratuta (gorago aipatu dugun umetzea). Adibide baterako, *opera* izeneko emankizun liriko-musikalek,

[2] Galdetu genezake: zergatik horrelako ekimen batek, herriaren aurrerabidea gogoan zuena, ez zuen arrakastarik izan? Atzerakuntza nagusitu zitziola aurrerakuntzari, desadostasun ideologikoei tratatua?

hein handi batean, tragediak antzetzeari ekiten diote, edozeinek egiazta dezakeenez. Bestalde, ezaguna da folklorea arte nazionala eratzeko erabili dela, bereziki kanpo-eragin bortitzeko garai baten ostean: orduan, herri-tradizioetara jo izan da. Hala ere, herri-tradizio hori kanpoko estiloren batekin uztartua azaltzen da askotan, jatorrizko originaltasuna gutxi-asko mantenduta horrelakorik baldin balego (Souriau, 2010 [1990]: 1116).

Axularrek berak ere, *Gero* ez zuen letradu handientzat idazten, baina ezta deus ez zekitenentzat ere. Luis Villasantek azpimarratzen du liburuaren izaera naturalista, besteak beste, irakurleei saria (*pagamendua*) begietaratzen diela, aurrerabidean jarri daitezen luzatu gabe, aszetika-lanaren hitzaurrean (Villasante, 1964), eta ez balizko goiburu espiritual berezirik.

Jean Barbierren *Piarres* I eta II (1926-1929) bi liburukiko eleberriari buruz, esango da batez ere ikuspegi etnografikoa ematen duela eta estatikoa euskal gizarteari buruz, Jean Etxeparek 1931ko liburu hartan egiten zuen desmartxatik zeharo bestelakoa. Esan liteke Iparraldeko euskal Elizak gizarteko errealitatetik urruntzeko joera izan zuela, laikotasuna trostan zetorren 1900 inguruko hamarkada haietan. Elizak euskara erabili nahi zuen, jakina denez, euskalduntasuna orduko gizarte-berrikuntza usitez kaltegarrietatik begiratzeko, laikotasun frantsesaren oldarra gorabehera (“hesia ogi-landaren inguruan” zen euskara (Ortiz de Pinedo, 2018: 389)). Jean Etxeparek bazuen ikuspegi proaktibo bat, Lore-Jokoen entusiasmoa gutxitu ostean, eta inguruko tonika orokor etsiaren kontrastean, bereziki Lore-Jokoen hasierako kemen euskaltzale hura iluntasun batean murgildua zegoela (Casenave, 1998; 2000: 507-522).

Jean Barbierren *Piarres* eleberriaren harira, agian aipa liteke erromantizismoaren eragina. *Piarres* protagonista kontrabandista da, alde batera Pierre Lotiren *Ramuntcho* (1897)³ eleberriko protagonista bezalakoa. Agerikoa da Lotiren idazlanek exotismoa behin eta berriro jorratzen dutela, dela Japonian, Turkian... eta Euskal Herrian. Barbierrek ere pinto-reskismoarekin lotutako eszenak begietaratzen dizkigu, aipatu den etnografia kutsu horrekin. *Erromantiko* hitza *pintoresko* hitzaren hurbilekoa zen (Souriau, 2010 [1990]: 1319).

Jean Etxeparek, aldiz, *Beribilezen neurriaren* aldeko apustua egiten du, Mediterraneoko Greziaren gorazarrea egitean Ameriketako itsaso izuga-

[3] Hainbat argitaraldi izandako frantsesezko liburu arrakastatsua. Gazteleraz, Enciclopedia Vasca argitaletxeak argitaratu zuen.

rriaren aurrean (Ortiz de Pinedo, 2018: 98-101): Lauaxetak eta Orixek esango zuten bezala, *sophrosyneren* aldeko apustua (Kortazar, 1985: 88; Ortiz de Pinedo, 2018: 356-362). Gaztaroko balentriak berraztertu nahi ditu Etxepare helduak. Horretara, Herderrengandik datorkigun herri-gogoaren ikuskera erromantikoa ez dugu *Beribilezen* aurkituko⁴; bai, aitzitik, idazlearen isuria Antzinateko oreka klasikoari. Jon Casenave kritikariaren ustez, ez dago argi idazlearen hautu neurritsu hori garaiko konbentzioekin bat egitearen keinu sozial hutsa ez ote zen, benetako bere sinesteak sobera ez adierazi nahiz, Greziarekiko atxikimendua ikasien arteko konbentzionaltasunaren mugen barnean kokatuko baitzen. Izan ere, Antzinatearen jatorrizko oreka konbentzionalari buruz, Friedrich Nietzschek baluke zer esanik, Etxepareren gaztetako irakurgaiak.

Hala ere, 1931ko Jean Etxepare Antzinateari begira ikusten dugu gizaki abstraktuaren bila, klasikotasunak ezarri kanonaren barnean, erromantizismoaren tokian tokiko gizaki-espezifikotasuna bilatzea baztertua, itxura batean (adibidez, Etchepare, 1931: 82).

Erromantikoek *lekuko kolorea* (*couleur locale*) hitza erabili zuten XVII. mendean frantsesez *moeurs* esaten zitzaionari, Mérimée-ren hitzetan (Souriau, 2010 [1990]: 541). Jean Etxepare ohiturak irauaraztea, ez du erraz ikusten. Nahiko luke; ordea, ez du erraz ikusten.

Libro! ? Gure gain! ? Baina zoin da gizaldea, guziz oraiko egunean, berez bere bizi ditakenik? Legeak berak, mugetako zedarriak hautsirik, ez direa orotan berdintsu ari jartzen?... Uzten baluzkigute bederen, sobera itzulipurdikatu eta kotsatu gabetarik geure lurra, geure ohidura gehienik atchikiak gizaizkotenak, gure mintzai zaharra! (Etchepare, 1921: 701).

Beribilez idatzi aurreko hamarkadan Eskualtzaleen Biltzarreko burulehena zela (Altonaga, 2006: 172-178), biltzarra saiatu zen euskaltasuna irauarazten: arkitektura (estilo neoeuskalduna), herri-teatroa, Lapurdiko Biltzarraren oroigarria (Kapito-harria), pilota... Literaturaren arloan herri-teatroa nahi zuen molde berrietara isuri zedila, frantsesezko teatroarekin lehiatu ahal izateko, alde batera dezente geroago Basarrik bertsolaritzarekin egin nahi izango zuen bezala. Tarteki gisa, esan daiteke kontu sakonagoa litzatekeela aztertzea ea zein ohiturak merezi duen irauaraztea, eta zeinek ez: Jean Etxeparek izango zuen zer gogoetatua, pentsamoldez kritiko samarra izanik.

[4] Herder gurean kokatzeko: Iturriotz, Ander, 2010, "Azurmendi edo konkretutasuna", *Hegats* 45, 86-162.

Ildo horretatik, modernitatearen auziaz luze dihardu euskal kritikak, adibidez, jakin badakigu modernitatea aldaketa eta zaharberritzea dena. Jean Etxepare jo izan du kritikak inoiz lehen euskal idazle modernotzat, besteak beste, hainbat berrikuntza txertatu zituelako euskal letretan, aditu batean Octavio Pazek zehaztu duen marko orokorrari eutsita (Ortiz de Pinedo, 2011)⁵. Hala ere, nortasun konplexukoa izaki, nolabaiteko *décalagea* ikus dezakegu Eskualtzaleen Biltzarreko burulehen gisa egin zuen lanaren eta haren literatur lanaren artean: biltzarrean gizarte-loturek joko-arau bereziak onartzera behartuko zuten, literaturak eskain lezakeen askatasunaren aldean... (Casenave, 2000). Gizarte-arrakastak, ordea, bere legeak ditu.

Beste alde batetik, Jean Etxeparek *Beribilezen* sinbologia bat sortzeko ahalegina egin du: Partenona irudikatzen deun usoa; bi itsasoen alegia, goi burgesiako harrapakariak, Inazioren Etxeko aberastasunen gehiegikeria... Izan ere, Bernardo Atxagak oraintsu aipatu du nola euskal idazle eta eragile katolikoek ez duten jakin beren sinesteen araberrako euskal mundu sinbolikoa sortzen, nahiz eta euskara beren helburuetarako babesten eta baliatzen jakin duten. Jarri du, konparazio baterako, beste herrialde batzuetan mundu sinboliko hori sortzeko gai izan diren bestelako idazle katoliko batzuen adibidea: Ingalaterran, G. K. Chesterton; Ameriketara, Flannery O'Connor, kalitate literario handienetakoa herrialde hartan Atxagaren ustez; eta Frantzia, Léon Bloy. Azalpena ere eman du: kanpoko idazle hauek lehiatu beharra izan zuten garai hartako ideologia desberdineko idazleekin, adibidez, Henry James-ekin Ameriketara⁶.

Jean Etxeparek badu gizartea hobetzeko kezka. Haren kezka da nekarritza aurreratzea, sineskeria uxatzea, erlijiotasun mota bat nabarmen uztea, turismoa bultzatzea, euskara loratzea, langileen bizi-baldintzak kontuan izatea (alogerak, janzkera-kalitatea, elikadura, lanaren nekeak, etxebizitzaren nolakoak, osasun-arreta)...; ez da geldi egon zalea, aurrerakuntzaren alde horretatik.

Gizarte-kritikaren ildo beretik, nabarmen uzten du luxuzko alarde barrokoa Inazioren etxean, bisitari kristau xumea erlijioaren aldera

[5] Ikerlanean modernitateak izan zuen aurrerabide neketsua aztertzen da euskal literaturan XX. mendean, Octavio Paz-en *Los hijos del limo* (1974) lanaren markoan; ikerlana irakurri duten batzuek esan didate bertan tradizioa gehiegi zehatzen dela. Martin Heideggerrek ere, uste zuen tradizioari eustea zela muntako zerbaitek ezinbesteko baldintza (Hammermeister, 2000).

[6] Bernardo Atxagaren hitzak dira 2018ko urriaren 5ean Arantzazun esandakoak Euskaltzaindiaren 100 urteurrenaren kariatz, euskara batuaren etorkizunaz aritu dela.

biltzeko asmoz paratua, Loiola bisitatzen duenean. Argi geratu behar da, berandu baino lehen, Loiolako santutegia dela idazleak eta lagunek egin zuten auto-bidaiaren jomuga *Beribilezen* deklaraturua, 1928ko abuztu hartan. Gisa hartako erlijiojera eta pedagogiak ez zuen esangura sendorik haren eta gure bisitaria bezalako “batzuen” ustez (antza, kopuruz urriak); luxu barrokoak kolpe huts egin zuen medikuaren gogoan, nahiz eta herritarrak arrandiaz limurtu eta inpresionatzeko helburua izan.

Patuaren ironia, esan liteke urteen joanak idazleari eman diola arrazoa, konparatuta medikuak 1928ko auto-bisitan ezagutu zuen Inazioren etxea eta gaur egungoa, eta ez ortodoxiaren orduko begiraleei. Izan ere, jesuitek berek etxe horretan egin duten zaharberritzeari *pristinización* diotsoe orain, alegia, luxuzko eranskin gehienak baztertzeko arkitektura-erreforma, etxea ahal izan den neurrian Inaziok ezagutuko zuenaren modura lehengoratuta (López de Aberásturi, 1997).

Zilegi bazaigu, tarteki bat herri-kulturaz. Gerta daiteke goi mailako kulturaren aitzakian, herritar xumea adin txikiko egoeran irauarazi nahi izatea, hori zen ziurrenik estetika barrokoak hartu zuen jardunbidea. Gaur egun ere ezagutzen dugun fenomenoa izan daiteke, ausaz. Masako artea eta kultura-industriak kontsumitzaile mediokreei badaezpada-ko artea eskaintzen die, dibertitzen dituela aldi berean haiek masifikatuta: gezurrezko demokratizazioa, Adornoren arabera (Souriau, 2010 [1990]: 1226). Beste batzuetan, herri-kultura baztertu egiten da berariaz berritasunaren eta originaltasunaren izenean, edo, ziur asko, interes komertzialengatik.

Egia da, bestalde, Jean Etxeparek ebasiorako joera ere baduela *Beribilez* abuztuko bidaiaren kontakizunean, eta beharrezko da agertzea medikuak eguneroko bizi-giroa ahazteko zuen guraria, aurreko kritikariek nahi zuten bezala: “Aitzin-solas”a irakurrita, argi esan du. Aldarte horretan, euskararen atzerakadak sortzen dion laztasunari bidaiariak itzuri egiten dio “automobiletara salto” eginez, horrelako batean: Lekunberri inguruan geldialdia eginda, diglosiaren berri tristea duela, gehiegi luzatu gabe autora egiten du jauzi opor-bideari berrekiteko. Bidean aurrera, exotismoa ageri da Iruneko jaiak aipatzen dituenean ere, arratsean Kanborantz bueltan doanean etxera: hango dantzarien izen bitxiak (Lonor, Castor...) exotikoak egiten zaizkio, eta ametsetarako bidea ematen diote. Irungo San Martzial jai horiek egunerokotasunetik ihes egiteko beta ematen diote begitazino batean bezala, nork bere errealitateak mozo-

rrotzeko, edota geure buruaz dugun ikuspegia eraberritzeko, erotismo-puntu posiblea ahaztu gabe (Souriau, 2010 [1990]: 744).

Ebasioak egunerokotasunetik ihes egiteko parada ematen dio, esan den bezala. Espazioan, bestelakoaren bila abiatzen da artea. Inoiz esan da, arte iheslari horrek errealitatea ezagutzea eragozten duela, errealitatearen interesa eta edertasuna; gainera, errealitatea aldatzeko ahalegina desbideratuko luke.

Erantzunez, esan izan da asaskatzealdi batek ez duela proiektuak buruzetik aldatzen; alderantziz, gizakia indarberritu dezake. Gainera, honelako bidaiek zerumuga zabaltzen dute, balizko kartzela batetik ihes egiteko lagunduta, kartzela urrezkoa izanagatik ere. Sormena bera ere hauspotu dezake ihesak (Souriau, 2010 [1990]: 737-738).

2.3. Eta egia adieraztea...

Baldin eta ohiturak badira pintoreskoak, idazleak baloratu behar ohiturok irauaraztea merezi duen, ala premisen balizko eraberritze batek onura handiagoa ote lekarkeen etorkizunean, horrek mezulari iragarleari ekarri ahal dizkion buruhauste guztiekin, Etxepareren kasuan. Tradizioa zer-nola irauarazi?

Nolanahi ere, molde herrikoiak puskatzea ez da beti erraza; irakurri honako aipua, herriaren ohiko moldeak aldatzea denaz bezainbatean: “Gomazu lanean erakutsi behar deiezula abiatzetik! Beren ohiko urhatsetik ez zauzkitzu aldaratuko tuntik, hura delakoan bakarrik xuxena, eta ona, ustez” (Etxepare, 1991 [1910])⁷. Jean Etxepareren kezka errepikakorra izan zen haren bizitzan zehar ea noraino zen zuhurra edo egokia pentsatzen zituenak plazaratzea. Izan ere, dudan jartzen zuen azken urteetan gaztetako ausardia hori idazle-ibilbidean mesedegarria izan ote zitzaion (Xarriton, 1991).

Zuhurtzia horren adibidea da *Beribilez* (1931) bidaia liburuan hartu zuen jokabidea. Bertan gauzak alusio bidez eta irudi bidez adierazten ditu, halako maneran non liburuak garai hartako giroan aurrera egiteko aukera gal ez zezan.

Horrek planteatzera garamatza norainoko kontzientzia zuen idazleak egiten zuen autozentsuraren izaeraz. Joan Mari Torrealdaik aztertu du zehazki Francoren diktadura garaiko zentsurak nola jartzen zuen idazle

[7] “Egiaren hiru itxurak” atala; bigarren itxuran.

disidentea ataka batean, hau da: boterearen arauak onartu eta erdibide bat bilatzen saiatu argitaratu ahal izateko, ala idazteari uko egin⁸. Gogoratu Etxeparek lehen liburua –Buruxkak (1910)– merkatutik erretiratu behar izan zuela; bigarrenak ere –*Beribilez* (1931)– ez dirudi onarpen nahikorik izan zuenik liburua susta zezaketen Elizaren inguruko euskal media urriengandik (*Euskalduna* astekari orduan indartsuarengandik, bereziki).

Bere aldetik, Michel Foucaultek ere zabal samar aztertu du, egia esateko, ausardiak bertute gisa Grezian izan zuen praktika, bereziki filosofo zinikoen eskutik; greziarrez geroztik, *parresia* deitu izan zaio egia esateak eskatu izan duen ausardiari (Foucault, 2008)⁹. Kasu egin behar bazaie greziarrei, leziatzean badirudi irakasleak *kairos* edo abagune egokia bilatu behar duela, alegia, kontuan izan behar da entzuleak egia asimilatzeo egokieran ez daudela noiznahi, nahi den bezain onuragarria izanik ere haientzat egia hori irakaslearen ustez, eta unean uneko irakasgaia gorabehera. Gehiegizko adierazpen-askatasunak ere baditu bere gorabeherak, baina orain eta orrialde hauetan ez da unea hori ziltatzeko; izan ere, *parresia* izan du historia Mendebaldean greziarrez geroztik, kristauen artean, etab¹⁰. Kezka hori zuen Jean Etxeparek bizitzaren ondarrean, *Beribilez* argitaratu zen 1931ko urte hartan: “Gaur den egunean urriki dut hale-re ozarki bihurtu izanik batzutan, ahoz eta lumaz. Ichiltasuna hanitzet ederragoa da; eta ichiltasuna bera baino, sinesteen araberalat zuhurtzian bizitzea” (Xarriton, 1991)¹¹.

3. Lehen euskaltasun laiko bat

Gogoratu dezagun Jean Etxepare jaiotzez argentinarra zela. Haren guraso euskaldunek Argentinan lan egiten zuten, 1877 hartan jaio zenean. Gero, Euskal Herrira bueltatuko ziren dirututa. Jon Casenavek galdetzen du, biografia gorabeheratsuko idazleak ea euskara nola hauta ze-

[8] Joan Mari Torrealdoi berak gorabeherok aipatu zituen EHUk 2018ko uztailean Miramarreko Jauregian egin zioten omenaldian, Mari Jose Olaziregi irakasleak eta Memoriaren inguruko haren taldeak antolatua Donostian, etab. Haren bibliografia kontsultatu daiteke, besteak beste eta sarean: *Artaziak. Euskal liburuak eta Francoren zentsura* (2000) <<http://www.susa-literatura.eus/liburuak/best08>>.

[9] *Parresiarena*, hain zuzen, Collège de Franceko mintzaldietan landu zuen gaia bere azken urteetan.

[10] Ikusi, adibidez, “Parresia” artikulua kristau-ikuspegitik in Viller, Marcel *et.al*, 1937-1995, *Dictionnaire de spiritualité: ascétique et mystique*, Paris: Gabriel Beauchesne.

[11] 1931-X-27ko gutuna.

zakeen adierazpide gisa (2000: 518). Areago, kontuan izanik Bordeleko unibertsitate-ikasketak frantsesez egin zituela: nola azaldu, hortaz, hark euskara hautatzea idazteko?

Gizarte-psikologiaren arabera, nortasun komunek emozio positiboak sortzen dituzte, bistan da, eta horrek azaltzen du euskaltzaletasunak duen erakargarritasuna: bakardadearen kontra, elkartasuna eta konpromisoa; lotsaren kontra, duintasuna eta elkar ezagutza; pasibotasunaren kontra, eragintza; anomiaaren kontra, esangura; eta asertibitatea interes komunarekiko (Langman, 2006: 73-76). Ezer ez baita beti gozoa, Jean Etxepareren gizarte-arrakasta literarioa mugatua izan zen euskal jendar-tean, jakina denez. Izan ere, gauza bat da produktuaren kalitate literarioa eta, beste bat desberdina, produktu hori gizarteratzeko behar diren bitartekoak, alegia, literatur sistema bat orduan ez zegoena; zegoen apurra irizkide ez zituen beste batzuen esku zegoen...

Euskal Herria estetikoki nola islatzen da, baina, Jean Etxepareren obran? Estetikaz ari garela, Juan Plazaolarekin ados gaude arteak zentzua ezinbestean gizartean aurkitzen duelakoaz (2012: 520-545). Pierre Broussain laguna izan zuen Jean Etxeparek eredu, enpatiaz betea, Hegoaldera bidaiak egiteko zaletasun honetan:

Broussain mediku eskualzale khartsuak maite baitzituen bihotzez eskualdun probintziak, laket zitzaion hango eremuetan barna zonbait egunen artetan iragaitea. Oinez zabilan ardura, aizina osoarekin. Abiatzean ez baitzuen gogoari emana norat hel, ez noizko, nun-nahi bazagon herritarrekin solasean, edo bazterrari so. Eta nolako begi er-neak etzituen, beharriak zoin zabal etzatzikizkan eskuarazko hizkuntza edozoini! Bere biziko gozorik hoberenak Eskualerriari berari kendurik hil izana da. Orhoitgarrienak Donostiatik Bilbaorainoko itsas-hegiak, Le-keitio bid'erdi, utzi zaizkola zion (Etxepare, 1931: 5)¹².

Euskal Herria litzateke poetaren aberria, etxean egoteko eta hara bueltatzeko elementu estetikoak, behin alde eginda. Saia gaitzeko Etxepareren herri-sentiberatasunari hurbiltzen, erreparatuta pintoreskismoak eta identitate kolektiboak duten zerikusiar *Beribilez* (1931) medikuaren bigarren liburuan. Martin Heideggerrek gai berari ekin zion bere garaian, *Heimat* kontzeptuari buruz ari zela. Izan ere, Jean Etxeparek Euskal He-

[12] Ortografia, 1988ko edizioaren araberakoa da, *Beribilez*eko aipuetan; orrialde-zenbakiak, oster, 1931ko edizioaren araberakoak. Bestalde, aztertzeakoak lirateke baieztapen jakin horiek estetika filosofikoarekin izan dezaketen lotura, alegia, zentzuen aipamen mota, gozamenaren lekua; nolana ere, ez dirudi erromantizismoaren bat-batekotasunarekin bat datozenik (Hammermeister, 2000: 317).

rriaren bihotza inguratzen duenean autoz, haren begirada enpatikoa da, ez da bisitari arrotzarena:

But in Heideggers sense, surely, I can only care for a place which is *mine*, a place in which I live and where I shall still be tomorrow to take responsibility for the actions I perform today. However wondrous a place maybe I cannot care for it in Heideggers rich sense which implies both conservation and cultivation if I am merely a visitor passing through.

The real reason that wonder should not be taken as *defining* 'Heimat' is that it shows up not merely where one is at-home but also in the place that is clearly *foreign*. Indeed, it is possible to suggest that it shows up *more readily* in the foreign *precisely because it is the foreign*. Schopenhauer makes something like this point with respect to what he calls 'the picturesque (*mahlerisch*)'. The picturesque is, he says, more easily experienced in the foreign city than in ones own because there, people and things are removed from the stresses and strains of the everyday will (Young, 2011: 291).

Horrelako zerbait sentitzen bide zuen Jean Etxeparek bidaiari ekite-rakoan 1928ko abuzturen bigarren asteazken hartan, alegia, Broussain haren lagun nazionalistak legez (Xarriton, 2007). Esperientzia gazi-goza ere akaso, *Beribilezi* kasu eginez gero. Delako enpatiak, haatik, ez zien eragozten bidaiari euskaltzaleei Hegoaldean pausua eta gozoa topatzea¹³.

Tokikotasun horri lotua ikusten dugu medikua, baina beste era batera ere da euskaltasuna Etxepareren abaroa. Irtetea beharrezkoa da, baina itzultzea ere bai; bertan dagoenak ere itzultzeko eta egoteko ahalegin poetikoa egin behar du, paradoxikoki. *Heimat* da besteek norbera uler-tzen duten tokia, komunitatearena: uler bedi zentzu estetiko-hermeneu-tikoan, Hans-Georg Gadameren irudira bigarren adiera honetan, ez toki-kotasun bati lotua, jaso den Heideggeren aurreko haren arabera. *Heimat* utzi eta hartu egiten da, etengabeko ariketan, bertan zaudela ere; are gehiago, egia-bilaketa partikular batean arituz gero, medikua bezala, ga-rai hartako korronte nagusitik bazterrera.

Izan ere, Gadameren eredua *Heimat* zehaztekoa erabilgarriagoa dirudi Heideggerena baino, alegia, hemen aztergai ez diren konnotazio ar-buiagarririk gabea:

[13] Jorratu dugu tesian, Etxepareren enpatia filia sentimendura ere lerra zitekeela, Pa-geauxren imagologia-terminoa erabilita: non da enpatia/sinpatia arteko marra, hor-taz? (Ortiz de Pinedo, 2018: 393-398).

Unlike for Heidegger, however, the function of poetry in this model would not be to prepare for the return home, but to safeguard *Heimat* as that which eludes definition and yet can be destroyed. *Heimat* and poetry do not collapse into each other, but it is poetry in which *Heimat* shines forth and which has to protect it from those tendencies that produce a world civilization that fails to establish communities (Hammermeister, 2000: 325).

Hor dago koska, tokitasunaren eta, Etxeparek zioen bezala, *Olerkiaren arteko dialektika*: “[Donostiako etxe ederren] Egileek beldurra dut etzakiten Olerkia zer den. Erosoan bizitzea, ba; ez, ordean, zeru-alde noizean behin gogoaren airatzea” (Etchepare, 1931: 84). Estetikaren aldetik, *Beribilezeko* Etxeparek Olerkiari garrantzi handia ematen dio, bizpahiru aldiz aipatzen baitu, letra larriz eta gorazarrez, harentzat tenplu bat iradokitzerainokoa naturaren erdian Bidarrain, greziarren moldera Zaldubiren oroimenetan, hura gogoan darabilela autoz Zaldubiren bizilekuan zehar igarotzean¹⁴: “Son los templos fortaleças levantadas contra el poder de las huestes infernales: Armerías de el cielo: Puertos de seguridad en las borrascas del siglo...” (Vistarini & Cull, 1999: 254), hau da, *locus amoenus* topiko klasikoa da Olerkiaren tenpluarena; XX. mende hasierako zurrunbiloaren erdian gaude, 1914ko Gerla Handia eta gero, hain zuzen ere, eta II. Mundu-Gerraren bezperan, *Beribilezen* jasotzen den legez.

Estetika autozalearentzat abaroa zen, eta haren estilo-gurariak hortik edaten du. Urrutiago joan gabe, ahalegin estilistiko kontzienteak egiten ditu deskribapenetan: Iruñeko katedrala, Loiolako santutegia, Donostiako ingurumariak... Alegoriak erabiltzen ditu (Ameriketako itsasoa eta Mediterraneo), sinboloak (goi burgesiako harrapakariak), istorio tartekatuak (euskal bazkaria), umorea (Petrikiloren bisita), errealismoa (hariztiko bazkaria)...

Uholde teknologikoak zalantza sortzen digu horrelako apustu batek zentzua ba ote duen... Nola nahi ere, humanitateen zeregina da hiritarra ahalduntzea gainera datorkion informazio-bonbardaketari¹⁵ (Hammermeister, 2000: 312-326).

[14] Berriz ere, Sapir-Whorf hizkuntzalaritza-hipotesira bueltan? Gogoratu, Txillardegik (1972) idatzi zuenaren antza hartzen zaio hizkuntza bakoitzaren eta hiztunen pentsaera lotzeko *Heimaten* ikuspegi horri, Gadamer baitan.

[15] Humanismoaren alderdi batzuk beste lan batean jorratu ditugu: Ortiz de Pinedo, Aitor (2016), *Humanism after the Spanish Civil War*, Leioa: ADDI/EHU. <<http://hdl.handle.net/10810/16782>>. Euskarazko lan horretan (izenburua ingelesez agertu arren webgunean), errepasatzen dira humanismoaren mugarri batzuk XX. mendean: Martin Heidegger, Jean Paul Sartre, Eric Fromm, Emanuel Mounieren pertsonalismoa..., 1936ko gerrako euskal erbesteratuekin lotuak.

Informazioaren eta teknologiaren garai uniformizatzailean zentzu komun baten posibilitatea planteatzen da, hizkuntzaren bitartez: “Because it is necessary to think about whether and if in the age of the technologized uniform world civilization Heimat is still possible” (Hammermeister, 2000: 313).

Gurean ere entzunak ditugu aspalditik antzeko aldarriak gaurko bizi- giroari buruz Berpizkundeko askatasunaren ondotik, protestantismoaren inguruko gerren ondotik...

Eta, berehalaxe, monarkia absolutuak datoz, erabat autoritarioak. Baina zientziaren garapena ere handia da. Eta zientzia honek aplikazio teknologikoak dakartza, ze segituan nahi da aplikatu, erabili. Eta, beraz, esan dezakegu, modernitatea teknikaren aroa dela. Eta teknikarekin ulertu behar da, ez bakarrik makinak egitea, baizik eta gizartearen kontrol tekniko bat abian jartzea, gizartearen antolaketa tekniko bat diseinatu eta aplikatzea: zergak jasotzetik medikuntza sistemaraino (Azurmendi, 1998).

Gaur egun ere, solasaldi horrek indar betean dirau; aipa liteke Martha Nussbaum filosofia-irakaslearen jarrera. Nussbaumek gizaki unibertsala aldarrikatzen du, alde batera *Beribilez*eko Etxeparek bezala Mediterraneo-ko zibilizazioa goraiatzean, greziarra, hain zuzen. Nussbaumen bibliografian Greziako berri ugari aurki liteke, literatura eta filosofia uztartuta. Materialismoari medikuak egiten dion kritika Donostia bisitatzean, aldi berean “arima zero-alde airatzea” hobesten duela, bat dator Nussbaumen azken urte hauetako planteamenduekin (Nussbaum M., 2016). Noski, Nussbaumen planteamendu unibertsalistak baluke nekerik, euskaltzale- tasun batekin adosgarria izatekotan¹⁶.

4. Ondorioak

Orain arte esandakoa errepikatu gabe, koda bat erantsiko genioke orrialde hauei. Ekarriko dugun aipu honetan Eugene Godheartek dioen bidetik uler daiteke *Beribilez*, azken finean, gizaki arduratsu baten uda bateko libertimendua dela oroz gain, eta horregatik kritikak arinkeriazko ukitu bat nabaritu izana berari, alegia, ariketa sekulako gizarte-helburu engaiaturik gabea izatea, besterik gabe. Izaera jostalari horren adierazpi-

[16] Martha Nussbaumen jarrera unibertsalista gogoetagai izan lekioko euskal irakurleari, zeren eta Jose Antonio Marina gaztelaniazko bestseller idazlea, adibidez, hari lotzen zaio gogotik; eta ez da bakarra inondik ere, amerikarraren arrakasta editoria- lari bagagozkio, itxura guztien arabera.

de osagarria izan daiteke plazer txikiei jartzen dien arreta: gastronomia, ardo-dastaketa, artea, paisaia gozagarriak. Horra hor irakurtzeko gonbita:

The role of art depends upon its political or social context and cannot or should not be prescribed. In an authoritarian or totalitarian society, the cultivation of a politically indifferent art can be a sign of freedom; in a bourgeois democratic society, it may reflect disdain for cultural philistinism or it can self-reflexively cast doubt about its own presumptions to superiority. Contemporary literary discourse tends to appropriate works and turn them into texts for purposes that are not literary. What needs to be recovered, it seems to me, is a reading of literature which allows us to listen to its voices, to make its claim on us, that resists our premature impulse to appropriate it to an ideological agenda, a cause for social change (Goodheart, 1997: 142-143).

Jean Etxepareren prosa euskal literaturaren ekarpen baliosa da, gaurko irakurlearen aukeren artean irauteko heinekoa; apur bat Itamar Even-Zoharek dioenaren bidetik, israeldarren esperientzian oinarrituta: jendeak euskaraz egingo du, baldin eta euskaraz hobeto bizi bada¹⁷. Gure ustez, *Beribilez*eko kontakizun honetan idazlea eta lagunak aietasunez bidaiatzen agertzen zaizkigu Euskal Herriaren bihotzean, eta euskara ederrean. Jean Etxepareren egia-bilaketak erakusten du eginkizunaren bidezidor egariak eta askotarikoak, ahaztu gabe arintasun moduko bat¹⁸.

Gure literaturari arnasa emateko gazteagoen artean, pertsuasioaren bidea dugu Eduardo Apodakak azpimarratu nahi izan duen bezala hizkuntza aitzinatze bide beretik¹⁹, Jean Etxepareren obrak erakarmena izaki, oraindik ere, freskotasunagatik; izan ere, zentzumenen zein argudioen bitartez, pertsuasioa adimenari eta borondateari zuzentzen zaie bestearen onespeneren bila, Pascalen arabera (Comte-Sponville, 2001: 756). Etorkizun hurbilari buruz, eginkizun geratzen da Etxepareren pa-

[17] 2018ko EHUko ikastaroan jaso genuenaren arabera: "Identitatearen eraldaketa euskal literatura garaikidean" izeneko uda ikastaroa, Laida taldeak antolatua, ekainaren 26an eta 27an; han mintzatu zen polisistemen teoria sortutakoa. Bertan zabaldu zen Itamar Even Zoharren eta Jon Kortazarren arteko elkarrizketa, non aipatua den euskarak duen aukera hori arrakasta izateko, *El Correo* egunkariak aspalditxo argitaratua.

[18] Hari beretik, interesgarria izan dakioke irakurleari Juan Kruz Igerabidek oraintsu eginiko gogoeta, non dioen oinarrikeria eta sustar gehiegizkotik -fundamentalismo-tik- ihes egiteko, arnasa hartzea bezalakorik ez dagoen (Igerabide, 2015), proposamenaren irakurketa erlijiosoa zein politikoa egin daitekeelarik, beste batzuen artean; Etxeparek bazuen eskarmenturik horretan ere.

[19] EHUko uda ikastaroetan, 2018ko uztailean Bilbon.

sarte gehiago euskara batura ekartzea –hizkera xamurragoa gaurko irakurleentzat– iraupena emateko idazlearen obrari eskolan eta bestela, nahiz eta urratsak abiatuak diren *Buruxkakeko* hiru atal moldatuta (Zubi-mendi & Esnal, 1997).

Azken ohar gisa, apunte bat: orrialde hauetan sakondu gabe geratzen da Aldudeko medikuak hizpide duen nafartasunaren puntua ere, beste batzuen artean, haren ikuspegi konplexuaren baitan. Ez alferrik, *Beribilez* Euskal Herriaren bihotza inguratzen du, egun beteko joan-etorrian, eta baditu aipu esanguratsuak horretaz.

5. Bibliografia

- Altonaga, Kepa, 2006, *Etxepare Aldudeko medikua*, Leioa: Euskaltzaindia/EHU.
<http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf>
- Apalategi, Ur, 2003, “Hiriart-Urrutiren harrera literarioari buruz: auto-retzaren arazoa euskal literatura klasikoan”, in Askoren Artean, *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. Mendearen atarian*, Bilbao: Euskaltzaindia, Iker 14, 15-31.
- Apodaka, Eduardo, 2011, *Norberaren autonomia krisian*, Iruña: Pamiela.
- Azurmendi, Joxe, 1998, *Teknikaren meditazioa*, Donostia: Kutxa.
- Barbier, Jean, 1926, *Piarres [lehen zathia]*, S. Sordes.
<<http://armiarma.com/liburu-e/?i=Jean%20Barbier,%20Piarres%20I>>
- Casenave, Jon, 1998, “Euskal nortasunaren irudiak XIX. mendeko bigarren partean”, in Askoren Artean, *Euskaltzaindia. XIV. Biltzarra; Antoine d’Abbadie 1897-1997. Ezohiko Kongresua*, Hendaia-Sare. Donostia. Eusko Ikaskuntza/Bilbo: Euskaltzaindia. Eusko Ikaskuntza, 547-552.
- Casenave, Jean, 2000, *De l’article de presse à l’essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etxepare*, Madrid: UNED.
- Comte-Sponville, André, 2001, *Dictionnaire philosophique*, Paris: PUF.
- Delanty, Gérard, 2000, *Modernity and postmodernity : knowledge, power and the self*, London: Sage.
- Dolhare, Katixa, 2008, “Septentrioz Septentrio Aurelia Arkotxaren bi libururen irakurketa bat”, *Uztaro* 65, 35-42.
- Etxepare, Jean, 1931, *Beribilez*, Baiona: Laserre.
<<http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/873>>

- Etchepare, Jean, 1988, *Beribilez*, Euskal Editoreen Elkartea.
<<https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/E/EtxepareJBideBeribil ez.htm>>
- Etchepare, Jean, 1980 [1941], *Buruxkak*, Donostia: Elkar.
- Etchepare, Jean, 1984 [1920], “R. M. Azkue euskaltzainburu”, in Xarriton, Piarres (arg.), *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak* (I. lkia. *Euskal gaiak*), Donostia: Elkar, 190-193.
- Etchepare, Jean, 1991 [1910], *Buruxkak*. Euskal Editoreen Elkartea.
<<https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/E/EtxepareJBideBuruxkak020.htm>>
- Etchepare, Jean, 2006, “Behin Makean”, in Altonaga, Kepa (arg.), *Etchepare Aldudeko medikua*, Leioa: Euskaltzaindia/EHU, 295-297.
<http://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf>
- Foucault, Michel, 2008, *Le courage de la vérité. II Le gouvernement de soi et des autres : Cours au Collège de France (1983-1984)*, Paris: Seuil.
- Gartzia Trujillo, Sebastián, 2014, *Jean Etxepare, Aldudeko medikua. Euskal modernitatearen brankako irudia*, Bilbo: Desclée de Brower.
- Gartzia Trujillo, Sebastián, 2016, “Jean Etxepare”, in Gartzia Trujillo, Sebastián, *Hamaika euskal literato eta Jainkoa*, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Goodheart, Eugene, 1997, “The Demise of the Aesthetic in Literary Study”, *Philosophy and Literature* 21.1, 139-143.
- Hammermeister, Kai, 2000, “Heimat in Heidegger and Gadamer”, *Philosophy and Literature* 24, 312-326.
- Hamon, Philippe, 1984, *Texte et idéologie*, Paris: PUF.
- Igerabide, Juan Kruz, 2015, “Oinarrikeria”, *Hemen* 47, 49-58.
- Iturbide, Amaia, 1991, “Jean Etxepareren idazkera”, *Jakin* 64, 129-142.
- Iturriotz, Ander, 2010, “Azurmendi edo konkretutasuna”, *Hegats* 45, 86-162.
- Kerejeta, Maria Jose, 1987, “J. Etchepare”, in Etchepare, Jean, *Beribilez*, Bilbo: Euskal Idazleen Elkartea.
- Kintana, Jurgi, 2009, *Urre urdinaren lurrina. Euskal idazle galduaren bila (1810-1940)*, Iruña: Pamiela.
- Kortazar, Jon, 1985, “Lauaxetaren olerkigintzaren ardatzak”, *Jakin* 36, 79-98.

- Lafitte, Piarres, 1974, *Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak*, Baiona: Imprimerie des Cordeliers.
- Lafitte, Piarres, 1980 [1941], “Jean Etchepare jaun mirikua (1877-1935): aitzin-solas”, in Etchepare, Jean, *Buruxkak*, Donostia: Elkar.
- Langman, Lauren, 2006, “The social Psychology of Nationalism: To die for the Sake of Strangers”, in Delanty, Gerard & Kumar, Krishan (arg.), *The Sage Handbook of Nations and Nationalism*, London: Sage, 66-83.
- López de Aberásturi, Andrés, 1997, *La casa torre de Loyola*, Bilbao: Mensajero.
- Nussbaum, Martha, 2015 [2013], *Political emotions*, Harvard University Press.
- Nussbaum, Marta, 2016, *Not for profit*, Princeton University Press.
- Ortiz de Pinedo, Aitor, 2011, *Euskal literatura Gernika aldizkari liberalean: 1945-53*, Amorebieta: Erroteta. <<http://hdl.handle.net/10810/16796>>
- Ortiz de Pinedo, Aitor, 2016, *Humanism after the Spanish Civil War*, Leioa: ADDI/EHU. <<http://hdl.handle.net/10810/16782>>
- Ortiz de Pinedo, Aitor, 2018, “Jean Etchepare eta Pío Baroja”, *Fontes Linguae Vasconum* 125, 85-112. <<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6536132>>
- Ortiz de Pinedo, Aitor, 2018, *Jean Etchepareren Beribilez (1931): bidaia eta ideologia*. Tesi argitaragabea.
- Pageaux, Daniel-Henri, 1989, “De l’imagerie culturelle à l’imaginaire”, in Brunel, Pierre & Chevrel, Yves, *Précis de littérature comparée*, Paris: PUF.
- Paz, Octavio, 1974, *Los hijos del limo. Del romanticismo a la vanguardia*, Barcelona: Seix Barral.
- Plazaola, Juan, 2012, *Introducción a la Estética*, Bilbao: Universidad de Deusto.
- Santamaria, Karlos, 1984, “Marx eta giza pertsonaren problematika”, *Jakin* 30, 75-93.
- Souriau, Étienne, 2010 [1990], *Vocabulaire d’esthétique*, Paris: PUF.
- Torrealdai, Juan Mari, 2000, *Artaziak. Euskal liburuak eta Francoren zentsura*, Susa. <<http://www.susa-literatura.eus/liburuak/best08>>
- Txillardegui, 1972, *Hizkuntza eta pentsakera*, Bilbao: Mensajero.

- Villasante, Luis, 1964, "Introducción", in Axular, Gero.
<http://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/villasante/testuak/181.pdf>
- Viller, Marcel *et. al*, 1937-1995, *Dictionnaire de spiritualité : ascétique et mystique*, Paris: Gabriel Beauchesne.
- Vistarini, Antonio Bernat & Cull, John, 1999, *Enciclopedia Akal de Emblemas Españoles Ilustrados*, Madrid: Akal.
- Xarriton, Piarres, 1991, "Jean Etxepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)", in Lakarra, Joseba (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*, Donostia: ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia, 595-604.
<<http://www.ehu.eus/ojs/index.php/ASJU/article/view/9209/8423>>
- Xarriton, Piarres, 2007, *Pierre Broussain. Sa contribution aux études basques*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Young, Julian, 2011, "Heideggers Heimat", *International Journal of Philosophical Studies* 19 (2), 285-293.
- Zubimendi, Joxe Ramon & Esnal, Pello, 1997, *Irakurbideak: [irakurgai klasikoak eta herri-literaturakoak argi eta garbi euskara batuan]*, Oiartzun: Sendoa.

LIBURU AIPAMENAK

Gorka MERCERO, *Mundu-ikuskerak euskal narratiba garaikidean: modernitatearen krisitik postidentitatearen promesera*,

Bilbo: Labayru Fundazioa / Amorebieta-Etxanoko Udala,

2017, 114 or.

ISBN: 978-84-92599-67-7

Beñat SARASOLA

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Amorebieta-Etxanoko Udalak bi urtetik behin antolatzen duen Santi Onaindia bekaren azken emaitza da Gorka Merceroren *Mundu-ikuskerak euskal narratiba garaikidean: modernitatearen krisitik postidentitatearen promesera* liburua. Beka 2015ean eskuratu eta 2017an kaleratu du ikerlana Labayru argitaletxearen bidez, beka honekin loturiko hamaikagarren lana.

Liburuaren alderdi nabarmenenetakoa haren izaera polemista dugu, zentzu positiboan. Ez dira ohikoak euskal literaturan eta haren kritikan eztabaida landu eta gordinak, beste ikerlari batzuekin zuzenean dialogatzen dutenak, eta beraz, eskertzekoa da Merceroren ahalegina, itzulingu gabe erantzuten baitie beste literatur kritiko batzuen tesiei (Ur Apalategi, Ibai Atutxa, Joseba Gabilondo, Imanol Galfarsoro). Funtsean, Bernardo Atxagaren eta haren obraren inguruan oinarritzen da eztabaida hori. Arestian aipaturiko kritikoek Atxagaren “saldukeria” salatzen dutela aipatzen du Mercerok, eta saldukeria hori bi traiziotan gauzaturik ikusten dutela: Euskal Herria *besteexotiko* subalterno moduan aurkeztu duela, eta nazioarterako jauzia Espainiako literatur sistemaren bidez egin izana. Egiazki, kritika horiek molde askotarikoak dira, eta autorea Atutxa eta Gabilondoren argudioak ezeztatzen saiatzen da nagusiki, kritika horiek “arbiatzen” dituela argi eta garbi utziz. Esan bezala, poztekoa da eztabaida kritiko horren plazaratzea, batez ere Atxagaren obraren ulermena konplexuago bihurtzen duelako, eta gainera, euskal literatur sistema normaltzen eta, ondorioz, indartzen duelako. Zalantza egin dut, hori bai, momenturen batean ez ote dion Mercerori pasioak gain hartzen, eta,

eztabaida Atxagaren aldeko vs. Atxagaren kontrako markoan kokatuta, ez ote duen eztabaida aberasgarria apur bat iluntzen. Liburua osatzen duten bost zatietatik bigarrena da *Obabakoaken* balizko subalternitatea ukatzen ahalegintzen den hori, eta liburuaren osotasunean solte samarean geratzen dela esan daiteke.

Lehenengoan, Mercerok erabiltzen duen ikuspuntu teoriko-kritikoa azaltzen du, zeina bi zutabe bidez jasotzen den: postmodernismoaren teoria eta mundu-ikuskerena. Bi teorien gurutzaketa euskal nobelagintza garaikidean aplikatzearen emaitza dugu, nolabait, azterketa honen funtsa. Egitura teoriko sendo horrek sostengatzen ditu gerora egiten dituen analisiak. Hala, hiru kontzientzia-modu edo mundu-ikuskerak bereizten ditu Mercerok Alan Wilde ikertzaileari jarraiki: premodernista, modernista eta postmodernista. Horrekin batera, hiru ni aztertzen ditu halaber: ni poetikoa, ni erotikoa eta ni politikoa. Mundu-ikuskerak eta niak lotuz, bederatzi euskal nobela aztertzen ditu, bakoitza dagokion kuxatilan kokaturik:

- Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao*: Ni poetiko premodernista.
- Anjel Lertxundiren *Carla*: Ni poetiko modernista.
- Bernardo Atxagaren *Obabakoak*: Ni poetiko postmodernista.
- Ramon Saizarbitoriaren *Rosetti-ren obsesioa*: Ni erotiko premodernista.
- Laura Mintegiren *Sisifo maite minez*: Ni erotiko modernista.
- Joxemari Iturraldereen *Izua hemen*: Ni erotiko postmodernista.
- Koldo Izagirreren *Metxa esaten zioten agirretar baten ibili herrenak* eta *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak*: Ni politiko premodernista.
- Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso*: Ni politiko modernista.
- Joseba Sarrionandiaren *Lagun izoztua*: Ni politiko postmodernista.

Lehen atalak espazio erlatiboki laburrean auzi konplexuak sakon aztertzeko dohaina du, baina zalantzaren bat ere eragin dezake. Batetik, postmodernismoa eta postestrukturalismoa baliokidetzat jotzen ditu (15. or.), aski berdinketa problematikoa, eta horrek gerorako azterketak ere zamaten ditu. Horrekin loturik, etengabea da postestrukturalismoaren ildoko *telosaren* kritika, baina kontua da liburuan bertan gauzatzen den eredu teorikoa aski teleologikoa dela, non atal bakoitzean “ni postmodernista” agertzen den *de facto* emaitza behinen gisa (guztiak Pott Bandako autoreen nobelekin, bidenabar). Bestetik, duda egin liteke Alan Wilderen ereduak halako munta duen azterketa osoa haren arabera egiteko, eta irakurketa guztiak hark determinaturik egon daitezen.

Liburuaren bertute nabarmenenetakoa, gauza konplexuak azaltzeko modu argiaz gain, lehenago aipaturiko nobelei buruz egindako irakurketak dira. Batzuetan aski zalantzarria suertatzen da liburu bakoitzaren sailkapena, baina edozein kasutan, *close reading*aren tradizioan kokatutakoak ditugu azterketok, testuari ondo loturiko interpretazioak. Ondo garatuak eta konplexuak dira pertsonaia, gertakizun eta denbora-espazioen inguruan egiten diren analisiak. Alabaina, analisi horiek interpretazio ideologiko-tematologikoekin lotzerakoan arazo handiagoak sortzen dira, lotura hori modu sinpleegian egiten delako, fikzioaren eraikuntza konplexua aintzat hartu gabe. Hau da, liburu bakoitzak proiektatzen duen balizko mundu-ikuskerak ez da justifikatzen fikziotasunaren izaera malgu eta irekia kontuan izanik, eta sarri pertsonaien jokabideetatik eratoritzen da zuzenean, edo are idazleak beste genero ez-fikziozkoetan (elkarrizketak, saiakerak) idatzitakoetatik. Egiak, hori ez da Merceroen liburuaren arazoa soilik, ezpada egun literatur ikerketen baitan egiten diren azterketa tematologiko eta ideologiko gehienena. Kasu honetan lastima handiena da Mercero, gisa horretako lan ugariaren egileek ez bezala, literatur irakurketa zehatz eta sakonak egiteko gaitasun handia frogatzen duela; azterketa horietatik egiten diren jauzi interpretatiboetan dago arazo handiena, zeinak zerikusia duen aurretik ezartzen duen eraikuntza teoriko zamatsuarekin. Hots, marko teorikoak aztergai diren nobelak traje estuegi batera eramaten ditu, aurretik ezarritako eskema zurrunegei batera errenditzera.

Gaur egungo literatur ikerketak, zientifismo artifizial baten antzezpenearekin obsesionaturik, balio handia ematen die emaitza konkretuei: helburuak, hipotesiak, metodologia, eta ikerketa beraren ostean lortzen diren emaitzak. Kasu hau adibide egokia da ikusteko nola literatura ikasketetan maiz bidea izaten den emankorra. Mercero proposatzen dituen irakurketak aski iradokitzailak dira, eta egungo euskal ikasketetan ahaztu samarrak zeuden zenbait obra berreskuratzeko (*Carla*, *Sisifo maiteminez*, *Izua hemen*) dohaina du, gainera. Horixe da liburuaren indargune nagusia. Haatik, hura inguratzen duen janzki teorikoa, ikerketaren emaitzak baldintzatzen dituena, zalantzarriagoa da; baina edozein kasutan, ez bairik gabe, euskal ikasketetan etorkizunean kontuan hartzeko obra da honakoa. Ez bakarrik Atxagaren obraren azterketari egindako ekarpenagatik, baizik eta euskal literatura garaikidea modu konparatistikoan eta zabalean ikertzen duelako, panoramika oso bat aintzat hartuz, eta gisa horretako hurbilpenak oso bakanak dira gure testuinguruan.

SORTZE LANAK
POESIA
NARRATIBA
ITZULPENAK

Akatsik egin ez dugula ziurtatzeko badaezpada bitan kontatu behar izan ditugun hemezortzi epigrama

Iñigo ASTIZ eta Angel ERRO

Kritika

Kexu da idazlea (barka erredundantzia,
baina benetan kexu da idazlea)
euskal literaturan kritikarik ez dagoelako.
“Ez dago kritikarik”, dio egunkarian,
baina are kexuago da oraindik
euskal literaturan kritika dagoenean
eta besteen aurkakoa ez denean.

Euskaingintza

Euskararen alde egiteko
eskatu didate idatz dezadan
euskaltegian girotutako
ipuin barregarri bat,
eta ez dakit zer erantzun.

Ez al zaude euskararen alde?

Bai, noski, baina ez erabat
literaturaren kontra.

Egiletza

Poema oso txar batzuk agertu direlako
webgune galdu batean, zuri egotziak,
zureak izan gabe,
haserre zabilta, zabilta muturtua
eta bekaiztu zara. Ez nau harritzen.
Idatzi infame horiek bilatu,
aurkitu ditut sarean
eta kontua uste baino larriagoa da:

poemak zureak ez izateaz gain
zureak dirudite.

Poesia jardunaldiak

Egon da musika, egon dira bertsolariak,
egon da antzezlan bat herriko plazan,
egon da dantza, egon da herri bazkaria,
egon dira beti egoten direnak ere bai,
egon da, aurten ere, antolakuntza bikaina,
egon da malabaristen emanaldia amaieran,
egon da, osagarri, aurtengo eleberri
sonatuei buruzko analisi saioa
eta ez da egon besterik.

Deialdia

Hautaketa zorrotza izango da,
lan txarrak baztertuko dira,
eta bidalitako mezuan diozunez,
noski, ez da ordainik egongo.

Akats bat behar du egon, ordea.

Seguru asko, nahasita, animatu nauzu
aldizkarian kolaboratzera eta ez,
idatzi beharko zenukeen bezala,
aldizkarian alistatzera.

Diskurtsoa

Zabiltza harroturik zure liburuaz,
pieza, oso ona omen delako,
eta azaltzen zabiltza zergatik.
Maisu zara argudiaketan,
eta irakurria zaitudan arren
konbentzitu egin nauzu gaur:

literatura utzi behar zenuke
komertzial lanetan hasteko.

Emakumezkoen literatura

Ez duzula nahi gehiago hitz egin
emakumezkoen literaturaz, Luxia,
eman didazu oraintxe erantzuna,
eta errespetatzen dut zure hautua,
justizia osoz esplikatzen duzunez,
ez zaudelako eroso etiketa horrekin,
baina gaizki-ulerturik egon ez dadin
errepikatu egingo dizut galdera
badaezpada: “barkatu, zer ordu da?”

Neurritasuna

Parkean bururatu zait lehen, baina
bateria gutxi nuela eta, etorri naiz
etxera. Bidean, aforismoa hazten
eta ia poema bihurtzen igarri dut,
zabaltzen bere adar ikusezinak
autobus publikoko giza basoan, eta
paperaren aurrean, orain, poza,
poza baino ez datorkit gogora,
poema on bat laztandu izanarena,
agian hobea, poza ez beste aztarnarik
ez duelako utzi nigan eta munduan.

Akademia

Ez duzu eztulik egiten,
ez dizut igarri herrenik,
eta ez dizut ikusi inon
orban edo garaurik ere:
are, nik esango nuke
kolore ona daukazula.
Ez dakit zer pentsatu,
lausengu akademikoak
ez baitizute eskaini besterik,
eta bilatu arren, oraindik
ez dut topatu motiborik

ez literario, ez klinikorik.

Posteritatea

Diozu esperantza handia duzula
nire posteritatean, jakinik
zure irakurle porrokatua naizela
eta ni limurtzeko asmoz.
Gero zalantza egin dut
nire poemez ari ote zaren,
ze nire lana laudatu
eta berehala aurkeztu didazu
zure lehengusina.

Selfie-literatura

Nire literatura egozentrikoa?
Horixe bakarrik falta zitzaidan,
egozentrikoa nire literatura,
gainera, zergatik izango, eta
nire lanaren oinarrian dagoena
neure buruarenganako dudan
lilura pertsonalaren inguruko
gogoeta literarioa delako soilik.

Etxepare institutua

Atera da gaia eta izan da perpausa
Etxeparek dena egiten duela aldrebes,
ze euskal literatura bultzatu nahi du
idazle on usteak kanpora eramanez,
eta ez da hori oso lan eraginkorra
orain nire iritzia eskatu didazunez:
nabarmen gehiago egingo luke ziur
idazle txar guztiak atzerriratuz, ez?

Dekalogo

Dekalogo deitu duzu literatur aldizkarian
eskatu dizuten artikulu laburra eta ironiaz
bederatzi eleberri baino ez dituzu aukeratu
mundu eta historia osoko literatura zabaletik.
Nik argi ikusi dut gibel-asmu zein duzun:
Hamargarrena zeu zarela aldarrika isildu.

Talde lana

Lau eskutara idaztearen onura da
jendeak pentsatuko duela gehiengan
poema onak nireak direla
eta poema txarrak, berriz, direla nireak.

Zahartzaindia

Zu baino idazle gazteagoen lanik ez duzu
irakurtzen. Eskuaren keinu lauso batez
sailkatzen dituzu atzetik etorritako guztiak.
Imintzioetatik berbetara igarotzeko setatzen zaizkizunean
“oraingo neska hauek” eta interesik ez duzula diozu nahasiki.
Zaharra baino askoz matxistagoa ematen duzu
horrela, eta hori asko esatea da, euskaltzain jauna.

Ezezkoa

Kexatzen da Humberto (niri:
haren lagun hoberena naiz)
puteatu nahi dutela. Norbait,
eta berak izenik eman ez arren,
badaki nor, etsaiturik du.
Oinarritzen du bere arrazoia
poema libururik argitaratu
nahi ez diotelako ebidentzian.
Humberto, puteatu nahi bazintuzte,
ez al litzaieke errazagoa argitaratzea?

Spam poetika

Atzo ez nuen lerrorik idatzi;
gaur ez dut hainbeste egiterik lortu
literaturaren mesedetan.

Modernoak

Eskatu dizute zerbait
Egan aldizkarirako,
zaharberritze asmotan
dabiltzala azalduta,
eta zuk, Klasikontzi,
epigrama batzuk igorri.
Baina ziurtasun gutxiz,
ez baitizute argitu zer
ekarpen espero dizuten:
zahartzea ala berritzea.

Egoera piroteknikoak

Itxaro BORDA

I.

Sugea probatu nahi du
Zer gostu duen jakiteko.
Mundua
Jango luke
Ahamen bakarrean:
Bi kilo hartzen ditu mahaiez
Mahai dabilelako.
Egia da
Mundua jango luke
Eta falangatsua da.
Bere arbasoen mintzairako
Gosearen hiztegia
Ezabatuko du
Erabat,
Zer gerta ere.
Nitrato urez bete dituzte
Plastikozko basoak
Eta txin-txin:
Orain
Asea, mozkorra,
Gizakeria etengabea
Ordaintzen da.
Zortzi euro.
Mundua
Jango luke
Ahamen bakarrean,
Munduak bera
Sekulako
Irentsi aitzin.

II.

Apnean bizi gara eta izuak
Pentsamendu ukatuaren
Leize hondora
Bulkatzen gaitu:
 Hausnar sukartsuan
Eta monologo totalitarioan
Higatzen goaz.

Mintzoa aldatzen doa
Gure nahikundeetatik
Kanpo: ohiturak
 Sakratuak dira.
 Ezinbestekoak.
Glaziarren tenperaturari
Aplikaturiko
Uhin sismikoak neurtzeko
Sortuak gara.

Hormaren murmurioei
Entzungor gaude
Eta melatonina eskasez
Loa ere galdu dugu:
 Traumatismo
 Zerrenda
Ederra oparituko diegu
Ondorengoei.
Eskertuko gaituzte,
 Lokatzeako
 Ur jauziak dira
Icebergen begietako
Malkoak.

III.

Noizbait ikertu beharko dugu
Zerk urundu gintuen elkarrengandik.
Bakea orain denen ahoetan dabil
Betidanik hor egon
Balitz bezala:
Ez dakigu zergatik
Joera batzuk hain sinets ezinak
Eta alegiazkoak zaizkigun.
Espelikaziorik ez omen dago.

Noizbait ikertu beharko dugu
Zerk eraman gintuen herioa hautatzera.
Hizkuntza kutsatu zigun gerraren
Diskurtsoak eta jadanik neke
Zaigu garbitzea:
Aizkorak errotu dituzte
Euri urez emokatu lurretan
Eta zakila herdoilduak ez dira
Erabat desarmatuak.
Espelikaziorik ez omen dago.

Noizbait ikertu beharko dugu
Zerk bereizi gintuen gure berdinetatik.
Minez zurgatzen zihoazen
Sendiak lerro hitsetan eta negarra
Berun bihurtu zitzaigun:
Begi zokoak
Lehor ditugu egundainokoan
Eta guztiok geure buruak
Salbatu nahi ditugu. Besterik ez.
Espelikaziorik ez omen dago.

IV.

Berekiko erran du: aski haurkeria
Eta etxean gelditu da eskema narratiboak
Marrazten saiatuz
 Musika baltiko baten
 Erritmoan.
Eurite haserretuak zeharkatu dituela
Gogoratu da eta eguzki amestuak
Ez duela sekula beretako
Distiratu:
 Heroi mutuen mendeko
 Bakartasun aintzira da.

Berekiko erran du: aski haurkeria
Eta entzun du haizea hegatsa astintzen
Aterpe gabea bihurtzeko
 Beldurra bihotzean
 Errotuz.
Galdera kaxa ireki du arratsean.
Huts egin aukerak oro idatzi ditu
Epigrafetan, misteriorik
Ez dela erantsiz:
 Diskurtso agorren mendeko
 Bakartasun aintzira da.

Berekiko erran du: aski haurkeria
Eta ahoa itxi du aditz zitalak irentsiz
Tribuaren bildutasunean
 Isiltasunera kondentatua
 Balitz bezala.
Miraila mirailari begira eman du
Eta irudiak dantzan hasi dira
Zorion galduen garaikide
Zorabiatu:
 Sendia uherren mendeko
 Bakartasun aintzira da.

V.

Aquarius ontziari portua ukatzen zaio.
 Herrialde okituek bata bestearen ondotik
 Ezezkoa ematen diete
 Deus ez duten
 Emigrante egarrituei:
 Europa ez da berak uste duen Eskuzabaltasunaren uhartea.

Aquarius ontzia itsas erdian geldo dago.
 Ehun eta berrogei emigrante daude
 Barnean lerroan jarriak:
 Larru beltzak
 Sarraskiz urratuak dira.
 Europa ez da berak uste duen
 Lezioak emateko uhartea.

Aquarius ontzia jende-salbatze ekintzak
 Uztera deitzen du armadoreak
 Berriz ere Mediterraneoan
 Survey vessel soila
 Bihurtzeko:
 Europa, antza, ez da gunerik egokiena
 Odisea pairatuen ondotik.

Penelope xifrituen oheak
 Maitasun auhenez
 Berotzeko, Ulises
 Dagoeneko
 Persona non grata
 Delako Europako
 Leihorretan.

8 poema

Jon GEREDIAGA

-1-

Belar latza,
arrunta, ospela,
ez duzu lorerik nahi,
ez duzu maite
begien edo erleen arreta;
zeru handia duzu begira
eta zuk, harrotasunik gabe,
isilean gordetzen duzu
biziaren ametsa.

-2-

Neguko izar,
amesten zaitudan bitartean
giza bihotz baten dardara
gordetzen duzu barruan,
grina guztien higadurari
astiro eutsiz hor goian.
Emekiro isilik iraungo duzu
aro guztiek dirauten lekuan.

-3-

Gauza guztien gainetik euria
astiro bigunduz lurrazaleko
oskola eta belar umila,
arrakalak emeki berdinduz,
beldurraren geruza zurruna
zeharkatuz. Euri geldiezina,
ni ere osorik onartzen zaituen
hautsa banintz, buztina, bizia.

-4-

Batzuetan dei bat heltzen da
hiria inguratzen duten basoetatik,
edo erreka-ertzeko hostotza nagiak
seinale samur bat egiten du,
edo mendialdetik edo goragotik
jaisten den haize leun batek dio:
hemen har dezake une batez atsedeen
giza bihotz baten nekeak edo irrikak.

-5-

Joango dira jendetzak,
beteko dituzte bideak,
biziko dira izarretan,
asunek hartuko dituzte
etxalde eta kaleak,
eta gu hemen geratuko gara,
lokatzetan ametsetan,
zeru eta lur hauexetan.

-6-

Asko hazi dira
bide ertzetako belarrak,
burua makurtu eta
ateratzen dute bide erdira,
sutsuki ospatzen dute
ibiltariaren etorrera,
aho urdin eta zorrotzez
musukatzen diote eskua,
hozka egiten diote,
txaloka, arrenka.

-7-

Nire inguruan biraka dabilta
aroak eta zeinuak,
ez du etenik gauaren joan-etorriak.

Pausatu, pixa egin aranondo zaharrear
zeruari begira, izar berbera ikara dabil
gauero gailur berberari atxikia.

Sugar urdin ezta, zein da
zure nahia edo apeta txikia,
iraun, iraunarazi, manamendu isila.

-8-

Eta begiratzen dizut berriz,
iparraldeko izar,
ni zure ondo-ondoan nabil ikara,
zu ere nire aldamenera zatoz
ikarati zeharkatuz gaua.
Une batez bizi nahi duzu
nire desira nekatuetan,
nik zure iraute geldoan
hartzen dut arnasa.

Santuen ugazaba

Miren Agur MEABE

Aititak atzamar-puntarekin ukiazten zizkidan, banan-banan zenbatzeko, jentilen geziek San Sebastiani egindako zuloak. Santa Agedaren bularrak seinalatzen zizkidan erretilu batean. Eta San Rokeren txakurtxoa, hanketako zauriak erreparorik gabe miazkatzen. Santa Katalina Alexandriakoak tertziopelo anilezko tunika zeukan. Santa Klarak, mari-nelen azal zimurra. San Antolinek zerura zuzentzen zuzen begirada, lepoan aiztoa sarturik zeukala. San Migelek, ezpata jasota, sandaliapean zanpatzen zuen izaki ilun bihurdikatu bat, Gabonetan afaltzen genituen karakolen antza zeukana.

Zurezko irudion kizkurrek, oin zurratuek, mantuetako izurrek, baina batez ere haien aurpegierek igortzen zuten duintasun zehaztugabeak halako mirespen sentimendua isurtzen zidaten, non haien egitandi miraritsuak barneratu baintituen portualdeko umeek arrantza-ontzien atalak izendatzen ikasten zuten naturaltasun berarekin.

Elizara osterata bat egiten nionean, absidedeko klabizenbaloan nota batzuk jotzen eta kandela bedeinkatuak atabakan txanponik sartu gabe pitzen uzten zidan aititak. Sakristiako tiradera batean edukitzen zuen gordeta zapata-kaxa bat santu-santen sudur, hatz eta belarriz, soineko-txatalez eta bestelako pusketaz beterik. Altxor moduko haiek, denboraren joanean erretaula nagusitik askatuak, berrogeitaka urtetan aldarean erratza pasatu zuenero erreskatatu zituen, hautsak batzeko paleta urrebilatzaileak baheko legarra aztertuko lukeen setarekin arakatuta. Txeraz zaintzen zituen aletxo polikromatuak, egunen batean artelan bikain hura

berriztatzeko unea iritsitakoan pieza bakoitza berriz osaturik geratzeko itxaropenez, piztuera xume batean bezala.

Eliza, bere luxuzko atrezzoarekin, antzeztoki bat iruditzen zitzaidan, eta aitita, eszena-zuzendaria. Sakristaua baino ez zen, baina berari esker –hala uste nuen nik–, gure familiak sarbide zuzena izango zuen zeru barrenera heriotzako orduan. Nik, aititaren keinuak neure erara antzeratu nahian, belaunikaldia egiten nuen gure kaleko denden paretik pasatzen nintzen bakoitzean, aldareak balira legez, batez ere estankoaren aurrean.

Aititak sakristian ematen zuen eguna, liturgiaren prestakizunetan, edota konponketak egiten elizako tailer txikian. Etxera etortzen zen bazkaltzera, ondoren elizara bueltatzeko pasieran ibilitakoan, geroago guk Fort Three Pine Tree eraikiko genuen parajea. Denbora-pasatzat zeukan ortuei errepidetik begiratzea rössli bat erre bitartean. Behinolako arratsalde batean, motorista batek bihurgune batean jo, lurrera bota eta hantxe utzita egin zuen ospa. Aititak ez zuen jazotakoaz tutik esan harik eta astebetara gure amak herrenka zebilela igarri zion arte. Besterik gabe, tergalazko fraka grisaren zango-zuloa altxatuta, zauria erakutsi zion, ordurako ultzeraturik, sukarra eragiteraino. Saiatu arren, zauri hura sekula ezin izan zitzaion ganoraz sendatu, eta urte batzuk geroago, diabetesak gaiztotuta, hanka moztu beharra ekarri zion.

Ni kanpoan ikasten nenbilen orduan. Amak deitu zidan lehenbailen lehen joan nendin Galdakaoko ospitalera. Urduri zegoen: artegatu egiten gara senideen gaixotasunekin badakigulako geuk ere haiekin batera egin beharko diegula aurre.

—Aititak burua galdu du.

Burua galtze hura, izatez, odoleko azukre mailak eragindako dementzia behin-behinekoa zen. Larrialdietara heldu nintzelarik, zirrara eragin zidan aitita joan-etorri handiko korridore batean ikusteak, hormaren kontra jarritako ohe batean presaka aparkaturiko auto baten moduan. Ohean agontzeko ahaleginetan zebilen, negar-zotinka, bere izena poliki-poliki esan eta sosegatzen lagunduko zion baten baten sostengua-bila.

Medikuek azaldu ziguten diabetesaren efektuz zainak ihartu egiten direla zapa lehortzen zaien landareei gertatzen zaien bezala eta, odolaren zirkulazio eskasa konpongaitza denez gero, gertatu ohi zela, noiz edo noiz, giza gorputza trenkatuta geratzea –besoak nahiz hankak moztuta–,

fundamentu barik inausitako zuhaitz baten pareko. Halaxe, abagune hartan hanka zauritua moztu zioten, eta aurrerago bestea, biak ala biak belauetik gora.

Bere bizialdiko azken urteetan, aititak sarritan haztakatzen zituen izterrak manta eskoziarraren azpitik, eta esaten zuen inkesaka:

—Hau da hanketako mina! Hauxe da mina hanketako!

Amak txistua irentsi eta lasaitzeko eskatzen zion, hura ez zela-eta benetako mina, falta zitzaion atalaren faltak eragindako iruzurra baizik, eta segituan arinduko zitzaiola. Aitita isildu egiten zen neuri begira, eta nik baiezkoa egiten nion buruarekin, arrazoia emanez, neuk ere ondotox nekielako zer min klase zen hura ezker begia erauzi zidatenetik.

Istripua baino lehen, aititak zorro beltz handi bat ekartzen zuen etxera elizatik. Gela ilunean uzten zuen beti. Etxeko trastelekuari esaten genion “gela iluna”, ez argirik ez zeukalako –bazen leihotxo bat eskailera-burura jotzen zuena–, ezpada ze txoko luzanga hartan denetarik edu-kitzen genuelako. Sartu eta batera, hiru armairuak ziren nabarmenak: arasa bat, bertan kontserbak, marmelada-poteak, fruitu lehorrak eta lekari-zorrotxoak errenkadaka antolatuta; jarraian hiru gorputzeko armairua, baztertutako arropa nahiz oinetakoak pilatu ohi genituena, tartean aititaren ordezkotana eta kasulla higatuak ere; eta gelaren sakoan, mihiseria kokatzeko apalategia, izaraz, xukaderaz, mahai-zapiz eta eskutrapuz mukuru.

Lurrean sakabanatuta, ardo-bonbilla, antzinako txingar-ontzi bat, erreminten kaxa, gure jostailu zaharrez beteriko zakua, gomazko azpantarrak eta gogoan ez dudan beste hainbat gauza egoten ziren. Baziren, gainera, iltzeetatik zintzilik, berakatz-kordak eta piper gorri zimelak, aitaren itsasorako zira berdea, alfonbra-astingailua, salabardoak, eulihiltzekoak eta erratzak. Eta zutikako pertxero batetik txintzilizka, aititak ez beste inork uki zezakeen zorro beltz misterioitsu hura.

Gela iluna sentimenak kinatzeko jauregi baten modukoa zen niretzat. Behin baino gehiagotan lortu nuen zurrut egitea betunen kaxaren atzean ezkutatuta egoten zen mistela-botilari. Hala ere, zorro beltzaren sekretua artean argitzerik izan ez, eta hartaz nekien bakarra zera zen, noizean behin nork edo nork gure atean dei egin eta aitita zorroa besapean hartuta ateratzen zela kalera.

Behin batean amumari galdetu niolarik ea barruan zer zegoen, erantzun zidan elizako gauza bat zela.

—Elizako gauza bat? Orduan, zergatik daukagu etxean?

Zorrotzarrak ez zeukan, ezta hurrik ere, aititak sakristian txukun-txukun jagoten zituen zamau bordatuen, kaliza urrekaren edota eguzkiaren izpien itxuran mailu finez landutako kustodien antzik.

—Etxean edukita aititak ez duelako bila joan behar elizara gauean behar izanez gero.

—Baina zer dago barruan?

—Krisma santua.

Azalpen hori eta hutsa, gauza bera. Aitzitik, denboragarrenera posible izan nuen zorroaren edukia nahiz zertarakoa jakitea.

Bakarrik geunden etxean aitita eta biok. Nire neba fraideen barnetegian zebilen ikasten, eta ama Bilboko klinika batera joana zen amuma artatzera, ebakuntza bat zela eta. Fideo-zopa afalduta, aititak harrikoa egin zuen, eta nik kardantxiloaren kaiola estali nuen zapi batez, aulki baten gainera igota, ez nintzen-eta bestela iristen. Telebista apur batean ikusi eta ohera joan ginen.

Lokartu barik nengoen tinbrea aditu nuenean, pare bat aldiz. Jaiki egin nintzen. Gure atea behatxulo galanta zeukan, brontzekoa, hegal birakari eta guztikoa beste aldekoa eroso ikusteko. Emakume bat ageri zen, sakristauaz galdezka. Aitita bazetorren ordurako atea irekitzera. Pixka batean berba egin eta emakumeak helbide bat esan zion alde egin baino lehen:

—Txitxarro kalean, azkenengo atetan.

Aitita bizkor jantzi zen. Gero, gela ilunean sartu, ordezko sotana ipini, zorro beltza hartu eta etxetik atera zen, ni lotara bialduta.

—Egizu lo. Laster naiz bueltan.

Atea itxi zuenerako, parpailazko kasullari heldu nion nik arropa erabiliaren armairutzarretik, eta pijamaren gainetik jantzi nuen. Orkatiletaraino neukan. Akolito faltsu bihurtuta, ziztuan egin nuen eskaileretan behera.

Guretik arrantzaleen auzotegira bazen tarte bat, baina banekien joaten, kolegiara joateko bide bera zelako. Haizeak hara eta hona zerabiltzan hodeiak, txipiroi-tintaz bustitako ogi-mamien antza zeukaten laino mar-doak. Urrunetik jarraitu nion aititaren eite konkorrari kale lauzatueta zehar, eta halako batean, mozkorti batekin topo egin zuen eta diosal egin zioten elkarri. Gizonari errietaka sumatu nuen aititaren ahots mehea.

Parera heldu nintzaionean, aititak besoak jaso zituen, harriduraz, eta pausoa zalutu zuen.

—Ez al zara etortzeaz damutuko... —esan zidan—. Eutsi, eroan zeuk.

Eta eskuan ipini zidan poltsa beltza neuk garraia nezan. Une hartan egundoko beldurra sentitu nuen. Leihoetan lehortzen ipinitako kolaioak saguzarrak begitandu zitzaizkidan.

Esandako tokian zegoen emakumea zain. Hirugarren solairuraino gidatu gintuen tarteune bakarreko eskaileratik. Etxe barruan, errezel lore-dun batek egiten zuen atearena logela txatxar bat pasillotik bereizteko. Ohe bat zegoen, tornuan egindako barroteak zituena, eta hantxe luze, andre zahar bat, begiak itxita. Atsoaren oinak zakar mugitzen ari ziren ohazalaren azpian, eta burua alderdi batera jausita zeukan arren, haren alaba edo erraina-edo zen emakume heldu bat tematuta zegoen ile-tximak txirikorda batean batu eta mototsa egiteko. Ohearen beste hegalean gizonezko bat zegoen zutunik, hiltzoriakoari eskutik oratzen. Gelan ez zegoen inolako apainketarik arrosario itzel bat izan ezik, garau potoloak albertxikoen tamainakoak, sabaitik dilindan. Aititak zokondo batean be-launikatzeko agindu zidan.

Geroxeago, abadea etorri zenean, orduantxe ikusi ahal izan nuen, azkenean, zer zegoen zorro beltzaren barruan. Bi tresna atera zituzten: bata zen metal zilarkarazko zilindro bat; bestea, harekin joko egiten zuen kutxatila bat, erliebean egindako marrazkiak zituena, kristau-ikurrak. Aititak kutxatilatik gaza bat atera —edo kotoia, ez nago ziur—, eta zilindroari tapoia kenduta, olio argi-argi batez busti zuen. Ondoren abadeari eman zion, eta abadeak harekin gurutzearen seinalea egin zuen gaixoaren bekokian lehenik, eta beste gurutze bana esku bakoitzean, hitz batzuk esan ahala. Atsoaren eztarriak zabu herdoilduen karranka egiten zuen. Bet-betan, aititak gelatik irteteko eskatu zidan.

Pasilloaren muturrean, beiradun ate baten bestaldeko argitasun urdinxkari antzeman nionez, hara zuzendu nintzen sukaldea zelakoan, bero apur baten premiaz, dardarka nengoen eta. Poltsiko batean karamelu ia desegindako bat topatu eta ahora sartu nuen. Haztamuka, etengailuari sakatu eta bat, labezomorro tropel bat hasi zen arineketa egurto-kiazen azpirantz, eta sehaska handi batean eserita zegoen irudi batek so egin zidan.

Neure adineko mutiko bat zen, aurpegia zarakarrez betea. Tripek txilinbuelta egin zidaten bere burua kulunkatzen ari eta irrintzi ahul batekin “amuma, amuma...” deika ari zen izaki haren aurrean. Adurra zeriola, besoak luzatu zituen nigana.

Ez nuen jakin zer egin. Eskuak erakutsi nizkion, hutsik. Negarra zartu egin zitzaion. Malkoek dizdizka jarri zizkieten pusla gogortuak, lapen antzekoak, bai kolorean, bai forman. Orduan txaparen ondoko pitxertxo bati erreparatu nion, eta nire musuzapiaren punta bat busti nuen bertan. Abadeari ikusitako erritu bera egin nion mutilari bekokian eta eskuetan, musuzapiarekin. Mutikoa jabaldu egin zen. Gero karamelua atera nuen ahotik eta ahoan sartu nion. Onartu egin zuen eta, isil-isilik, etzan egin zen sehaska itzel hartan. Ni neu atarira jaitsi eta hantxe geratu nintzen aititari itxaroten.

Egun argia zen aititak iratzarri ninduenerako. Eskutik heldu zidan behegainetik altxatzeko. Amutik beranduegi askatutako lazuna sentitu nintzen, hala ere.

Sarritan gogoratzen nintzen desitxuratutako umeaz. Negargura etortzen zitzaidan haren baztertzearen lorra irudikatze hutsarekin. Neure buruarekin haserretu nintzen izena galdetu ez niolako, koldarra izan nintzelako, gau luze hartako doluaren hondamendian alboan geratu eta lagun egiteko kapaz izan ez nintzelako.

Heriotzarekin zerikusia duen nire hurrengo oroitzapena hilerrian kokatzen dut, eskolakide baten hobiratzean.

Euria ari du, barra-barra. Tente gaude zuloaren aldamenean, dilistapurea dirudien lurtzaren ondoan. Hileta-meza espektakulua izan da, halako jendetza familiaren inguru-minguru, eta familia oraindino ere txundituta abisurik gabe etorri eta semea eta bizikleta kamioi baten gurgipen artean eraman dituen heriotza horrekin. Isilik egon behar genukeen arren, zurrumurrua aditzen da: erlebatza gosetia gara.

Aititak intsentsu-ontzia ekarri du kanposantura eta abadeak hiru bider ziprztindu du katabuta. Zaparradaren ondorioz, potxingoa eratu da zulo barruan. Apo bat dabil txapla-txapla. Lur palakada bat bota diote gainera eta apoa, zuloan gora egiteko eginahalean badabil ere, irristaka doa sakonera ezinbestean. Orduan, hildako atsoaren etxean ezagututako mutikoa etorri zait gogora, eta martiriak etorri zaizkit gogora, beti hain bakarrik eta hain bakarturik, eta otu zait baten batek lagundu beharko liokeela apoari zulotik irteten, baina inork ez du zirkinik egiten, ezta neuk ere. Isiltasun betean ikusi dugu zerraldoa piztiaren gainean pausatzen, eta lore zuriak jausten, eta neure kolkorako pentsatu dut eskerrak aitita santu-santen ugazaba den, ezen horri esker, ni, behintzat, salbatuko bainaiz.

Teselak

*Eta memoriaren tokiek diz-diz egiten zuten
mosaiko urrekara batetik erauzitako teselen antzera.*
Martín López Vega

Miren Agur MEABE

Amak gutunak idazten ditu dendan. Beti egiten du gurutze txiki bat goiburuan, hasi orduko. Nik etxeko lanak egiten ditut. Idazlana baldin bada, gurutze bat marratzen dut izenburuaren gainean, amaren ohitura antzeratuz. Berrogeita bost urte geroago, oraindik ere, batzuetan sentituko dut paper zuria ikur horrekin estreinatzeko tentazioa.

Kalean izaten dira gure olgetak, denda aurreko iturri ondoan eta inguruko kantoietan. Neguan antzerkia egiten dugu atarietan, berokia aurpegi bueltan lotuta, mantuz jantzita gaudela irudikatzen: *Zu artzaina, hori aingerua, zuok astoa eta idia*. Portalea portaletan. Nik Maria izan nahi dut, baina pertsonaia hori antzetzeko pezeta bat ordaindu behar zaie derrigor neska nagusiei. Haiek, ordea, musu-truk hartzen didate panpina, Jesus umearna egiteko.

Amak azaldu dit gizabidezkoa dela oihala erosten duenari zentimetro batzuk debalde ematea, baita musuzapia edo galtzerdiak oparitzea gastu handia egiten duenari. Dendako gauzetatik gehien gustatzen zaidana mantelinak dira. Emakumeek mantelina beltzak jantzen dituzte domeketan, mezarako. *Behin batean abadeak ez zion Gure Jauna eman fulanitari ezpainak pintatuta zituelako*. Gurean trapu zuriak ere saltzen dira, kotoizkoak. Halako trapuak etxean ere ikusten ditut noizbehinka, lixiba-uretan beratzen. Oraindik ez dakit zertarako diren. Hilekoa estreinakoz etorri zait. Amak halako trapu pare bat eta konpresa pakete bat eman dizkit. *Hobe hauek erabili, erabili eta bota*.

Mutilek hankak kentzen dizkiete karramarroei. Mutilek arratoiak ehizatzen dituzte txinberek. Mutilek sutara jaurtitzen dituzte barraskiloak bizirik. Mutilek petardoak sartzen dizkiete ipurtzuloan katakumeei. Mutilek koko-harrak zanpatzen dituzte harriekin. Mutilek labanaz mozten diete buztana sugandilei. Mutilek tiragomarekin akabatzen dituzte plazako usoak.

Udaberriko arratsaldea. Ama galtzeta-orratzekin eta amabitxi liburu bati orri-pasaka. Etxe dotore baten kontra dagoen petrilean jesarri gara, hondartza gainean. Etxearen izena eta urtea irakurri ditut, astiro. Landare gorrixka bati hostoak kendu eta zabal-zabal paratu ditut, oihalkiak mostradorean bezala. Gero zuloak egiten hasi natzaie galtzorrazt batekin. *Kontuz, umea. Aitabitxik umetan halako batekin olgetan begitik sartu eta...* Hos-toan bordatu nahi dut, grabatu, idatzi. Eguzkiaren islak platanotan.

Aitaren lagun batek loroa ekarri digu Venezuelatik. Atzeko balkoian egoten da. Kantatzen diodanean, ekilibrioak egiten ditu kaiolan. Hasieran patata-azalak jaten zituen; geroago, pipak eta barkilloak. Aitabitxik garbitzen du kaiola goizero. Aske uzten duenean txoria ezkaratzean, pauso baldarrak egiten ditu ez duelako indarrik hanketan preso egoteagatik. Loroaren egunak errepika antzua izango dira beti. Ni zenbat eta gehiago hazi, gero eta kasu gutxiago egiten diot. Oraindik ez dakit hogeitaka urte geroago, gurasoen etxera bisitan joango naizela eta loroa falta izango dela. Aitak esango duela baserria daukan albaitari bati oparitu diola. *Ez da animaliarik komeni jaioberriak dauden tokietan.* Oraindik ez dakit umeak sabelean zirkin egingo zidala. Ez nuen bertsio hura irentsi: sarritan irudikatu dut loroa kokota bihurtuta aitaren eskutzarren artean.

Eskolatik heltzen naizenean, amabitxiren ondoan etzaten naiz. Arnasaren zaratotsak artega jartzen nau. Merienda jaten dudan artean santuen bizitzak irakurtzen dizkit liburu batetik. Hormako papereko lore zuriak elurretan flotean dabilzala begitandu zait. Amabitxiren berbak ere malutak dira. Tenderia 23, geure etxea. *Ekarri bitxiontzia.* Urrezko belarritakoak, kristalezko arrosarioa, domina bat idazkun batekin: *octubre, fidelidad.* Amabitxiren urte-eguna urriaren 4an da. *Frantzisko Asiskoaren eguna. Haren aitak oihalak saltzen zituen, geuk legez.* Erastun bat atera du kutxatila batetik, ametista landu bat. Atzamarrean sartu dit. *Zeuk gordeko duzu hau ni zerura joan nadinean.* Morea nire umezaroaren kolorea bihurtu da.

Zinera joan naiz lagunekin. *Bizitzaren zuhaitza.* Elizabeth Taylorrek, burutik eginda, su eman dio familiaren etxeari. Pelikularen laburpena

kontatzen ari natzaie etxekoei afalorduan, zelan andrakileta bat agertzen zen, aurpegia erreta. Amumari zirrara eragin dio horrek. Eskua ezpaine-tan ipinita mintzatu da, ohi duen legez, akaso berben etorria eragozteko. *Gure ahizpa ere erre egin zen. Besteok amarekin geunden soloan, eta txikia utzi zuen laratzaren kargu. Gonak su hartu zion. Baten batek ikusi ei zuen baserritik sutan irteten koittadua, eta putzu batera sakatu zuen, amatatzeko. Lehenengo erre egin zen, eta gero egosi.* Benetako istorioak ere zinea direla ohartu naiz. Segituan, tiak gogora ekarri du gaztetako pasadizo bat. *Harako soloan andrako bat agertu zen arto artean, bertako alaba umedun geratu zelako solteratan. Lotsatuta, Bilbora alde egin zuen, lauletrako.* Nire buruak lau letra horien arteko konbinazioak egin arren, ez du asmatu *puta* sinominoa.

Kontuz bizikletan garbosoegi ibili eta emamintza apurto barik. Kontuz koadernoak galdu eta baten batek barruan pentsamenduren bat aurkitu barik. Kontuz lehenbiziko musua eman barik bere baitan eternitatearen ADN*a* ez badauka. Kontuz non egiten duzun igeri, olagarroak eta marmokak eta aingirak ez dira ikusten eta. Kontuz otsoarekin eta haren forma ugariekin: marihuanarekin, mutil askojakinekin, txanpon makinekin. Kontuz hegan goregi egin eta hegalak urtu barik. Kontuz legenarra atrapatu barik, Ben Hurren arrebak bezala. Kontuz txoriek ogi-papurrak jan eta itzulerako bidea topatu ezinik geratu barik.

Aste Santuan pasoak ateratzen dituzte biltegitik. Handienetako bat Azken Afaria da. Etxean ere badugu alpazko kopia bat sofa gainean. Aititak apostoluak seinalatu dizkit, Pedro, Santiago, Bartolome, nor zein den aliritzira esanda, seguruenik. Busto polikromatu horiek bereizteko, bataren kaskarreko ile-xerlo xebleari, bestearen begi txilotuei eta halako zertzeladei erreparatzen diet. Hamahiru irudien artean, ez dago bi nahasterik: bata, mahaiburukoa, eta bestea, itsusiena. *Hori Judas da, katanarrua eskuan daukana.* Arraroa gertatu zait hitz hori, plastikoa indarra harturik dagoen 60ko hamarkadan. Askoz geroago hiztegi batean irakurriko dut norbait aberasten zenean “katanarrua egin duela” esaten zela; edo dirudunari “katanarru onekoa” deitzen zitzaiola. Katanarru ona, poltsa betetzeko modua ondradua izan den ala ez alde batera utzita.

Amuma berba gutxikoa da. Ipuin bi bakarrik dakizki: Peru eta Mariarena, tartean lapurrak eta gatza; eta azeriak otsoari tranpa egiten dienekoa, putzuko ura edanaraziz bertan islaturiko iletargia talo zuria dela eta. Amumak ahotsa hanpatzen du kontakizunaren amaieran, azeriak otsoari popatik kortxoak kentzen dion unean. *Handik atera zen uraren urak gari guztiak hondatu zituen.* Ez dakit zer den garia. Alabaina, amumaren

ahotik uholdea ikusten dut Lumentza mendi-maldan behera, aiteitaren ortu gainetik pasatu eta hango piku-ARBOLA eta porru eta tipulak jo eta lokatz artean alferrik galtzen.

Uren deposituaren gainaldea laua eta belartsua da. Behealdean, herriak teilazko buruak erakusten dizkio mendiari. Depositutik ondo ikusten da gure balkoia: loroaren kaiola, amuma arropak zabaltzen eta tia zapatei lustrea ematen. Leiho-tapen bestaldean ez dago amabitxi engoitik. Amak eta lagunek sutzarra piztu dute. Andreak eta umeak biribilketan gabiltza, musika barik, San Joan suaren inguruan. Ez dago gizonik. Suaren gainetik salto egin nahia izateak ikaratu egiten nau.

Aitabitxi paperak pilatzen ari da salako mahaian. Ama erregistroan dabil bere gelako tiraderetan. Ondoren, paper guztiak hartu eta ezkaratzeko txapan erre dituzte. *Badaezpada, euskarazko gauzak dira eta*. Salako gortinen artean disimulaturik, ikurrina bat eta ezpata-dantzariak pintaturik dauzkan frontoiko pala bat daukagu. Hori ere ezkutatu dute. Bart aldaba jo dute. Aitabitxik zabaldu dio atea Guardia Zibilari. Mutil baten bila etorri dira, okerreko etxera. Aitabitxik egunak eman ditu burumakur. Lagunekin txangoan joango da eta zilarrezko eskumuturrekoa ekarriko dit Miarrizetik, katebegi bakoitza armarri bat. *Zazpiak bat*.

Logela kaskar batean lo egiten dut tiarekin, ohe bakarrean biok, amumaren ahizparekin. Ohazalak lore gorriak ditu. Oso antzeko oihalez jantziko ditut handitan neure etxeko armairu kristaldunak. Gure gelako leihoak patio mehar batera jotzen du. Tiak argia itzaltzen duenean, haren gorputzaren kontra estutzen naiz. Tunel baten barruan kanela arnastea. Goizetan sagarra ekartzen dit ohera. *Ez jagi oraindik, lupua baino hotzago dago*. Ezkaratzean zaratak. *Sekretu bat esan behar dizut, tia. Ez dut nahi zapatua heltzerik*. Zapatuetan nire neba etortzen da eta ozpina edanarazten dit gela ilunean. Tiak barre-algara egin du. Ez du nire metafora ulertu.

San Antolin eguna, domeka goiza. Amuma eta tia elizarako atera dira baina meza entzun barik datoz, dardara batean. Guarda Zibilek kalea hartu dute osorik, baita atzeko zerkak ere. Aitak, estu, kontraleiho guztiak itxi ditu agudo. Amak partxisa atera eta gela batean ipini gaitu neba eta biok, argia itzalita. *Egon hementxe eta ez egin zaratarik*. Dunbotsa. Ti-roak. Setioak luze iraun du. Arratsaldean odola ikusi dut pertsianaren zirrikituetatik, atari baten aurrean, eta zuloak horman. Tenderia 36. Mutil bi hil dituzte. Xenki eta Murgiren argazkiak urtero ikusiko ditut herriko jaietan.

Arin-aringa goaz hondartzara. Ume mordoia dago Isuntzan bulto baten inguruan, mutiko bat haren gainera igota. Izurde batek hondarra jo du. Euliak dabilzkio mutur bueltan eta begietan. Azal berdexka dauka, orban grisak tarteka. Nekez hartzen du arnasa. *Ezetz ukitu*. Eskua pasatu diot bizkar partetik. Kiratsa geratu zait inkatuta. Eta izurdearen beginina neurean, gero eta gero bizitzan zehar hiltzen ikusiko ditudan etxe-koen agonian iltzatuko zaidan nini berbera.

**Idea Vilariño eta
Juana Fernandez Morales de Ibarbourou:
Uruguako bi poeta**

*Idea Vilariño and
Juana Fernandez Morales de Ibarbourou:
Two woman poets of Uruguay*

Ainara MAIA URROZ

(Uruguain maitasunez bete zen euskal olerkaria eta
olerki hautatu hauen itzulpen posible baten itzultzailea)

Liburua eskainiz

2014ko Montevideoko udaberrian horren maitakor eta abegikor hartu ninduen Leonat Egiazabali ene eskerrik amultsuena, bihotza zabaldu nion, eta Montevideoko karraketan eta liburu-dendetan beste mundu poetiko bat topatu nuen: Idea Vilariño. Leonatek Delmira Agostini poeta uruguaitarraren *Cálices vacíos* liburuxka oparitu zidan, eta nik 2015ean euskaratu nuen, eta Kaliza hutsak argitaratu zen 2016ko EGAN aldizkarian. Aurten Internet bidez Juana Fernandez poeta-ren poesia ezagutu dut, eta liluratu nau, baita bere bizitza tragikoak hunkitu ere.

LABURPENA

Maitasunari eta feminitateari buruzko poesia ezin ahaztuzkoak dira poetak maitaleari idatzitako gutunak edo otoitzak; maitasunezko ekintzaren durundahotsa eta horren ondoren samintasuna, egunerokotasuna eta emakumearen ahultzea eta aldi berean gizonaren gainetik dagoela adierazten dute euren hitzek. Hemen dago maitasun garbia, oinarrizkoa eta iraganera kondenatua baina hiri amerikarraren orain latza, tristurak eta arropa zikinak inguratzen duela. Maitasun-protestaren ondoren makurtua diskurtso umilean eguneroko hitzak erabiliz.

ABSTRACT

Poetry about love and feminity can not be forgotten, letters or prays written to the lover; The drowsiness of the action of love, and afterwards, their words express their perseverance, daily routine and weakness of women and at the same time of men. Here is pure love that is basic and it is condemned to the past, that the urban city now surrounds harshness, sadness and dirty clothes. Bending after love protest with everyday words in the humble discourse.

*Solo una cosa convierte en imposible un sueño:
el miedo a fracasar (P. Coelho)*

Idea Vilariño (Montevideo 1920-2009)

Uruguaiako poeta, saiakeragilea eta literatur kritikaria izan zen, eta 45eko Belaunaldia izeneko idazleen taldeko kidea zen. Itzultzailea, konposatzailea eta irakaslea ere bazen.

Idea Vilariñoaren bizitza eta poesia uztarri berean joan ziren, eta, Idearen poemak intimoak dira, intentsitate handikoak, oso koherenteak bere bizitzarekin; irakurterrazak, laburrak... grinaz beteak: heriotza, suizidioa, gaixotasuna, amodioa eta desamodioa. Rosario Peyroumek dioenez, azpimarratzekoa da Idearen poesiak transmititzen duen indar iluna; pasio handiko poemak dira Idearenak, azkar idatziak edozein paper txataletan, idazteko beharrari erantzunez une latz eta tragikoenetan sortuak. Idea Vilariñoaren poemak kontudenteak dira, trinkoak, ilunak, Idea bera bezalakoak, esperantzarik gabekoak, baina, era berean, bere poemen bidez esperantza ekarri zion Uruguaiako jende askori, batez ere gizarte aldaketa amets zuen jendeari.¹

Josu Jimenez Maia olerkariak 65. *Maiatz* aldizkarian (2018an) argitaratu ditu Idea Vilariñoaren bizitza eta obra, eta www.armiarma.eus webgunean irakur daiteke poeta uruguaitarraren poesia euskaraz: <http://ekarriak.armiarma.eus/zizkak/?idea026>. Honako olerki hauek nik euskaratu ditut, Uruguain 2014an maitemindu nintzelarik:

[1] <http://ekarriak.armiarma.eus/zizkak/?idea026>

ZERGATIK

Oraindik
 berriz ere
 itzuli den min zahar hori
 bihotza zartatzen didana
 bitan erdibitzen nauena
 saminez betetzen nauena
 zergatik
 gaur oraino.

1939-1944

BAKARRIK

Bakarrik erori eta erori ari den uraren azpian
 hotsak grisatzen dira, arratsa bukatzen,
 eta zerbaiten faltan edo zerbait nahiz nagoela
 sentitzen dut,
 beharbada irristan doan malko bat bat-batean
 eta erori egiten da.

Bakarrik erori eta erori ari den uraren azpian,
 bakarrik arratsaldeko gris ororen aitzinean,
 zerbaiten faltan edo zerbait nahiz nagoela
 pentsatzen,

beharbada arratsaren koloreko malko bat.

Bakarrik uraren azpian

bakarrik arratsaldeko argirik gabeko dolua

bakarrik munduaren gainean

bakarrik airean azpian.

Bakarrik,

bakarrik eta triste, arima guztietatik urrun samar den orotik,
 leun den orotik.

Isiltasuna, tristura, heriotza hurbilago
 arratsaldeko argirik gabeko malko tristean.

La broisha que homeja

**Juana Fernandez Morales de Ibarbourou
(Montevideo 1892-1979)**

*Hamaika emakume dituzu musukatuko, baina inork ez dizu emango nik ematen
dizudan ibaiaren eta oihanaren sentimena/ Besarás mil mujeres, mas ninguna /
te dará esta impresión de arroyo y selva / que yo te doy.*

XX. mende hasierako Hego Amerikako lirikaren ahotsik pertsonale-
netako baten gisa hartzen da poeta uruguaitar hau. Hogei urtekin Lucas
Ibarbourou kapitainarekin ezkondu zen, eta haren abizena hartu zuen
bere obra sinatzeko. Literaturaren sari nazionala jaso zuen 1959an. *Ameri-
kako Juana* ezizena bere lanagatik jaso zuen. Uruguaiako Akademiako par-
taide hautatu zuten 1947an.

Ez dago ezer osasuntsuagorik
ezer bizigarriagorik
egitasmoak sortzea baino.

Bestela, geldotasunaren herdoilak
eta etsipenaren garraztasunak
barrenak jaten eta usteltzen dizkizu.

Itxuraz, ez bururik ez hankarik
ez duen edozein egitasmo
hobea da
besoak antxumaturik
egotearen zorigaitza baino.

MIRARI GOXOA

Zer da hau? Harrigarria! Ene eskuak dira loratzen.
Arrosak, arrosak, arrosak ene hatzetan dira hazten.
Ene maitaleak eskuak musukatu zizkidan eta bertan
O dohaina! Arrosak izarrak bailiran sortu ziren.

Eta bidean xarma dut aldarrikatzen
Eta zorionez irribarrea eta negarra ditut txandakatzen,
Eta ene xarmatzearen mirariaren pean
Arrosez haizearen hegala dira lurrintzen.

Eta pasatzen naizelarik jendeak du xuxurlatzen:
“Ez al duzue emakume zoro hori ikusten?”
“Eraman ezazue bere etxera.”
“Eskuetan arrosak hazi zaizkiola du esaten
eta pinpilinpauxen gisa ditu astintzen”.

Horrelako mirari bat inoiz ez duten jendeaz naiz gupida egiten,
arrosak arrosadian soilik sortzen direla uste baitute
eta galsoroko garia bakarrik existitzen dela uste baitute!

Lerroak, koloreak eta formak behar dituzte,
eta errealitatea soilik arautzat onartzen dute.
Norberak esaten duelarik:
“Goxotasunez noa”, berehala nork esan duen begiratzen dute.

Dei diezadatela “Ero”
kartzelan sar nazatela bero
eta zazpi giltzez itxi atea gero
atean erbi-txakur bat jar dezatela
kartzelari gordin, kartzelari leial.

Gauza bera kantatuko dut:
“Ene eskuak dira loratzen.
Arrosak, arrosak, arrosak ene hatzetan dira hazten”.
Eta ene zelda osoa Frantziako arrosa-sorta itzel batez
lurrinduko da!

Nerbio krisia

F. Scott Fitzgerald

Itzultzailea: Javi CILLERO GOIRASTUENA

Nerbio krisia (The Crack-Up) *Esquire* aldizkarian argitaratu zen lehenengo aldiz hiru ataletan, 1936. urtean. F. Scott Fitzgeralden saiakera hauek gaurkotasuna gorde dute, adin ertaineko idazle baten krisiaren berri ematen duten aldetik. Nolanahi ere, lekukotasun horren atzean bestelako oihartzunak ere aditzen dira: AEBetako gizartearen krisialdia, munduan egokitzearen zailtasunak eta gizaki garaikidearen nahasmendua, besteak beste.

Itzultzailearen oharra: Esker anitz Karlos Cid Abasolori, itzulpena zuzentzeko nekea hartu duelako.

NERBIO KRISIA

1936ko otsaila

Zalantzarik gabe, bizitza guztia suntsipen prozesu bat da, baina lanaren alde dramatikoa egiten duten kolpeak, bat-batean kanpotik datozen kolpetzarrak edo itxuraz kanpotik datozenak, zeintzuk gogoan hartu, arazoen errua leporatu eta, makalaldian, lagunei kontatzen baitizkiegu, ez dira nabarmentzen aldi berean ondorio guztiekin. Badago beste kolpe mota bat: barrutik dator eta ez dugu nabaritzen harik eta berari buruz ezer egiteko beranduegi den arte; orduan, betiko konturatzen gara inoiz ez garela izango, alderdi batzuei dagokienez, lehen bezain gizaki onak. Suntsipen mota horietatik lehena, nonbait, arin gertatzen da; bigarrena ia ohartu gabe gertatzen da, baina bat-batean jabetzen gara hartaz, inondik ere.

Kontakizun labur honekin jarraitu baino lehen, utz iezadazue oharpen orokor bat egiten: goi mailako adimenaren froga honako hauxe da, alegia, aldi berean gogoan ideia kontrajarri bi edukita ere, funtzionatzeko gauza izatea. Esate baterako, gizakiok gai izan beharko genuke kontuak zalditik astora doazela ohartzeko eta, hala ere, gauzak aldatzeko gogoa izateko. Filosofia hau ondo egokitu zitzaidan helduaroaren hasieran, orduan ikusi bainuen nola gertatzen ziren gertagaitza, itxuraz gertagarri ez zena eta askotan “ezinezkoa” ere bai. Bizitza menderatzeko zerbait zen, baldin eta zerbaiterako balio bagenuen. Bizitzak amore ematen zuen errazki adimenaren eta esfortzuaren aurrean, edota bietatik eduki genezakeen apurraren aurrean. Kontu erromantikoa zirudien literatura gizon arrakastatsua izateak: idazlea ez zen inoiz izango zinemako izarra bezain famatua, baina adar luzeagoko ospea izan zezakeen; idazleak ez zuen inoiz izango sinesmen politiko edo erlijioso indartsuak dituen norbaiten boterea, baina zalantzarik gabe burujabeagoa izango zen. Jakina, lanbide horren jardueran betiere asegabe izango ginen, baina neuk, behintzat, ez nukeen beste ezer aukeratuko.

Mendearen hogeit hamar urteak igaro ahala, neure hogeit hamar urteak haiek baino aurreraxeago zebiltzala, gaztetan izan nituen nahigabe biak –unibertsitatean amerikar futboleko jokatzeko behar bezain handia (edo ona) ez izatea, eta gerra garaian itsasoaz harantzago bidalia ez izana– iratzarririk egiten diren haur-amets bilakatu ziren, irudizko heroitasunez beteak, bakterik gabeko gauetan lo egiteko aski onak. Itxuraz, bizitzaren arazo han-

diak berez konpontzen ziren, eta arazoak konpontzeko lana zaila bazen, nekatuegi egongo nintzen arazo orokorrakoak gogoan hartzeko.

Bizitza, orain dela hamar urte, kontu pertsonala zen batez ere. Hone-lako gauzak orekatu behar nituen: ahaleginak alferrikakoak zirela sentitzea eta borroka beharrezkoa zela sentitzea; ezinbesteko porrotean sinestea eta hala ere, “gauzak ondo egiteko” gogoia edukitzea, eta horiek baino gehiago, iraganaren eragin itogarriaren eta etorkizuneko asmo gorenaren arteko kontraesana. Hori egiteko gauza izanez gero, ohiko ezbeharrak gaindituz –etxeakoak, lanekoak eta pertsonalak– neure egoak aurrera egingo zuen geziaren antzera, ezerezetik ezerezera, halako indarrez, ezen azkenean grabitateak soilik lurreratuko baitzuen.

Horrela joan zitzaizkidan kontuak hamazazpi urtez, tartean pikorik jo gabe eta atsedena hartzen berariaz emandako urtebete eta guzti, zeregin berriak biharamuneko egitasmo atseginak baino ez zirela. Bizimodu gogorra egiten nuen, halaber, baina esaten nuen: “Berrogeita bederatzia arte, dena ondo joango da”. Ziur nago horretaz. Ni bezala bizi izan den gizon baten kasuan, ezin liteke besterik eskatu”.

Eta orduan, berrogeita bederlatzi urte baino hamar urte gutxiagorekin, bat-batean konturatu nintzen goizegi kraskaturik nengoela.

II

Horiek horrela, gizakia era askotara kraskatzen da: burua kraskatzen zaio, eta orduan beste batzuek kentzen diote erabakitzeko ahalmena; gorpuzta kraskatzen zaio, eta orduan ez dauka erietzeko mundu zuriaren mende jartzea beste erremediorik; edota nerbioak kraskatzen zaizkio. Liburu errukigabe batean, William Seabrookek kontatzen du, harrotasun pixka batez eta pelikula antzeko amaiera eta guzti, nola heldu zen herriarentzako zama izatera. Nerbio-sistemaren jausialdiak bultzatu zuen alkoholismora, edota behintzat, alkoholismoari lotuta zegoen kontua. Hemen idazten ari dena hain nahaspilatuta ez bazegoen ere –sei hilabetez geroztik garagardo bat ere hartu gabe egonik garai hartan–, nerbio-erreflexuak hondoratzen ari zitzaizkion: larregizko amorrazioa eta malko gehiegi.

Areago, bizitzak erasotzeko modu asko dituelako ene tesira berriz ere itzuliz, menia baten erdian (eta ez kolpe bat jasotzearekin batera) ohartu nintzen kraskaturik nengoela.

Apur bat lehenago, sendagile bikain baten kontsultan eserita egona nintzen epai larri bat entzuteko. Atzera begira orekatu samar dirudien jokaera hartuta, aurrera jarraitu nuen neure kontuekin orduan bizi nintzen hirian, alegia, gehiegi arduratu gabe, gehiegi pentsatu gabe zenbat kontu gelditu ziren amaitzeko, edota zer etorriko litzatekeen erantzukizun honetatik edo bestetik, liburuetakoa jendeak egiten duen moduan; aseguru ona neukan eta, nolana ere, ordura arte erdipurdi zaindu nituen neure eskuetan utzitako gauzarik gehienak, neure talentua barne.

Alabaina, bat-batean, biziki sentitu nuen bakarrik egon behar nuela. Ez nuen gogorik jende gehiago ikusteko. Jende pilo bat ikusita neukan neure bizialdian: jendekina nintzen, batez beste, baina batezbestekoaren gainetik nengoen beste ezaugarri bati zegokionez; izan ere, neure burua, neure ideiak eta neure patua era guztietako jendearekin identifikatzeko joera neukan. Beti ibiltzen nintzen norbait salbatzen edo norbaitek salbatua izaten: goiz bakar batean, Wellingtoni Waterloo atxiki zekizkiokeen zirrarak bizi ohi nituen. Ezin ulertuzko arerioez eta adiskide eta babesle leialez betetako mundu batean bizi nintzen.

Alabaina, garai hartan bakar-bakarrik egon nahi nuen eta, beraz, moldatu egin nintzen eguneroko kezketatik aparte egoteko.

Garai hura ez zen zoritxarrekoa izan. Alde egin nuenean, jende gutxiago zegoen. Konturatu nintzen neka-neka eginda nengoela. Hor nonbait etzaten nintzen eta gustura, gainera, egun batzuetan hogeitau ordu ematen bainituen lotan edo erdi lo, tarteetan neureak eta bi eginez ez pentsatzeko; horren ordez, zerrendak egiten nituen, zerrendak egin eta txikitu, ehunka zerrenda egin ere: zalduneriako buruzagiak, amerikar futboleko jokalariek eta hiriak, kanta ezagunak eta beisboleko jaurtitzailak, sasoi alaiak, zaletasunak eta bizi izandako etxeak, eta zenbat traje jantzi nituen armadatik itzuli eta gero, eta zenbat zapata pare (ez nuen kontatu Sorrenton erosi eta gero txikiegi geratu zitzaidan trajea, ezta ere hainbat urtetan neurekin eramanez eta inoiz erabili ez nituen larru beltzeko oinetakoak eta trajearekin janzteko alkandora eta lepokoa, zeren oinetakoak lizundu eta nabarturik gelditu baitziren eta alkandora eta lepokoa beilegitu eta usteldu baitziren almidoiaren eraginez). Baita atsegin nituen emakumeen zerrendak ere, eta ez izaeraz ez iaioitasunez ni baino hobea ez zen jendeak gutxietsia izan nintzeneko aldien zerrendak.

—Eta orduan, ez bat ez bi, ustekabea, hobera egin nuen.

—Eta plater zahar baten antzera pitzatu ere bai, albisteak entzun bezain laster.

Hauxe da istorio honen benetako amaiera. Zer egin behar zen horretaz-eta “denboraren umontzia” deitu ohi zen lekuan gelditu beharko da. Aski da esatea ordubetez neure bakardadean burukoa estutzen ibili ondoren, ohartzen hasi nintzela ezen neure bizitzaren azken bi urteetan neure baitan ez nituen baliabideak erabiltzen ibili nintzela, eta bai gorputzez bai arimaz neure burua leporaino hipotekatzen ibili nintzela. Horiek horrela, zer eman zitzaion horren truke bizitzaren oparitxoari? Garai batean harro nengoen bide zuzena hartzeaz eta uste osoa neukan independentzia iraunkorra lortua nuela.

Konturatu nintzen ezen bi urte haietan, zeozer gordetzekotan –agian barruko baretasuna, agian ez– maite ohi nituen gauza guztietatik bereizita neukala neure burua, hau da, nekagarri bihurtu zitzaizkidala bizitzaren ekinaldi guztiak, goizeko hortz garbiketarik hasi eta gaueko afaltiarreenganaino. Ohartu nintzen aldi luze handi batean ez zitzaizkidala ez jendea ez gauzak atsegin, baina atsegin zitzaizkidalako itxura zahar eta badaezpadakoa egiten nuela, besterik gabe. Ohartu nintzen neure hurkoenenganako maitasuna ere maitatzeko ahalegin bihurtua zela, editorearekin, tabako saltzailearekin, adiskide baten semearekin nituen harreman informalak beste garai batzuetatik gogoratzen nituen egin *beharrekoak* baizik ez zirela. Hilabete berean sumindu egiten nintzen hainbat kontu zirela eta, hala nola, irratia ren soinua, aldizkarietako iragarkiak, trenbideko karranka, zelaietako isiltasun motela –gutxietsi egiten nuen giza leuntasuna, baina prest nengoen berehala gogortasunaren aurka borrokan hasteko (isilean bazen ere)– gaua gorrotatuz lorik egin ezin nuen eta eguna gorrotatuz gauera egiten zuelako. Harrezkero, bihotzaren aldean egiten nuen lo, zeren bai bainekien zenbat eta bihotza lehenago nekatu, apurtxo bat besterik ez bazen ere, orduan eta lehenago etorriko zela amesgaiztoaren ordu bedeinkatu hura, katarsi gisa, eta berari esker izango nintzela hurrengo egunari aurre egiteko gauza.

Banituen leku batzuk, aurpegi batzuk, begiratzeko modukoak. Mendebalde Ertaineko jenderik gehienak bezala, behin ere ez dut izan arrazakeria arrasto nabarmenik; beti izan dut isilpeko joera bat St. Pauleko portxeetan esertzen ziren eskandinaviar ilehori maitagarrien aldera, orduko goi gizartearen parte izateko behar beste ahalbide ekonomikorik ez bazuten ere. Ederregiak ziren neska katxarroak izateko eta baserria goizegi utzia zuten eguzkipean lekuren bat bilatzeko, baina gogoan dut nola ibiltzen nintzen etxaldean inguruan ilehori distiratsuaren begirakune bakar bat harrapatzeko, inoiz ezagutuko ez nuen neska baten ile-xerlo dirdaitsua. Hiriko esamesa hauek ez dira batere atseginak. Ez daukate

zerikusirik hurrengo kontuarekin: egun haietan ezin ikusizkoak nituen zeltak, ingelesak, politikariak, arrotzak, virginiarrak, beltzak (argi zein ilun), ehiztariak, edota saltzaileak, eta bitartekariak oro har, idazle guztiak (kontu handiz saihesten nituen idazleak, arazoak etengabe luzatzen baitituzte beste inork ez bezala) eta klase guztiak, klase ziren aldetik, eta pertsona gehienak, klase bateko kideak ziren aldetik...

Zerbaiti heltzeko ahaleginetan, atsegin nituen sendagileak, bai eta hamahiru urte bitarteko neskatxak eta zortzi urte ingurutik gorako mutiko ondo heziak. Bakea eta zoriontasuna eduki nitzakeen mota apur haue-tako jendearekin. Ahaztu zait gaineratzea agureak ere gogoko nituela, hirurogeita hamar urtetik gorako gizonak, batzuetan hirurogei urtetik gorakoak ere bai, baldin eta haien aurpegiak sasoiaren baziruditen. Atsegin nuen Katherine Hepburnen aurpegia pantailan ikustea, leporatzen zioten handigura gorabehera, eta Miriam Hopkinsen aurpegia, eta adiskide zaharrak ere bai, baldin eta urtean behin soilik ikusten banituen eta haien mamuak gogoratzeko gauza banintzen.

Hau guzti hau gizagabea eta erkina da, ezta? Bada, gazteok, horixe da nerbio krisiaren ezaugarri benetakoa.

Ez da irudi polita. Ezinbestean, han-hor-hemen eraman nuen bere markoaren barruan eta zenbait kritikariri erakutsi nien. Modu bakarra dago kritikari haietariko bat deskribatzeko: beste jendearen bizitzak heriotza dirudi haren bizitzaren aldean, baita aldi hartan ere, batere erakar-garri suertatzen ez den Joben kontsolatzailearen rola egokitu zitzaiola. Istorio hau amaituta dagoen arren, utz iezadazue hona ekartzen geure elkarrizketa, posteskriptum gisa edo:

—Zeure buruaz hainbeste errukitu beharrean, entzun –esan zuen emakume hark.

(Emakume horrek beti esaten du “entzun”, zeren hitz egiten duen bitartean, pentsatzen baitu, *benetan* pentsatu.)

Beraz, honela esan zidan:

—Entzun. Demagun zu ez zarela kraskatu. Demagun Arroila Handia kraskatu dela.

—Ni neu kraskatu naiz –esan nuen heroikoki.

—Entzun! Mundua zeure begietan baino ez dago, horrela antzematen duzu mundua. Nahi duzun bezain handia edo txikia egin dezakezu. Eta zu ahaleginak egiten ari zara gizaki ñimiño bat izateko. Jainkoarren, inoiz kraskatuko banintz, mundua neurekin batera kraska dadila saiaturiko nin-

tzateke. Entzun! Mundua mundu da zeuk hala hautematen duzulako, besterik gabe; hortaz, askoz hobe da esatea ez zarela zu kraskatu, Arroila Handia baizik.

—Spinoza osoa jan du umetxoak?

—Ez dakit ezer Spinozari buruz. Badakit...

Orduan, bere aspaldiko kezkei buruz hitz egin zuen. Kontatzeko moduagatik, mingarriagoak ziren, itxuraz, neureak baino. Eta kontatu zuen nola eman zien aurpegi, nola zanpatu zituen, nola menderatu zituen.

Nolabait aurka egin nahi nien emakumearen esanei, baina geldi samarra naiz eta aldi berean bururatu zitzaidan bizitasuna dela indar natural guztietarik komunigaitzena. Bizigaia zergarik gabeko produktua balitz bezala zetorkidan garaian, ahaleginak egiten nituen ondo banatzeko, baina inoiz lortu gabe; beste metafora bat hona ekartzera, bizitasuna inoiz ez da “itsasten”. Badaukagu ala ez daukagu, osasuna, begi arreak, ohorea edota baritono ahotsa dauzkagun bezala. Apur bat eska niezaiokeen emakume hari, txukun bildua, etxean prestatu eta digeritzeko prest, baina behin ere ez nuen lortuko, buruerrukiaren latorrizko kikara eskuan mila orduz itxaroten egonda ere. Emakumearen etxetik irtetea neukan, neure buruari kontu handiz eutsiz, ontziteria pitzatuaren antzera, eta garraztasunezko munduan sartu, non etxe bat egiten ari bainintzen, halako lekuan aurkitzen diren materialak erabiliz, eta gogora ekar neza-keen honako aipua etxea utzi eta gero:

“Zuek zarete lurreko gatza. Baldin gezatzera heldu balitz gatza, zertaz hura gazi?”

Mateo, 5-13.

PUXKAK LEKEDATU

1936ko martxo

Lehengo artikulu batean idazle honek kontatzen zuen nola ohartu zen aurrean zeukana ez zela bere berrogei urteetarako eskatua zuen platera. Areago, idazlea eta platera bat zirenez gero, plater pitzatu baten antzera deskribatu zuen bere burua, gordetzea merezi ote duen zalantza sortzen duen platera. Zuen zuzendariaren ustez, artikuluak alderdi gehiegi iradokitzen zituen muinera jo gabe, eta beharbada irakurle askok berdin pentsatu zuten; bestalde, hortxe dago beti jende hori, zeinak buru-aitorpen oro gutxiesten baitu, baldin eta jainkoei emandako esker onarekin amaitzen ez bada Arima Konkistaezinagatik.

Alabaina, nik luze eta sobera eman nizkien eskerrak jainkoei, alferri-kako eskerrak eman ere. Nire aieneak idatziz ipini nahi nituen, kontakizuna koloreztatzeko Mendi Eugandarrik¹ eduki gabe ere atzealdean. Ez zen inongo Mendi Eugandarrik ageri begi bistan.

Batzuetan, hala ere, plater pitzatua janaritegian atxiki behar da, erabili egin behar da etxeko beharren gisara. Ezin da berriro sutegian berotu, ezta beste platerekin batera harraskan nahasi ere; ez dugu aterako gonbidatuak daudenean, baina nahikoa izango da gau beranduan gailetak ipintzeko edota hondakinak gainean dituela izozkailuan sartzeko...

Beraz, hona hemen jarraipena, plater pitzatu baten gainerako historia.

Jakina denez, ohiko sendagaia eroria dabilen batentzat hauxe da: benetan erromesturik edo sufrimendu fisikoa pairatzen dabiltzanak kontuan hartzea; ereti guztietarako zorionbidea da, oro har, malenkoniaren aurka eta eguneko aholku aski osasungarria edonorentzat. Alabaina, goizeko hiruretan fardel ahaztu batek heriotza epaiak adinako garrantzi tragikoa dauka, eta sendagaiak ez du balio; eta arimaren benetako gau beltzean goizeko hirurak dira beti, egunetik egunera. Halako orduan arazoak saihesteko joera dago ahalik eta denbora luzeenean, haur amets batera atzera eginez, baina munduarekin ditugun harremanek etengabe ateratzen gaituzte ametsetik. Ahal bezain arin eta antsikabe egiten dugu

[1] Eugandarrik: Galiako herri bat, egungo Italiako iparraldean, Paduako mendebaldean eta Adriatikoko itsasoaren ondoan kokatua. V. mendean Erromak atxiki zuen. Eugandarrik mendira joan ziren ihesi, inguruko mendiei izena emanaz. (Itzultzailearen oharra).

topo halako egoerekin, berriz ere ametsera itzultzeko, arazoak berez konponduko direlakoan ikaragarritzko oparotasun material edo espiritua-la dela medio. Alabaina, erretiran ibili ahala, gero eta aukera gutxiago dago oparotasun hori ager dadin: honezkero, ez gaude itxaroten ea nahi-gabe bakar bat aienatzen den; aukeran, hilarazte baten lekuko uzkurak gara, geure nortasunaren desintegrazioa...

Erotasunez, drogaz edota edariz hornitzen ez bada, azkenean aldi hori kale itxi batean amaitzen da, eta horren ostean, isilaldi huts bat dator. Orduan, saia gaitzke kalkulatzan zer inausi den eta zer geratu den. Isilaldi hori etorri zitzaidanean, ez lehenago, konturatu nintzen horren antzeko bi esperientzia bizi izan nituela aspaldian ere.

Lehenengoa orain dela hogeitau urte gertatu zen, Princeton Unibertsitatea azken aurreko ikasturtean utzi nuenean, malaria diagnostikatu baitzidaten. Gero jakin zuten, dozena bat urte geroago egin zidaten X-iz-pien azterketa baten bidez, tuberkulosia izan zela, kasu arin bat, eta zenbait hilabetez atsedean hartu ondoren unibertsitateera itzuli nintzen. Baina ordurako kargu batzuk galduak nituen, garrantzitsuena Triangle elkar-teko lehendakaritza, musika-komedia baterako egitasmo bat eta, gainera, bertan behera utzi nuen klase bat. Neuretzat, unibertsitatea ez zen berri-ro gauza bera izango. Azken batean, ez nuen harrotasunezko intsigniarik jasoko, ez eta inolako dominarik ere. Martxoko arratsalde batean bazirudien galduta neukala nahi nuen guzti-guztia, eta gau hartan lehenengoz ibili nintzen emetasunaren espektroa harrapatu nahian, zeinak aldi labur batez munta gutxiko bihurtzen baititu beste gauza guztiak.

Zenbait urte pasata, konturatu nintzen ondo zegoela unibertsitateko handi-mandi bat ez izatea: batzordeetan parte hartu beharrean, jipoi ederra eman zidaten ingelesezko poesian; hura guztia zertaz zihoan ikasi nuenean, idazten ikasteari ekin nion. Shawen oinarria kontuan hartzen badugu, esan nahi baita, “atsegin duguna lortzen ez badugu, hobe dugu lortu duguna atsegin izatea”, zorioneko irtenbide bat izan zen; garai hartan, ordea, kontu latz eta mingotsa egin zitzaidan jakitea amaituta neukala gizonen buruzagia izateko karrera.

Harrezkero, ez naiz kapaz izan zerbitzari kaxkar bat kanporatzeko, eta zor eta lor nago hori egin dezakeen jendearen aurrean. Inoren gainetik nagusitzeko irrika zahar bat suntsituta eta aienaturik zegoen. Ene inguruko bizitza amets hotsandiko bat zen, eta beste herri batean bizi zen neska bati idazten nizkion eskutitzetatik bizi nintzen. Inor ez da osatzen astindu horien ondoren: lehenago beste pertsona bat bilakatu da

eta, azkenean, pertsona berri horrek beste kontu batzuk aurkituko ditu haietaz arduratzeko.

Bizi dudan egoeraren antzeko beste jazoera gerra ondoan gertatu zen, berriz ere neure indarren muga gehiegi zabaldu nuenean. Diru ezak hondatutako maitasun horietako bat zen, eta egun batean neskak amaitutzat eman zuen zentzu onean fidatuz. Etsipenezko uda luze batean, nobela bat idatzi nuen eskutitzen ordez, eta honenbestez, kontua ondo irten zen, baina ondo irten zen beste arrazoi batengatik. Urtebetegarrenean neskarekin ezkondu zen gizonak, zeinak patrikan diru hotsa baitzeukan, beti gordeko zuen bere baitan bizi guztiko mesfidantza, halako ezinikusia, edukitsuen klasearekin; ez iraultzailearen sineste sendoa, bai-zik eta nekazariaren gorroto bizia. Handik honako urteetan ezinbestean ibili izan naiz neure buruari galdezka nondik zetorren neure adiskideen dirua, eta, era berean, gogoan neukan nola garai batean lehen gaueko eskubideaz baliatzeko aukera egon zitekeen neure neska haietariko bati emateko.

Hamasei urtez, oroz gain, azken pertsona hau bezala bizi izan nintzen, aberatsen mesfidantzan, baina lan eginez dirua lortzeko, aberatsen mugikortasunean eta haietariko batzuek beren bizitzara zekarten grazian parte hartu nahian. Garai hartan erabili ohi nituen zaldi pilo bat lurreratu zizkidaten; gogoan ditut zaldien izen batzuk: *Harrotasun Eroria*, *Itxaropen Ustela*, *Sinesgabea*, *Harroxko*, *Kolpe Latza*, *Inoiz ez Berriro*. Eta aldi baten ondoren, ez nituen hogeita bost urte, eta gero ezta hogeita hamabost ere, eta ezer ez zen lehen bezain ona. Baina urte guztiotan ez dut gogoratzen etsipenezko une bakar bat ere. Beren buruaz beste egiteko gogo ilunak hartutako gizon zintzoak ikusi nituen: haietariko batzuk etsia hartu eta hil egin ziren; beste batzuek beren burua egokitu eta nirea baino arrakasta handiagoa lortu zuten; baina ene morala behin ere ez zen buruhiguinaren azpian murgildu, neure moduko erakustaldi itsusi bat antzeztu nuenean. Atsekabea ez dago halabeharrez lotuta etsipenari; etsipenak bere gisako jatorria dauka, zeina oso bestelakoa baita atsekabearen aldean, hala nola, artritisa artikulazio zurrun baten aldean ezberdina baita.

Joan den udaberrian zero berri batek eguzkia urratu zuenean, hasieran ez nion kontua egotzi duela hamabost edo hogeitaz urte lehenago gertatutakoari. Poliki-poliki baizik ez zen etorri halako antzekotasuna: indarrak barreiatuegi edukitzea, kandela albo bietatik erretzen egotea; menderatzen ez nituen baliabide fisikoak erabiltzea, bankutik diru gehiegi

ateratzen dabilen gizonaren antzera. Kolpe horren zarrasta bortitzagoa izan zen beste bienak baino, baina modu berekoa: iruditu zitzaidan ilunabarrean eremu batean nengoela, balarik gabeko erriflea eskuetan, eta ituak lurrean. Ez zegoen problema multzo bat, isiltasuna besterik ez, neure arnas hotsa soilik aditzen zela.

Isiltasun hartan eginbide guztiak erabat utzita neuzkan erantzukizunik hartu gabe, neure balio guztiak hustuta zeuden. Ordenuari lotutako sinesmen sutsua, arrazoiak eta ondorioak kontuan ez hartzea igarpen eta profezien ederragatik, iaiotasunak eta lanak edozein mundutan lekurik izan beharko luketelako sentipena... banan-banan, hauek eta beste sinesmen batzuk ezabatu egin zitzaizkidan. Ikusi nuen nola eleberria, zeina neure heldutasunean gizaki batetik bestera gogoeta nahiz hunkipena helarazteko biderik indartsuena eta malguena baitzen, arte mekaniko eta komunal baten menera zetorren, zeinak gogoetarik arruntenak eta zirrararik nabarmenenak baino ez baitzituen islatzen Hollywoodeko merkatarien nahiz errusiar idealisten eskuetan. Arte mota hartan hitzak irudien mende zeuden, nortasuna higatu egiten zen ezinbesteko lankidetzaren martxa geldoan amaitzeko. 1930. urterako, bihozkada izan nuen film soinu-dunek film mutuak bezain arkaiko bihurtuko zutela gehien saltzen zuen nobelagilea ere. Jendeak artean irakurtzen zuen, Canby² irakaslearen hileko liburua besterik ez bazen –hantxe ziren ume jakinguratsuak Tiffany Thayerren³ lan lirdingatsuei buruz sudurra luzatuz botika-dendetako liburu sailetan– baina irain narritagarri bat sentitzen nuen, ia obsesio bihurtu zitzaidana, hitz idatziaren boterea beste botere baten mende ikustean, botere hori distiratsuagoa, handiagoa izaki...

Idatzi dut hori gau luzean zehar gatibatzen ninduenaren adibide bat emateko; ezin nuen onartu ez bere aurka borrokatu ere, ahaleginak zaharkitzen baitzizkidan, hala nola supermerkatuek dendari txikia ezgauza utzi baitute, kanpoko indar bat, menderaezina.

(Klasea ematen ari naizela iruditzen zait, aurreko idazmahaiian dagoen erlojuari begira zenbat minutu gehiago gelditzen zaizkidan ikusteko...)

Bada, isilaldi honetara iritsi nintzenez, inork ere gogoz hartzen ez duen erabaki bat hartu behar izan nuen: pentsatzera behartuta nengoen.

[2] Henry Seidel Canby (1878-1961). Editore eta idazle estatubatuarra. *Saturday Review of Literature* aldizkari ospetsuaren sortzaileetarikoa bat. (Itzultzailearen oharra).

[3] T. E. Thayer (1902-1959) idazle estatubatuarra. Lanak: *An American Girl, Little Dog Lost, Rabelais for Boys and Girls...* (Itzultzailearen oharra).

Ene Jainkoa, ez zen erraza gero! Kutxa handi eta ezkutuak harat-honat eraman behar. Lehen atsedaldia hartuta, leher eginda, neure buruari galdetu nion ea inoiz ere pentsatua nuen. Luze bai luze jo ondoren, ondorio hauetara heldu nintzen, hemen idatzi ditudanez:

- 1) Gogoeta gutxi egina nuela, ene lanaren arazoei buruz izan ezik. Hogei urtez gizon jakin bat izan zen ene kontzientzia intelektuala. Gizon hori Edmund Wilson⁴ da.
- 2) Beste gizon batek ordezkatzeko zuela ene “bizitza onaren” zentzua, hamarkada batean behin bakarrik ikusi banuen ere, eta harrezkero urkatuta eta guzti egon zitekeen. Larruaren negozioan dabil Ipar-Mendebaldean eta ez luke atsegin izango bere izena hemen idatzia ikustea. Hala ere, egoera zailtan beti saiaturen nintzen gogoan hartzen zer egingo zukeen *berak*, nola jokatu zukeen *berak*.
- 3) Hirugarren garaikide bat ene kontzientzia artistikoa izan zela: nik ez dut imitatu haren estilo kutsakorra, zeren gaur daukadan estiloa *berak* ezer argitaratu baino lehenago taxutu bainuen, baina berarenganako joera nabarmena neukan kili-kolo nenbilenean.
- 4) Laugarren gizon batek beste jende batekiko harremanak zuzentzen zizkidala, harreman horiek onak izango baziren: nola jokatu, zer esan. Zer egin, jendea, une batez behintzat, pozik egon dadin (Post⁵ andrearen teoriari kontra eginez, hau da, zer egin denak guztiz ezeroso egon daitezkeen arrunckeriaren arrunckeriaz). Horrek beti nahasten ninduen, eta kanpora joan eta mozkortzeko gogoia ematen zidan, baina gizon horrek ikusita zeukan nola zebiltzan kontuak, aztertuta eta menderatuta zeukan dena, eta bere hitza baliagarria zen niretzat.
- 5) Ene kontzientzia politikoa ia ez zela inon ageri azken hamar urteetan, idazketaren elementu ironiko gisa ez bazen. Mendean hartzen ninduen sistemaz berriz kezkatzen hasi nintzenean, beste gizon batek, ni baino askoz ere gazteagoak, ekarri zidan kezka hori, grina eta aire freskoa bitarteko.

[4] Estatu Batuetako literatura kritikari ospetsua. (Itzultzailearen oharra).

[5] Emily Post (1873-1960) idazle estatubatuarra, oso ezaguna *Etiquette in society* liburua idatzi zuenetik. (Itzultzailearen oharra).

Beraz, jadanik ez zegoen “ni” bat –ez eta neure buruarekiko begirunea antolatzeke oinarriren bat– lan egiteko neukan gaitasun mugaezina izan ezik, eta hori, nonbait, galdua neukan. Bitxia zen nortasunik ez edukitzea, etxetzar batean bakar-bakarrik utzitako mutiko bat bezala izatea, zeina bai baitzekien zernahi egin zezakeela, baina konturatu zen ez zegoela ezer egin nahi zuenik...

(Erlojuak ordua jo du eta oraindik neure tesia ukitu barik daukat. Zalantzan nago ea kontu hauek askorentzat jakingarriak ote diren, baina inork gehiago nahi izanez gero, makina bat dago kontatzeko, eta zuen zuzendariak esango dit. Nahikoa izan baduzue, hala adierazi, baina ez ozenegi, zeren irudipena baitaukat norbait, ez nago ziur nor, lo seko dagoela: denda irekita edukitzen lagun ziezadakeen norbait. Ez zen Lenin, ezta Jainkoa ere.)

KONTUZ ERABILI

1936ko apirila

Orrialde hauetan aipatu dut nola balio guztiak kraskatu zitzaizkion oso baikorra zen gizon gazte bati, halako moduan, ezen apenas konturatu baitzen hura gertatu zenetik denbora luzera arte. Aipatu ditut ondorengo hondamenaren aldia eta aurrera egiteko beharra, baina Henleyen⁶ heroi familiarren abantailarik gabe, “burua odoletan daukat, baina tente”. Zeren ene eginbehar espiritualen azterketa baten ondoren, argi gelditu baitzen ez neukala ezelango bururik tente edukitzeko edo ez. Behin bihotza izan nuen, baina huraxe zen ziurtzat neukan gauza bakarra.

Hori, behintzat, abiapuntutzat neukan balantzaka nenbilen ataka larritik irteteko: “Erori nintzen... beraz, banintzen”. Inoiz edo behin niregan bermatu zen jende pilo bat, arazoak zituenean neuregana jo edo urrunetik idazten zidana, ene aholkuetan eta biziarekiko jarreraren isilpean sinetsita. Pellokeria-saltzailerik ergelenak edo Rasputin eskrupulurik gabekoenak, jende askoren patuari eragiteko gauza izaki, nolabaiteko nortasuna izan behar du; hortaz, kontua zen jakitea zergatik eta non aldatu nintzen, non zegoen arrakala, zeinetatik jario baitzerizkidan etengabe eta goizegi, nik jakin gabe, adorea eta bizitasuna.

Oinazezko eta etsipenezko gau batean maletatxo bat egin eta mila milia egin nituen hartaz pentsatzeko. Dolarreko gela bat hartu nuen inor ezagutzen ez nuen herrixka aspergarri batean eta aldean neukan diru guztia poteko haragiaren, gaileten eta sagarren artean sartu nuen. Alabaina, ez dut inola ere iradoki nahi mundu jendeztatuegi batetik aukeran aszetismora egindako aldaketa hori inolako Ikerkuntza miresgarria zenik: bake santuan egon nahi nuen gogoeta egin eta jakiteko zergatik garatu nuen jarrera triste bat tristeziarekin, jarrera malenkoniatsu bat malenkoniarekin eta jarrera tragiko bat tragediarekin: *zergatik egiten nuen bat neure laztura edo errukiaren objektuekin*.

Denbora-pasa bikaina dirudi honek? Ez da hala: era honetako identifikazioak lorpenaren heriotza adierazten du. Halako zerbaitek eragozten dio jende zuhurrari lan egitea. Leninek ez zituen gogo onez jasan bere proletariotzaren sufrimenduak, ezta Washingtonek bere gudarosteare-

[6] William Ernest Henley (1849-1903). Editore eta poeta ingelesa. Gaixotasuna zela kausa, ezkerreko hanka galdu zuen eta honen ondoren *Invictus* poema sortu ere bai. Poema hau norberaren adorearen adierazpiderik ederrenetakotzat dute literatura ingelesean.

nak ere, ez eta Dickensek bere Londresko txiroenak ere. Eta Tolstoi nola-bait saiatu zenean bere burua bere arretaren objektuekin bat egiten, iruzurra eta porrota etorri ziren. Gizon hauek aipatu ditut beste inor baino hobeto ezagutzen ditugulako.

Gandu arriskutsua zen hori. Wordsworthek “lurreko loria hil zela” erabaki zuenean, ez zuen inolako premiarik sumatu berarekin batera hiltzeko, eta Keats Partikula Suharrak ez zuen inoiz etsi tuberkulosiaren aurkako borrokan, eta ez zuen azken momentuetan ere poeta ingelesaren artean egoteko itzaropena galdu.

Ene autoimmolazioa ilunpeak kutsaturiko zerbait zen. Nabari zen ez zela modernoa; beste batzuingan ikusita neukan, dozena bat gizon oho-retsua eta adimentsurengan ikusita neukan gerra ondoan. (Entzun dizuet, baina hori errazegia da, gizon horien artean baziren marxistak.) Begira nengoen bitartean, ene garaikide ospetsu bat jolasean ibili zen Ihesaldi Handiaren ideiarekin urte erdiz; ikusi nuen nola beste batek, bestea bezain gailenak, hilabeteak eman zituen eroetxean lagun hurkoarekiko ezain harremanik jasan ezinik. Eta etsia hartu eta amore eman zutenekin zerrendak egin nitzake.

Kontu horrek honako burutazio hau sorrarazi zidan: bizirik zirautenek halako ihesaldi osoa egin zutela. Hitz handiak dira hauek eta ezin dira jarri kartzelako ihesaldiaren aldean, zeren honelako kasuetan gizakiak ziur asko beste kartzela batera joko baitu, ez badute lehengo kartzelara itzularazten. “Ihesaldia” edota “gauza guztietatik alde egitea” kontzeptu ospetsu hori tranpa batean txango bat egitea da, tranparen barruan hegoaldeko itsasoak badaude ere, halako itsasoak pintatu edo nabigatu nahi dituztenentzat soilik baitira. Ezin gara itzuli ihesaldi oso batetik; konponezina da kontua, zeren iragana desagerrarazten baitu. Beraz, bizitzak ezarri zizkidan eginbeharrak, edota nik neure buruari ezarri nizkionak, berriro bete ezin nitzakeenez, zergatik ez kraskatu lau urtez plantak egiten ibili zen oskol huts hura? Idazle izaten segitu behar nuen, horixe bainuen bizimodu bakarra, baina harrezkero ez nuen inolako ahaleginik egingo gizakia izateko, atsegina, zuzena edo eskuzabala izateko. Anitz ziren honelako nolakotasunak ordezkaturiko zituzten txanpon aizunak eta nik banekien non lortu bost xentimo ordainduz dolar baten truke. Hogeita hemeretzi urtetan begi erneak ikasita dauka antzematen non ureztatzen duten esnea eta azukrea harearekin nahasten, non ematen duten imitaziozko harribitxia diamantearen ordeztu, eta iztukua harriaren ordeztu. Harrezkero, ez nuen berriro neure burua eman-

go: handik aurrera, emate guztia debekatuta egongo zen izen berri baten azpian, eta izen hori Eralgitzea zen.

Erabakiak aukeran pozez bete ninduen,aldi berean erreala eta berria den zerbaiten antzera. Nolabaiteko hasiera gisa, etxeratutakoan eskutitz mordoxka neukan paperontzira botatzeko, zerbait musu truk egiteko eskatzen zuten eskutitzak, honako gizonaren eskuizkribua irakurri, harako gizonaren poema merkaturatu, irratiz dohainik mintzatu, sarrera oharrak idatzi, elkarrizketaren bat eman, halako antzerki lanaren argudioan edo etxeko arazoren batean lagundu, adeitasun edo karitatezko ekintzaren bat burutu.

Prestdigitadorearen kapelua hutsik zegoen. Denbora luze batez kapelutik gauzak ateratzea nolabaiteko esku-jokoa izan zen, baina, harezkerok, metafora aldatzearen, jendea sorosteko zerrendatik kanpo nengoen sekula eta betiko.

Artean ere, hantxe zegoen sentipen zorabiagarri eta doilorra.

Hamabost urte lehenago Great Neckeko trenean egunero ikusten nituen gizon begi txikiak bezala sentitzen nintzen, biharamunean mundua kaosean iraulita ere, inolako ardurarik ez zeukaten gizonak, baldin eta beren etxeak onez irtengo baziren. Bat eginda nengoen haiekin, bat eginda honela zioten gizabanako arraitsuekin:

—Damu dut, baina negozioak halakoak dira.

Edo:

—Kontuan hartu beharko zenukeen hori, arazo honetan sartu baino lehen.

Edota:

—Ni ez naiz horretaz arduratzen.

Eta irribarrea, hara, irribarre bat eskuratu behar nuen. Oraindik nabil irribarre hori lantzen. Irribarre horretan lagun batzuen ezaugarriarik onenak nahasi behar dira: hotel zuzendariarenak, kontaktatu zahar eta eskarmentudunarenak, bisita egunean jendea hartzen duen ikastetxeko zuzendariarenak, igogailuzain beltz batenak, aurpegia alborikara ausarki ipintzen duen maritxuarenak, materiala merkatuaren prezioaren erdian eskuratzen duen ekoizlearenak, lan berri batez arduratzen den erizain iaioarenak, lehenengo iragarkia egiten duen modeloarenak, kamera ondoan ikuskaturiko estra itxaropentsuarenak, behatza infektaturik daukan dantzariarenak eta, jakina, Washington eta Beverly Hills artean

imintzio itxuragabea dela medio bizi behar dutenek erkidea duten adeitasun amultsuaren distira izugarria.

Ahotsa ere bai, irakasle batekin nabil ahotsa lantzen. Behin ahotsa onduz gero, laringeak ez du inolako konbentzimendu doinurik erakutsiko, neurekin hizketan ari denaren konbentzimendua izan ezik. Batez ere, ahotsari “Bai” hitza ahoskatzeko eskatuko zaionez, irakasleak (abokatu bat) eta biok horretan biltzen dugu arreta, baina ordu osagarrietan. Ikasten nabil nola ipini ahotsean garraztasun adeitsu hori, jendeari sentiarazten diona ez dela ongi etorria, ezta gutxiago ere, baizik eta jasan ezina dela, eta une oro analisi etengabe eta zorrotz baten mendean dagoela. Une horiek, jakina, ez dute irribarrearekin bat egingo. Ahots hori etekinik atera ezin diezaiokedan jendearentzat soilik gordeko dut, zahar higuatuentzat edo gazte borrokalarientzat. Haiei berdin izango zaie, ze arraio, gehienetan horixe jasotzen dute, nolanahi ere.

Aski da, ordea. Ez da fribolitate kontua. Gaztea izanez gero, baldin eta idatzi beharko bazenit ni ikusteko baimena eskatuta, horrela ikasi ahal izateko nola izan literatura gizon goibel bat, zeinak askotan egiten baititu idazleek beren sasoirik onenean sufritzen duten ahipen emozionalari buruzko idazlanak, hain gazte eta buruiritzi bazina hori egiteko, ez nizuke adieraziko ere eskutitza jaso dudala, oso pertsona aberats eta garrantzitsuren bati lotuta ez bazeunde, behintzat. Eta ene leiho ondoan goseak hilik bazeunde, azkar joango nintzateke kanpora eta irribarrea eta ahotsa (eskua ez, ordea) emango nizkizuke, eta hor inguruan geldituko nintzateke, harik eta norbaitek txanpon bat atera arte anbulantziari deitzeko, hau da, pentsatuko banu neuk ere zeozer aterako nukeela kontu horretatik.

Azkenean idazlea ez beste bihurtu naiz. Denbora osoan eredutzat neukan gizon mota halako zama bilakatu da, non “zakurraren salara” bidali baitut zinumurik gabe, larunbat gauean emakume beltz batek arerioa zakurraren salara bidaltzen duen modu berean. Bebil honela jende ona, hil daitezela lanez gainezkaturiko sendagileak lanean jo ta ke, urtean astebeteko “oporraldia” dutelarik, orduan familia arazoak zuzentzeari ekin baitiezaiokete; eta borrokan ibil daitezela sendagile langabe tuak pazienteak dolar baten truk hartzeko; hil daitezela soldaduak beren lanbidearen Valhallan berehala sartzeko. Honelako kontratua daukate jainkoekin. Idazle batek ez du halako idealik, bere buruari ezarri ezean, eta idazle honek etsi egin du. Gizon osoa izateko ametsa, Goethe-Byron-Shawen tradizioan, amerikar ukitu joria eta guzti, J.P. Morgan, Topham

Beauclerk eta Asisko Frantziskoa nolabait nahasiz, bazter utzia dago zabortegian, non baitautza Princetongo ikasle berrien errugbi-zelaian egun batez erabilitako sorbalda-babesak eta Europan erabiltzekoa zen baina Europan inoiz erabili ez zen boneta.

Eta zer? Orain hauxe uste dut: gizaki heldu eta sentiberaren berezko egoera zoritxar mugatua dela. Era berean, uste dut helduak bere baitan duen hobe izateko gogoa, “borroka etengabe hori” (hori esanez ogia irabazten duen jendeak esaten duenez) azkenean zoritxarrari gaineratzen zaiola, besterik gabe: gure gaztetasunaren eta itxaropenaren azkenarekin batera, hain zuzen ere. Lehen neukan zoriontasuna bera sarritan hurbiltzen zen halako estasira, non ezin bainezakeen partekatu gehien maite nuenarekin; aitzitik, kale eta kalearte isiletara eraman behar nuen, eta haren zatitxo batzuk baino ez zitzaizkidan iragazten liburuetakoko leerro txikietara... eta uste dut ene zoriontasuna, edo autoengainurako trebetasuna, edo nahi duzuen, salbuespena zela. Ez zen kontu naturala, artifiziala baizik, boom ekonomikoa bezain artifiziala; eta arestian bizi izan dudana esperientzia batera doa booma amaitutakoan herri osoa zigortu zuen etsipenezko boladarekin.

Asmo berriekin bizitzeko gauza izango naiz, hilabete batzuk behar izan ditudan arren horretaz ziur egoteko. Eta honela, Ameriketako beltzaren antzera, zeina bere estoizismo irribarretsuari esker izatearen kondizio jasanezinak pairatzeko gauza baita, bere egitasuna galduta, neure kasuan ere badago prezio bat ordaintzeko. Jadanik ez dut atsegin postaria, ez eta dendaria, editorea eta lehengusinarekin senarra ere; era berean, haiek ere ez naute gogoko izango. Beraz, honezkero bizitza ez da inoiz oso goxoa izango, *Cave Canem* ezaugarria betiko eskegita baitaukat etxeko ate gainean. Dena den, abere jende zuzena izaten saiatuko naiz, eta behar beste haragi duen hezurren bat botatzen badidazue, agian eskua miatzatuko dizuet.



IDAZLANAK AURKEZTEKO
JARRAIBIDEAK

Idazlanak aurkezteko jarraibideak

Egan aldizkariaren aro berriko xede nagusia literatura arloko ikerketa-artikuluak argitaratzea da. Sail horretan aldizkariak leku egin nahi die saiakera eiteko idazlanei ere. Orobat argitara emango dira literaturaz diharduten liburuen aipamenak. Beste diziplina bati atxikiak izan arren, literaturarekin ageriko lotura izan dezaketen lanak ere aintzat hartuko dira.

Literatura azterketen lerroa ez ezik sorkuntzarena ere zabalik du *Eganek*, eta poesia, narrazio laburrak eta itzulpenak biltzen ditu, aldizkariaren ibilbideari jarraituz.

Aldizkariaren bi ale kaleratzen dira paperean urtero, eta aurrerantzean Interneten ere argitaratu nahi dira.

Jatorrizko idazlanak aurkezteko jarraibide hauek irakurgai daude Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko bascongada.eus webgunean, argitalpenen sailean.

1. Jarraibide orokorrak

- Idazlan argitaragabeak onartuko dira.
- Jatorrizkoak Internet bidez bidali behar dira, Word edo LibreOffice formatuan, helbide elektronikoko honetara:
egan.bascongada@gmail.com.
- Ikerketa-artikuluak eta saiakera saileko lanak argitaratzeko, Erredakzio Kontseiluak bi kanpo-ebaluatzailearen iritzia jasoko du; gainerako idazlanek ez dute kanpo-ebaluaziorik izango. Artikuluaren testua anonimoa izango da. Egilearen datuak artikuluaren aparteko orrialde batean adieraziko dira: izen-abizenak, filiazioa (unibertsitatea, erakundea...), helbidea, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa.

- Urteko lehen alean argitaratzeko, jatorrizkoak martxoaren amaiera arte bidal daitezke eta bigarren alerako, irailaren 15a arte.
- Testuak euskara batuan idatzita eta ondoren zehazten diren arauetara egokituta bidaliko dira.

2. Artikuluaren egitura eta formatua

2.1. Egitura

Testua ikerketa-artikuluaren ohiko atalez osatua egotea gomendatzen da: sarrera (artikuluaren gaia, helburuak eta metodologia zehaztuz), artikularen erdiko atalak, ondorioak eta, amaitzeko, bibliografia eta eranskinak.

2.2. Formatu orokorra

- **Izenburua:** Times New Roman 14, letra xehe lodian, erdian lerrotatua. Azpian, letra mota berean, ingelesez idatziko da.
- **Laburpena** eta **gako-hitzak:** izenburuak Times New Roman 12, letra xehe lodian, ezkerrean lerrotatuak. Laburpenaren testua paragrafo bakarrean, eta ingelesez ere idatziko da. Gako-hitzak ere euskaraz eta ingelesez adieraziko dira, eta gehienez ere bost idatziko dira.
- **Testua:** Times New Roman 12, justifikatua, lerroarte bakuna. Paragrafoaren hasieran 1,25 cm-ko koska utziko da, eta paragrafotik paragrafora lerro zuri bat.
- **Atalak.** Maila hauek bereiziko dira: 1. Lehen maila (12, letra xehe lodia); 1.1. Bigarren maila (12, letra xehe lodia); 1.1.1. Hirugarren maila (12, letra lodi etzana). Guztiak ezkerrean lerrotatuta joango dira eta amaieran punturik gabe.
- **Ortotipografia**
 - Komatxo moten mailaketa: “xxx «xxx» xxx”. Komatxo bakunak (‘ ’) hitz bakanen adiera edo itzulpenak emateko erabiliko dira.
 - Puntua beti ixteko komatxoen ondoren idatziko da: “esan zuen”.

- Letra etzanez joango dira beste hizkuntza batean idatzitako hitz solteak, metalinguistikoki erabilitako terminoak, liburuen izenburuak eta aldizkarien edo egunkarien izenak. Halaber, letra etzanez idatziko dira izen-abizenen ondoan aipatzen diren goitzenak: Juan Jose Alkain, *Udarregi*; bakarrik doazenean, letra arruntez.
- Etzanean edo komatxo artean diren hitzen ondoko deklinabide-atzizkia marratxorik gabe idatziko da: *Eganen*.
- Siglak: maiuskula txikian.

2.3. Aipuak

- Lau lerro baino laburragoak “komatxo” artean testuan bertan jasoko dira. Aipu luzeak aparteko pasartean idatziko dira, testuko letra-tamaina berean, 2 cm-ko koskarekin lerro guztietan eta komatxorik gabe. Aipuaren aurretik eta ondoren tarteko lerro zuri bat utziko da.
- **Bertsoa** denean 2 cm-ko koskarekin sartuko da, baina “komatxo” artean. Bertsoen edo olerkien hitzak lerro betean idazten direnean, bertso-lerroak bereizteko zehar-marra erabiliko da eta alde banatan zuriunea utziko da: xxx / xxx.
- Salbuespen gisa bestelako jokabideak ere onar daitezke, testuaren segidak edo bestelako arrazoiek hala eskatzen badute.
- **Aipu barruko idazketa**
 - Aipuaren barruko paragrafo artean lerro zuririk ez sartu.
 - Idatzi gabe utzi den testu zatia kako zuzenen artean hiru eten-puntu jarrita adieraziko da.
 - Jatorrizko testuan ez dauden hitzak eransteako kako zuzenak erabiliko dira.
 - Egileak nabarmendu nahi dituen hitzak letra etzanez jarriko dira.
 - Oin-oharretako aipu luzeak koskarik gabe eta komatxo artean idatziko dira.

- Aipuaren amaierako puntua erreferentziaren ondoren ipiniko da.
- *Azpimarra gurea, itzulpena gurea* moduko oharrak kako zuzenen artean eta erreferentzia bibliografikoaren ondoren idatziko dira: (Biasi, 1998: 35). [Itzulpena gurea].

2.4. Oin-oharrak

- Oharren deia zenbakien bidez egingo da, eta zenbakia puntuazio-markaren aurretik joango da.
- Orri-oinetan agertuko dira, eta ez testuaren bukaeran. Orri-oinen letra-tamaina: 10.

2.5. Testu barruko erreferentzia bibliografikoak

- Autorea-urtea sisteman antolatuko da, modu honetan: (San Martin, 2001: 195-196).
- Autore ezberdinen aipamenak puntu eta komaz bereiziko dira: (Grésillon, 1990: 30; Hay, 2002: 41). Autore bakar baten lanak aipatzean ere hala banatuko dira: (Irigarai, 1953; 1954).
- Autorearen izena diskurtsoaren parte bada, aski da argitalpen urtea eta orriak adieraztea.
- Orrialde zenbakiak osorik idatziko dira: 316-319 (eta ez 316-9). Jarraikoak ez badira, komaz bereiziko dira: 5, 16.
- Liburukiak dataren ondotik jarriko dira, koma batez bereiziz: (Vinson, 1983, I: 5-46).

2.6. Bibliografia

- Atal honetan zerrendatuko dira testuan zehar erabili diren erreferentzia guztiak, eta ez besterik, **Bibliografia** izenburupean: Times New Roman 12, letra xehe lodian, ezkerrean lerrotatua.
- Sarreren artean lerro zuririk ez, baina bigarren lerrotik aurrera 1 cm-ko koskarekin.
- Hurrenkera alfabetikoan antolatuko da. Autore batek lan bat baino gehiago duenean, sarrera bakoitzean errepikatuko da bere ize-

na. Autore baten lanak kronologikoki zerrendatuko dira, eta urte bereko argitalpen bat baino gehiago aipatzen bada, letrak ezarriko dira urtearen jarraian: 1981a, 1981b... Beste autore batekin edo batzuekin egindako lanak bakarka egindakoaren ondoren joango dira, alfabetikoki eta kronologikoki zerrendatuak.

- Deitura(k) letra xehean, hasierakoa(k) salbu. Izena, osorik. Autore bat baino gehiago dagoenean puntu eta komaz bereiziko dira, eta azken autorearen aurretik “&” zeinua jarriko da: Deitura, Izena; Deitura, Izena & Deitura, Izena. Hiru autoretik gora *et al.* laburdura erabil daiteke, letra etzanez.

- **Liburuak**

Deitura, Izena, argitalpen urtea, *Izenburua*, Argitaralekua: Argitaletxea.

Artze, Joxan, 2013, *Bizitzaren atea dukegu heriotza*, Donostia: Elkar.

- Sailak eta bildumak argitaletxearen ondotik idatziko dira, koma batez bereiziz:

Kardaberaz, Agustin^{js}, 2004 [1761], *Eusqueraren berri onac*, Bilbo: Euskaltzaindia, Euskararen lekukoak 23. (Altuna, Patxi & Zulaika, Esther arg.).

- Informazio gehigarria erantsi nahi denean, amaieran idatziko da kako zuzenen artean:

Bourdieu, Pierre, 1992, *Les règles de l'art. Genèse et structure du champ littéraire*, Paris: Seuil. [Gazt. ed., Kauf, Thomas, 1995, *Las reglas del arte. Génesis y estructura del campo literario*, Bartzelona: Anagrama].

- **Liburuetako kapituluak**

Deitura, Izena, argitalpen urtea, “Izenburua”, in Argitaratzailearen deitura, Izena (arg.), *Izenburua*, Argitaralekua: Argitaletxea, orrialdea-orrialdea.

Mitxelena, Koldo, 1981, “Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak”, in Tovar, Antonio *et al.* (arg.), *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 259-278. [Berrarg., 2011, OC XIII, 211-231].

- Izenbururik gabeko sarrerek edo hitzaurreak kako zuzenen artean adieraziko dira:

Mujika, Luis Mari, 1979, “[Hitzaurrea]”, in Lekuona, Juan Mari, *Ilargiaren eskolan*, Donostia: Erein, 7-14.

- **Artikuluak**

Deitura, Izena, argitalpen urtea, “Izenburua”, *Aldizkariaren izena zenbakia*, orrialdea-orrialdea.

Etxeberria, Gillermo, 2001, “Euskal kultura eta literatura 50eko hamarkadan”, *Egan* 3/4, 5-8.

<<http://www.liburuklik.euskadi.eus/jspui/handle/10771/28548>>

- **Egunkariak**

Egunkari baten data osoa eman behar denean, egilearen atzetik urtea bakarrik idatziko da eta data osoa egunkariaren izenaren ondotik:

Sarasola, Ibon, 2016, “Gabriel Arestiren *Harri eta Herri*-tik desagerturiko bi poema”, *Berría* 2016-02-23.

- **Argitalpen elektronikoak** < > artean: <<http://journals.openedition.org/lapur dum/1211>>.
- Argitalpenari **DOI** identifikatzailea (*Digital Object Identifier*) esleitu bazaio, urla ordezkaten du: doi: xx.xxxx

3. Artikuluaren ebaluazioa

Ikerketa-artikuluak argitaratzeko, binakako ebaluazio sistema (itsu bikoitza) erabiliko da, zehazten den prozedura jarraituz. Jatorrizko artikulua jaso ondoren, lehenik Erredakzio Kontseiluak aztertuko du, ebaluatzen onartzen edo baztertzen den erabakitzeke. Artikulua aldizkariak ezarritako arauetara egokitu ez bada, atzera bota dezake Erredakzio Kontseiluak. Hala gertatuz gero, artikulua egileari itzuliko zaio moldaketak egin ditzan. Edozein kasutan, behin jatorrizkoa jasota, egileak astebeteko epean erabakiaren jakinarazpena jasoko du.

Artikulua ebaluatzen onartzen bada, bi kanpo-ebaluatzailei bidaliko zaie azter dezaten. Haien hilabete izango dute artikulua onartu, bal-

dintzapean onartu edo baztertu erabakitzeko. Ebaluatzaileen iruzkin eta iradokizunak egileari itzuliko zaizkio eta hamabost eguneko epea izango du testu zuzendua bidaltzeko.

Argitaratu aurretik, egileak lanaren testu maketatua jasoko du eta astebeteko epea izango du egon daitezkeen akatsen berri eman dezan. Egileak zuzenketak bidali ezean, testua ontzat eman duela ulertuko da, edo aldizkariko arduradunak egingo ditu zuzenketak, horien gainean inolako erantzukizunik izan gabe.

Argitalpenaren ondotik, egileei aldizkariaren ale bana eta haren PDFa ere emango zaizkie.

2018 3/4

Patxi SALABERRI MUÑOA. Iragana etorkizunerako abiapuntu

Iñaki ALDEKOA. Ramon Saizarbitoria eta Joxe Azurmendirekin solasean

Iker LEGARRETA. Euskal nazionalismoa Ramon Saizarbitoriaren *Martutenen*

Jon ITURREGI IKARAN. Metafikzioa eta memoria historikoaren elkarlana
Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semean*

Ainhoa URZELAI VICENTE. *Jenisjoplin*: identitatearen berrasmatzea

Aitor ORTIZ DE PINEDO. Gizartea Jean Etxepareren idazlanetan: adabakiak

Beñat SARASOLA. *Mundu-ikuskerak euskal narratiba garaikidean* (G. Mercero)

SORTZE LANAK

Iñigo ASTIZ eta Angel ERRO. Itxaro BORDA, Jon GEREDIAGA.

Miren Agur MEABE, Ainara MAIA URROZ, Javi CILLERO.



Marx Salazar Comma Felipe



EGAN

LITERATURA ALDIZKARIA
EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA